DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

ARNALDO OTEGIrekin
talde-lanean

Esku artean duzun hau azken hilabeteotan egindako talde lan handi baten emaitza da. Gure asmoa ez da lan hau helburua izatea, baizik eta prozesu kolektibo baten hasiera, gure herrian dagoen inteligentzia kolektiboa bideratzeko asmoarekin egina. Euskal Herriak duen gaitasuna, bere jendeak eta bere agente ekonomiko, sozial, politiko eta herritarrek duten gaitasuna... da honaino iristea lortu duena, aurrera jarraitzea lortu duena, herri gisa zein jendarte gisa. Herri bizia gara, bidean dauden pertsonez osatua, aurrera egiteko gogoa duen jendartea. Horregatik uste dugu unea iritsi dela gaitasun guzti hori batu, berritzeko gogo guzti horiek elkartu eta etorkizunara begira jartzeko, euskal gizartearen zerbitzura.

Europako herririk justu, demokratiko eta duinena izateko bideari ekiteko gogotsu gaude. Pertsonengan begirada jarriko duen herria eraiki eta inguruan dituen herrien ongizatea bilatuko duena. Berrikuntzan puntakoa den herria, herritar guztien ongizatea bermatuko duten zerbitzu publikoekin, jendarte osasuntsu eta kultoa sortzen lagunduko dutenak. Kalitatezko enpleguaren sorreran erreferentzia izatea da gure helburua, formakuntzan erreferente, gizarte babesean zein gure gazte zein helduen zaintzan erreferente. Guk nahi dugun gizartean aberastasunaren banaketa ekitatiboa izango da, eta guztiok helburua eraikitzeko dugun esfortzuak batuko dira. Lana elkarrekin egiten dituzten pertsonez osatutako herria, jaioterriarekiko independiente. Gure nahia herri justu bat da, herritartasun askeak garatzeko aukera eskaintzen duena, parekidea, genero, sexu edo jatorrien arteko diskriminaziorik gabekoa. Hezkuntza eta kultura eskuragarri dituen jendartea, hazkuntza pertsonal eta kolektiboaren oinarri. Bere aberastasunik handiena zaintzen duen herria: bere lurra, bere itsasoa, bere natura-baliabideak. Guztiontzako herria nahi dugu, hemen bizi garen guztiok egina, gure behar eta gure nahien arabera.

Horregatik, gaur, bide honi hasiera ematen diogu, guztiok elkarrekin, herri gisa, margotzen hasi garen etorkizun horretara heltzeko behar ditugun eztabaida guztiak hasi ahal izateko. Ez gara gu izango eztabaida horiek zuzenduko dituztenak: nahi dugun bakarra gure iritzi eta proposamenak mahai gainean jartzea da, etorkizuneko Euskal Herriaren gaineko gure ikuspegia. Herri honetan bizi garen milaka pertsonen inteligentzia kolektiboak eztabaidari helduko diogu, ez dugu inongo dudarik horren gainean. Milaka pertsona horiek, herritar guztiak, izango garela eraiki nahi dugun herrialdea nolakoa izango den erabakiko dugunak. Helburu handiak ditugu aurrean, guztiok elkarrekin heltzeko erronkak, denon herri amestu horretara bideratuko gaituztenak.

Lurralde txiki bat gara, baina herri handia gara. Posible da. Ziur gaude.

Helena Franco, Jose Mari Usatorre, Unai Pascual, Nerea Idigoras, Iratxe Esnaola, Kepa Altube, Eider Rodriguez, Idurre Eskisabel, Txabi Landabide, Unai Asurmendi, Oihana Etxebarrieta, David Fernandez, Esther Larrañaga, Iñigo Iruin eta Arnaldo Otegi.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Industria

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Errentak

ERRENTA NAHIKOAK KALITATEZKO BIZITZAK BERMATU AHAL IZATEKO

1. Gobernu demokratiko orok, interes orokorraren eta guztion ongizatearen interesen ordezkari diren heinean, bere gain hartu behar du herritar guztiei abiapuntutik oinarri materiala bermatzeko jendarte aurreratua eraikitzeko helburua. Botere publikotik esku hartzeko egiten diren proposamenek ikuspuntu integral baten arabera diseinatu behar dira, pobreziaren aurkako eta herritar guztien bizi-kalitatearen aldeko borrokaren ikuspuntutik. Proposamen horiek, gainera, estrategia eraginkor bat egituratu behar dute, jendartean dauden egoera eta kolektibo anitzak kontutan hartuz. Estrategia horrek bi ekinbide jaso behar ditu bere baitan: enpleguaren eremua eta prestazio sozialen bidezko birbanaketa. Ekinbide horiek, zehatzago adierazita, honako helburu hauek dituzte:

(i) lan egiteko moduan dagoen biztanleria aktiboaren okupazioa erraztea, hau da, enplegua eskuratzea bermatzea, errenta-iturri gisa eta herri honen aberastasuna sortzeko ekarpen gisa

(ii) prestazioak oinarri dituen behar adinako sistema artikulatzea, enpleguaren munduarekin harreman eza aitortzen zaien kolektiboentzat (haurtzaroa, adin nagusiko pertsonak, desgaitasunen bat duten pertsonak).

Hala ere, gaur egun bizi dugun langabezia eta prekarietate egoeran, eta lan-harremanetarako esparruak kalitate eta segurtasun estandar onargarriak berreskuratzen dituen bitartean, “pobrezia enpleguan” delakoari aurre egiteko duintasunez bizitzeko nahikoa errenta eskainiko duen ordaindutako enplegua lortu ezinda dabiltzenei transferentzia publikoa egiteko sistema gehigarriarekin osatu behar da.

2. Politika publiko integralak, pobreziari aurrea hartzeko ez ezik, ongizate maila duinak eskuratzeko aukera unibertsala bermatuko duenak, gobernuen konpromiso erreal eta zintzoa behar izateaz gain, esparru juridiko eta arautzailean aldaketak burutzea dakar, bai eta diseinatutako estrategian barnebilduko diren programa eta neurriak bermatzeko nahikoa finantzazio izatea ere.

Zalantzarik gabe, eta euskal administrazioek (inguruko ekonomiekin alderatuta[1]) dituzten baliabide publiko murriztuak kontutan hartuta, nahikoa behar duen finantzazio horrek sistema fiskalean aldaketa nabarmenak dakartza, progresibitate gehiagoranzko norabidean. Aldaketa horiek guztiei zerga-kudeaketaren kontrolean esfortzu handiagoak gehituz (ikuskaritza eta iruzur fiskala antzemateko jarduerak barne), diru-bilketarako oinarriak ezarriko lirateke.

Mekanismo osagarri gisa, zorpetze publikorako aukera ere aztertu beharko litzateke, beti ere egungo zein etorkizuneko sektore publikoarekiko ardura eta defentsaren ikuspuntutik egiten bada.

3. Arautzea eta aurrekontu-politika ekintza politikorako ohiko tresna klasikoak dira edozein gobernu burujabek bere funtzioak bete ahal izateko; printzipioz, gainera, horien gaineko eskuduntza osoa dute, estatu horrek berak adostutako nazioarteko eta instituzio-arteko konpromisoen ondorioz izan ditzaketen mugak kontutan hartuta.

Hego Euskal Herrian geure burujabetza ekonomiari dagokionean, hein handi batean, estatu espainiarrak eta haren instituzioek juridikoki ezarritako xedapenen menpe geratzen da; beraz, beste batzuenak diren, hain aurreratuak ez diren eta, gainera, geure ehun produktiborako egokiak ez diren lehenespenen arabera diseinatutako esparru instituzionalaren menpe.

Hala, lan-arautegia estatuaren eskumen esklusiboa da, Gizarte Segurantza den bezalaxe edota, fiskalitateko zenbait eremu erabakigarritan, zeharkako zergak adibidez, ezartzen dituen mugak bezalaxe.

Gainera, estatu espainiarraren arabera, oinarrizko arautegiak beti irismen handia duenez, haren esku-sartzeek geroz eta eragin handiagoa dute euskal instituzioek erabakitzeko duten gaitasunean; hala nola, aurrekontuetan (defizita eta zorpetzea), enplegu publikoan (kualtitatiboki zein kualitatiboki), edo kontratu eta diru-laguntzen esparruan, besteak beste. Horiek guztiak gutxi balira, norabide birzentralizatzaile horretan etengabe erabiltzen dute Epaitegi Konstituzionala.

Horren guztiaren aurrean, eta geure behar, xede eta gaitasunak kontutan hartuko dituzten politikak diseinatzeko, ikuspuntu bikoitz batekin lan egin beharrean gaude: (i) euskal estatua eratzeko bidean urratsak ematea, baita biziraupen ekonomikoa eta aurrerapen sozialari dagokionean ere, baina era berean, (ii) gaurdanik, egungo esparru konstituzionalak

1. Azken datuen arabera, EAEri dagokion presio fiskala % 32koa da (ELAk 2014an eskainitako datua), estatu espainiarrekoaren azpitik (% 34,4) eta Europako batezbestekotik 8 puntura (% 40) eta oso urrun Danimarka (% 50,8), estatu frantsesa eta Belgika (% 47,9), Finlandia, Italia, Suedia edo Austria (% 44 inguru) bezalako herrietatik (EUROSTAT 2014ko datuak).

eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatzeko gaitasuna izatea, haren irakurketa zabal bat eginez eta ahalik eta akordio eta adostasun politiko eta sozial handienarekin, gaur egun euskal herritarrok ditugun beharrei erantzuteko.

4. Zentzu horretan, bi plano horietan ekin ahal izateko, tresna eraginkorrak eskuratu behar ditugu. Geure herriak burujabetza ekonomiko handiagoak ez ezik, baita justizia sozial gehiago eskuratzeko bideari estatu espainiarrak oztopoak baino ez dizkio jarri eta aipatu bezala, eskuratu beharreko tresna eraginkor horiek estatuaren ofentsibari aurre egiteko ezinbesteko ditugu.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren menpe legokeen Autogobernua eta Burujabetza Ekonomikorako Sailburuordetza sortzea proposatzen dugu; Sailburuordetzak bi Zuzendaritza Nagusi izango lituzke, bata estatuarekiko afera ekonomiko eta finantzarioetarako, eta bestea Europa eta nazioarteko gaietarako (ikus aurrerago funtzioak eta jarduera-eremuak)

5. Gorago esan dugun bezala,gobernu zentralaren politikek garamatzaten narriadura produktibo eta sozialaren aurrean besoak gurutzaturik geratzea eta burujabetza ekonomiko gehiagoren zain geratzea gaurdanik eraldaketarako proposamenik egin gabe arduragabetasun handia litzateke.

Zehazki, lantzen ari garen esparruan, eta proposamen hauek akastunak eta mugatuak izan eta gainera, oztopoak izan baditzakete ere, esku hartzeko zenbait ildo proposatzen ditugu giltzarritzat hartzen ditugun hiru eremutan: enplegua, pentsio-sistema eta haurrenta.

Ohar labur bat Autogobernua eta Burujabetza Ekonomikorako Sailburuordetzaren inguruan

Euskal Herriaren etorkizuna herri hau osatzen dugun pertsona eta erakundeen (politiko, ekonomiko, sozial, kultural...) gaitasunak behar bezala aprobetxatzen jakitearen menpe dago, geure xede kolektiboen arabera, ekonomia, jendartea eta ingurumenaren ikuspuntutik bideragarri eta jasangarri izango diren eskenatokietarantz urratsak eman ahal izateko.

Horretarako, ezinbesteko zaigu eskenatoki berri horietarantz joateko aukera eskainiko diguten politika, mekanismo eta adostasun zabalak eskuratzeko tresna egokiak lortzea. Gaur egun edozein estatu burujabek dituen tresna juridikoak eta esku hartze publikorako tresnak eskuratzeaz ari gara.

Egungo autogobernu mugatua eta estatu espainiarrak hartzen dituen erabaki sozio-ekonomikoen menpekotasuna abiapuntutzat hartuta, burujabetza ekonomikoan sakontzeko ildo bat prestatzen eta lantzen hastea proposatzen dugu helburu bikoitzarekin: politika ekonomikoaren oinarrizko gaietan esku hartzeko dugun aukera pixkanaka handitzen joatea; eta, era berean, estatuarekiko etorkizuneko deskonexioak izan behar dituen gaiak lantzen hastea. Halaber, nazioarteko eremuan ekonomikoki, fiskalki eta finantzarioki txertatzen joateko mekanismoak ezartzen joango ginateke (EB, kooperazio ekonomikorako nazioarteko beste erakunde batzuk).

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren menpe legokeen Autogobernua eta Burujabetza Ekonomikorako Sailburuordetza eratzea proposatzen dugu; Sailburuordetzak bi Zuzendartiza Nagusi izango lituzke, bata estatuarekiko afera ekonomiko eta finantzarioetarako, eta bestea Europa eta nazioarteko gaietarako.

Sailburuordetza horren helburua oinarrian, egungo marko juridikoaren muga eta aukeren azterketa zorrotzerako etengabeko lan dinamikoa egitea litzateke, geure autogobernu mailak berreskuratu, sendotu eta handitzeko helburuarekin.

Jarraian, aipatu organorako lan-ildo batzuk aurkezten ditugu.

Estatuarekiko Gai Ekonomiko eta Finantzarioetarako Zuzendaritza

1. Egungo finantza-fluxuak (kupoa) berrikusi, trantsizio-eperako eguneraketa egin eta bertan behera uzteko baldintzak zehaztu.

2. Esparru fiskalean: arautze-eskumenak hartzeko mekanismoak ezarri (zeharkako zergak, enpresa handien arautzea, ikuskaritza); ebatzi gabe dauden espediente gatazkatsuak ebatzi (enpresa handiak...); informazio fiskal eta finantzarioaren elkar trukea.

3. Esparru sozio-laboraleko eta gizarte segurantzako eskumenak berreskuratzen joan.

4. Finantza publikoen eta politika publikoen kontrola berreskuratzen joan (defizita eta zor publikoa, kontratazioa eta diru-laguntzak, enplegu publikoa).

5. Euskal unibertsitate-sistemaren eta Zientzia eta Teknologiako sistemaren kontrol errealeranzko urratsak eman.

6. Euskal finantza-sistema arautu.

7. Estatuaren aktibo eta pasiboak mugatzen joan eta banaketarako irizpideak ezarri

Aktiboak: kanpo-aktiboak, Gizarte Segurantzaren kutxa bakarra, RENFE, nahi ez diren beste aktibo batzuk (AHT), beste aktibo publiko batzuk Euskal Herrian (azpiegiturak, eraikinak, ekipamenduak). Beste enpresa publiko batzuk. Pasiboak: zor publikoa, beste pasibo batzuk…

Banaketarako irizpideak: biztanleria, aberastasuna, defizit historikoa...

8. Esparru estrategikoetan eskumen gehiago eskuratzen joan, garapen ekonomiko integrala lortzeko, hala nola: nekazaritza-politika, industria-politika, energia-politika eta telekomunikazioen sektorea

Europako eta Nazioarteko Gaietarako Zuzendaritza

1. EBrekin negoziazioa aduanen errentarako kudeaketaz

2. EBrekin informazio fiskal eta finantzarioaren elkar trukea

3. EBrekin berariazko solaskidetza. Lehen urratsa: ECOFINen parte hartu

4. Euskal Herrian politika europarren garapenerako eta egiturazko funtsak esleitu eta erabiltzeko bideak ezarri

5. Euskal Herri osoa hartuko duen eta EBrekin solaskide izango den erakunde europarra garatu

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Enplegua

ENPLEGU POLITIKA INTEGRAL ETA ERAGINKORRA:

Enplegu duina, kalitatezko bizitza, guztiontzat

HERRIAREN EGOERA

1. Enpleguaren gaia, hainbat arrazoirengatik, pertsona gehienon bizitzan oinarrizko elementu dugu.

Dauden arrazoi guztien artean, ziurrenik funtsezko eta agerikoena[2], enpleguari lotutako ordainsaria geure errenta-iturri nagusia dela izango litzateke. Ordainsari horri esker, ongizate maila onargarrietan geure beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuak eskuratu ditzakegu. Zentzu horretan, pobreziaren aurrean babesteko oinarrizko mekanismoa eta esklusio soziala ekiditeko bide eraginkorra da.

Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa enplegua herritarren kezka nagusiena izatea. Kezka horrek, beste garai batzuekin alderatuta, alde bikoitza du, enplegu eza ez ezik, dauden enpleguen kalitate txarra ere kezka iturri baita.

Baina enpleguaren problematika ezin da harekin erabat lotuta dauden beste errealitate batzuetatik deslotu: (i) alde batetik, lan erreproduktiboa, aintzat ez hartzea eta banaketa desberdin eta bidegabea, emakumeen kaltetan; (ii) bestetik, diru-laguntza eta prestazio sozialen menpeko landun pertsonen kolektiboa areagotzea. Kolektibo horretan, ez dira langabeziaren prestazioa jasotzen dutenak barne-biltzen, langabeziagatiko laguntzarik ez duten epe luzeko langabetuak, familiaren elkartasunaren eta errenta-publikoen programa ez nahikoen menpeko direnak ere baitaude. Halaber, ordainsaridun enplegu bat izanda ere, egungo lan-harremanen eta soldaten prekarizazio-prozesua dela eta, pobrezian dauden langileak ere bertan barne-biltzen dira.

2. Nahiz eta bakarra ez izan, sozializazioari eta bizitza sozialari lotutako beste arrazoi batzuk, formazioa eta ikaskuntza, aitortza soziala eta autoestimua... ere baitaude.

2. Azken hamarkada hauetako ofentsiba neoliberalaren fronte nagusienetako bat, sektore publikoarekiko erasoarekin batera (esku hartze publikoaren desarautzea eta uzkurtzea esparru produktiboan zein sozialean), langileek hazkunde ekonomikoaren banaketan geroz eta parte-hartze txikiagoa izatea izan da, soldatak jaitsiz, langabezia areagotuz eta lan-eskubideetan atzera urratsak emanez.

Joera hori, Atzeraldi Handiaren fase ekonomiko berrian sartu bezain laster, 2007tik aurrera indarrez ezarri zen, nahiz eta finantza eta higiezinen burbuilaren urteetan moteldua izan. Bankuen krisiak eta boteretik hari aurre egiteko proposatzen dituzten errezetek (familia eta enpresei kreditua eskuratzeko aukerarekin amaitzea; funts publikoa finantza-sistema konpontzera bideratzea; gastu publikoaren kontrol eta murrizketa publikoak, bereziki sozialak) egoera larriagotu baino ez dute egin.

Ondorioa ekonomiaren geroz eta dualizazio handiagoa izaten ari da, aurrez ezagutu ez dugun aberastasunaren eta boterearen kontzentrazio-mailekin; halaber, onartezinak diren pobrezia mailen betikotzea eta langile eta herri sektoreen geroz eta esplotazio handiagoa lan- eta gizarte-eskubideen etengabeko urraketarekin. Langabezia eta lan- eta bizitza-baldintzen geroz eta narriadura handiagoa garapen-eredu dominanteak eskaintzen digun agertoki berriaren parte dira.

3. Euskal Herrian, lan-esparruan inongo eskumenik ez izateak, gobernu zentraletatik ezarritako lan-politiken menpekotasun osoa dakarkigu. Lan-politika horiek langileon eskubideak murrizteko pentsatuak izan dira, beherapena helburu duten erreformen bidez. Soldata baxuetan eta kontratu prekarioetan (aldi baterako eta jardunaldi ez osoko kontratazioaz gehiegi baliatzen dena) oinarritutako eredua gure herriaren kaltetan doa, errentaren banaketan eta kohesio sozialean ez ezik, geure ehun produktiboaren etorkizunari dagokionean ere, prezioen araberako lehiakortasuna eta langile-kopuruak azkar moldatuz malgutasuna lehenesten baititu, kalitatezko soldata, antolaketa eta egonkortasunerako baldintzak sustatu beharrean, azken horiek badira ere enpresen baitan formakuntza eta ikasketa, berrikuntza eta egokitzapena lortzeko oinarrizko jarrerak.

Herritar guztien zerbitzura egongo den herri-proposamenak lan-estrategia eraginkorra behar du eta horretarako, erabakitzeko ahalmen nahikoa behar du ezinbestean honako eremu hauetan:

> (i) oro har, lan-arautegian,langileen eskubideak bermatzeko markoa diseinatu ahal izateko (puntu nagusi gisa, gutxieneko soldatak, kontratazioa eta kaleratzea arautzea eta negoziazio kolektiboa); (ii) enplegu eskaintza-publikoei dagokien eta horien ezaugarriak definitzeko administrazio publikoek duten aukeren inguruko arautegia

(adibidez, berritze-tasa bezalako kontzeptuak); (iii) lanaldian eta lan-denborak antolatzeko eredu berri bat sustatzeko arau-aldaketak; (iv) diru-laguntza eta kontratazio publikoari buruzko arautegia, zenbait baldintza ezartzeko mugei dagokienean (sortu beharreko enpleguen ezaugarriak, klausula sozialak, ingurumen-kalteak...) enplegu pribatua sortzeko politika pizgarrietan.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Enplegu-politika osoa ezartzea dugu helburutzat, politika eraginkorra, gizarte aurreratu baten nahairekin bat datorrena, eta gure ekonomia-ehunak etorkizunean irauteko estrategia baten barruan kokatua. Gizarte-justiziaren eta giza garapenaren ikuspegitik, aukera erreal bakarra proposamen sendoak taxutzea da. Horrelakoek,enplegua lehentasunezko helburutzat eduki ez ezik, gaur egungo garapen-eredu kapitalistaren mugak ere hartu behar dituzte kontuan, bai ingurumenaren zein ekologiaren alderdiari dagokionez, bai alderdi sozialari dagokionez. Halaber, erreprodukzio-lana ere hartu behar dute barne, eta gizarte- eta lan-baldintzak ezarri behar dituzte, lan horri modu kolektibo eta ekitatiboan ekiteko.

Enplegu-estrategiak, Euskal Herriko egoera soziolaboralari erantzun nahi badio, asmo handiko jarrera batetik heldu beharko dio erronka zail horri, egoera horren erabateko eraldaketa bilatuz, hain zuzen ere. Hori horrela, hiru esku-hartze lerro hauek proposatu nahi ditugu: enplegua sortzea (publikoa zein pribatu eta kooperatiboa), lana banatzea eta dauden enpleguetan (baita berrietan ere) lan-baldintzak duintzea.

Kalitateko enplegu duinaz hitz egiten dugunean, berriro definitu behar ditugu lan-harremanaren baldintzatzaile nagusiak, prekarietate eta gainesplotazioko egoerak prebenitu eta desagerrarazteko. Hartarako, beharrezkoa da, beraz, hainbat elementu berrikusi eta baldintzatzea, hala nola soldatak, kontratuen egonkortasuna, segurtasun- eta higiene-baldintzak, lanaldia edo lan-ordutegiak, baita azken horiek bizitzaren erritmoekin bateragarri diren ere.

Enplegu publikoari dagokionez, proposamen honetan haren garrantzi erlatiboa areagotzearen alde egiten dugu, egiturazko izaera iraunkorrarekin, gutxienez Europako inguruko ekonomietako batez besteko mailetara hurbil gaitezen, nola langile publikoen kopuruan

hala zerbitzu publiko eta sozialak garatu eta handitzeko orduan.

Eremu pribatuari dagokionez, botere publikoen jarduna enplegu egonkorra eta duina sortzea bultzatzera egon behar da bideratuta; eta ekoizpen-ehunaren eraldatze estrategikoaren ikuspegik, teknologikoki aurreratuak eta ekologiko jasangarriak diren industriak lehenetsi behar ditu. Horrekin batera, ekonomia sozial eta kooperatiboa ere bultzatu beharra dago, orobat.

Lan-denboraren banaketari dagokionez, berriz, ekoizpen-indarren gaur egungo garapen -mailak aintzat hartuta, ezinbestekoa da ordaindutako lanaldia murriztearen egokitasuna defendatzea produktibitate-irabaziak birbanatzeko tresna izan dadin; birbanaketa hori produktibitate-faktoreen artean gauzatu behar da (lan- eta kapital-errentak), baina baita sektore dinamikoenetatik ekonomiaren gainekorantz ere, era horretan enplegu betea lortu ahal izateko eta, bide batez, baldintza objektibo hobeak sortzen laguntzeko, ordaindu gabeko lanaren banaketa bidezkoagoa lortuta horri esker.

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Aurreko lerrokadetan azaldutako politika hori lan-munduari dagokionez ditugun helburuen erakusle da, baina muga argia du aurrez aurre EAEren eta Estatuaren arteko oraingo eskumen-banaketaren ondorioz. Horregatik, hain zuzen ere, arlo horretan autogobernuan aurrera egitea eta, ondorioz, horretarako formulak bilatzea kezka nagusien artean sartu beharra dago, arduradun politikoentzat ez ezik, baita gainerako eragile sozial eta ekonomikoentzat ere

Autogobernu-defizit horrek, halere, bestelako tresnak bilatzera behartzen gaitu, gaur -gaurtik enplegu-krisiaren eta, aldi berean, erreprodukzio-lanaren oraingo errealitatearen ordezko aukera bat, modu inperfektuan bada ere, eraiki ahal izan dezagun.

- Negoziazio kolektiboaren eremua indartzea. Lanbidearteko hitzarmenetan (interesgarriena, haren aplikazio-eremua handiagoa delako) zein sektorekako edo enpresako hitzarmenetan ezar daitekeen arautzeaz ari gara. Zentzu horretan erakundeek, zilegitasun zein lidergo sozial eta politikoa oinarri hartuta, lan-baldintza duin eta egonkorrak bermatzen dituzten akordioak lortzea bultzatu, sustatu eta erraztu ahal eta behar dute, horrelako akordioek zehazki ekonomiari ez ezik, gizarte osoari ere ekartzen baitiete onura.

- Autonomia- eta foru-erakundeek estimulu ekonomikoen bidez ere eragin dezakete (era askotakoak: diru-laguntza, zerga-hobariak), edota kontratazio-baldintzetan eskakizun jakin batzuk ezarriz, gizarte-klausulen bitartez, edo enplegu publikoaren gaineko politikaren beraren bidez.

Herri gisa gure buruari eskain diezazkiogun tresna eta mekanismoak eraginkortasunez eta uztartuta erabiltzea oinarri hartuta, hau proposatzen dugu: (i) enplegu publikoa sortzeari dagokionez, inguruko herrialdeetako mailetara gerturatzea; (ii) sektore pribatuan, enplegu-sorrera bultzatzea etorkizuneko sektoreetan (trantsizio ekologikoari eta berrikuntza teknologikoari lotutakoetan).

Enplegu publikoa sortzea

Enplegu publikoa lehen mailako tresna da enplegu-politiken ikuspegitik; gainera, Euskal Herrian garatzeko tarte handia du, enplegu publikoaren arloan defizit kezkagarria baitugu (Europako iparraldeko ekonomiekin bakarrik ez, baita EBko edo ELGEko herrialdeen batezbestekoarekin ere alderatuta). Paradoxikoa bada ere, enplegu publikoa sortzeko zuzeneko helburua gutxitan agertzen da halakotzat argi eta garbi azalduta gobernu ezberdinen enplegu-estrategietan.

Errentagarritasun pribatu hertsiaren aurrean, enplegu publikoak sortzeko orduan gizarte-errentagarritasuneko zein interes publiko/kolektiboko irizpideak hartu behar dituzte kontuan, besteak beste; horrez gain, antzemandako premia sozioekonomiko nagusiei erantzuten dieten produkzioak lagundu behar dituzte, eta, era horretan, oinarriak ezarri behar dituzte garapen ekonomiko eta sozial orekatu eta jasangarria bermatzearren.

Lehentasunezko hiru arlo nabarmenduko genituzke, ezbairik gabeko atzerapena baitugu horietan gure inguruko gizarte aurreratuenen aldean:

a) Ongizate-estatuaren nukleoa osatzen duten jarduerak. Hau da, hezkuntza, osasuna edo pertsonak zaintzeko zerbitzuak, besteak beste; horietan, gaur egun eskainitakoen kalitatea hobetzeaz gain (azken urteotan izandako murrizketa sozialek oso eragin handia izan dute sektore horietan), estalita ez dauden, edo behar bezala estalita ez dauden, oinarrizko beste zerbitzu batzuetan eskaintza handitzeko aukera emango luke (hala nola odontologia, fisioterapia, masterrak, haurtzaindegiak, jantoki publikoak eta abarrak). Ez dago zalantzarik zerbitzu horiek gehiago eta hobeto eskaintzeak zuzenean biztanle guztien ongizatea hobetzea dakarrela.

b) Zientziaren eta teknologiaren arloko jarduerak bultzatzea. I+Gko gastua handitzea (epe ertainera BPGaren % 3 izateko helburua) ez da mugatu behar sektore pribaturako transferentziak handitzera, berrikuntza-sistemaren barruan dauden erakunde publikoetan ere zuzenean esku hartu beharra baitago (unibertsitateak, laborategiak eta teknologia-zentroak, prestakuntza eta aholkularitzako zentroak, teknologia-aholkularitza eta abarrak). Teknikari kualifikatuen, ikertzaileen eta kudeaketaren kontratazio publikoak irmotasuna eta egonkortasuna emango lioke gure industriaren eta gure bilakaera ekonomikoaren etorkizunerako garrantzi estrategikoa duen arlo horri.

c) Ekonomia jasangarrirako jarduera eta enpleguak. Horren barruan agentzia eta erakunde publikoak (edo mistoak) garatzea sartuko genuke, dela zuzenean ekoizteko, dela aholkularitza eta orientabideak emateko, honako arlo hauetan: materialak eta produktuak berrerabiltzea eta konpontzea, hondakinak jatorrian bereiztea eta birziklatzea, naturaguneak babestu eta aprobetxatzea, eraikinen optimizazio energetikoa, energia berriztagarriak garatzea, nekazaritza ekologikoa eta hurbileko nekazaritza. Eremu horrek, zalantzarik gabe, lanpostu berriak sortzeko tarte handia du, eta askotariko enplegu-baldintzak ditu trebakuntza-eskakizunei dagokienez.

Aurrekontu-inpaktuari dagokionez, agerikoa da administrazio publikoen zerbitzura dagoen langile kopurua handitzeari aurre egiteko, beste edozein gobernu-ekimenekin gertatzen den modura, finantzaketa eta funts publikoak behar direla.

Nolanahi ere, era horretako proposamenen finantza-kostua kalkulatzeko orduan, ez dugu ahaztu behar gastua handitzeak aurrekontuan izandako inpaktua neurri batean indargabetuta eta arinduta geldituko dela aurrekontu publikoaren gaineko beste ondorio batzuen eraginez. Hala, batetik, sortzen dituen ekonomiak daude (gastu txikiagoa langabezia-subsidioetan edo oinarrizko errenten prestazioetan), eta, bestetik, diru-sarreretan izandako hazkundea (zuzenenak PFEZ eta gizarte-kotizazioen bitartez, baina baita zeharka ere BEZean, soldata gehiago eta hobeei lotutako soldata-kontsumoa handitzearen ondorioz)[3].

Ildo horretatik, eta gastu-premien eta sortutako enplegu berrien aurrekontu-itzulketaren ondorioen arteko denbora-desoreka dela eta, denboran mailakatutako estrategia bat izango litzateke egokiena (enplegu publikoaren eta enplegu osoaren arteko erlazioko bide positiboan aurrera egitea puntu bateko urteko gehikuntza oinarri hartuta, adibidez).

Enplegu berri horiek lan-baldintza duinekin taxutu beharko lirateke, enplegu-banaketa lagunduta betiere. Norabide horretan berehalako proposamen bat izango litzateke sektorean 35 orduko asteko lanaldia berreskuratzea, eta, hortik abiatuta, asmo handiagoko neurriak proposatzea (esate baterako, pixkanaka asteko 32 orduetarantz eginez), era horretan sektore publikoa, enplegu-banaketa handiagoari dagokionez, aitzindaria eta erreferentzia izan dadin.

Okupatu publikoen kopurua handitzeaz aritzen garenean, dena den, ez dugu inola ere ahaztu behar gainditu beharreko oztopo nagusia Estatuaren aldetik horren gainean ezarritako esku-sartzeak eta mugak direla (birjarpen-tasaren mekanismoa, besteak beste). Behar-beharrezkoa da presio sozial, politiko eta instituzionala abian jartzea horrelako zurruntasunak gainditzeko.

Enplegu pribatuaren sorrera bultzatzea

Sektore pribatuak enplegua sor dezan bultzatu dezakete botere publikoek:

(a) politika orokorren bidez, ingurunean baldintza jakin batzuk sortzeko eta, horiei esker, enpresen produkzio-jarduera mantendu eta hobetu ahal izateko, baita ekonomia globalaren aurrean dituzten baldintzak ere (hartarako, industria-politika, ekintzailetza publikoa eta produkzio-ehuna modu produktiboan jarri beharko da martxan).

Zehatz-mehatz eman gabe, horri buruz kontuan hartu beharreko elementu batzuk hauek izango lirateke: euskal produkzio-ehunean inbertsio handiagoa sustatzea; sektore publikoan lurraldeko adimen-sistema ezartzea (sistema horrek etorkizuna aztertzeko, aurreratzeko, zuzenean jarduteko, eragile sozioekonomikoak animatzeko eta estrategikoki hitzartzeko gaitasuna eduki behar du, baita ikuspegia eta lidergoa sortzekoa ere); finantza-baliabideak produkzio-inbertsioetara bideratzeko tresnak antolatzea; inplikazio publikoa ekintzaile proaktibo modura, dela produkzio-enpresa publikoak sortuz, dela proiektu publikoak, pribatuak eta kooperatiboak animatuz edo haien buru jarriz; zientzia- eta teknologia-politika integralerako konpromisoa indartzea; enpresen emaitzen gaineko kontrolak egitea (energia-kostuak, finantza -sektorera jotzeko aukerak eta baldintzak, telekomunikazioak), dela arautzeko mekanismoen bitartez, dela kontrol-enpresa publikoen bitartez.

(b) enplegurako zuzeneko laguntzen bitartez, funtsean diru-laguntzak zein pizgarri fiskal eta finantzarioak; horrelakoek katalizatzaile gisa jokatu behar dute, eta, neurri batean, gastu publikora jo kapital pribatuaren aldetik ere baliabideak mobilizatzea lortzeko; ezin da sektore publikotik pribaturako transferentzia hutsa izan, aitzitik, enpresa-sektorearen aldetik kontrapartidak ere sortu behar dira; besteak beste, haien

3. Beste behin ere, Hego Euskal Herrian gure administrazio publikoaren eta Estatuaren arteko eskumen-banaketaren arazoa dugu, izan ere, gure kasuan, lanaren eta gizartearen arloan eskumen guztiak gure gain hartzeari dagokionez funtsezko aurrerapenik ezean, banaketa horrek zailtzen du nolabait aurrekontu-inpaktu garbiaren kalkulua

irabazien zati handiago bat bideratzea produkzio-inbertsiora eta langile-klasearen bizi- eta lan-baldintzak hobetzera.

Hori horrela, gure ustez enplegua sortzeko laguntzak neurri handiago edo txikiago batean lotuta egon behar dira baldintza edo eskakizun jakin batzuk betetzeari:

(i) kalitateko enplegua diruz laguntzea: soldata-baldintza duinak bermatzea, diruz lagundu beharreko enplegua egonkortzeko eskakizuna ezartzea, pixkanaka lanaldiari eta lan-banaketari lotutako alderdiak jasotzea, eta indartu beharreko beste ezaugarri batzuk, hala nola genero-oreka, hizkuntza-gaikuntza, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea, laneskuaren prestakuntza edota trebakuntza hobetzea;

(ii) lurraldearekin eta pertsonekiko konpromisoaren balioa nabarmentzea: diskriminazio positiboa enpresa-forma jakin batzuen alde, enpresa horiek helburu horretara hobeto egokitzen direlako, dela neurri txikiagoa dutelako, dela bertako produkzio-ehunarekin eta erkidegoarekin berarekin lotura handiagoa dutelako: gizarte-ekonomiaren esparruko enpresak (kooperatibak, lan-sozietate anonimoak), mikroenpresak eta enpresa txikiak, baita enpresa ertainen bat ere;

(iii) etorkizunari begira, trantsizio ekologiko eta teknologikoa eta berrikuntza: bi sektore horien aldeko lehentasuna jasotzea, gure herrialdean adostasun handia baitago esparru horiek elementu estrategikotzat hartzeko orduan.

Azkenik, gure iritziz, lehen mailako sektoreak zein eraikuntzaren sektoreak, gutxienez ere, diagnostiko eta proposamen espezifikoak behar dituzte. Ez dugu sakonduko lehen sektorearen kasuan kalitateko nekazaritza ekologikoaren aldeko etorkizuneko apustua behar den, berau erakundeen laguntza eta lankidetza behar duen belaunaldi berri baten esku egonik. Halaber, eraikuntzaren sektoreari dagokionez, gure ustez sektore horrek birmoldatu ahal eta behar du, lanak, espazioak eta etxebizitzak birgaitzea, leheneratzea eta zaintzea lehenesteaz gain, eraikuntza ekologikoaren eta haren materialen sektore berrian ere inbertitu dezan. Azkenik, sektore zehatz baten barruan egon gabe, autonomoen kolektiboak, autoenplegu edo ekintzailetza ere deituak, ezaugarri bereziak ditu, eta, horrenbestez, berariazko tratamendua ere jaso behar du..

Adierazitako proposamenen inpaktu aurreikusgarria

Horrelako politikek termino kuantitatiboetan izango duten inpaktua zehazteko orduan, hurbilpen bat baino ez dugu eman behar, eta, jakina denez, egoera ekonomiko, politiko eta sozialaren bilakaera errealaren arabera egokitu beharko da hori, baita horren ondoriozko abantailen eta desabantailen arabera ere.

Zentzu horretan, ekimen pribatuari dagokionez estimazio fidagarriak egitea are zailagoa gertatzen da (eragile gehiagok esku hartzen dute enplegua sortzeko erabakian, hori ez dago soil-soilik gobernuen borondateen mende, eragile pribatuen itxaropenen eta premien mende baizik[4], horiek baitira kontratatzen dutenak). Edozelan ere, pentsa liteke industriari eta enpleguari buruzko politikak ongi orientatuta badaude sektore pribatuan gutxienez 20.000 enplegu sortu ahal izango liratekeela legegintzaldian zehar[5].

Sektore publikoan, guztizko enpleguaren gainean enplegu publikoak duen garrantziari dagokionez denboran mailakatuta ELGEren batezbesteko mailetarantz hurbiltzea (EAEn gaur egun dugun % 16tik ELGEko batezbestekoa den % 21era) erabakiz gero, modu horretan 40.000 lanpostu sortu ahal izango lirateke.

Hala, denbora labur samarrean, 60.000 lanpostu berri lortu ahal izango lirateke gutxi gorabehera; hortaz, langabezia-tasa % 7ra jaitsiko litzateke.

Lanpostu berri horiek (sektore pribatuan zein publikoan) enplegu-politika moderno eta soziali aurreratuan ezinbesteko diren beste bi elementuekin bat etorriz garatu beharko lirateke, guztiok kalitateko bizitza eduki dezagun, hau da:

(i) lanaldi laburragoak enplegua hobeto banatu ahal izateko (eta, bide batez, ordaindu gabeko lana)[6];

(ii) unas condiciones laborales dignas: de estabilidad y seguridad en los puestos de trabajo; y salarios dignos. Para avanzar en esa línea desde ya se podrían adoptar una serie de medidas, tales como: establecer una referencia de salario mínimo acorde con la realidad salarial de la CAP (atendiendo a recomendaciones de Carta Social Europea debería establecerse en torno al 60% del salario neto medio), a utilizar como referencia en las políticas públicas y a potenciar en la negociación colectiva y concertación social; reforzar la actuación inspectora de la autoridad laboral, entre otros aspectos en lo referente a usos fraudulentos de la contratación temporal y parcial; reconocimiento, apoyo y defensa del marco vasco de negociación colectiva.

4. Hots, enpresei (sozietate eta enpresa kapitalistei zein gizarte-ekonomiaren arloko enpresei erreferentzia eginda) jada ezarri eta finkatutako enpresak izan, sortu berriak izan; edo baita herritarrei ere produkzio-jarduera bati autonomo gisa ekiten diotenean

Enpleguaren eta lanaren banaketari buruzko ohar bat

Enpleguaren eta lanaren banaketari heltzeko beharra honako egiaztapen hauek ditu abiapuntu: (i) herritar guztiek ordaindutako enplegu bat eduki ahal izateko nahiak ezin du gai ekologikotik eta ingurumen-mugen errespetutik kanpo egon. Enplegu beteak ezin du mugarik gabeko hazkundea eta ingurumenaren aldetik jasanezinak diren (eta gizarteak nahi ez dituen) ekoizpenak sustatzearen mende egon; (ii) uneko eskulanaren ahalmena uneko ekoizpen-beharretara egokitzeko beharra; ildo horretatik, ondasun eta zerbitzu jakin batzuk –azken hamarkadetako teknologia-garapenak produktibitate-irabazi nabarmenak sortu ditu horietan– ekoizteko lan-indar liberatua orain arte behar beste artatu ez diren beste ekoizpen-mota batzuetara bideratu ahal izango da[7]; (iii) bizitzaren jasangarritasunak ordaindutako lanari zuzenean lotzen ez zaizkion beste jarduera batzuk exijitzen ditu; beraz, ekoizpen-lanean berdintasunezko parte-hartzea izatearen gaia aintzat hartu behar da, beste batzuen artean, gizon-emakumeen enplegurako dedikazioaren benetako aukerak kalkulatzeko garaian.

Enplegu-banaketako neurriez ari garenean, hainbat tresnari buruz ari gara. Esate baterako, hauek: lanorduak murriztea, urteka, asteka eta/edo egunka neurtuta, edo oporrak hedatzearen bidez; kontratazio partziala erregulatzea, lan-baldintza duinekin; baimenak eta eszedentziak (amatasuna/aitatasuna, urte sabatikoak, eta abar; erretiro aurreratuak edo progresiboak.

Enplegu-banaketa hainbat modutan plantea daiteke. Gizarte-aurrerapenaren ikuspuntutik anbizio handienekoa eta interesgarriena dena hauxe da: lanaldia oro har murriztea ekonomiaren multzorako edo, gutxienez, sektore-mailan. Euskal gehiengo sindikalak defendatzen duen 35 orduko helburua erabat arrazoizkoa da; gaur egun, hausnarketen hizpide da, eta proba pilotuak egiten ari dira arrakasta handiz Suedian, Danimarkan eta beste herrialde batzuetan. Arau-tresna bidez ezar daiteke, legeriaren bidez edo, bestela, osagarri modura, hitzarmen kolektiboen bidez; kasu batean zein bestean, indarrak eta negoziatzeko boterea korrelazioan jarri behar dira, proposamen horiek aurrera eramango badira.

5. Ez du ematen gehiegi direla erreferentziatzat hartzen badugu EAEko enpleguaren azken bilakaera edo oraingo Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016 aldirako Enplegu Programaren aurreikuspenak (32.000).
6. Ikus aurrerago horren gaineko sarrera laburra
7. Cuestiones como, por ejemplo, la concienciación social en lo referente a la necesidad de asumir colectivamente la problemática de los cuidados, a la importancia creciente al consumo de proximidad de productos primarios o la necesidad de profundizar y mejorar la investigación científica-tecnológica como elemento estratégico de posicionamiento en las industrias más avanzadas, nos dan una pista interesante de cuáles pueden ser las áreas que requieren unos mayores recursos, también humanos. En el mismo sentido, la superación del gap respecto a países más avanzados en ámbitos como el sanitario, educativo o ambiental.

Nolanahi ere, oro har lanaldia murriztearen lehentasunezko helburuari ukorik egin gabe eta hori gauzatu ahal izateko behar diren indarrak egituratzen doazen heinean, formula bidez aurrera egin daiteke, langileek lanaldi-murrizketak edo enplegua banatzeko beste balizko formula batzuk erabili ahal izan ditzaten beren borondatez. Horri dagokionez, ezinbestekoa da esparru juridiko egokia garatzea; hartara, neurriok eskatzen dituzten pertsona guztiek eskuratu ahal izatea bermatzeko.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Pentsioak

BIZI-KALITATEA BERMATUKO DUEN ETA SEGURTASUNA EMANGO DUEN PENTSIO-SISTEMA BAT

HERRIAREN EGOERA

1. Pentsio-sistema publikoak –adina edo ezintasuna direla-eta enpleguaren munduarekin lotura amaitu duten langileen aldeko gizarte-prestazioak barne hartzen ditu funtsean[1]– gizarte-aurrerapenaren aurrerapauso garrantzitsuenetako bat dira

Hirugarren adinari helduta, prestazio horiek eskuratzeko aukerak berebiziko garrantzia du; izan ere, talde horren gehiengoaren sarrera-iturri nagusia direnez, zahartzaroan pobrezia prebenitzearen funtsezko elementua da, zalantzarik gabe.

Gainera, senide edo onuradunekiko mendekotasun-egoeren aurka, pentsio publikoak duintasun-balioa eta gizarte-errekonozimendua dira jasotzen dituztenentzako, lan egin duten urteetan aberastasuna eta ongizatea sortzeko talde-ahaleginari egindako ekarpenaren ondoriozko eskubide onartu bat baita (soldata geroratua).

2. Azken hamarkadetan, botere ekonomikoa, pentsio-sistema publikoak higatzeko helburuarekin, zahartzaroko babes publikoaren aurkako eraso orokor bat egiten ari dela ikusi dugu, eta era berean, pentsio-plan eta aurreikuspen-plan pribatuak garatzea bultzatzen eta sustatzen ari dela.

Sistema publikoaren kontrako erasoa pixkanakakoa baina etengabea da, bai eremu diskurtsiboan bai esku-hartze publikoaren esparruan. Herritarren artean horren jarraipenaren eta estaldura emateko ahalmenaren inguruko mesfidantza orokorra sortzea da asmoa.

1. Baina ez esklusiboki, lan-lotura amaitzea exijitzen ez duten bestelako pentsioak ere barne hartzen baititu; esaterako, erretiro partzialak edo erabateko ezintasunak, lanarekin bateragarri egin daitezkeenak, edo alarguntza-pentsioak.

Argudio nagusiak ohartarazten digu ez dela sistema mantentzeko nahikoa baliabide egongo, pentsioetako gastuaren hazkundea sistemaren diru-sarrerena baino handiagoa delako. Hainbat faktore demografikok (jaiotze-tasa eta heriotza-tasa txikiagoak edo bizi-itxaropena luzatzea) eta lan-faktorek (langabezia-maila handi eta iraunkorra edo laneko jarduera-urteen murrizketa) pentsiodunen kopurua etengabe handituko dela adierazten dute eta kotizatzaileen hazkundea ez dela neurri berekoa izango.

Diskurtso hori oso populista da, baina era berean murriztailea, garbiki eta nahita. Eztabaidan sakon sartu gabe, argudio hori desegiten duten zentzuzko bi elementu aipatuko genituzke:

> (i) sistema finantzatzeko gaur egungo ereduaren egitura ez da zalantzan jartzen (iturriak bereizteko sistema: gizarte-kotizazioen bidezko finantzazioa pentsio kontributiboetarako, oreka finantzarioko baldintzetan; aurrekontuen bidea ez-kontributiboetarako utziz), ezta bere oinarrizko ezaugarriak ere (ez da kontuan hartzen aldaketak egiteko aukera dagoela, adibidez, gizarte-kotizazioen tasetan edo oinarrietan).
>
> (ii) Gainera, diru-bilketa handitzea ekar lezaketen faktoreak –baita gizarte-kotizazioak definitzeko gaur egungo parametroak mantenduz gero ere– minimizatu edo zuzenean ezkutatu egiten dira. Zehazki, enpleguaren arloko hobekuntzez (kotizatzaile gehiago) edo soldataren arlokoez (kotizazio handiagoak) ari gara. Azken finean, arazoa ez da lan egiteko moduan dagoen populaziorik ez dagoenez kotizatzailerik ez dagoela[2], enplegu-aukerak eta kalitatezko soldatak sortu behar direla baizik

Diskurtso alarmista horrekin batera, sistema publikoa higatzeko eta ahultzeko politika bat ezarri da. Politika hori pentsioetan (uler bedi prestazioen estaldura edo horiek eskuratzeko aukera) gutxiago gastatzeko araudi-aldaketetan datza. Honako neurriak barne hartzen ditu, besteak beste: pentsioen birbalorazioak mugatzea, kalkulu-sistemak gogortzea (eskatutako kotizazio-urteak eta erreferentzia-aldia luzatzea, jaso beharreko zenbatekoak bizi-itxaropena handitzearekin lotuta modulatzeko sistemak) edo erretiro-adina handitzea. Beti pentsio- eta aurreikuspen-plan pribatuak babestu eta sustatzeko politika fiskal batez lagunduak..

Pentsioen sistema publikoaren jarraipenari, epe ertaineko bideragarritasunari, porrot egiteko arriskuari buruzko zalantzak zabaltzeak etorkizunean pentsio duinak jasotzeko aukeraren inguruko ziurgabetasun orokorra sortzen du; eta langileen segmentu batzuek (aurrezteko ahalmen handiena daukatenek) beren baliabideak pixkanaka babes pribaturantz bideratzea eragiten du.

2. . Langile okupatuen populazioa handitzea ez dago lan egiteko garaian dauden biztanleen bilakaeraren mende bakarrik, baita populazio aktiboaren eta enplegu-aukeren mende ere, eta alderdi horietan oraindik ere marjina handia dago

3. Gizarte Segurantzaren arloko eskumenak –pentsioen sistema publikoa esparru horretan sartzen da–, euskal autogobernuan gutxien garatu den alderdietako bat da. Hain zuzen ere, gizarte-prestazioak ezartzea eta kudeatzea horiek ematen dituen agintaritzarentzat zilegitasun politikoko elementu bat da, eta era berean, elkartasun- eta kohesio-sistema kolektibo bat den heinean, herritarrentzako erreferentziazko esparru politikoa/lurralde-esparrua mugatzen laguntzen du (hala, kontzientzia nazional espainiarra areagotzen du). Dena den, arrazoi beragatik, zilegitasuna kentzeko elementu bihur daiteke, batez ere, Estatuaren barruko gatazka nazionalen kasuetan, Estatuak gizarte-babesaren arloan dituzten espektatibei erantzuten ez badie jaramonik egiten ez diela sentitu dezaketelako Estatuaren mendeko espazio horietako herritarrek.

Hala, Konstituzio Espainiarrean finkatutakoaren arabera, Estatuak Gizarte Segurantzako oinarrizko legediaren eta araubide ekonomikoaren gaineko eskumen esklusiboa dauka.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuan finkatutakoaren arabera, berriz, Gizarte Segurantzaren arloan EAEri dagokio «Estatuaren oinarrizko legegintzaren aurrerabide legislatiboa eta beronen betearaztea, berorren erregimen ekonomikoa itxuratzen duten arauak salbu»; adibidez, «Seguru Sozialaren erregimen ekonomikoaren gestioa». Dena den, egiazki, praktikan ez da aurrerapausorik eman, ez norabide batean ez bestean.

Beraz, Pentsioen Sistema Publikoa definitzen duten elementuak Estatuaren esku daude. Horien barruan, modeloaren karakterizazio orokorretik haratago (legezko erretiro-adina, kontributiboetarako banaketa-sistema, kontributiboen eta ez-kontributiboen arteko iturrien banaketa), auzi oso zehatz eta oinarrizkoak sartzen dira, esaterako, kotizazio-tasak eta -oinarriak, prestazioen zenbatekoak eta baldintzak edo gutxieneko pentsioen zenbatekoa, sistemaren kudeaketa bera ere propiotzat hartuta.

Nabarmentzekoak dira, era berean, EAEren erabateko eskumenekoak diren bi esparru. Horiek aipatu egingo ditugu, aztertzen ari garen gaiarekin lotuta daudelako:

(i) Gizarte Laguntza: eskumen horrek Estatuko Gizarte Segurantza osatzea ahalbidetzen du, beti aurrekontu propioetan kargatuta. Diru-sarrerak bermatzeko errentarekin lotutako lege-garapena eta legedia horren barruan pentsioen osagarrietarako arauketa bereizia dira arlo horretako lege-garapenetako batzuk[3].

(jj) Gizarte Segurantzan integratu gabeko mutualitateak: eskumen horren babespean, BGAEen, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen, garapena ezarri da. Horiek pentsio-planekin parekatu daitezke, baina kasu honetan, EAEri dagokio horiek arautzea eta gainbegiratzea.

5. Laburbilduz, Hego Euskal Herrian pentsio-sistemaren egituraketaren oinarriak hauek direla esango genuke:

· PSP espainiarra (Pentsio Sistema Publikoa): Pentsio kontributiboak (pertsonak bere lan-bizitzan kotizatu duenarekin lotuak) eta PEKak (pentsio ez-kontributiboak, Estatuak kotizatu ez dutenentzat edo behar adina kotizatu ez dutenentzat bermatutako gutxieneko pentsio bat) bereizten ditu. 1995ean Toledoko Itunean finantzazio-iturrien banaketa ezarri zenetik, lehenengoak gizarte-kotizazioen bidez finantzatzen dira (banaketa-sistema baten bitartez[4]) eta PEKak Estatuko Aurrekontu Orokorren bitartez[5], horren zenbatekoa legez finkatuta.

· EAEn DSBEaren bidez (diru-sarrerak bermatzeko errenta) garatutako pentsio-osagarria

· BGAEen sektorea (borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak), aurreikuspen osagarri pribatuaren barruko eragile nagusi eztabaidaezin gisa.

3. EHbilduk 2016ko martxoan aurkeztutako lege-proposamenaren helburua osagarri horren estaldura nabarmen hobetzea zen (proposamenak ez zuen aurrera egin, Eusko Legebiltzarreko gainerako taldeek Ganberan aztertzeari ezezkoa eman ziotelako).

4. Horrek, funtsean, hauxe esan nahi du: gaur egungo pentsioak gaur egungo kotizazioekin ordaintzen direla. Beste modalitatea kapitalizazio-sistemak dira. Sistema horiekin, langile bakoitzak pentsio-funts pertsonal batean ekarpena egiten du eta bere pentsioa metatzen joan den funtsen gehi funts horiekin egindako inbertsioen bidez lortu ahal izan diren interesen araberakoa da. Zalantzarik gabe, lehenengoaren planteamendua askoz ere solidarioagoa eta sozialagoa da.

5. Pentsio Sistema Publiko espainiarrak kontributibetarako aurreikusten dituen gutxienekoetarako osagarriak bezala –horiek ere Estatuko Aurrekontu Orokorren bidez osoki finantzatuak–.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Gizarte aurreratu eta solidarioa izan nahi badugu, gure adinekoak zaindu egin behar ditugu. Horretarako, kalitatezko bizitza izateko behar besteko baliabideak bermatzeaz gain, sarrera horiek eskuratzeko eskubidea ziurtatu behar zaie, iraganean izan duten aurrezteko gaitasuna alde batera utzita.

Horregatik, helburu horri heltzeko, birbanaketa- eta elkartasun-parametroetan oinarrituz antolatutako sistema kolektibo bat izatea funtsezkoa dela uste dugu. Hau da, Euskal Pentsio Sistema Publiko bat; adineko pertsonei, enpleguaren munduarekiko ekoizpen-harremana bukatu ondoren, gutxieneko ongizate estandar batzuk izan ditzaten behar adinako errenta eman ahal izango dien sistema bat.

Helburu hori lortzeko, pentsio publikoek ezingo dute pobreziaren mugatik behera egon eta maila hori nazioarteko erreferentzia baten arabera definitu ahal izango litzateke (adibidez, EUROSTATena; horren arabera, pobreziaren muga diru-sarreren kontsumo-unitateko banaketaren medianaren ehuneko 60koa da).

Sistema osagarri pribatuei dagokienez, baliabideak osatzeko bide gehigarritzat hartu beharko dira, hau da, gaur egungo kontsumoaren ordez etorkizuneko kontsumoa lehenetsi dezaketen eta nahi duten pertsonek aurrezteko beste tresna bat direla ulertu beharko da. Pentsiodunen kolektiboaren zati baten errentak hobetzen laguntzeaz gain aurrezpen nazionalaren kopuru handi bat metatzen eta kudeatzen duten heinean, euskal erakundeek arautu eta gainbegiratu beharko dituzte. Gainera, erakundeek aurreikuspen osagarrirako eta sektore hori osatzen duten entitateetarako inplikazio- eta sustapen-maila handiagoak edo txikiagoak finkatu ahal izango dituzte, horiek sozialagoak edo ez hain sozialak diren kontuan hartuta (esaterako, langileen artean tresna horren eskuratzea eta erabilera zenbateraino dagoen orokortuta edo inbertsio produktiboetarako eta herrialdearen ongizate kolektiborako ekarpen-maila).

Euskal PSPari dagokionez, gure inguruko herrialdeetakoen antzeko parametro orokorretan oinarrituta egituratu ahal izango litzatekeela uste dugu, eta zehazki, estatu espainiarrekoen antzekoetan (hala, sistema propio horretarako trantsizioa errazagoa izango litzateke): funtsean, pentsio kontributiboetarako banaketa-sistema, ez-kontributiboetarako zergapeko diru-sarrerak. Gure aldetik, gainera, aurrekontu orokorrak modu malguagoan erabiltzea planteatuko litzateke, alde kontributiboan desoreka finantzarioak konpentsatu edo zuzendu ahal izateko.

Esan beharrik ez dago sistema horren bideragarritasuna bermatzeko ekonomia aktibo eta osasuntsua izatea ezinbestekoa dela, enplegu- eta soldata-maila egokikoa eta ondo banatua, gizarte-kotizazioen bidez diru-bilketa handia ahalbidetzeko; eta fiskalitatea behar adinakoa eta progresiboa izatea, sistemaren gainerako zatia aurrekontuen bidez babesteko.

Euskal Herriko herritar guztien interesen ikuspegitik, estatu espainiarrak pentsio duinak bermatzen ez dituenez, aztertzen ari garen arloko helburua lortzeko erabateko erabakimena izan behar dugu, pentsio-sistema propio bat antolatzeko, behar adinakoa eta bideragarria, zahartzaroan segurtasuna eta errenta duinak eman ditzan; eta aurrekontu publiko osasuntsuetatik abiatuz egiteko gai izan behar dugu, hau da, gastuan aurreikus daitekeen handitzearen aurrean nahita jarrera pasiboa izateak hipotekatu gabeko aurrekontuetatik

.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Pentsio-sistema propio sozial eta solidario batek irauteko eta berau defendatzeko, arlo horretan, ahalik eta lasterren, erabateko ahalmen legegilea eta exekutiboa lortu behar da[6]. Baldintza horietan, gure herrialdeko korrelazio politiko eta sozialaren arabera, beste mota bateko politika bati heldu ahal izango zaio; finantzari dagokionez behar adinakoa eta bideragarria den pentsio-sistema duin bat berreskuratzera eta mantentzera bideratutako politika bati.

Testuinguru horretan, zehatzak izateko asmorik gabe, kontuan hartu beharreko alderdietako batzuk hauen ingurukoak izango lirateke: (i) kotizazio-tasak eta -oinarriak; (ii) erretiro-adina (edo adinak, hainbat elementu kontuan hartuta, adibidez: enpleguaren banaketa, lan-bizitzan aurrera egin ahala desgaste ezberdina eta zahartzaroan kalitatezko atsedena izateko eskubidea); (iii) pentsioen zenbatekoa eta kalkulatzeko irizpideak, baita birbaloratzeko eta eguneratzeko irizpideak ere (pentsio duinak lortzera eta horien erosteko ahalmenari eustera begira); (iv) gutxieneko pentsioen zenbatekoa; (v) baliaezintasun-pentsioak, alargun-pentsioak, eta abar definitzeko bestelako irizpideak.

Elementu multzo horrek, zalantzarik gabe, sistema gaur egungoekin alderatuz oso ezberdinak diren parametro batzuen arabera berrantolatu eta antolatzeko aukera emango liguke. Horregatik, finantzazio-arazoak argudiatuz, Gizarte Segurantzaren eskumena EAEren esku uztearen komenigarritasuna ukatzen duten azterketa eta analisiak, gaur egungo egoeran «pentsio kontributiboen gastuak» vs. «kotizazioen araberako diru-sarrerak» kalkulu mugatua egitean oinarrituak, eta horretatik eratortzen den EAEko emaitza negatiboa dela-eta euskal pentsio-sistema propio bat izatea eutsiezina izango litzatekeela ondorioztatzen dutenak, ikuspegi interesatu eta garbiki partzial batetik egiten dute (ez dutelako kontuan hartzen eskualdatzeari esker sistemaren arauak eta diseinua aldatu ahal izango liratekeela; edo, gainera, ez dutelako kontuan hartzen, adibidez, Gizarte Segurantza osotasunean, langabezia-gastuak barne, eta horien eragina EAEn garbiki txikiagoa da Estatuarekin alderatuta). Beste alde batetik, arlo horrekin batera, lan-harreman guztiak eskualdatu beharko lirateke, eta horrek zalantzarik gabe, enplegu gehiago eta soldata duinagoak izatea ekarriko luke, eta hedaduraz, gizarte-prestazioak emateko aukera gehiago izatea.

Baina subiranotasun ekonomikoan sakondu eta arlo soziolaboralean eta pentsioetan erabateko eskumena izateko pausoak ematen diren bitartean, gaur egungo eskumen-es-

6. Gure Autogobernurako eta Subiranotasun Ekonomikorako Sailburuordetzak jorratu beharreko zeregin nagusietako bat, zalantzarik gabe, eskumen hori progresiboki lortzeko lan-ildo bat abiatzea izan behar du.

parruak ematen dizkigun aukeretatik abiatuz lan egin behar dugu. Hala, oraintxe bertan hasita, kohesio eta justizia sozial handiagoa lortzeko eta aberastasuna herritar guztien artean –adinekoak barne– birbanatzeko aurrerapausoak eman behar ditugu; eta, era berean, arlo horretan gure gain eskumen handiagoak hartzeko baldintza objektibo eta subjektibo hobeak sortzen joan.

Zehazki, hauxe proposatzen dugu:

1. Gizarte Segurantzaren araubidea kudeatzeko eskumena eskualdatzeko exijitzea.

Eskualdatze garbiki mugatua izan arren (ez du sistemako funtsezko elementuetan inolako erabakitze ahalmenik izatea jasotzen), euskal administrazioak berak Gizarte Segurantzaren kobrantzak eta ordainketak antolatzea ahalbidetuko luke. Hori gure herrialdeko pertsonentzat, enpresentzat eta administrazioarentzat hobekuntza nabarmena izango litzateke, koordinazioa hobetuko litzatekeelako eta gaur egungo bikoiztasun eta efizientzia eza asko zuzenduko lituzkeelako. Era berean, kotizazioen diru-bilketan iruzurraren kontra borrokatzeko (adibidez, aparteko orduen edo bestelako ordainsari ez deklaratuen edo partzialki deklaratuen kasuan) eraginkortasun handiagoa izateko baldintzak sortuko lirateke.

Horrez gain, EAEri dagokionez, sistemako diru-sarreren eta gastuen errealitatea zehatzago ezagutzeko aukera emango luke. Ahaztu gabe hori autogobernu-maila handiagoa lortzeko azpiegitura material bat sortzen joateko eta aurrerapausoak emateko esperientzia eta ezagutza metatzeko modu bat dela.

LANBIDEren bidez edo Eusko Jaurlaritzako lan eta gizarte-politiketako sailaren mendeko organismo propio berri baten bidez kudeatu ahal izango litzateke. Hori autonomiaren eskumenekoak diren gizarte-politikako beste arlo batzuekin nola antolatu aztertu beharko litzateke; eta tresna eraginkorrena zein izan daitekeen ikusi.

2. Eusko Jaurlaritzak gizarte-laguntzan dituen eskumenak pentsio txikienak osatzeko erabiltzea.

Dagoeneko hasitako ildoa sakontzea litzateke, baina osagarrirako erreferentziazko adierazle gisa gaur egungo LGS espainiarra (lanbide arteko gutxieneko soldata) gainditu, EAEko batez besteko diru-sarrerekin bat datorren pobreziaren mailaren definiziotik gertuagoko estaldura-maila handiagoetaranzko pausoak emateko.

Pentsioen osagarria progresiboki eguneratzen joatea proposatzen dugu, epe erlatiboki motzean erreferentziazko muga horretara gerturatzeko.

Beste alde batetik, alarguntza-pentsioen auzian sakondu gabe[7], emakume kolektibo zehatz baten errealitate zehatzak arreta merezi duela uste dugu; gaur erretiro-adinera iritsiak izanik joan den mendeko 40ko, 50eko eta 60ko hamarkadetan, arrazoi legal eta sozialengatik, ordainpeko lan-merkatutik kanporatuak izan ziren emakumeenak. Lanerako adinean enplegua lortzeko aukerarik ez zutenez, ez zuten kotizatu Gizarte Segurantzan, eta ondorioz, gaur egun ez daukate pentsio propiorik eta senarraren diru-sarreren mende jarraitzen dute (normalean, pentsioaren mende). Emakume horien beldur nagusia da ezkontidea hiltzen bada beraien diru-sarrerak erdira murriztuko direla (pentsioaren % 52 kobratuko lukete). Emakume horiek enpleguaren munduan sartzeko izan dituzten zailtasunak, eta era berean, zaintzaren esparruan bete duten funtzio soziala aitortzea bidezkoa dela iruditzen zaigu. Beraz, horrekin lotutako arau-aldaketak bultzatzearen aldeko apustua egiten dugu; eta kasu muturrekoenetarako osagarrien bidez nolabaiteko konpentsazioa ezartzeko aukera aztertzearen aldekoa.

3. Aurreikuspen osagarriko sistemari dagokionez, honakoa proposatzen dugu:

(i) Sektore hori osatzen duten entitateen ezaugarriak aztertzea, beraien tratamendu fiskala beren funtzio sozialaren arabera egokitzeko. Ildo horretan, batetik pentsio -plan eta BGAE indibidualetarako eta bestetik BGAE «kolektiboetarako» (elkartuak eta enplegukoak) tratamendu fiskal ezberdinak ematea planteatuko litzateke.

(ii) Sektore batzuetan kontzentratutako (aurrezteko ahalmen handienekoak) hobari fiskalen politika bat izateak dakarren ahalegin kolektiboaren kontrapartida gisa, ahalegin horrek neurri batean ongizate komunean eragin dezan, BGAEek kudeatutako aurrezpenaren zati bat ekonomia bultzatzen duten euskal ekoizpen sareko sektoreetara eta jardueretara bideratzea nahitaezkoa izatearen aldeko apustua egiten dugu. Hainbat formularen bidez antolatu ahal izango litzateke; kasu batzuetan, sektore publikoarekin konbinatuta (elkarte publiko-pribatuetan), beste kasu batzuetan, inbertsio-koefiziente sektorialen bidez edo euskal zor publikoaren eskuratze-koefizienteen bidez, besteak beste

Beraien aurrezkien zati handi batek herrialdean bertan eragina duela jakiteak, errentagarritasun finantzario hutseko irizpideekin lotutako inbertsio-funtsetan tituluak eta partaidetzak eskuratzera zuzendu beharrean (praktikan nazioarteko merkatuetan inbertsio espekulatiboak egitea esan nahi du), zalantzarik gabe, prestigiozko elementu

7. Cuestión de gran interés, que habrá de abordarse en futuros trabajos y debates.

8. En 2015 el patrimonio de las EPSVs d Euskadi supera los 22.500 millones de euros.

bat izango litzateke, eta langileak eta gure herrialdearen biziraupenarekin eta etorkizunarekin konprometitutako herritar multzoak BGAEetara erakartzeko faktore bat.

(iii) Beste alde batetik, aurreikuspen osagarriaren sektorea gaur egun pentsio-sistemaren zutabeetako bat den neurrian, sektore publikoak horien orokortzea bermatu behar du eta langile guztiei horietara jotzeko aukera bermatu behar die. Horri dagokionez, gaur egungo estaldura-mailari buruzko analisi sakon bat egin behar da, ETEetan, autonomoetan, hitzarmen kolektiboen bidez arauketa ahula daukaten ekoizpen-sektoreetan arreta berezia jarrita; eta erdi mailako eta maila txikiko errentak dituzten pertsonengan.

Garapen hori errazteko, kolektibo ahulago horien beharrak kontuan hartu eta horiei erantzungo dien kudeaketa publikoko BGAE bat sortzearen aldeko apustua egiten dugu. Gainera, kudeaketa publikoa izateak kontrol demokratiko handiagoa eta kontuak exijitzea ahalbidetzen duenez –horrek arriskua gehiago kontrolatzea eta bazkideen ekarpenetatik eratorritako funtsekin inbertsio sozialagoak egitea ekarri behar du–, langile batzuek beren sektoreko edo lan-esparrukoen ordez BGAE hori aukeratzea eragin dezake. Kasu horietarako, mekanismo malgu eta eraginkor bat eratu beharko litzateke, kudeaketa publikoko BGAEetara aldatzea errazteko.

Kudeaketa publikoko BGAE bat sortzeko aukera agintari politikoen esku egon da BGAEen sektorea garatzen hasi zenetik, baina EAEko gobernuen aldetik ez du inolako arretarik jaso. Euskal Herriaren etorkizunerako, independentismoaren eta aurrerapen ekonomiko eta sozialaren ikuspegitik, potentzialtasun handiko tresna bat dela uste dugu

.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Haur eta nerabeentzako gutxieneko errentak

HAUR ETA NERABEENTZAKO GUTXIENEKO ERRENTAK ZIURTATZEA

HERRIAREN EGOERA

Azken aldian, familiaren babeserako laguntzen eta pobreziaren inguruan egindako azterketek honakoa nabarmentzen dute: haurren artean handiagoa da pobrezian eta bazterketen erortzeko arriskua eta handiagoa baita ere gabezia material larria jasateko. Pobrezia poltsak adinduetatik haurretara mugitu dira, edo hobeto esanda, beren kargura seme-alabak dituzten familia gazteetara, eragin berezia izanez ama bakarreko familiengan[1].

Horrez gain, EAEn familiaren babeserako laguntzen politikak Europarekin alderatuta:

- bereziki murritzagoa da haurren eta seme-alabak dituzten familiei zuzendutako gastu soziala, eta (i) zatirik handiena gainera zerga kenkarien bidez bideratzen da, zehazki PFEZean ondorengo ahaideengatik (seme-alabengatik) dauden kenkarietan, eta (ii) horretaz gain badaudela beste tresna batzuk, RGI, familiei laguntzak, edota gizarte segurantzako seme-alabentzako prestazioak.

- zerga kenkarietan oinarritutako eredu honek gabezi nabarmena du, sarrera nahikoak dituzten familiek soilik baliatu ahal dituztelako desgrabazio horiek benetan. Hau da kenkari eskubidea unibertsala izanagatik, gero herritar askok ez dute PFEZean kuotarik kenkaria baliatzeko, beraz ez dute inolako onurarik eskuratzen zerga kenkarietatik. Sistema erregresiboa da.

- bestalde, diru-laguntza edota prestazioei erreparatzen badiegu, familiaren babeserako laguntzak selektiboak dira, ez dira unibertsalak eta errenta oso baxuko edota errentarik gabeko familietara bideratzen dira. Kolektibo hauek, diru-laguntza hauen bitartez lortzen duten babes maila Europaren mailan kokatzen da.

1.- Enpleguaren prekarizazioaren eraginez (soldata txikiegiak seme-alaben ongizate duina mantentzeko familia-gune gazteagoetan), beste kolektibo batzuk babes maila altuagoa dutelako (adineko jendeak) eta familiaren babeserako politiken ez-nahikotasunagatik.

Beraz, esan daiteke laguntza zuzenen eta egungo kenkari sistemaren emaitza gisa sistema dual bat eratzen zaigula:

(i) batetik, errenta altuak, eta ertainak hein batean, zerga kenkariak baliatzen dituztenak, eta

(ii) bestetik, errenta baxuak edo errentarik ez dutenek, errenta minimoen diru-laguntzen sistema balia dezaketenak (maila onargarrietan, Europako estandarrekiko).

Kontua da, eta hori arazo larria da, badaudela multzo batean ez bestean sartzen ez direnak, alegia, errenta ertain/baxu batzuk, ez dutenak diru-laguntza sistemara jotzeko aukerarik baina aldi berean beraien errenta mailak zerga kenkariak baliatzea eragozten dituenak, zerga kuota ez delako nahikoa kenkariak baliatzeko.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Jendarte duin, humano eta aurreratu batek ezin ditu bere haurrak babesgabe utzi. Denon betebeharra izan behar du haur/nerabeek aurrera egiteko behar dituzten baliabide material, afektibo eta sozialak ziurtatzea, inolako diskriminazioarik gabe, justizia eta berdintasun balioak lehenetsiz.

Baliabide materialei dagokienez, haurrek ez dute inolako erantzukizunik egokitu zaien egoera sozioekonomikoan, eta ezin ditugu kondenatu txikitatik errenta eta aberastasunaren banaketa disparekoak ezartzen dituen ondorio larriak pairatzera. Horregatik, haurren biziraupen duin baterako beharrezko sarrerak ziurtatu behar zaizkie ume horiek hazi eta hezteko ardura duten familiei.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Helburu nagusia izan beharko litzateke familien babeseko politiken inguruan ikuspegi integrala duen proposamen bat luzatzea. Bertan diru-laguntzez gain beste hainbat elementu aztertu beharko lirateke, jakina; besteak beste: amatasun/aitatasun bajen ingurukoak, zerbitzu publiko/sozialen ingurukoak (haurtzaindegiak, eskolak, jantegiak,…), ordutegien berrantolaketa malguaz (bizitzaren jasangarritasun irizpidearen ildotik); gehi, zentzu zabal baina funtsezkoa dena, lana eta aberastasunaren banaketa orekatuagoa ahalbidetuko lukeen eredu sozio-produktibo aurreratuago baten beharraz.

Haatik, gure helburua orri hauetan ez da famili politikaren eta bereziki haur/nerabeen babeserako politikaren inguruko diagnostiko eta proposamen osatu hori egitea[2], haurrei dagozkien gutxieneko errenta duinen arazoari konponbide emateko proposamen bat egitea baizik.

Proposamena modu progresiboan aplikatuko litzateke: (i) lehendabizi, eta duen urgentziagatik, gaur egun babes sozialeko sistematik kanpo geratzen den kolektiboari erantzun azkar bat emateko litzateke, multzo honek pobrezi arriskuan erortzeko dituen aukerak leuntzeko; eta (ii) jarraituz, haur eta nerabe guztiei oinarrizko errenta duin bat bermatzera zuzendutako ildoa lantzea.

Horretarako seme-alabengatiko kenkariak eskuragarri bihurtzea proposatzen dugu (deducciones reembolsables).

Haurren pobreziaren inguruan dagoen kezkari erantzun urgente bat emateko izango litzateke, errenta ertain/baxuak dituzten familiei erantzungo lieke. Lehen azaldu dugunez, famili hauen ezaugarria izango litzateke ohiko bi laguntza bideetatik kanpo gelditzen direla: beraien errenta “altuegia” da diru-sarrerak bermatzeko errentatik –RGItik– ezer jasotzeko eta errenta “txikiegia” da zerga kenkariak baliatzeko (ez dute kuota nahikorik).

Kenkaria eskuragarria egiteak esan nahi du, errenta ertain eta altuko familientzat kenkaria modu tradizionalean aplikatuko zaiela (PFEZean kuotatik deskontatuz), baina berau deskontatu ezin dezaketenek “diru-laguntza” gisa kobratuko luketela3.

Seme-alabenagatiko kenkaria, kenkari eskuragarri bezala definituz gero, berau aplikatzeko zerga kuota ez dutenek ere jaso ahal izango lukete. Horrek zerga kenkariaren izaera

2.- Erabat beharrezkoa deritzogu; ez legoke gaizki horretan adituak direnei eztabaidarako oinarrizko ekarpen batzuk aurkeztea.
3.- Honela eskuragarritasunari esker bere haurrentzat errenta gehigarri bat jasoko ahalko lukete: (i) egun errenta aitortzaile izanik eta kenkari eskubide izan arren kuota nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez dutenek, eta (ii) orain aitorpen egiteko errenta minimoetara ez iristeagatik aitortzaile ez diren batzuek.

erregresiboa ezabatuko luke eta kenkaria zabalduko luke errenta apalak dituzten familientzat.

Seme-alabengatiko zerga kenkaria eskuragarri bilakatzea modu ezberdinetan garatu daiteke: gaur egungo kenkarien kopuruetan eta taulan aldaketarik egin gabe, baina eskuragarri bihurtuta, edota eskuragarri bihurtzeaz gain kenkaria birdefinituz.

Praktikotasunagatik, bai denboran bai neurriaren kostuari dagokionez, honela egin liteke: hasteko, gaur egungo kenkari sistema hartu (kopuruak eta izaera inkrementala) eta eskuragarritasuna ezarriz; ondoren, eskuragarritasuna mantentzeaz gain kenkaria bera birplanteatuz, bai bere izaera (lineala, inkrementala beharrean) bai haur bakoitzeko kopuruak.

Bigarren kasu honetan, kopuruak gradualki igoko lirateke, arrazoizko epe batean adituek gomendatzen gutxienekotara gerturatzeko (1000 euro/urtean izan daiteke erreferentzia bat). Honela haurren ongizatea bermatzeko diru-sarrera gehigarri duinago bat ziurtatuko litzaieke familiei; eta bide batez zaintza lanaren errekonozimenduan urratsak emango lirateke.

Kontuan hartzekoa, hala ere, proposamen honek erakunde arteko adostasuna beharko lukeela, izan ere eremu instituzional desberdinei dagozkien eskumenak ukitzen baitira: famili politikak Erkidego mailakoak eta zerga-kenkariak Foru Aldundienak.

Edozein kasutan, beti planteatu daiteke kenkarien eskuragarritasunaren bidea erabili beharrean, diru-laguntzen edo gastuaren bidea erabiltzea. Halere, zerga-pizgarriak beharrean diru-laguntzak hobetsiko balira, modu erraz samarrean egin ahalko litzateke batetik besterako trasbasea.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Baliabideak

BALIABIDE NAHIKOAK, ONDO BIDERATUAK ETA ZUZENTASUNEZ KUDEATUAK

HERRIAREN EGOERA

Edozein gobernuk, herri demokratikoetan herritar guztien interesak babestu eta defenditzeko xedea izan behar duenak, bitarteko egokiak artikulatu behar ditu bere ekimen politikorako. Araugintza eta erregulazioaren aldea gutxietsi gabe (izan ere sektore publikoak lege eta arauen bitartez burutzen duen esku-hartzea funtsezkoa baita lurraldeko agenteen jokabide indibidual zein erantzukizun kolektiboak finkatze aldera) atal honetan alderdi materialagoari jarriko diogu arreta, alegia, politikak burutzeko ditugun baliabide finantzarioak (publiko zein pribatuak), ahalik eta modurik eraginkorren eta zuzenen erabiliak izan beharko direnak, pertsona ororen ongizatea eta herriaren etorkizuna ziurtatzea helburu.

Bi tresna nagusi kokatuko genituzke xede horri begira. Batetik, baliabide publikoak, hots aurrekontuak eta bereziki sarreren atala, eta zehazki sarrera horien oinarri eta iturri nagusi den zerga sistema. Bestetik, finantza sistema, aurrezki pribatuak bertoko ekonomi fluxuen mesederako bideratuak izan daitezen.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

BALIABIDE PUBLIKOAK, AURRERABIDEAREN MESEDEAN ERABILTZEKO TRESNA DEMOKRATIKOA

Aurrekontu publikoek bi atal nagusi dituzte: gastua eta sarrerak. Arduratsu eta sinesgarri izan nahi duen edozein herri proposamenak ezin du bata planteatu bestea ukitu gabe. Askotan inguruko herrialdeak hartzen ditugu erreferentziatzat gastuaren ikuspegia lantzen dugunean (gastuaren igoerak hainbat ataletan planteatu baitaitezke, pertsonok eta ehun produktiboak diru-laguntza edota zerbitzuak handitzeko beharrak ere handiak direlako). Horregatik sutsuki defenditzen dugu gastu gehikuntzaren beharra, baina horretarako ezinbestez zergak ere igo behar dira, presio fiskala handitu behar da, ondoren sektore publikoak jendarte orekatu, kohesionatu eta ekonomikoki modernoago bat eraikitzeko bidean egin beharreko jarduketak egiteko gaitasun finantzarioa izan dezan. Presio fiskal handiago hori herritarren artean modu errazago eta ulerkorragoan onartua izan dadin ezinbestekoa da politika fiskala zerga-justiziako baloreen gain egitea.

Hurrengo paragrafoetan, eta sakonago aztertuko dugun zerga-sistemaren atalera jo aurretik laburki aurkeztuko ditugu aurrekontuaren inguruko ildo nagusiak izan daitezkeenak.

Gobernu batek proposatu eta parlamentuetan negoziatzen eta onartzen dira normalean aurrekontuak. Bertan jasotzen den gastu publikoaren banaketak definitzen du berau defenditu duten taldeek bere herriarentzat duten ereduaren izaera. Ikuspegi aurrerakoi batetik, gastu publikoak lagundu beharko luke ekonomiaren alde pribatuak (merkatua deitzen duten horrek) eragiten dituen disparekotasun eta zaurgarritasun egoerak zuzentzen; herritar guztiak, esklusiorik gabe, ongizate maila onargarrietan bizitzeko baliabideak izan ditzaten eta enpresak eta ehun produktiboa gaur egungo ekonomia global eta lehia egoeran eraginkor izan daitezen.

Euskal Herrian, Estatu burujabea ez garen neurrian, baditugu zenbait osagai gure eskumenetik kanpo geratzen direnaz, legez hala ezarria delako edota legearen gune lauso eta ez erabat zehaztuak diren batzuen interpretazio beti bere aldekoa egiten duelako Espainiako Estatuak eta bere tresna politiko-judizialek.

Laburki bada ere horietariko nabarmenak aipatuko ditugu:

(i) Batetik kupoa, horren bitartez berton sortutako aberastasunaren gain bildutako diru publikoaren zati bat Estatuari bideratzen zaio, transferitu gabe dauden eskume-negatik.

(ii) Bestetik, Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Sostengarritasun Legearen ondorioz, Estatuak finkatzen ditu euskal erakundeek izan ditzaketen defizit publikoaren mugak, zorpetze mugak eta berauek murrizteko erritmoak ere.

(iii) Zentzu murriztaile horretan Estatuak baldintzatzen ditu berebat enplegu publikoen garapenerako zein langile publikoen soldaten baldintzen inguruko alderdi inportanteenak.

(iv) Orobat Estatuak ezartzen du ekinbide publikoarentzat ezinbestekoak diren bi tresnen erabilerarako oinarrizko legedia: kontratu publikoen legea eta diru-laguntzen legea.

Erabat urgentziazkoa da eremu horietan guztietan aurrerapausoak ematea burujabetza handiagoa lortze aldera, gaur egun egin ditzakegun politika ekonomiko sozialen zutabe inportanteak ukitzen dituztelako.

(i) Kupoari dagokionez, premiazkoa da Kupoaren kopuruen inguruan dauden diferentziak ahalik eta azkarren argitzea (1200 milioi eurotik gorakoa), are gehiago kontuan izanik orain arte adostasunik ez egonagatik ere Estatuak bere irizpidea inposatu eta diru hori bere aldera joan dela. Horrekin batera, Kupoaren lege berri bat diseinatu eta negoziatu beharko da, “euskal aldea” deritzonak negoziazio horretan autogobernuaren defentsarako eta egungo sistemak bai kalkuluan bai diseinuan (adibidez alde bakarreko arriskua) gure herriaren kalterako sortzen dituen distortsioak zuzentzeko jarrera irmoa izan beharko du[1].

(ii) Gainerako atalei dagokienez, aurrekontu ahalmen osoa eta finantza publiko zein funtzio publikoaren gaineko autogobernuaren defentsa eta sakontzeari ekin behar diogu, Bruselak zehazten dituen alderdietan Europako batasunarekin interlokuzio zuzena exijituz.

1.- Era berean, gure asmo eta helburua eskumen guztien transferentzia burutzea delarik, subiranotasunean aurrera egitearekin batera murrizten joan beharko da kupoaren garrantzia eta kopurua, erabateko likidaziorako bidean.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Hala ere, eta muga horiek duten garrantzia kendu gabe, EAEko erakundeek (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) 16.000tik gorako aurrekontua kudeatzen dute; alegia, herritarren diruaren zati handi bat; baliabide horiek ahalik eta modurik eraginkorrenean bueltatu beharko dira jendarte eta ekonomiara.

Zentzu honetan, aurrekontuak nola kudeatzen diren garrantzi handiko elementua da. Gobernu serio eta konprometitu batek bere kudeatze-praktikak eredugarri egin behar dituzten printzipio nagusi batzuen arabera jokatu beharko du:

(i) Zorroztasuna eta eraginkortasuna, xahutzerik ez: gastu korrontearen erabilera arrazionala, eta inbertsio gastuak ondo planifikatuz. Arreta jarriz, kalkuluak egiteko orduan, urtez urte blindatuta geratzen den gastu korronteari zein gastu korrontearen gehikuntza eragiten duten inbertsio proiektuei;

(ii) Gardentasuna, kontrolerako tresnak eta mekanismoak: diru publikoaren egiten denaren berri jakin behar dute herritarrek, eta bereziki gardenak izan behar dira kontratazio publikoak eta diru-laguntzen esleipenak;

(iii) Herritarren parte-hartzerako eta genero ikuspegia txertatzeko ekimenak indartu;

(iv) Honekin batera kudeaketa publiko zein politika publikoen ebaluazioa jarraitua egiteko mekanismoak artikulatu behar dira, desegokiak diren jokabide eta planteamenduak ahalik eta lasterren detektatu eta zuzentzeko;

(v) Araudi publikotik kanpo geratzen diren hainbat organismo publiko eta publiko-pribatuen azterketa, beren beharra eta egokitasuna baloratzeko.

Bestalde, gastua esleitzeko orduan, eta urtez urte moldaketak egon daitezkeen arren, irizpide nagusi batzuk markatu nahi ditugu.

(i) Gastu sozialak lehentasuna izango du;

(ii) Inbertsio gastuetan erraldoikeriak baztertu eta azpiegitura, ekipamendu zein enpresentzako transferentzietan irizpide jasangarriak lehenetsi;

(iii) Kontratazio publikoen irizpideak aztertu, ekonomia sozialeko enpresei eta enpresa txiki eta ertainei aukerak eskaintzeko. Horrez gain klausula sozialak ezartzeko bideari eutsi beharko litzaioke (enplegu baldintzak, generoa, ardura fiskala, hizkuntza irizpideak, ingurumenarekiko eragina, etab.)

Beharrezko da, halaber, EAEko sektore publiko osoaren gastu alorraren berrantolaketa, bikoiztasunak saihesteko (maila instituzional desberdinetako erakunde edo organismoen artean). LHLaren (Lurralde Historikoen Legearen) arabera diseinatutako eredu instituzionalak eskumenen arloan ahalbidetzen dituen desdoikuntza, bikoiztasun, alferrikako gastu eta burokratizazio asko eta handiak zuzentzen joateko. Herri ikuspegia gailendu behar da, eskumen definizio argiagoa ezarriz, eta erakunde komunak (Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarra) indartuz, beti ere Aldundiek zein udalek dituzten eskumenak eta berauek garatzeko autonomia errespetatuz. Zentzu horretan ere Erakunde arteko Ekarpen Legearen egunerratzea irizpide horiek eta erakundeen arteko gastuen banaketa berriak kontuan hartuta egin beharko litzateke.

Zor publikoaren inguruan, garbi eduki behar dugu ez dela sektore publikoaren garapenerako tresna egonkor eta ziurra, aitzitik zorpetze altuak sektore publikoaren kostu, mugak eta menpekotasunak areagotzen dituen bidea baita. Horregatik, oso modu neurtuan erabili behar da, etorkizunerako gastu menpekotasunik sortuko duten jarduerak finantzatzeko erabili gabe. Oro har, esan dezakegu, salbuespeneko egoera bat ez bada, zorpetzera jotzea ez dela komenigarria gastu korrontea finantzatzeko eta, aldiz, zentzu gehiago izan dezakeela itzulera esanguratsua izan dezaketen inbertsioen kasuan.

Edozelan ere, gai honetan lehen aipatu dugun legez, Europak eta Estatuak ezartzen dizkiguten mugak dira oztoporik nabarmena. Zentzu horretan ezinbesteko deritzogu gure defizit mugak, eta gure zorpetze mailak erabaki eta negoziatzeko burujabe izateari, gure finantza publikoen egoeratik abiatuta gure herriak dituen beharren eta aukeren arabera definituz nahi dugun zorpetze maila, edota une batean daukagun zorpetzea murrizteko ildo errealista bat (egoera sozioekonomikoaren hobekuntzarekin eta baliabide fiskalen igoerarekin lotuta egon beharko lukeena).

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Zerga politika

HERRI AURRERATU BATEK BEHAR DUEN ZERGA POLITIKA: EKITATEA, PROGRESIBITATEA, NAHIKOTASUNA

HERRIAREN EGOERA

1. Bizi dugun egiturazko krisiari aurre egiteko alternatiba sakon eta integralak dira beharrezkoak, gehiengoen eskubide eta kalitatezko bizi duin baten defentsa oinarri beharko luketenak. Krisiari irtenbide gisa inposatu zaizkigun neurriak, aldiz, kapital handien interesak babestera zuzenduak izan dira, ez langileonak. Kontrara, neurri horiek, beste urraketa batzuen artean, langileek mendeetan egindako borrokaren bitartez erdietsitako ongizate -sistema hustu dute.

Krisiaren eraginez eta, zehazki, zerga politikak izandako bilakaerak zerga-bilketarako ahalmena murriztu duenez, jendartearen beharrei erantzuteko behar besteko baliabideak eskuratzeko ezintasuna nabarmendu da. Baliabide gutxitze honi erantzuteko egiturazko neurriak hartu ordez defizit publikoa areagotu da eta zorraren zama (amortizazioka gehi interesak) ordaintzea lehenetsi eta aurrekontu murrizketak orokortu dira, ongizate estatua suntsitzera daraman ildoa areagotuz.

2. Gainera jendartean dauden disparekotasunak gero eta handiagoak dira, bai errenta eta bai aberastasunaren banaketari dagokionez. Indarrean dagoen zerga sistema gero eta bidegabeagoa izanik ez dago ez diseinatua ez kudeatua ere dualizazio gehikorrera garamatzan bilakaera horri aurre egiteko. Azken urteotan atzera egin da ekitate eta progresibitate printzipioetan, zama batez ere lan errenta eta zeharkako zergetara bideratu da, hau da, zerga-sistemaren geroz eta maila handiagoa herritar xumeen bizkar utziz joan da, horrela fiskalitateak izan zezakeen funtzio birbanatzailea maila handian neutralizatuz.

Horrez gain, botere ekonomikoen mesedetan diseinaturiko politika eta kudeaketa fiskalak nazioarteko zerga ihesa eta ingeniaritza fiskala areagotu dituzte; egungo ekonomia kapi-

talista globalaren euskarri diren gobernuek kapital finantzario eta enpresa transnazional handien neurrira egindako akordio fiskalak (Tax Rulings) bultzatu, eta paradisu fiskalen aurrean ezikusiarena egin dute. Jokaleku honetan, enpresa handien mozkinak tributazio baxuko eremuetara bideratzen dira eta kapital errenta, aberastasuna eta enpresen mozkinei dagokionez dumping fiskala zabaltzen ari da

Bestalde, zerga iruzurraren maila jendartearen kezka garrantzitsua da, berdintasun printzipioa eta sistemaren zilegitasuna bera zalantzan jartzen baitute. 2016an Legebiltzarrean adituek aurkeztutako datuen arabera ezkutuko ekonomia BPGaren %17 ingurukoa da eta honek gutxienez Administrazioei urteko 3.700 milioietako galera suposatzen die, 2.300 milioi zergak ez jasotzeagatik eta 1.400 milioi gizarte segurantzako kotizazioen galerei dagozkionak.

3. Azken hamarkadetako bilakaeraren emaitza da, hortaz, zerga zamaren banaketa geroz eta desorekatu eta desegokia, zerga sistemaren izaera gero eta erregresiboagoak izatea. Errenta zergan progresibitate (aurrerakortasun) galera dago, kapital errentek pisua galtzen dute zergetan, sozietateen mozkinak huskeria bat tributatzen dute eta aberastasunaren gaineko zergak ia desagertzear egon dira. Arestian esan dugunez, zerga politikaren bidez definitzen da karga publikoak nola banatu behar diren herritarren artean, eta argi dago botere ekonomikoetatik zein beraien mende dauden gobernuetatik zer nolako jendarte eredua bultzatzen ari den. Krisiak nabarmendu du, gainera, zerga sistema erregresiboak ez direla gai ongizate estatuari eusteko, nagusiki herritar arrunten gain eraikitako tributazio sistemen bilketa-ahalmena ez baita nahikoa izaten herri bateko pertsona eta ekonomiaren beharrei erantzuteko.

Lortzen diren baliabideen urritasunaren adierazlea da presio fiskalaren datua eta honen konparaketa inguruko herrialdeekin. Presio fiskala 2014. urtean %32 izan da EAEn (zerga itundu, udal zerga eta gizarte segurantzako kotizazioak BPGarekiko). Europako datuekin alderatzen badugu UE-28an batazbesteko presio fiskala %40ko da eta bi datuen arteko aldea 8 puntukoa da. Estimazio bat egiten badugu 8 puntu hauek zerga-bilketan izango luketen eraginari buruz, 5.000 milioitik gorako aldea ateratzen da[1] eta honek adierazten du non gauden eta ze ibilbide egiteko aukera dugun sektore publikoarentzat baliabideak eskuratzeari dagokionez; nahiz eta gap horri zuzentzeko bitartekoei dagokienez, muga handiak ditugun, gure ez-Estatu izateak dakarkigun menpekotasun politikoarekin lotuta daudenak.

1.- EAEko Barne Produkto Gordina 2014an: 66.930 milioi euro

4. Egoera honi aurre egiteko eta Euskal Herriaren interes eta beharrei erantzungo dien zerga politika osatzeko, erreforma sakona egitea ezinbestekoa bada ere ez dauzkagu horretarako beharrezkoak liratekeen tresna guztiak gure esku, arlo honetan ere subiranotasunean urratsak derrigorrezkoak baitira esku-hartze integral eta koherente bat egin ahal izateko. Izan ere, Ekonomia Itunak muga garrantzitsuak ezartzen dizkie euskal erakundeen zerga arloko eskumenei; (i) Zerga zuzenetan araugintza eskumena izan arren, sozietate zergan enpresa handiek estatuko araudiaren arabera tributatzen dute eta haien ikuskaritzari ere nagusiki Estatuaren eskumenekoa da; (ii) Zeharkako zergetan, hala nola BEZa edo zerga bereziak (hidrokarburoak, tabakoa edota alkoholaren kontsumoa zergapetzen dutenak) ez dugu inolako araugintza eskumenik; eta aduanak ere estatuaren esku daude; (iv) Nazioarteko tratatu eta hitzarmenak adosteko, beste herrialdeekin informazioa trukatzeko edota ECOFINen parte hartzeko Estatuaren mende gaude. Beraz gure sistema propioa diseinatzeko eta iruzurraren kontra aritzeko funtsezko tresnak falta zaizkigu.

Esan bezala, hortaz, ez gara Estatu independente bat eta ondorioz, ez daukagu presio fiskalean batezbestekora iristeko dauden 8 puntu horietan eragiteko ahalmen osorik, ezin baitugu eragin ez zeharkako zergapetzean ezta kotizazio sozialetan, eta ikuskaritza eta iruzurraren aurkako borrokan ere bitarteko mugatuak dauzkagu. Hori kontuan hartzeak toki errealistagoan kokatzen gaitu Euskal Herrian eta subiranotasun ekonomikoan aurrera egiten ez dugu bitartean presio fiskalaren igoerak burutzeko ditugun aukeren inguruan. Halere, bitartean, zuzeneko zergapetzera mugatu beharko gara, baina alor horretan ere badago gehikuntzarako margen nabarmena.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Euskal Herrian Ongizate Estatu duina garatzeko erronka dugu: herritar guztien oinarrizko eskubideak ziurtatu (hezkuntza, osasuna, zaintza, etxebizitza…) eta gure ehun produktiboaren defentsan aritzeko (ikerketa eta garapena, formazioa, politika industrial aktiboak...) baliabideak eskuratzea lehentasunezkoa da. jendarte justuago eta kohesionatu bat eraikitzeko sektore publikoari beharrezko baliabide ekonomikoak bideratu behar zaizkio, politika sozialak garatzeko, gastu publikoa indartzeko eta sozialki errentagarriak diren inbertsioak egiteko.

Baliabide hauek egiturazkoak behar dute izan, sektore publikoaren biziraupena oinarri tinkoen gain eraikiko dela ziurtatzeko. Alegia, herritarren eta ehun produktiboaren alde eraginkortasunez jarduteko ahalmena izango duen sektore publiko indartsu bat osatu nahi badugu (Europako herrialde aurreratuenetan dagoen ereduaren antzera), horretarako zerga sistemaren bilketa ahalmena gehitu behar dugu eta presio fiskala inguruko herritako batezbestekoetara gerturatu pixkanaka.

Xede horrek zerga erreforma sakon bat eskatzen du, sistema bidezkoa, aurrerakoia, ekitatiboa eta solidarioa bilakatzeko eta gure inguruko herrialde aurreratuenek lortzen dituzten ongizate eta egonkortasun mailetara gerturatu ahal izateko. Gainera eraiki behar den zerga sistemaren ezaugarriak definituko dira zerga zama modu orekatuagoan banatzeko eta aberastasunaren birbanaketa handiagoa lortzeko helburuarekin, hau da zerga justizia berreskuratu behar da. Sektore publikoa finantzatzeko ekarpena herritar guztiek egin behar dugu, baina ahalmen handiago dutenek neurri handiagoan egin behar dute.

Prozesu honetan zerga-politikaren inguruko eztabaida soziala pizteko helburua dugu. Zerga politikaren diseinua garrantzitsua bada ere, eztabaida bera jendartean zabaldu eta demokratizatzea funtsezkoa da. Benetako demokrazia bat erdiesteko elkartasunean eta justizian oinarritutako heziketa prozesuak egin behar dira eta zerga politikan hartutako neurriak herritarrek ezagutu eta aukera ezberdinen ondorioak ikusi behar dituzte.

Aipatutakoak jomugan baditugu tresna eraginkorrak landu behar ditugu. Nabarmendu ditugu zerga sistema propio bat eraikitzeko egungo marko juridikoak ezartzen dituen mugak eta hauek berrikustea funtsezkoa izango da nahi dugun eta irudikatzen dugun jendarte eredua antolatzeko.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

1. Zerga sistema propio eraikitzeko subiranotasun fiskal osoa behar dugu, funtsezko bitartekoak eskainiko dizkiguna, araugintza ahalmenei eta kudeaketari dagokionez, nazioarteko tratatu eta hitzarmenak adosteko eta informazio trukaketak zuzenean egiteko, enpresa handien ikuskaritza egin eta iruzurraren aurkako borrokan aritzeko. Beraz egungo marko juridikoak dituen mugak berrikustea funtsezkoa da, zentzu horretan ezinbestekoa da Euskal Herriaren burujabetza politiko eta ekonomikoaren alde lan egitea, bai herri mugimendutik baina berebat erakundeetatik.

Zerga politikaren eta kudeaketaren eremu garrantzitsuen eskumena behar dugu, ditugun asmoekin bat datozen erremintak lortzeko. Ildo horretan etengabeko lanketa tekniko-politikoa egitea legokioke Burujabetza Ekonomikorako Sailburuordetzari.

Fiskalitate arloan honakoak izango lirateke lan ildo garrantzitsuak:

(i) BEZ eta Zerga Berezietako araugintza eskumena eskatzea. BEZari dagokionez zerga-tasak (tipoak) berraztertu behar dira, eta zerga tasa bakoitzari lotzen zaizkion ondasun eta jardueren multzoak aztertu behar dira. Egungo zerga sistemaren izaera erregresiboa aldatzeko nahitaezkoa da kontsumoari lotutako zergen inguruko araugintza ahalmena izatea.

(ii) Nazioarteko tratatuak eta hitzarmenak sinatzeko eta informazio fiskala Estatuaren bitartekaritzarik gabe trukatzeko ahalmena lantzea

(iii) Sozietate zergan enpresa handien konexio puntuak berrikustea araugintza eta ikuskaritzari dagokionez.

(iv) Europari begira, aduenetako errentaren eskumena, zerga eta finantza informazioaren trukaketa, ECOFINen zuzeneko kide bezala partaidetza.

2. Euskal Estatuaren bidean, ezinbesteko urratsa izango da Euskal Herriko Ogasun bakarra sortzea. Egungo marko juridikoan zerga-alorreko eskumenak foru lurraldeen esku daude eta Eusko Jaurlaritzak herri bateko garapenerako funtsezko gaietan eskumenak izan arren, ez du diru-bilketa tributarioan eragiteko edota zerga sistema arautzeko ahalmenik. Gure erakundeen eskumen-banaketa eraginkorra eta solidarioa egin behar dugu. Herri ikuspegia indartzeko Lurralde Historikoen Legea eta Harmonizazio legea berrikusi behar dira. Orobat, gure etorkizuneko Ogasuna egituratzen hasteko bidean, interesgarria litzateke Euskal Herriko lau foru ogasunen artean Agentzi Tributarioa sortzea.

3. Edonola ere, bi norabide horietan izan daitezkeen aurrerapenak gauzatu bitartean, gaur egundik ere badago fiskalitatean eredu justuago baten alde eratzen joateko margena.

Zerga sistema bidezkoagoa eta solidarioagoa bat eraikitzeko urratsak emango dira, presio fiskala handitu eta zerga-bilketa ahalmena handitzeko; eta zerga zama modu zuzenagoan banatzeko. Horretarako errenta altuek, kapital errentek, aberastasun eta ondare handienek eta enpresen mozkinek gehiago ordaintzea dakarten neurriak lehenetsiko dira, modu honetan azken urteetako ildo erregresiboari buelta eman eta egoera ekonomiko hobea dutenei esfortzu handiagoa eskatuz. Honela:

PFEZ zergari dagokionez:

EAEko Ogasunaren 2014.urteko txosten bateratuaren arabera PFEZ zergaren %92,2 lan errentetatik eskuratzen da. Bestalde zerga honen bidez bilketaren %36,8 biltzen da (2015 urtea 4.647,7/12.612,6). Honek adierazten du zerga sistemak soldatapekoen errenten gain duen desoreka larria. Hori zuzentzeko zenbait neurri hartu behar dira, batez ere kapital errentak eta jarduera ekonomikoen tributazioa handitzen joateko. Besteak beste, proposatzen dira

(i) Oinarri bakarrera bueltatzea kapital errentak beste errenten trataera berdina izan dezaten.

(ii) Zenbait kenkariren izaera erregresiboa aztertzea, adibidez kenkari familiarrak edo batera tributatzeko kenkariak edota BGAE kenkariak, errenta baxuenak dituzten pertsonek baliatu ez ditzaketenak. Ildo berean, etxebizitzen erosketarekin loturiko kenkaria birplanteatzea, bere pizgarri efektua zalantzazkoa izateaz gain bai Nafarroan bai Estatuan dagoeneko ezabatua izan dela kontuan hartuta.

(iii) Aitzitik, haurrentzako kenkari eskuragarrien kenkaria sortu, errenta maila xumeenek ere aplikatu ahal dutena.

Sozietateen Mozkinen gaineko zerga

Enpresen mozkinen gaineko zergak aldaketa sakonak behar ditu, izan ere azken urteetako ildotik 2015ean EAEko zerga-bilketaren %8,2 besterik ez da jaso zerga honetatik. Ekonomia Ituna dela eta enpresa handienen araudia Estatuaren esku dago. Subiranotasun fiskala behar dugu arlo honetan ere, transferentzia prezioen inguruko ikuskaritzarako, taldeen ingeniaritza fiskala ikuskatzeko, informazio trukaketa eta abarretan esku-hartze zuzena izateko. Bitartean ezinbestekoa da 2015erako kontrarreformaren bidez onartutako Sozietate Zerga indargabetu eta Sozietateen Mozkinen gaineko zerga berri bat onartzea.

Gure zerga proposamenaren helburuak dira ehun ekonomiko erreala sendotzea eta bilketa ahalmena igotzea. Horretarako,

(i) Ezabatuko dira egungo zergak oinarri ezargarria husteko dituen erreserbei lotutako murrizketak eta ordezkatuko dira Inbertsioa eta enplegua sustatzeko erreserbari lotutako pizgarri neurtu batekin. Bere helburua batez ere inbertsioa eta I+G sustatzea izango da. Lurraldean eta pertsonengan onura sortzen duten ekintzak ere sustatuko dira: enplegu finkoa, berdintasuna, euskara, ingurumena.

(ii) Kenkariei dagokionez bakarra mantenduko da, I+Gri dagokiona, baina muga izango du; horrela tipo minimo erreala ezarriko da eta mozkinak dituzten enpresek beti gutxieneko bat ordainduko beharko dute..

(iii) Langileen parte-hartzea sustatzen duten enpresa eredu demokratikoei erregimen bereziak ahalbidetzea.

(iv) Zerga erregresibo bat dago onartua, enpresa handienek dituzte tasa efektibo txikienak. Hau aldatu behar da eta enpresa handiek ere proportzionalki ordaindu behar dute. Horretarako kenkarien muga jarri, erreserben inguruko pizgarriei topeak jarri, edota erregimen eta errenta batzuen trataera bereziak berraztertuko dira. Baita ere talde barruko enpresen artean sortutako finantza gastuen kengarritasuna ezabatuko da.

Aberastasunaren zergapetzea:

Aberastasunaren gaineko zerga handiago baten exijentzia azken hamarkadetan eztabaida teorikotik zein aplikazio praktikotik ia-ia erabat desagertuta dagoen elementu bat izan da. Izan ere, aberastasun handia dutenen interesak nagusitu eta, pitinka-pitinka aberastasunaren gaineko zerga mota guztiak kentzea edo minimora eramatea lortu dute.

Gauza jakina da guk ezinbestekoa jotzen dugula aberastasuna zergapetzea, progresibitatea eta ekitatea berreskuratzeaz gain, herritar xumeek zergak ordaintzeko betebeharra badute, aberatsek gehiago ez ordaintzea ez delako bidezkoa eta bilketan eragin positiboa izateaz gain, batez ere sistemari zilegitasuna ematen dio zerga mota hauekin osatzeak.

(i) Horretarako batez ere Aberastasun eta Fortuna handien gaineko zerga lurralde guztietara zabaltzea proposatzen da. Ezaugarri nagusiak izango lirateke enpresa partaidetzak oinarri ezargarrietan konputatzea (aberastasunaren parte baitira), eta eskudo fiskala ezabatzea. Zerga diseinu honekin bat datorren zerga tasa oinarritzat, minimo salbuetsiak berrikustea (egungoak altuegiak dira) proposatzen da.

(ii) Ohiko etxebizitza erabilera ez duten etxebizitzen gaineko OHZ errekargua jartzeko aukera zabaldu behar da.

Ingurumen zergak

Ingurumen fiskalitatea jorratu beharreko eremu interesgarritzat jotzen dugu. Zerga bilketan izan dezakeen eraginez harago, trantsizio ekologikoaren bidea sustatzeko osagai inportantea izan daitezke. Zentzu honetan, helburuak lirateke: (i) jendartearen bizkar uzten diren ingurumen-kostuak haiek eragiten dituen agente pribatuaren jardueran internalizatzea, eta (ii) jokabide aldaketak eragitea, inpaktu kutsakorra duten produktuen kontsumoa eta jarduerak gutxitu eta teknologia garbien erabilera eta jokabide jasangarriak sustatzeko.

Premiazkoa da alor honetan nazioarteko esperientzian abiarazitako urratsak ezagutu eta gurean izan dezaketen potentzialitatea aztertzea. Hondakin solidoen isurketa eta errausketaren gaineko zergak, lurzoruen erabileraren aldaketen gainekoa, atmosferari egindako isurketa kutsakorren gainekoa, erabilera bakarreko plastikozko poltsen gainekoa… dira horietako batzuk. Ingurumen zergek normalean izaera finalista izaten dute, lurraldean dauden ingurumen-pasiboen lehengoratzea finantzatzeko, hots: kutsatutako lurzoruak, ibai eta baso asaldatuak, narriatutako atmosfera eta soinu-kalitatea, desagertzeko zorian dagoen lurreko eta itsasoko biodibertsitatea, eta narriatutako paisaiak

Sortu daitezkeen zerga berriez gain, dauden zergetan ingurumen irizpideak gehitzeari ere heldu beharko litzaioke.

Ekotasa edo turismoaren gaineko tasa ezartzea ere egokia litzateke, turismo egonaldiak egunen arabera zergapetuko dituena.

Iruzurraren aurkako borroka

Iruzur fiskala jendarte honetako gaitz handienetako bat da, jokabide erabat insolidarioa da eta, zentzu horretan, onartezina. Edozein zerga sistemak behar duen zilegitasunaren ikuspegitik derrigorrezkoa da iruzurraren aurkako 0 tolerantzia, izan ere eraginkortasuna eta justizia ez soilik arauetan, zergen kudeaketan ere ziurtatu behar ditugu, herritar guztiak berdinak izan behar dutelako Ogasunaren aurrean.

Iruzurraren aurkako borrokak ekar ditzakeen baliabide gehigarrien inguruko kalkuluak ez dira batere zehatzak, izan ere ezkutuan dauden jarduera batzuei zerga-bilketa potentzialaz ari baikara. Agian, eta kontu handiarekin beti ere, arrazoizko erreferentzia bat izan daiteke iruzurrak sortzen duen zerga bilketa galeraren erdia berreskuratzeko helburua markatzea (EAErako egindako azken estimazioen arabera 1.150 milioi euroko bilketa gehikuntza izango litzateke).

Iruzurraren kontrako borroka planteamendu integral batean kokatzen dugu: batetik, kontzientziazioa, bestetik, araugintzan zerga ihesa mugatzeko aldaketak eta baita ere, administrazioaren eraginkortasuna eta baliabideak areagotzea. Gainera ingeniaritza fiskalaren

bidez paradisu fiskal eta tributazio baxuko herrialdeetara egiten diren mozkinen desbideratzeei aurre egitea berebiziko erronka dira.

Zerga-paradisuen aurkako borrokak nazioarte mailako ekimen aldeaniztunak behar ditu. Zentzu horretan, zerga-paradisuekiko harreman finantzariok zorroztasunez mugatuko lituzkeen araudi orokor bateratu baten aukera oso urrun badago ere, aurrerapausoak sustatu eta eman daitezke informazio trukerako hitzarmen eta bitartekoen alorrean. Oraindik nagusi den banan banako errekerimenduez harago, Estatuen arteko informazio truke masibo, automatiko eta aldizkakoak sistematizatu eta ohiko (eta derrigorrezko) bihurtu beharko lirateke.

Esan gabe doa, dena den, alor hauetan guztietan eragiteko ahalmena Estatuen esku dagoela, beraz EAEren eskumenetik at (horrek iruzurraren parte esanguratsuenaren aurkako borrokan jarduteko tresna propiorik gabe uzten gaitu, Estatu espainolak izan dezakeen gogo eta eraginkortasunaren mende). Halere, bai gaur egungo posiziotik baita etorkizunean burujabetzan aurrerapausoak eman ahala eragiteko aukera izan dezakegun foro eta harremanetan, paradisu fiskalekin eta eskala handiko nazioarteko iruzurrarekin bukatzeko beharrezko diren erabaki eta konpromisoak hartzearen alde egingo dugu beti.

Edonola ere, eta gure eskumen eremu txiki eta mugatuagora itzuliz, iruzurraren aurkako borroka areagotzeko bidean honako neurri sorta proposatzen dugu:

(i) Zerga ikuskaritzan bitartekoak areagotu behar dira, giza baliabideak eta teknikoetan inbertitu behar da.

(ii) Informazioa jasotzeko eta trukatzeko araudiak zorroztu behar dira eta zigor eraginkorrak jarri gardentasuna saihesten duten finantza entitate, enpresa, zergadun edota herrialdeen aurka.

(iii) Enpresa eta aberastasun handiei ikuskaritza zorrotz eta jarraitua egin beharko litzaieke (arreta berezia ezarriz lurraldez kanpoko jarduketetan) (i) bai paradisu fiskaletan filialak dituzten, edo izan dituzten, zergadun guztiei (eta beren taldekide direnei), (ii) baita ingeniaritza fiskaleko zerbitzuak eta gomendioak eskaintzen dituzten aholkularitza enpresa eta finantza-entitateei ere; eta (iii) baita haien ohiko bezeroei ere.

(iv) Administrazio maila guztietan kontratazio publikoan ardura fiskalari buruzko klausulak ezartzea, beren kontratazioetan fiskalki arduratsu diren enpresak lehenetsiz eta, aldiz, zerga-paradisuen bitartez jarduten duten enpresak zigortuz (edo zuzenean, eurekin ez kontratatuz).

(v) Iruzurraren aurkako Euskal Behatokia sortzea proposatzen dugu, iruzur fiskalaren aurkako borrokaren ebaluazio, jarraipen eta aholkulari funtzioak egingo lituzkeenak

(vi) Arriskuko jarduera zantzuak dituzten zergadunen inguruko kontrol zorrotzak egiteko mekanismoak sortuko dira.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia

Finantza-sistema

EKONOMIA ETA PERTSONEN BEHARREI ERANTZUNGO DIEN EUSKAL FINANTZA SISTEMA

HERRIAREN EGOERA

1. Sistema finantzarioa azkar aldatu da, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei eta kapitalak mugitzeko askatasunari esker. Aktibo finantzarioak munduko ekonomia baino askoz ere azkarrago biderkatu dira (adibidez, BPGaren hazkundearekin edo munduko merkataritzaren hazkundearekin alderatuta) eta transakzioak, merkatuak eta erabilitako tresna finantzarioen konplexutasuna areagotu egin dira.

Gaur egungo krisi ekonomikoak osagai finantzario oso garrantzitsu bat dauka, bere jarduerak ez direlako sektorea aldatu den erritmoan arautu eta kontrolatu. Urgentzia krisiarekin agertu zen. Horren ondorioz, atzeraldiaren garaian araudi berriak eta egiturazko aldaketak ia eztabaidatu gabe ezarri dira, muturreko egoera finantzarioak behartuta, kanpoko botereen eskutik. Nazioarteko instantziek sektorearen arauketa de facto beren gain hartu dute, baita xehetasunik txikienak ere, are gehiago estatu espainiarraren kasuan, eta horrek kalte nabarmena egiten digu (EBrekin sinatutako Adostasun Memoranduma).

2. Euskal Herrian, aurrezki-kutxen (BBK, Vital eta Kutxa) eta kreditu-kooperatiben (Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxa) fusio-prozesuak bultzatu dira. Gainera, prozesua aprobetxatu da aurrezki-kutxak fundazio pribatu bilakatzeko. Horrela, egituraketa erabat endogamikoa duten fundazio-patronatuen esku utzi dira herri-klaseen aurrezkiekin pilatutako ondare handia. Krisiaren kudeaketak aurretik eraman ditu herrialde honetako herritarren aurrezteko tresna garrantzitsuenak. Horrez gain, finantza-sistemaren erregulazioa eta gainbegiraketa are gehiago zentralizatu da Europako Banku Zentralean.

Bestalde, dogmatika neoliberala are gehiago gogortu da; izan ere, guztiz bereizi dira finantza-jarduerak eta ekoizpen-jarduerak, eta zigortu egin da, esate baterako, bankuek enpresen akzioak edukitzea. Halaber, debekatu egin dira parte-hartze publikoak bankuetan, eta asko zaildu da sektore publikoak finantzen arloan jardutea.

3. Testuinguru konplexu horretan, askotan galdu egiten da finantza-sistemaren zentzu ekonomikoa; finantza-sistemaren oinarrizko funtzioa, bada, aurrezki motak bildu eta inbertsiora bideratzea da, dela publikora, dela pribatura. Oinarrizko funtzioa da, bai ekoizpen-sistemak funtziona dezan, bai epe luzeko inbertsioak egin ahal izan daitezen sektore publikoan nahiz pribatuan.

Erakundeek ere ez dute lan handirik egin finantza-sistema publiko bat egituratzeko, eta, are gutxiago, sistema pribatua erregulatzeko. Finantzen Euskal Institutua ahultzen ari da, eta ez du funtzio argirik. Jarduera publikoaren beste oinarria arrisku-kapitala izan da. Hainbat sozietatetan xehatu da, baina desagregazio horren arrazoia segurtasun osoz jakin gabe.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Herrialde batek inbertsiorantz bideratu behar du aurrezki-fluxua, eta horixe da finantza -sistema propio baten funtzioa. Euskal Herriak ez du eskumenik eremu horretan. Formalki dagozkionak –kutxen erregulazioa, esaterako– Europako Banku Zentralak gainbegiratzen ditu. Azkenik, Euskal Herriak ez du ez tresna publikorik, ez eta, orain arte, borondate politikorik ere Europar Batasunaren barruan finantza-sistema propio bat sortzeko.

Euskal Herriak, euskal estatua eraikitzeko etorkizuneko nahiei helduta, finantzen eremuan legegintza- eta betearazpen-gaitasunak ere bere gain hartzeko prestatzen joan behar du, gure inguruko beste edozer estaturen antzeko subiranotasun-parametroen arabera.

Finantza-sistema propioa eratzeko, zenbait tresna egituratu behar ditugu; hartara, agintari publikoek sektorean esku hartu ahal izan dezaten.

Hiru erronka ditugu parez pare:

(i) subiranotasuna berreskuratzea finantzen eremuan, euskal finantza-sistema antolatu, egituratu, erregulatu eta gainbegiratu ahal izateko Europako Banku Zentralarekin koordinatuta.

(ii) finantza-sektore publikoa antolatzea, Gasteizko Gobernuaren eta aldundien esku dauden tresna guztiak erabilita.

(iii) finantza-sektore pribatuan esku hartzeko gaitasuna handitzea eta baliatzea, eta, horretarako, horren jarduera erregulatu eta gainbegiratzea.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Euskal estatu bat lortzeko ikuspegi estrategikoago batean, eta banku zentralaren eskumenei helduta, euskal finantza-sistema kontrolatzeko eta gainbegiratzeko funtzioak EAEra transferitzea exijitu beharko litzateke, eta, sistema osatzen duten elementuei dagokienez, honako elementu hauek zehazki: erregulazioa, gainbegiraketa jarraitua eta aldizkakoa, neurri zuzentzaileak, eta diziplina- eta zehapen-araubidea.

Finantza-erregulazioan eskumen berriak hartzeari dagokionez, funtsezkoa da Europako erakundeekin (Ecofin, Europako Banku Zentrala) linea zuzena ezartzeko aukera aintzat hartzea.

Gure gaur egungo eskumen-esparrura etorrita, zera planteatuko genuke lehenik eta behin: Eusko Jaurlaritzak dituen tresnekin esku-hartze publikorako zenbait tresna garatzea. Helburua da euskal finantza-sistema publiko bat sortzea; hartara, aurrezki publikoa Euskal Herriko gizarte-beharretara eta ekoizpen-inbertsiora bideratzeko.

Ildo horretatik, aukera interesgarria izan daiteke Finantzen Euskal Institutua berraktibatu eta bultzatzea; alegia, bere eskumenak handitzea, Kreditu Ofizialeko Institutuaren antzeko karakterizazioa izan dezan: Eusko Jaurlaritzaren Banku Publiko eta Finantza Agentzia. Eraginkortasunez esku hartzeko, ezinbestekoa da finantzaketa nahikoa izatea, eta, horretarako, nazioarteko finantza-merkatuetan funtsak erakartzeko aukera bermatu behar zaio Finantzen Euskal Institutuari (bonuak jaulkitzearen bidez edo EBZren enkanteetara sartzearen bidez), baita, epe ertainera, beste finantza-zerbitzu batzuk eskaini ere, esaterako, herritarrentzako gordailuen eta kredituen kudeaketa (horretarako, banku-fitxa lortu beharko litzateke).

Gainera, bankuena ez den bestelako finantzaketa-mekanismo berrien oinarriak ezar litezke; esate baterako, Burtsa Merkatu Alternatiboa, enpresa txiki eta ertainak kapitalizatzera bideratutakoa. Crowfundinga erregulatzea, proiektu txikiagoetarako (babes-mekanismoak, bermeak, eta abar ezartzea).

Finantza-sektore publikoaren panorama honetako beste tresna interesgarri batzuk arrisku -kapitaleko sozietate publikoak –sektorea berrantolatu beharra dago– dira, bai eta BGAE publiko bat edo Rating Agentzia Publiko bat eratzea ere.

Azkenik, gaur egun erakunde pribatu bat denez atal honekin guztiz bat ez badator ere, Kutxabank aipatu nahi dugu. Kutxen jatorria publikoa eta soziala da eta, beraz, bankuak eratzeko oinarri hartutako funtsena eta aktiboena ere. Halaber, banku-fundazioek –era-

kundearen jabetzaren egungo titularrak dira– ez dute inola ere bermatzen horren kontrol demokratikoa. Hori dela eta, euskal herritarren interes orokorrarekin arduratzen eta konprometitzen den jarrera hartuta, erakundeei indar handiko finantza-tresna izan daitekeenaren kontrola berreskuratzeko aukera emango dieten bide guztiak aztertu behar dira; hartara, gure herriaren ekonomia- eta gizarte-garapena sustatzeko.

Bigarren jarduketa-ardatza aurrezki pribatuen erabilera jakin batzuk sustatzea izango litzateke. Zenbait neurri ezarriko lirateke ekoizpen-jardueretara edo jarduera estrategikoetara zuzendutako kreditua bultzatzeko, herrialdea garatzeko. Hauek, esate baterako: (i) BGAEei buruzko araudia aldatzea, industria- eta enpresa-proiektuetan eta gizarte-interesekoetan inbertsio handiagoa sustatzeko; (ii) arriskuak estaltzeko eta euskal banku eta kutxekin aliantzak egiteko politika bat bultzatzea, esaterako, mikrokredituak sustatzeko hitzarmenen bidez, edo enpresentzako abalen sistema indartzea; (iii) ekoizpen-enpresetan inbertitzeko nahitaezko koefiziente bat ezartzea enpresei, beren pasiboen arabera; horretarako eta nahi ez diren ondorio gaiztoak saihesteko, legeria xehatua eta gainbegiraketa zorrotza egingo dira.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

PERTSONAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Industria

KOKAPEN OROKORRA

Industria-politika bat Gobernu baten jarduketa-elementu bat da, eta gobernu horren helburu orokorretan kokatzen da. Helburu horiek jarduketaren gaitasunak eragindako herritarren bizitza-kalitateari, oparotasunari eta etorkizuneko iguripenei lotuta egoten dira funtsean.

Ikuspegi orokorra

• Industria-jardueraren interpretazioa ez da argia kontrastatzen diren iturrien arabera. Industriari ematen zaizkion zerbitzu aurreratuen zatia, hain zuzen, industria-jardueraren adierazle estatistikoetatik kanpo geratzen da askotan, nahiz eta gero eta protagonismo handiagoa izan sektoreko enpresetan.

• Printzipio horien mende edo horiek baldintzatuta dago, hein handi batean posizio ideologikoetatik eratorrita baitaude (liberalak eta esku-hartzaileak, balioenak...) Hausnarketa honen abiaburuan Euskal Herria eta bertako pertsonak jartzen ditugu ereduaren eta solidaritatearen erdigunean, baita ere iraunkortasuna, tokiko kudeaketa, jendartearen jabekuntza, euskal ondarearen kontrola eta inplikatutako agente guztien parte-hartzea erabaki estrategikoetan balio eta helburu gisa.

• Industria-politika batek erkidego baten sentimenduen eta helburuen adierazpena (solidaritatea, demokrazia ekonomikoa, parte-hartzea, lanaren balioa, banaketa ekitatiboa, hazkundea eta bizitza-maila hobetzea...) izan behar badu, argi eta garbi agertu behar du industria-politika horren arrazoian eta xedean. Erkidegoa osatzen duten pertsonen jomuga etiko batetik abiatuta.

• Eraginkorra izan behar du, hau da, planteatutako helburuak lortzeko aukera arrazionalak izan behar ditu. Jarduketa-ildoei egokitutako diseinua eskatzen du horrek, eta politika horren protagonisten konpromiso argia ere bai.

• Gaur egun eremu honetan jarduteko gaitasuna duten herrialde guztiek industria-eremu honetan jarduteko dituzten aukerei buruzko adituen diagnostiko bat edukitzen dute, eta nolabait aktiboak izaten dira eremu honetan. Ingurune bakoitzeko posizio lehiakorrak, hobetzeko aukerak... mahai gainean izaten dituzte gobernu guztiek. Erresuma Batukoaren gisako gobernu liberalak edozein esku-hartzeren aurka egon izan badira ere tradizionalki, industria nazionala bultzatzeko politika aktiboak garatzen ari dira. Eta nola ez, aipatzekoak

dira, halaber, Frantziako eta Alemaniako gobernuen jarduketak, eta Europar Batasunarena ere bai, bertako industria-ehunaren defentsa baitu helburu nagusietako bat, batik bat ETEei zuzendutakoa dela argi utziz, industriako enpleguaren ehuneko nagusia osatzen baitute.

Gure kasuan zer barne hartzen du industria-politikak?

• Industriak Euskal Herrian duen garrantzia balioestea: enpleguan, aberastasuna sortzean, kulturarekiko lotura oro har...

• Azken finean industria-politika Gobernu-mailan sartu beharreko lehentasunen rankingean kokatzea. Industriari eusten dioten oinarrizko agenteak identifikatzea: lurraldean dauden enpresa-tipologiak, gaitutako pertsonak, kapitalen merkatua, finantzaketarako sarbidea, erakundeak (patronala eta sindikatuak), ezagutzaren egitura (unibertsitateak, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea, bestelako agenteak...), azpiegiturak, segurtasun juridikoa eta zerga-sistema, produkzio-kostuak (materialak, energia, finantzaketa, lanarenak, zergak, logistika...), erakunde publikoak, merkatuak, balio-kateak,...

• Jarduketa-gaitasun publikoak identifikatzea: legeria, kudeatutako erabaki-eremuak, aurrekontu propioa, palanka-efektu finantzarioa zerga-politika, erabaki estrategikoetako eragina, lehia bermatzea...

• Helburuak hautatzea eta lehenestea.

Printzipio politiko orokorrak eta administrazio publikoaren inplikazio-maila.

Eredu desberdinak daude industriaren ia % 100ak izaera pribatua duen marko global batean. Azken urteotan sektore publikoak industriaren gainean duen eragina —zuzena nahiz zeharkakoa— uzten joan da, eta horrekin batera politika eta sektore industriala eraikuntza nazionalaren eskema zabalago batean integratzeko gaitasuna galdu da, eskema horretan industriak herrialdearen estrategia global bat bultzatuko eta indartuko lukeela aintzat hartuta —industriako protagonisten interesak gutxietsi gabe—. Batez ere Kutxak banku bihurtzeko prozesuarekin eta industriako partaidetzen salmentarekin, industriari laguntzeari buruzko Europako jarraibideen presiogatik, eta erakunde publikoetatik zuzenean ez jarduteko posizionamendu ideologikoagatik ere bai.

Arlo honetan egin daitekeen politika instituzionalaren erreferente orokor batzuk:

• Jarduketa pribatua nahiz publikoa gauzatzeko bide ematen duen sistema legal, finantzario eta fiskal egonkor baten bermatzaile gisa.

• Testuinguru lehiakor orokorren sustatzaile gisa: hezkuntza, ezagutza, sare soziala, azpiegiturak...

• Adostutako testuinguru positiboen sustatzaile gisa: herrialdearen irudia, inbertsioa erakartzea, egonkortasuna...

• Garapen industrialeko elementu aktibo gisa jarduketa-maila posible desberdinetan:

· Industrietan zuzeneko presentziarekin sozietate publikoen bitartez.

· Gako estrategikoetako jarduketa batekin: enpresen kapitalizazioa eta finantzaketa, pertsonak eta ezagutza-plataformak, nazioartekotzea...

· Eredu berrien sustatzaile gisa: langileen parte-hartzea enpresaren maila guztietan (kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan).

· Gizarte-eragileen (patronala, sindikatuak....) arteko bitartekari gisa.

Denbora faktorea.

Industria-politika batek, eraginkorra izateko, denbora luzez mantendu behar du bultzada. Industria bat merkatuan mantentzen duten lehiakortasun- eta eraginkortasun-mailak lortzeko prozesuek sortze-prozesu luzeak izaten dituzte. Epe motzeko jarduketek, iraunkortasunik gabekoek, epe laburreko emaitzak izaten dituzte. Euskal Herriaren gaur egungo lehiakortasuna erabaki historikoek definitzen dute. Etorkizun hurbilean hartzen ditugun erabakiek definituko dute epe ertainean nahiz luzean nazioartean izango dugun posizioa. Horrek legegintzaldikoak baino epe handiagoak inplikatzen ditu, eta, beraz, adostasun sendoak behar dira.

HERRIAREN EGOERA

Euskal Herriko aberastasun-sorkuntzaren egitura:

· Ekonomikoki esanguratsuak diren baliabide naturalen gabezia.

· Mugak sektore espezializatuetan: finantzak, turismoa, merkataritza, industria-jabetza…

· Industriak gabezia horiek konpentsatzeko faktore gisa duen garrantzia historikoa.

· Lurralde-desberdintze esanguratsua enpresa-ereduetan eta erakundeen jarduketa-ereduetan.

INDUSTRIAK BARNE-PRODUKTU GORDINEAN DUEN PISUAREN BILAKAERA

	2008	**2010**	**2012**	**2014**
Euskadi	25,3	22,5	22,1	21,3
Estatua	16,5	15,7	15,8	16,0
Alemania	23,3	23,1	23,1	23,5
Frantzia	12,9	12,2	12,4	12,2

2008an enpleguaren % 25,3 izatetik 2014an % 21,3 izatera pasatu da industria. Azken bi urteotan pisua mantendu duela estimatzen da. Horrek esan nahi du 2008an 249.000 lanpostu zeudela industrian, eta 2014an, aldiz, 196.000. Gainera, kontuan hartu behar da 200.000 enplegu horien kontsumo-gaitasunari lotuta dagoen zerbitzuetako enplegua. Guztizko biztanleria okupatua 995.000 izatetik 900.000 izatera pasatu da epealdi berean.

Estatuan, berriz, industriako enplegua % 16,5etik % 16ra pasatu da epealdi berean, eta Europar Batasuneko batez bestekoa % 17tik % 15,6ra.

Industria-sektoreak 22.000 M€/urte-ko esportazioak sortzen ditu (Estatutik kanpoko sal-

mentak), eta horrek herrialdearen merkataritza-balantza orekatzen laguntzen du, defizitarioa baita lehengaietan eta energian.

Diagnostiko horrek ondorio honetara eramaten gaitu: Euskal Herriko industria-jarduera dela sortzea lortu dugun ongizate-mailaren euskarri nagusia, eta hala izaten jarraituko duela etorkizunean ere.

Erreferentzia batzuk: Orkestra, Innobasque, BBVAren txostenak, Laboral Kutxa, Europako Batzordea…

• Arrazoizko posizio lehiakorra, Europako beste lurralde batzuekin konparagarria, baina beheranzko joerarekin. % 2,05 gisa ebaluatutako I+G+b ahalegina, baina Europar Batasunaren helburua % 3ra heltzea da (EHBilduren proposamenez Eusko Legebiltzarrean onartua). Posizio ertainak/baxuak zerbitzu teknologiko aurreratuetan eta industria 4.0 arloan.

• Pertsonak: hezkuntza-maila ona oro har, baina defizita lanbide-heziketan, talentua erakartzeko eta mantentzeko zailtasuna...

• Azpiegiturak, masa kritikoa, finantzaketa: azpiegitura-maila ona, herrialdearen tamaina txikia, industriarako finantzaketan zailtasunak —krisiaren garaira arte nahiko ondo egituratuta zegoen baliabide propioak eta zorra aintzat hartuta, enpresen tamaina txikia EBekoekin konparatuta...

• Gizarte-antolamendua eta bizitza-kalitatea: egoera ona Europako eskualdeen artean, baina posizioak galtzen ari gara eta errenten banaketa okertzen ari da, eta pobrezia-mailak handitzen.

• Bokaziozkoak: pertsonen borondatea eta ilusioa. Zalantzazko diagnostikoa, joera kontrajarriak ikusten baitira eremu horretan, talentuaren eta lidergoaren baliagarritasunari oso lotuta. Lidergo-posizio batek eta proiektu argi batekiko konpromiso publikoak eragile pribatuen konpromiso pertsonalak erakarriko dituela uler daiteke, baita nahikoa talentu ere.

• Lehiakortasun-faktore esanguratsuak: giza faktorea, produktibitatea, logistika, kapitalak, energia. Egoera aldakorra Europarekin konparatuta 2014ko datuetan.

· Kapitalaren errentagarritasun gordina: krisiaren emaitza gisa beheranzko bilakaera izan badu ere, Alemaniakoarekin bat etorri da % 13 inguruan. Euroguneko batez bestekoa baino 1 pp gehiago, eta Espainiako 2,5 pp gehiago.

· Lan egindako ordu bakoitzeko produktibitatea: posizioa hobetu da euroguneko ba-

tez bestekoaren aldean, hura gainditUz. Alemaniakoa baino % 10 txikiagoa da, baina Espainiakoa baino % 10 handiagoa.

· Lan-kostu nominalak: Alemaniakoen antzekoak, euroguneko batez bestekoa baino % 10 handiagoak, eta Espainiako batez bestekoa baino % 20 handiagoak.

Nabarmendu beharrekoa da industria-jarduerako erreferentzia-sektoreen eragina: automozioa, garraioa, ekipamendua eta makina-erreminta, energia, metalurgia eta metalezko produktuak... Bereziki esanguratsua da aipatutako taldeetako lehenengoan lehiakortasun -posizio globalak dituzten enpresen kopurua.

Nagusiki heldutakoak dira sektoreak, energia-kontsumo handikoak; herrialde honetako enpresek sektore horietan duten eraginkortasun-maila ertaina/handia da, baina mehatxu teknologikoen mende eta enpresen tamainatik eratorritako mehatxuen mende dago.

Izaera berritzaile eta teknologikoko sektore berrien pisua (biozientziak, materialak, informazioaren teknologiak, robotika...) txikia da, sektore batzuetan I+G+b finantzatzeko ahalegin handia egin bada ere (biozientzietan adibidez). Biozientziek industrian duten pisua ez da heltzen barne-produktu gordinaren % 1era, eta administrazioek aurrekontuetan egiten duten ahaleginaren ehuneko handi bat hartzen du.

Enpresa berriak abian jartzeko adibide historiko batzuek arrakasta izan zuten (1980-90 urteetan), eta erreferentziazkoak izan daitezke lortutako dimentsioa aintzat hartuta (energia-Gamesa; aeronautika-Aernova eta ITP, automozioa-CIE eta Gestamp)…

Kooperatiben eredua finkatu egin da industriaren sektorean, Fagor Etxetresnek krisia izan badute ere; gaur egun kooperatibek Euskal Herriko industriako enpleguaren % 11 hartzen dute, eta Gipuzkoan % 18ra heltzen dira.

Erabakitzeko ahalmena euskal industrian:

Euskal industriak askotariko sozietate-eredua dauka, eta bi enpresa-ereduri lot dakioke.

- Enpresa traktoreak:

  · Atzerriko korporazio handien ekoizpen-plantak: Petronor, Mercedes, Michelin, Gamesa,…

  · Jabetzan, erabakimenean eta lotura pertsonalei dagokienez bertako loturak dituzten korporazioak: Iberdrola, Gestamp, CIE, CAF, SENER, Velatia, Aernova...

- Ekonomia Sozialari dagozkion enpresak: Ederlan Taldea, Orona, Ulma Taldea, Irizar, Copreci, Batz, Cikautxo, Orkli, Ampo…
- ETEak: ekonomia sozialari, kooperatibei eta lan-sozietate anonimoei, nahiz enpresa pribatuari lotutakoak.

Bertan erabakimena duten enpresa askok presentzia sendoa dute nazioartean, eta fakturazioari eta enpleguari dagokienez filialek kanpoan duten pisua askotan handiagoa izaten da bertako jarduerek dutena baino. Merkatu globaletan estimatzen da tokiko enplegu bat sortzeko bi enplegu sortu behar direla atzerrian.

ETEen sektorearen egoera: bi enpresa-eredu desberdindu daitezke:

- ETE espezializatuak, produktu propioarekin, lehiakorrak mundu-mailan eta presentzia onarekin nazioarteko merkatuetan. Euskal Herrian era horretako enpresa asko daude.
- Teknologiaren bat duten enpresa traktoreen industria laguntzailea.

Segmentu horretan —lanpostu gehien sortzen dituena da— aldaketa bizkor bat gertatzen ari da jabetzaren titulartasunean, enpresa asko saltzen ari baitira hirugarrenei edo inbertsio-funtsei. Tradizioz izaera familiarreko sozietateez osatua egon da segmentu hau, baina bilakaera horrek aldendu egiten du erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna, enpresek Euskal Herrian jarraitzea bermatzen duten inbertsioei dagozkien erabakiak, besteak beste.

Edozein kasutan, atzerriko inbertsio zuzenak enpresetan duen pisua txikia da barne-produktu gordineko eraginaren arabera neurtuta, Europar Batasuneko txikienetakoa (% 25), eta Espainiako estatuari dagokionaren erdia, hain zuzen ere.

Joera orokor batzuk

- Europar Batasunaren bultzada, RIS3: Euskal Herrian fabrikazio aurreratuan, energian eta biozientziak/osasuna arloetan zentratu da. Hautapen horrek jarduketa-ildo eta inbertsio esanguratsuak bideratu ditu azken urteotan.
- Berrikuntza sozialaren bultzada hasiberria enpresa-kudeaketan, gobernantza-eredu eraginkorragoekin eta parte-hartzaileagoekin.
- Kapital produktiboaren eta euskal azpiegituren berrikuntza-tasa moteltzea, kapital-sorkuntzaren tasa gordin ahularekin, nahiz eta kapitalaren errendimenduak ez diren proportzio berean murriztu.

• Europar Batasuna jarduketa-ildo estrategikoak abian jartzen ari da Europako industria-ehuna defendatzeko, beste eremu geografiko batzuetako lehiakideen mehatxupean baitago, Asiako herrialdeen mehatxupean batez ere. Jarduketa horiek ETEei zuzenduta daude, baina Europar Batasunaren terminoetan nabarmen handiagoak dira Euskal Herriko ETEak baino.

• Etorkizun hurbilean gertatuko da, eta egiazki jada gertatzen ari da: teknologia disruptiboak indar handiz sartuko dira, eta horrek eragina izango du industriako sektore gehienetan. Ingurune berri horietan jarduteko prest ez dagoenak zailtasun handiak izango ditu.

• Enpresa-motak:

· Enpresa traktore globalak

· ETE espezializatu globalak

· Enpresa laguntzaileak, azpikontratistak

• SBI (Social Business Iniciative): Europar Batasunaren jarduketa-ildoa enpresa sozialen ereduen markoan. Enpresa horien eraginkortasuna beren eragin sozial globalaren arabera neurtzen da. (Europar Batasuneko Enplegu eta Gizarte Arazoetako Zuzendaritza Nagusia).

Kapital ukiezina

• Hezkuntza-sistema: ibilbide handia egin du goi-mailako hezkuntzak, baina hala bere hobetu daiteke. Lanbide Heziketa nabarmen hobetu daiteke: proiekzio demografikoek erakusten dutenez, industrian lan egiteko prestatutako eta gaitutako pertsonen gabezia larria aurreikusten da. Hurrengo urteetan 15.000 pertsonako murrizketa garbia izango da urtero, erretiroagatik lan-merkatutik irteten direnak eta merkatuan sartzen direnak kontuan hartuta. Hori aldagai oso larria izan daiteke industriaren lehiakortasun-mailari eusteko, baita aberastasun-sorkuntzaren mailari ere, eta, beraz, banaketari ere bai.

• I+G+b sistema: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea birmoldatu da baina finkatu gabe dago, aldaketarekiko erresistentziagatik eta ezartzeko zailtasunagatik:

· Honako hauen arteko lehia: Unibertsitateko ikerketa, BERC, CICak, Zentro Teknologikoak eta I+G unitateak.

· Zentro teknologikoen bi eredu desberdin: Tecnalia eta IK4.

· Finantzaketa atzerantz.

· Oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren arteko eztabaida, eta ikerketa-eskaintzaren eta industriarentzako zerbitzuen artekoa, aholkularitza pribatuaren merkatuarekin lehian.

· Dimentsio kritikoaren gabeziagatiko mugak.

· Eraginkortasun erreala zalantzan jartzen dute azterketa kualitatibo askok.

• Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea ahalegin handiarekin sortu da, eta kapital garrantzitsua da. Hala ere, gutxi lerratutako agente autonomoen dispertsio handia dauka, eta bikoiztasun nabarmenak ditu. Dimentsio unitario oso txikiak ditu Europako erreferenteekin konparatuta, eta horren ondorio bat da eraginkortasuna nabarmen hobe daitekeela. Biziberritze oso konplexua eskatzen du, iraganetik garatutako interesak eta inertziak direla-eta.

• Unibertsitateko ikerketak, publikoak eta pribatuak, indar handiagoarekin txertatuta eta lerratuta egon behar du Industriarekin. Horrek Eusko Jaurlaritzaren Sailen arteko koordinazio politikoa eskatzen du, baita Unibertsitateak enpresarekin duen komunikazio handiagoa eta desberdina ere. Unibertsitatearen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen eta enpresen arteko eredu berriak eskatzen ditu. Eremu askotan partekatutako diagnostikoa da, baina ez du proposamen zehatzik eman.

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

• Ezinbestekoa da politika industrialarekiko sentikorrak diren arloen arteko koordinazioa: fiskalitatea, finantzaketa, gai diren pertsonen prestakuntza, azpiegitura lehiakorrak... Industria-politika eraginkorrak eskatzen du erakunde-ingurune desberdinen artean eredua partekatzea.

• Industria-enpresak izaera pribatukoak dira gaur egun. Lankidetza publiko-pribatuan oinarritutako politikak erraztu egiten du baliabide gehiago erabiltzea eta ezartzea, eta sendotasunez adostutako helburu eta jarduera osagarriak dituen industria-politikaren koordinazioa ere bai; horrela, bada, industria-sektorearen emaitzak indartuko lirateke, eta Herrialdeari eta herritarren bizitza-kalitateari dagozkien emaitza zabalagoak ere bai.

• Hausnarketa horretan ondorioztatzen da jarduera ekonomikoa mantentzea eta hazkundea balio positiboak direla enplegua eta aberastasuna sortzeko, eta aberastasun hori sortzen bada banatu egin daitekeela eta banatu egin behar dela gaur egungoak baino berdintasun-maila handiagoak lortzeko. Kezkatzekoa da lanaren eta kapitalaren parte-hartzeak errenten banaketan murrizketa-bideari jarraitzea, langileen kaltetan, hain zuzen.

Baldintzatzaile orokorrak

• Bruselako baldintzatzaileak: Industriarentzako laguntza publikoak mugatzea, programa horizontaletako I+G+b izan ezik. Edozein kasutan Europako Gobernuen zuzeneko esku-hartzearen adibide esanguratsuak ikus daitezke jarduera estrategikoetan.

• Merkatu-ekonomia: finkatzearen eta tamainaren joera globalak, garapen teknologikoko lasterketa handia, beste eremu geografiko batzuen pisu gero eta handiagoa...

• Finantza-gaitasuna:

· 2016ko DDEyC aurrekontua: 319 M € (nekazaritza gabe), 2010eko 411 M €-en eta 2012ko 385 M €-en aldean.

- I+G+b: 117 M €
- Industria: 122 M €
- Merkataritza eta turismoa: 40 M €
- Beste batzuk: 40 M €

• Borondate politikoa eta lidergo-gaitasuna: erakundeek industria-politika dinamizatzean izan duten zuzeneko inplikazioa murrizten joan da progresiboki. Kanpoko baldintzatzaileengatik izan ala barne-gaitasunen gabeziagatik izan, Eusko Jaurlaritzak industriaren sektorean izan dituen konpromiso erreala eta trakzio-gaitasuna murrizten joan dira.

• SPRIren bilakaera Eusko Jaurlaritzaren industria-politikak exekutatzeko tresna gisa konpromiso publikoaren beheranzko bilakaera horren erakusgarri da. Eskualdeko Agentziek oso partzialki erantzun diete lurraldeen industria-ehunaren beharrei.

Lurraldeetako desberdintasunak

Hiru lurraldeetako bakoitzak bere industria-eredu partikularra dauka: Bizkaian enpresa handiek pisu erlatibo handiagoa dute, Gipuzkoako jardueretan maila teknologiko handiagoa dago enpresa ertainekin, eta Araban atzerriko kapitalekiko mendekotasun handiagoa. Nolabaiteko diferentzia kulturala ere badago erakunde-ereduetan: ekonomia sozialak pisu handiagoa du Gipuzkoan.

Erabilgarri dauden tresnak

a) Politika fiskalak (Aldundiak) eta plangintza ekonomikoa

b) I+G+b-ren euskarria: baliabideak lehenestea

c) Talentua erakartzea (jendarteari eragiten dio oro har)

d) Finantzaketa (kapitala eta zorra)

d) Azpiegiturak eta ente publikoak:

- SPRI
- SPRILUR
- Zientzia eta Teknologia Parkeen Sarea
- Innobasque
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua
- Energiaren Euskal Erakundea

- Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea

e) Lanbide-heziketa eta etengabeko prestakuntza

f) Unibertsitatearen eragina izateko gaitasuna

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Funtsezko apustua industria lehiakorra lortzea da, balio erantsiko produktuak eta zerbitzuak eta desberdinak sortzen dituena, industria nazioartekotua. Ezagutzaren sistema eraginkor batean oinarritu behar du (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza-gaitasuna), pertsonek enpresetan benetan parte hartzeko sistemekin, Lurraldeari sendotasunez lotua eta belaunaldien arteko konpromisoarekin, iraunkortasuna emanez enpresa-proiektuei. Erkidegoaren zerbitzura dagoen industria, eta herritarren beharrei erantzun ahal izango dien aberastasuna sortzen duena.

Aldez aurreko oharra

Aurreko hauteskunde-programak aztertuz, ikusten da adostasunerako gutxieneko oinarri batzuk egon litezkeela alderdi desberdinen artean epe ertain/luzerako Herrialderako industria-politika bati begira.

Industria-politika berri baterako ideia batzuk:

• Industria Politika Aktibo baten buru izateko borondate instituzionala berrestea, gaitasunetan oinarritutako tresna guztiak erabiliz.

• Eusko Jaurlaritzaren Sail desberdinen arteko jarduketak bateratzea industria-politikaren gaietan (Enplegua, Garapen Ekonomikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Antolamendua eta Azpiegiturak) Koordinazioko Lehendakariordetza batekin edo prozesuaren buru izango den erakunde publiko-pribatu bat sortuz (Industriako Euskal Agentzia edo antzekoa). SPRIren jarduerekin bat datorrena laguntza-programak kudeatzeko tresna gisa.

• Erakunde-ekimen bikoitz bat abian jartzea:

· Unibertsitatearen eta enpresen ahaleginak lerratzeko.

· Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea arrazionalizatzeko, egungo egitura berrikusiz eta soilduz.

• Helburu estrategikoei (EJ, tokiko finantza-erakundeak, BGAEak, Europako Inbertsio Bankua, tokiko inbertsiogileak...) zuzendutako finantzaketarako tresna publiko-pribatu bat edo gehiago antolatzea. Baliabide propio gisa jardunez nagusiki, eta Europako jarraibideekin bateragarriak.

• Langileek enpresetako erabaki-ingurune guztietan parte hartzea bultzatzeko ekimenak abian jartzea, besteak beste akziodunen artean, eta Ekonomia Sozialaren defentsa. Izaera fiskal eta finantzarioak eta aholkularitzakoak.

• Industria-politika baterako tresnak garatzeko erakunde arteko akordioa: fiskalitatea, finantza-plataformak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea berrantolatzea...

• Enpresen kontzentrazioa sustatzea, edo gutxienez sektore atomizatuetako enpresen eta kanpoko enpresek irensteko arriskuan daudenen koordinazioa bultzatzea.

• Eskualdeek Unitate Autonomo gisa parte har dezaten bultzatzea ETEen inguruneko ehun produktiboa garatzeko eta dibertsifikatzeko, Eskualdeko Garapen Agentzien funtzioa eta jarduketa- eta finantzaketa-markoa birplanteatuz.

• Azken planetan lehenetsitzat jotako hiru sektoreetako bakoitzerako jarduketak hautatzea eta desberdintzea:

· Fabrikazio aurreratua: gure herrialdeko gaitasunen kopuru handiena barne hartzen du, industria-jardueraren % 20 baino gehiago sortzen du eta iraunkortasun-eredu lehiakorra du lehendik dauden enpresentzat. Zeharkako izaerako ildo estrategiko bat da. Enpresentzako zerbitzu aurreratuak eta ezagutzako gaitasun intentsiboen eskaintza izan behar ditu. Lehenespenezko apustua epe ertainean.

· Energia: enpresa- eta negozio-eredu desberdinak daude, enpresa handi batzuk energia-sorkuntzari lortuta daude, eta beste ehun zabalago bat potentzia-elektronikari, efizientzia energetikoari, ingeniaritzari eta bestelako azpisektoreei zuzenduta dago. Barne-produktu gordinaren % 5 osatzen du, eta garatzeko aukerak ditu garapen-potentziala duten eremuak hautatuz.

· Biozientziak: baliabide publiko asko xurgatzen dituen epe luzerako apustua. Hala ere barne-produktu gordinaren % 1 baino gutxiago sortzen du, eta ez dauka erreferentziazko enpresarik. Etorkizuneko garapen argia duen sektorea izan arren, egin beharreko apustua berrikustea eskatzen du.

• ETEentzako euskarri espezializatua: fisikoki gertu dauden unitateetatik abiatuta. Lehendik dauden eskualdeko plataformak erabil litezke.

• Nazioartekotzea: sozietate ñimiñoa gara nazioarteko parametroetan, eta gure barne -kontsumoak ez du garrantzirik termino industrialetan. Industriatik abiatuta aberastasuna sortzen jarraitzeko formula bakarra nazioartekotzea da.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

NATURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia ekologikoa

Elikadura burujabetza

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

NATURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia ekologikoa

Sarrera

EKONOMIA EKOLOGIKOA ARDATZ, GARAPEN JASANGARRIA HELBURU

KOKAPEN OROKORRA

Ekonomia hitza bi hitz greko hauetatik dator: oikos (etxea) eta nomos (gobernua, legea); horrenbestez, etxea ordenatzea, antolatzea esan nahi du. Eredu ekonomiko kapitalista globalizatua kontrakoa egiten ari da, ordea; etxea (planeta) nahaspilatzen, desordenatzen ari da, mundu osoko egungo ingurumen-krisiak erakusten duen moduan (klima-aldaketa, biodibertsitatea mundu osoan galtzea, ozeanoen kutsadura, besteak beste).

Gaur egungo ekoizpen-eredua (lehengaiak erauztea eta harrapatzea oinarri) kontsumismo arduragabe eta neurrigabearekin dago lotuta (bereziki gizarte-maila dirudunei dagokienez), eta planetaren muga biofisikoak gainditzen ari da; haren ondorioak, halaber, aurrekaririk gabekoak izateaz gain, bizi-kalitatearen ikuspegitik atzeraezinak ere izango dira planetako biztanle gehienentzat, bereziki egoera ahulenean daudenentzat (behartsuak, lurrik gabekoak, herri-klaseak eta abarrak). Etengabeko hazkunde esponentzialean oinarritutako eredu ekonomiko horrek funtsean mugatzen duen materialen eta energiaren fluxua ezkutatu nahi du. Esku hartzeko ordua da eredu sozioekonomiko jasangarri baterako oinarriak jar ditzagun. Eredu horri ekonomia ekologiko arduratsua esaten diogu. Eredu horretan aurrerapen, garapen eta ongizate sozialaren kontzeptua ez da egongo, sinetsarazi nahi diguten moduan, hazkundearen mitoaren mende –materien eta energien kontsumo neurrigabearen mende, alegia–, hori ez baita jasangarria ez gizartearentzat, ezta ingurumenarentzat ere. Are gehiago, une jakin batetik aurrera (eta hori honezkero gainditu dugu gure aztarna ekologikoa ikusita), hazkunde globala ekonomiaren kontrako bilakatzen da, eta desberdintasuna zein ingurumen-kostuak gero eta handiagoak dira. Eredu mental askok hazkundearen nozioa barneratuegi dute epe laburrera gizarte eta planeta jasangarri bat irudikatu ahal izateko. Unea da, hortaz, trantsizio sozioekologiko baterako eta eredu ekonomikoaren eraldaketa baterako oinarriak jartzeko, naturarekiko errespetua ardatz hartuta betiere, gizartearen ongizatea epe luzera bermatzen baitu horrek. Natura da gure kapital baliotsuena. Ez da garapen edo aurrerapen jasangarririk egongo mendeko garen funtsezko kapital naturalaren balioa galarazten jarraitzen badugu.

Gaur egun, natura-baliabideak gero eta urriagoak dira (biodibertsitatea, erregai fosilak, aire garbia, ura, lurzorua eta abarrak) eta ugariagoak, ordea, kutsatzaileak; hori horrela, premiazkoa da egungo eredu jasanezinetik ingurumen osasuntsuan bizi den bidezko gizarte baten zerbitzura dagoen ekonomia osasungarria oinarri duen beste eredu baterako

eraldaketaren buru jartzea, zutabe horien gainean bermatzen baita jasangarritasunaren kontzeptu sakona (ez dugu nahastu behar ohiko hizkuntza ofizialak komodin gisa hitz horretaz egindako erabilerarekin); eta hori da, hain zuzen, gizakiok XXI. mendean dugun erronka handiena. Euskal herritarrei ere badagokie bide horretan aurrera egitea, eraldaketa globalari gure ekarpena egin diezaiogun, bide-orri oso eta eraginkor baten bidez, eredu sozioekonomikoaren trantsizio baten aldeko baldintzak eta oinarriak jarrita; eta hori ekimen soziopolitikotik lortu behar da. Gure aztarna ekologikoa murriztuz jasangarritasunerantz egitea, ingurumen-krisi globaleko egoera honetan, betebehar morala ez ezik, gure ekonomia berritzeko eta indartzeko aukera ere bada; izan ere, gero eta azkarragoak dira aldaketa globalak, eta ziurgabetasun-maila gero eta handiagoak ere badaude oinarrizko natura-baliabideak eskuratzeko ahalmenari dagokionez. Gaur egungo ereduaren ordez ekonomia ekologikoa gizarte-aurrerapenaren oinarritzat duen beste bat ezartzea, halaber, ezinbestekoa ere bada gero eta demokrazia eta justizia sozioekologiko handiagoa egoten laguntzeko, era horretan ingurumen-krisiaren inpaktuak (baita haren ondorioak diren gerrak, goseteak eta abarrak ere) desager daitezen.

Nabarmendu beharra dago, bestalde, eredu ekonomiko neoliberalak planetaren gainean egindako presioa ez dela berdin banatzen herrialde guztietan, ezta gizarte osoaren barruan ere. Iparraldeko herrialde «garatuok» edo industrializatuok (Euskal Herria, kasu), natura-baliabideen kontsumo handiagatik eta historian zehar sortutako kutsaduragatik, zor ekologikoa dugu munduko hegoaldearekin zein etorkizuneko belaunaldiekin. Euskal Herrian, iparraldeko herrialdea izanik, natura-baliabideen kontsumoa izugarri handitu da azken hamarkadetan. Hori horrela, erantzukizunaren zati handia dugu, eta planetak pairatzen duen ingurumen-krisirako irtenbide eraginkorrak bilatzea sustatu ahal duen gizarte-eraldaketaren buru jarri beharra dugu, beraz.

Teknologiaren aurrerapenak eta materialen zein energien erabileraren gaineko efizientziari lotutako hobekuntzak gorabehera, ekonomiaren eskala handiagoak materialen zein energiaren kontsumo handiagoa ere badakar, eta efizientzia teknologikoak ezin du hori konpondu. Mundu osoko ingurumen-arazoak larriagotzen du horrek, hemen egoera ona dela dirudien arren (esate baterako, kutsatzen duten industriak munduko hegoaldeko herrialdeetara eramateagatik –Txina, India, Bangladesh...–). Ezin dugu beste alde batera begiratu. Euskal Herrirako industria-politika bat defendatzean ulertu behar dugu ez dela industria bakarrik deskokatzen, ingurumenaren gaineko inpaktuak ere eramaten direlako herrialde horietara. Ingurumen-inpaktu batzuk, gainera, globalak dira (klima-aldaketa, adibidez), eta horiek deskokatzerik ez dago. Behar-beharrezkoa da identifikatzea zer aztarna dugun ingurumen-arazo globalen eta naturaren egoeraren gainean, baita beste herrialde batzuetan horrek zer ondorio dituen ere. Ezin dugu ekonomia berdeaz hitz egin, beraz, ingurumen-inpaktu horiek deskokatu baino ez baditugu egiten. Horregatik ez du balio orain-

go eredu neoliberalari eman nahi dioten azal berdea. Ekonomia ekologiko, arduratsu eta erreal bilakatu behar da. Ikuspegi arduratsu, integral eta, ondorioz, ekologikoa behar dugu.

Ekonomia etxea ordenatzea bada, ulertu behar dugu orden horrek eredu zirkularra behar duela (hala dira, adibidez, naturako fluxu material eta energetikoak). Baina oraingo eredu ekonomikoak hazkunde esponentziala du oinarritzat –herrialde baten barne-produktu gordina (BPG) adibidez–, eta lortu beharreko materialen eta energiaren fluxuetan maila handiagoak behar ditu horrek, ezinbestean, planetaren metabolismoak aurrera jarrai dezan. Ondorioz, gizarte- eta ingurumen-desorden handiagoa egongo da planetaren muga biofisikoengatik. BPGaren hazkundeari begiratzen diogu etengabe garapen ekonomikoa eta soziala neurtzeko. Ekonomiari egindako begirada hori miope eta partziala da, BPGa baliabideen kontsumoari zein kutsatzaileen isurpenei lotuta baitago. Horrenbestez, semantikaren eta pedagogiaren arloko arazoa dugu. Hedabideen, politikarien, sindikatuen eta abarren aldarean dago BPGa, baina ekonomia batean ekoizpenak eta kontsumoak sortzen duten diru-balio erantsia baino ez du neurtzen. Errenta-fluxua besterik ez. Ez ditu horrek eragindako kostuak neurtzen (gizarte- eta ingurumen-kostuak gehienbat). Horrez gain, BPGaren hazkundeak ezin du neurtu jada gure ingurunean izandako gizarte-ongizatearen hazkundea. Egiaztatuta dago iparraldeko herrialde gehienetan 1980ko hamarkadatik aurrera, politika neoliberalak mundu osora esportatu ziren urte gogorren ostean (hala nola Thatcherren politika neoliberalak Erresuma Batuan, Reaganenak Estatu Batuetan...), gizarte-ongizate iraunkorraren indizeak eta BPGa, lehen aldiz Bigarren Mundu Gerraz geroztik, nabarmen bereizten hasi zirela. BPGak batez beste gora egin badu ere, gizarte-ongizatearen indizeak beren horretan gelditu dira. Gehiegizko hazkunde ekonomikoaren eragin negatiboen ondorioz gertatu da hori (kutsadura, beldurraren eta segurtasunik ezaren mailak, gizarte-desberdintasuna eta abarrak). Horrenbestez, hori neurri handi batean ekonomiaren kontrako hazkundea da. Ezinbestekoa da, hortaz, hazkunde ekonomikoaren gizarte- eta ingurumen-kostuak identifikatzea eta ulertzea, bai eta horiei irtenbidea ematea ere. Gure garaian, BPGa hazi beharra nabarmendu beharrean (esplotazio sozial eta ekologikoa baitu oinarri), sozialki bidezkoa den eta natura errespetatzen duen ereduari begiratzen dion gizartea irudikatzeari ekin beharko genioke. «Ez-hazkundea»ren kontzeptu sakonak, ondorioz, oraingo ereduaren bestelako begirada dakar, eredu horrek, argi eta garbi, oximoron bat den betiereko hazkunde materiala eskatzen baitu. Ez-hazkundeak ekonomia zirkular ez-esponentziala aldarrikatzen du.

Hori horrela, hasi behar gara gure buruak BPGaren hazkundearen mantratik deskolonizatzen, eta gizarte-ongizatearekin lotura sendoagoa duten bestelako adierazleak eta semantika erabiltzen. Horrelako adierazlerik egon badago, baina bigarren maila batera uzten dituzte ekonomien BPGaren berri ematen jarraitzeko. Gure buruari galdetu beharko genioke ekonomiaren semantika horrek indarrean zergatik dirauen, ekonomiako Nobel

saridun batzuek (Joseph Stiglitz adibidez) zalantza badute politika ekonomikoak zuzentzeko adierazle gisa BPGak zer gaitasun duen. Nork ateratzen dio onura adierazle makroekonomiko horiei eusteari? Eta nork pairatzen du semantika horren nagusitasuna? Galdera horiek modu ireki eta zintzoan egin behar ditugu, zalantzarik gabe.

Kapital naturala galtzea efektu negatiboak izaten ari da jada ekonomia errealean eta nagusi den sistema ekonomikoak egoera ahul eta okerrenean utzitako pertsonen ongizatean. Hori horrela, gizartean zein ekonomian eragin handiak dituen ekonomia miope eta desorekatu batetik, trantsizioen bitartez, ekonomia ekologiko arduratsu batera igaro behar gara. Beste modu batera esanda, ekonomia zirkular/jasangarri baterantz abiatzeko oinarriak jartzea da helburua. Ekonomia horrek planetaren muga fisikoak errespetatu ez ezik, ingurumen-justizia eta gizarte-ekitate handiagoa ere bermatu behar du, bai tokiko mailan bai maila globalean.

Euskal Herri ekologiko eta arduratsu bat, non natura-baliabideen efizientzia eta bidezko banaketa bultzatzeaz gain, ekoizpen-sistemaren desmaterializazioa eta kontsumo arduratsua bermatu ere egin behar dugun. Nahi bat baino gehiago, beharra dela ulertu behar dugu. Ekonomia zirkularrerako (jasangarria) trantsizioak ingurumenari onurak ekarri ez ezik, baliagarria ere izango da gure egitura ekonomikoa indartzeko globalizazioaren erronken aurrean zein lehengaien gero eta urritasun handiagoaren aurrean. Etorkizuneko Euskal Herri horrek aukera berriak sortuko ditu ekonomia sozialean honako arlo hauetan enplegua sortuz: ondasun publikoen kudeaketan, punta-puntako industria- eta teknologia -sektoreetan, energia berriztagarrietan, nekazaritza ekologiko eta arrantza jasangarrian, basogintzan, hondakin-tratamenduan, mugikortasun jasangarrian, tokiko zein eskualdeko garapenean eta bestelako sektore batzuetan (baliabide eta energia fosilen iturriak gutxiago erabiltzen dituzten eraikuntzak ardatz dituen hiri-berroneratzea, adibidez, energia fosila baita klima-aldaketaren eragile nagusia).

Oraingo eredu ekonomikoa eraldatzeko Euskal Herriak duen behar horrek gutxienez bost ikuspegi osagarri eduki behar ditu: 1) Ekonomia zirkularraren paradigma, energiaren eta materialen premiak murriztu beharra kontuan edukita; 2) Eredu energetiko berri baterako eraldaketa planifikatu eta mailakatua; 3) Mugikortasun jasangarriko eredua; 4) Klima-aldaketaren kontrako borroka eta 5) Biodibertsitatea, gure natura-kapital garrantzitsuena zaindu beharra.

Euskal Herrian ekonomia ekologiko bateragarri baterako aldaketa lortzeko, lehenik eta behin, politikarien, ekonomialarien eta, oro har, gizartearen errotikako aldaketa behar da, ekonomia ekologikorako eraldaketa-proiektua gauzagarria dela ikus dadin. Baina ez dago beste aukerarik. Betiereko hazkunde harrapariaren preso jarraitzea biofisikoki ezinezkoa da. Maila politikoko ezinezko bati eta maila biofisikoko ezinezko bati heltzeko erronkaren

aurrean gaudela dirudi. Baina lehenari ekin behar diogu aurrenik bigarren ezinezkoa konponduko badugu.

Beharrezko diren eraldaketak egiteko dugun denbora baino garrantzitsuagoa da denbora hori nola erabiltzen dugun: aldaketek behar dituzten trantsizioen aldeko baldintzak sortuz.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

NATURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia ekologikoa

Ekonomia zirkularra

EKONOMIA ZIRKULARRAREN PARADIGMA BERRIA

KOKAPEN OROKORRA

Ekonomia gorputz konplexu baten metabolismoa dela ulertu behar dugu (kasu honetan, gizartea). Materialak eta energia eskatzen/erauzten ditugu, kontsumitzeko eraldatzen ditugu eta, ondoren, hondakinak botatzen ditugu, horrek naturan eragin negatiboak edukita (airearen, uraren zein lurzoruen kutsadura; klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera, eta abarrak), baina horrek gizartean ere baditu inpaktuak natura-baliabideak erauzteko orduan (ingurumen-gatazka globalak, energia eta lehengaiak erauzteari lotutako gerrak barne, mundu osoan). Horrenbestez, metabolismo ulertu eta gizartearen –egungoaren zein etorkizunekoaren– premietara egokitu behar dugu.

Naturak metabolismo jasangarria du eta modu zirkularrean funtzionatzen du. Baliatzen ditugun produktu eta zerbitzu naturalak, giza eskalan, modu zirkularrean ekoizten dira. Garapen jasangarria nahi badugu, ekonomia zirkularra izan behar da gure apustua.

Gaur egungo ekoizpen-sistemak, funtsean, eskema lineala du: 1) Naturatik baliabideak erauztea; 2) Eraldatzea produktuak eta zerbitzuak ekoizteko; 3) Prozesu horretan hondakin ugari sortzen dira, eta horiek naturara itzultzen dira era guztietako inpaktu larriak eraginda. Ekoizpen-sistema lineal hori ez da ez bideragarria ezta jasangarria ere: 1) Naturan dauden baliabide material eta energetikoak agortzen ditu, eta 2) Inpaktuak eragiten ditu –airearen, uraren eta lurraren kutsadura, biodibertsitatearen galera, eta abar–, eta horien ondorioz gure zibilizazioa ez da bideragarria epe luzera; gainera, inpaktu horiek ez dira berdin banatzen, eta egoera ahulenean dauden gizarte-mailei eragiten diete (pobrezia maila handien eta gizarte-babes maila txikien dutenei, alegia). Klima-aldaketa zirkulartasunik ezaren adibide argia da: erregai fosilen kontsumoa, beste giza prozesu batzuekin batera, berotegi-efektuko gas kopuru handia isurtzen ari da atmosferara (50 mila miloi tona baino gehiago urtean), naturak ezin du kopuru hori guztia xurgatu eta neutralizatu eta, ondorioz, berotze globala gertatzen da.

Gaur egungo ekoizpen-sistema lineala zirkular bihurtzea da irtenbidea, bi oinarri edukita: 1) Ekoizpen-sistemak ziklo materialak ixten ditu, ez du inoiz hondakinik sortzen, naturan gertatzen den modura; 2) Ekoizpen-sistemak energia berriztagarria kontsumitzen du, eta horri esker baliabide materialak ere badiren baliabide fosilak agortzea saihesten da (ikatza,

petrolioa, gas naturala). Hartarako, ekoizpen-sistemaren ziklo materialak bi modutara ixtea bilatu beharra dago: 1) Produktuak diseinatuta daude bizi-zikloaren amaieran bestelako erabilera eta aplikazioetarako birziklatu ahal izateko. 2) Prozesuak diseinatuta daude prozesu batzuen material-irteerak beste batzuen sarrerak izan daitezen.

Sistema lineal batetik zirkular batera igaroko bagara, gure eredu sozioekonomikoaren eraldaketa sakona egin beharra dago; giza baliabideak, ezagutza eta berrikuntza kopuru handian beharko dira, baita jarrera-aldaketak ere (esaterako, kontsumitzeko eta hondakinak sortzeko ohiturak). Baina enplegu eta lanbide asko ere sortuko dira askotariko sektoreetan, arlo teknologikoan ez ezik, baita arlo sozialean ere (gizarte osoa beste modu batera antolatu behar da, eta, erantzukizunetik, balio berriak onartu behar ditu eraldaketa horren bidean; hori, neurri batean behintzat, jardun soziopolitikoaren zeregina da).

Euskal Herriak eredu ekonomiko zirkular baterako trantsizioa egin beharko du, eta arreta jarri beharko du arlo horretan Europatik etorriko diren bultzada zein erabakietan. Europar Batasunak, adibidez, 2015eko abenduan ekonomia zirkularrari buruzko neurri sorta bat hartu du lehiakortasuna bultzatzeko, enplegua sortzeko eta enplegu jasangarria sortzeko.

HERRIAREN EGOERA

Euskal ekonomiaren lehengai-eskaria:

EAEren guztizko material-eskakizunek nabarmen egin dute gora azken hamarkadan, eta biztanleko 180 tona baino gehiagokoak dira jada; hau da, ia 400 milioi tona, Erresuma Batuak, Alemaniak edo Frantziak dituztenak baino askoz handiagoak (ITURRIA). Hainbat faktorek eragin dute hori, baina industriak gure ekonomian duen garrantziagatik gertatzen da batez ere (bereziki material asko erabiltzen dituzten sektoreen ondorioz: metalurgia eta fintzeko industria). Guztizko material-eskakizunen % 52 metalen inportazioari daude lotuta. Euskal Herriko ekonomiak, gainera, energia-iturri ez-berriztagarrien mendekotasun handia ere badu. Erregai fosilek (elektrizitate-inportazioari lotutakoak barne) energiaren lehen mailako kontsumoaren % 90 hartzen dute barne, eta guztizko material-eskakizunen % 10 baino gehiago.

Guztizko material-eskakizunen % 90 ingururi munduko beste eskualde batzuetatik inportatutako natura-baliabideen eta energiaren bidez erantzuten zaie. Kanpoko mendekotasun hori Belgikaren eta Herbehereen antzekoa da, handiagoa da Erresuma Batuarena baino, eta Alemaniarena halako bi ia. Baliabideen erabilera handi horren ondorioz, kanpoko faktoreen aurrean oso egoera ahulean dago gure ekonomia, eta haien mendekoa da erabat (adibidez, munduko merkatuan lehengai-prezioak igotzearen aurrean).

Horretaz gain, nabarmendu beharra dago guztizko material-eskakizunen inportazioa zein gure kontsumo-eredua lotuta daudela material horiek erauzten dituzten tokietan gertatutako ingurumen- eta gizarte-inpaktu handiekin. Horren hainbat adibide ere jar dezakegu: eztainuaren euskal inportazio handiak (Europako eztainu-inportazioen % 4) ibaiak kutsatzen eta kalte handiak sortzen ari dira hegoaldeko hainbat herrialdetan –Bolivian edo Perun, esaterako–, edota aluminioa ekoizteko energia sortzeko urtegi handiak eraiki dituzte balio ekologiko handiko Brasil edo Mozambikeko eremu batzuen kaltetan (horiek dira, hain zuzen, gure aluminio-inportazioen jatorria). Horiek Hegoalde Globalarekin hartu dugun zor ekologikoaren adibide txiki batzuk baino ez dira; horrenbestez, ekonomia zirkularrerako trantsizioak gertuko inguruneari eta gure ongizateari ez ezik, ingurumen-justizia global handiagoari zein mantentzen gaituen planetaren osasunari ere ekarriko dio onura.

Hondakinen egoera:

EAEn 4,5 milioi tona hondakin solido sortzen dira urtero, eta horietatik milioi 1 hiri-hondakin solidoak dira.

EAEko biztanle bakoitzeko hondakin-sorrera, berriz, Europako batezbestekoaren antzekoa da.

Hiri-hondakin solidoak gizarteak sortzen dituen hondakin solido guztien frakzio bat baino ez dira, halere, horrelako hondakinen kudeaketa eta tratamendu egokia ekonomia zirkularrean aurrera egiteko bultzada sendoa izango litzateke. Herritarrek zuzenean sortzen dituztenez, materialen zikloa ixten duen hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua (hots, frakzio ezberdinak gaika biltzea birziklatzen laguntzeko) hezteko eta kontzientziatzeko tresna bikaina da, eta efektu biderkatzailea ere badu beste sektore batzuetan. Ez dugu ahaztu behar etxeko material-kontsumoa azken eskariaren zati oso garrantzitsu bat dela, eta horrek eragiten duela, neurri handi batean, ekonomia osoko materiaren zein energiaren kontsumoa: garraioa, energia, erauzteko sektoreak.

Gaur egun, EAE osora hedatu nahi duten hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-eredua errausketan oinarrituta dago, sistema horrek Bizkaian, Zabalgarbirekin, bere mugak erakutsi dituen arren. Instalazio horrek, urtero, 240 mila tona CO2 isurtzen ditu atmosferara, eta 50 mila tona zepa sortzen ditu, zabortegira eramaten dituztenak. Errausteren alde egiteak galga dakarkio birziklatzeari: Bizkaiak hiri-hondakin solidoen % 40 birziklatzen ditu, Gipuzkoan baino gutxiago; azken horretan instalazio-defizit handia badago ere, gaikako bilketaren aldeko apustu sendoa dago udalerri askotan. Bizkaian konpostajea guztiaren % 1etik behera dago, eta Gipuzkoan, aldiz, nabarmen dago % 10etik gora. Gipuzkoako hondakinen egoera ez da ona, baina Bizkaian ez da hobea, aitzitik.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Etorkizuneko Euskal Herriak ekoizpen-ehunaren eraldaketa sakona eginda izango du, batetik, energia fosilaren zein baliabide materialen urritasunak bultzatuta, eta, bestetik, eredu sozioekonomikoaren jasangarritasunaren aldeko apustu irmoaren eraginez. Horren ondorioz, energia-kontsumoa energia berriztagarrietan oinarrituko da gero eta gehiago, besteak beste, bereziki elektrizitatean. Zero Hondakinaren filosofia, ekonomia zirkularraren muina, arrakastaz ere aplikatuko da Euskal Herrian: 1) Produktuen diseinu berriek zein ekoizpen-metodo sinbiotikoek atmosfera, lur eta itsasora isuritako hondakinen kopurua gutxiagotzea lortuko dute; 2) Gizarteak kontsumo-kultura berria garatuta edukiko du, ingurumen-inpaktua ahalik eta txikiena izatea eta kontsumo-ohitura arduratsu eta jasangarriak bultzatzea xedetzat hartuta (bertako kontsumoa, kontsumo partekatua, leasinga, eta abar); 3) Euskal ekonomia birkokatuta egongo da (nekazaritza, merkataritza, zerbitzuak eta abarrak) eta enplegu-txoko handiak sortuko dira sektore berrietan, hau da, materialak birziklatzeari eta lehengoratzeari lotutakoetan, eraikuntza jasangarri eta ekodiseinuan zein lehen mailako sektorean (bertako nekazaritza eta abeltzaintza, materialen ekoizpen jasangarria); 4) Ekoizpen-eraldaketaren bidez lortutako susperraldi ekonomikoari esker kalitateko oinarrizko zerbitzu publikoei eutsi ahal izango zaie (osasuna, hezkuntza, ingurumena eta abarrak).

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Euskal administrazioak, autonomia-eskumenak aintzat hartuta, bultzada irmoa eta asmo handikoa eman behar die Europar Batasunaren ekonomia zirkularrari buruzko sortan proposatutako neurriei:

1. Euskal ekonomiak azken hamarkadetan atmosfera, lur eta uretara egindako materialen eta substantzien isurketen zenbaketa egokia eta egiazkoa. Ezinbestekoa da estatistika errealak edukitzea denboran zehar modu independentean kuantifikatu ahal izateko Euskal Herriak zenbateko isurketak sortzen dituen. Behar-beharrezkoa da oinarri hori, besteak beste, ekonomia zirkularreko eredu baterako trantsizioa abian jartzeko.

2. EBk ezarritako gutxieneko kopuruak gainditzen dituzten isurketaren, birziklatzearen eta abarren gaineko helburuak gure gain hartzea; izan ere, gero eta helburu zorrotzagoak jartzeko joera historikoa eta ingurumen-krisia (klima-aldaketa, baliabideak agortzea...) direla eta, arrazoizko eta baliagarriena deritzogu horri (jarrera proaktiboa, eta ez beti erreaktiboa, Europak ezarritakoaren atzetik).

3. Hiri-hondakin solidoen gaikako bilketari bultzada ematea, hondakin horiek berriro erabiltzeko eta birziklatzeko prestatzen laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren bitartez. (Debagoienaren adibideari jarraitzea, izan ere, gaikako bilketaren % 80 baino handiagoko tasari esker % 70etik gorako birziklatzea eta sortutako hondakin guztiak murriztea erdietsi dute, baita zabortegirako fluxua oso nabarmen txikiagotzea ere. Etxeko eta erkidegoko konpostajea, pixkanaka Euskal Herrian zabaltzen ari dena, hondakinen Europako hierarkiaren maila gorenean dago, haien sorrera prebenitzen baitu).

4. Administrazioaren kontratazio publikoan materialen zirkulartasun-irizpideak jasotzea.

5. Ekonomia zirkularreko behatokia sortzea, Euskal Herriaren behar materialak eta energetikoak ulertu eta konpontzeko, baita euskal gizartearen aztarna zein zor ekologikoa ere.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

NATURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia ekologikoa

Eredu energetikoa

ENERGIA EREDUAREN ERALDAKETA: ENERGIA SUBIRAUTZAREN BIDEAN

KOKAPEN OROKORRA

Energia subirautza landu behar dugu, karbono isuri gabeko eredu energetikoaren bidean (gogoratu energiaren sektorea klima-aldaketaren erantzule nagusi bat dela), energia ondare publikoa eta estrategikoa bezala kudeatuz. Horretarako, irizpide ekonomiko pribatuen menpean erregai fosiletan oinarritzen den gaur egungo eredua eraldatu behar dugu. Erabakiak, kostuak eta onurak jendarteratuz eta energia berriztagarrietan oinarritzen den eredu banandu berri bat ezarriz.

Energia Eredu berriaren funtsa litzateke, hurrengoak lehenetsiz: 1) kontsumoa arrazionalizatu, 2) energía berriztagarriez betetzen joan, 3) kontrol publikorantz joan.

HERRIAREN EGOERA

Energiak gure sistema sozioekonomikoa mugitzen du. Energia subirautzaren eredua lortzeko eraldaketa energetikoa behar da. Oinarriak jarri behar dira trantsizio hori hasteko baina egoera ez da batere lagungarria. Arlo honetan gure menpekotasuna erabatekoa da. Ez soilik erabiltzen dugun energiaren % 93ak kanpoan duelako jatorria, erabakiak hemendik kanpo hartzen direlako ere.

Alde batetik Estatu Espainolak eskumen esklusibo bezala hartzen duelako plangintza energetikoa; bestetik, enpresa pribatuen interesak (ate birakariak kontutan hartu behar dira) nagusi direlako plangintza horretan. Horretaz gain, zentralizazioa ez da soilik erabakietan, argindarraren ekoizpenean ere, sormen zentralizatua nagusi da, zentral handiekin, garraio sare bakar batekin eta banaketa oso enpresa gutxien eskuetan. Horrek dakartzan ingurumen inpaktu (zentral erraldoiak, autopista elektrikoak) eta sozialekin (enpresa handien oligopolioa), petrolioa edo gasaren garraiorako egiten diren milaka eta milaka kilometroak ahaztu barik.

Ildo horretan, Jaurlaritzak ontzat ematen duen eredu zentralizatuaren parte da. Iberdrola, Petronor (Repsol), EDP Naturgas edota BBG (Bahia de Bizkaia Gas) enpresen eskutik, erregai fosiletan oinarritzen den eredu zentralizatua sustatzen da egun instituzio nagusietatik. 2016ko uztailean zehazturiko “Estrategia energetikoa”n, erregai fosilen aldeko apustua erabatekoa da. Gasa lehenesten da ustezko trantsizio baterako energia bezala, baina gasaren apustuak ez du erregai fosilak indartu baino egiten. Nahikoa da azken 10 urteko konparaketa bat egitea: EAEn, 2004-2014 urte tartean, energiaren azken kontsumoan petrolioa % 38,3 izatetik % 41,3 izatera pasatu da, Gasa % 25,6 izatetik % 26,6 izatera eta berriztagarriak % 3,6 izatetik % 5,2 izatera. Beraz, ustez berriztagarrietan oinarritzen den eredu batera trantsizio egin beharraren irudia ematen bada ere, instituzio nagusien datuek oso argi uzten dute ez dagoela energia ereduan benetako trantsiziorik emateko asmorik, iraganeko inertziak bultzatutako aurreranzko ihesbidea baino ez.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Bai ingurumen ikuspegitik, zein bideragarritasun ekonomiko eta sozialetik, energia berriztagarrietan oinarrituriko sistema energetiko subiraua edukiko du etorkizuneko EHk, kontsumoaren murrizketarekin batera. Honek, gainera, ingurumenean eragin positiboa izateaz gain lehiakortasuna eta goi mailako enplegua sortzeko aukerak eskaintzen ditu.

Egun, oligopolio energetikoaren esku, multinazional erraldoien esku dagoen sistema osoaren ardatzetako bat da ekoizpen eta banaketa zentralizatua. Zergatik? ekoizpen puntuak, zentral termiko/nuklearrak, gas/petrolio ustiaketak, eguzki panel edota haize erroten izugarrizko plantak... oso lokalizatuak daude puntu zehatzetan, eskala handiko proiektuak izanik gehienak.

Hauek beraz, soilik ahalmen handiko baliabide eta tresnak dituzten agenteek kudeatu eta ustiatu ditzakete, oligopolioko multinazionalek alegia. Oinarrizkotzat jo dugun kontsumo murrizketa eta berriztagarrien aldeko apustuak, energía ekoizpen eta banaketa eredu deszentralizatu eta banatua behar du bere arrakastarako. Horrela EHk energía ereduaren eraldaketaren oinarria edukiko du etorkizunean. Beste era batera esanda, EHko energia subirautzaren ereduak banatua izan behar du, hau da, milaka ekoizpen puntu izango dituen sarea da eraiki beharrekoa. Etxebizitza bakoitza, bloke bakoitza, eraikin bakoitza, industria-gune bakoitza ekoizpen zentral txiki bat bilakatuz. Era berean, herri/eskualde mailako proiektuak sortu behar ditugu, hauek energetikoki sostengatzeko nahikoa produzitu dezaketenak eta bertoko herritarrak parte izanez. Ekoizpen eta kontsumo puntuak ahalik eta gertuen egoteak, energiaren banaketarako azpiegitura eta garraioa murriztuko luke eta bidean ez litzateke elektrizitaterik galduko, orain ez bezala. Honek guztiak herritarrek zein instituzioek multinazionalen menpeko izateari utzi, eta tokiko energia garbia produzitu eta kontsumitzeko aukera eskainiko luke etorkizunean.

Azkenik, etorkizunari begira, oraingo egoerari buelta eman behar zaio beste ikuspegi batetik ere:, energia sektorean hainbat azpiegitura erraldoik euren sorreratik finantzaketa publiko oso handia jaso dute, eta orain enpresa energetiko handien eskuetan daude. Azpiegitura horiek dira elektrizitate eta gaseko garraio eta banaketa sareak, eta sorkuntza elektrikoko zenbait sorkuntza unitate, adibidez presa hidroelektrikoak, baliabide natural eta publikoa ustiatzen dutenak. Gainera azpiegitura hauek izaera monopolistikoa dutenez, zentzuzkoa da jabetza publikoa berreskuratzeko bide juridiko eta teknikoak aztertzea, energia-sektore publikoaren zutabea osatuz joateko.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Energia subirautza eta karbono isuri gabeko energia eredua ezartzeko trantsiziorako Herri Akordio zabala sinatu behar dugu, alderdi politiko, sindikatu, talde ekologistekin eta beste hainbeste eragile sozial eta ekonomikoekin. Akordio horren puntu nagusienak hauek lirateke:

1. Energia Berriztagarrien Euskal Erakundea, lehentasunez energia berriztagarriak garatzeko erakundean bihurtu. Bere menpe dagoen egitura helburu nagusi horretara bideratuz. Erregai fosilak ikertzeko edota ustiatzeko dauden azpiegiturak birbideratu energia berriztagarrien estrategiarantz.

2. Diru laguntzen eta inbertsioen diru lerroak energia berriztagarrietara bideratu. Ikerketa eta garapenerako proiektu zehatzak bultzatuz eta ekoizpenerako inbertsio zehatzak eginez. Autokontsumoa eta tokiko (Herri/eskualde mailako) ekoizpen proiektuak garatu, izaera publikoarekin (udal eta eskualde agentziekin) eta bertoko tokiko herritarren parte hartzea bermatzen duten energia kooperatibekin.

3. Argindar komertzializatzaile publiko bat eratu eraikin publikoentzako eta bezero zaurgarrientzako, pobrezia energetikoaren ondorioz ematen diren horniketa mozketak ekiditeko. Era berean, soilik energia berriztagarrietatik eratorritako argindarra komertzializatzen duten kooperatibak sustatu kontsumo pribaturako.

4. Balantze garbiarekin argindarraren autokontsumoa (bai indibiduala zein komunitarioa) sustatzeko marko arautzaile egoki bat egin eta diru-laguntzak ezarri.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia ekologikoa

Mugikortasun ekologikoa

KOKAPEN OROKORRA

EHn ekonomia ekologiko bat izateko ezinbestekoa da mugikortasun jasangarria. Gertutasunaren printzipioaren inguruan ardaztu behar da EHko mugikortasun-politika, ingurumenarekiko jasangarria eta sozialki justua izan dadin. Mugikortasun jasangarriaren eredua karbonoa gero eta gutxiago erabiltzen duen garraioaren sektore bati lotuta agertuko zaigu. Gogoan izan beharrekoa da errepideko garraioaren sektoreak duela EHn klima-aldaketa eragiten duten berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioen erantzukizunaren zati handi bat, EAEko emisioen % 28 eta Nafarroakoen % 17 eragin baitzituen 2013an.

Mugikortasun jasangarria prozesu bezala definitzen da: poliki-poliki egungo garraio-ereduak eragiten duen ingurumenaren degradazio atzeraezina gelditzen du, eta aldi berean irisgarritasunerako behar soziala bermatzen du. Garraioaren eskaria eredu sozialaren, kulturalaren, ekonomikoaren eta lurralde-ereduaren ondorio denez, mugikortasun jasangarrirako estrategia batek oinarrizko hiru gai hauei erantzun beharko lieke, EHra bideratuta:

EHko egungo garraio-sistemaren joerak ez dira jasangarriak. Ondorioz, garraioaren hazkunde jarraituari dituen ingurumen-mugak berrezarri behar zaizkio. Horrek esan nahi du ingurumenak izan behar duela mugikortasunarekin lotutako politiken oinarria. Adibidez, garraioaren gehiegizko hazkundeak eta errepideak duen gero eta pisu handiagoak agerian uzten dute egungo eredua, ibilgailu pribatua eta bide-azpiegituren eraikuntza uztartzen dituena, ez dela jasangarria ingurumenaren ikuspegitik. Horrela, garraioak eragindako BEGen emisioak bikoiztu egin dira 1990tik hona, eta EAEn guztizko emisioen % 28 dira dagoeneko.

EHk ikuspegi politiko berri bat behar du, mugikortasuna garraioarekin nahasten duen ideia tradizionala edo makroproiektuetan oinarritutako konponbideak (ameskeriak) gainditzeko. Aldaketa bat eman behar da politikak planteatzerako garaian, politika erreaktiboak (azpiegiturak eraikitzea) baztertu eta politika proaktiboak (eskaria kudeatzea) abian jartzeko. AHT, Supersur, Eibar-Gasteiz autobidea, Donostiako bigarren saihesbidea eta antzerako proiektuekin 10.000 milioi euro xahutu dira, eta euskal herritarren bizi-maila ez dute apenas hobetu. Eraikitako azpiegitura berrien eskaria aurreikusitakoaren erdia baino ez da izan (% 70 txikiagoa, Artxandako tunelen kasuan). Nabarmendu behar da garraio-azpiegitura berrietan erabiltzen den BPGd-ren gaineko inbertsioa EBko batez bestekoaren bikoitza dela.

Mugikortasuna neurri bat da, irisgarritasuna balio bat da. Irisgarritasuna ez da lekualdatzeko erraztasuna. Irisgarritasuna lekualdatzeko autonomiaren arabera neurtzen da.

Herritar guztiei irisgarritasuna bermatzeko gertutasuna sortu behar da. Horrek izan beharko luke mugikortasun-politika jasangarri baten printzipio gidaria. Gertutasunak oinarrizko zerbitzuen irisgarritasuna unibertsal bihurtzen du. Kontuan izan behar dugu, esaterako, ibilgailu pribatuan oinarritutako garraio-sistema batek zailago egiten duela gizarte-egoera ahuleko taldeen eta, batik bat, emakumeen irisgarritasuna (OTEUS Eusko Jaurlaritzaren Garraio Behatokiaren datuen arabera, gizonen % 46k eta emakumeen % 28k erabiltzen du ibilgailu pribatua joan-etorrietarako).

HERRIAREN EGOERA

Mugikortasun-beharra asetzeko azpiegituren eskaintza handitzea ez da teknika bakarra, eskaria eta eskaintza hobeto egokituz edo mugikortasun-eskaria sortzen duen presioa gutxituz ere egin daiteke hori. Aipatutako lehen aukera da Euskal Herriko garraio-politika tradizionalaren ardatza, azpiegituren eskaintza etengabe handitzen joatea, alegia. Bigarren aukerak kanpo-efektuak barneratzeko neurriak biltzen ditu (azpiegituren tarifikazioa, hiriko bidesariak, etab.). Azken aukera arazoen sorburura jotzea eta eskariaren presioa murrizteko mekanismoak bilatzea da, hau da, mugikortasun-beharra txikitzea garraioa eskaini beharrean irisgarritasuna eskainiz. Tresna hori, orain arte atentzio handirik eman ez zaion arren, garraio jasangarrirako trantsizioaren oinarria da.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Mugikortasunaren aldetik Euskal Herri jasangarri bat lortzeko neurriak lehenetsiko dituen garraio-eredu bat izan behar dugu (hierarkia bat). Horretarako, ezinbestekoa da bermatzea gizartearen eskariak ez dituela ingurumenaren mugak gainditzen. Horretarako, bestalde, aldaketa bat gertatu behar da politika publikoetan, lau helburu lortzeko. Zenbaitetan kontrajarriak dauden helburu guztiak lortzen saiatu beharrean, garraioaren hierarkiaren ikuspuntua erabakiak hartzeko tresna praktiko bat da, eta konponbiderik jasangarrienak lehenestea da haren helburua. Hierarkia horrek jarduteko lehentasun batzuk ezartzen ditu, garraio-sistemak diseinatu eta kudeatzerako garaian:

1. LEHENTASUNA: Mugikortasun-beharra murriztea eta gertutasunaren printzipioa ezartzea: garraioaren hazkundea eta hazkunde ekonomikoa bereizteko mugikortasun-beharrak txikitu egin behar dira. Ekonomia ekologikoa lortzeko ezinbestekoa da gertutasunaren printzipioa ezartzea.

2. LEHENTASUNA: Berrorekatze modala, garraio jasangarrienen alde: Ingurumenari kalte txikiena eragiten dioten garraiobideak erabiliz egin daitezkeen joan-etorriak bultzatzen dituzten jarduerak indartu behar dira, adibidez lekuetara oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabiliz joatea sustatuz.

3. LEHENTASUNA: Garraioaren eko-efizientzia etengabe hobetzea. Garraioaren eko-efizientzia ingurumen-inpaktuak minimizatuz lekualdatzeko gaitasuna da. Garraioko efizientzia ekologiko handiagoa lortzeak, beraz, esan nahi du berrikuntza teknologikoa sustatzen dela, ingurumenari kalte gutxien eragiten dioten beste garraio batzuk erabiltzera pasatzen garela eta garraio-azpiegiturak modu eraginkorrean erabiltzen direla. Tradizionalki, hori egiteko hainbat neurri tekniko sustatu dira, energia-kontsumoa jaisteko, energia-iturri alternatiboak bilatzeko (garbiak eta berriztagarriak), gas kutsatzaileen emisioak murrizteko eta zarata-igorpenak gutxitzeko. Eko-efizientziak beste gai batzuei ere erreparatu behar die, besteak beste: dagoeneko eraikita dauden azpiegituren erabilerara optimizatzea, garraiobideen arteko intermodalitatea sustatuz (adibidez, elkarren osagarri izatea metroa eta autobusa, edo bizikleta eta garraio publikoa) edo ibilgailuetako bidaiarien okupazio-maila eta salgaien karga-faktorea handitzea.

4. LEHENTASUNA: Garraio-sistemaren ahalmena handitzea. Garraioaren hierarkiaren azken lehentasuna da, eta aurreko hiruak agortu direnean bakarrik planteatu beharko litzateke, nahitaezko ingurumen-azterketetan eta azterlan sozioekonomikoetan oinarrituta.

Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da ikuspuntu sistemiko bat txertatzea, mugikortasunaren gainean eraginak dituzten politika guztiek (lurralde-antolamendua, hirigintzako plangintza, industria- eta energia-politikak, etab.) modu integratuan parte hartuz, arazoen sorburura jotzeko. Gainera, beharrezkoa da herritarrek, enpresek eta erakundeek garraioarekin eta bizimoduarekin lotutako hainbat jarduera aldatzeko kontzientzia hartzea (garraioaren eskaria, lurralde-antolamendua, etab.), bai eta gizarteak parte-hartze aktibo bat izatea politika horien diseinuan.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Lekualdatzeko beharra murriztera bideratutako tresnek eta neurriek berebiziko garrantzia dute:

1. Ibilgailu pribatuko mugikortasuna mugatzen duen lurralde-antolamendua (urbanizazio barreiatua saihestea, bakarrik autoz joateko aukera ematen duten saltoki eta industrialdeen ugaritzea gelditzea, etab.)

2. Lurzoruaren erabilera murrizten duen hirigintzako plangintza (hirigintza-eredu konpaktuak, trafikoa baretzeko neurriak, kaleak oinezkoentzat moldatzea, jarduera eta zerbitzuen kokalekua erabilera mistoetan oinarrituta erabakitzea, etab.)

3. Garraio publikoa sustatzea (zerbitzu gehiago eskaintzea, karril bereziak egitea, etab.) eta ibilgailu pribatuen erabilera partekatua bultzatzea, gaur egun horien okupazio-indizea % 30etik beherakoa baita (okupazio-indizea hirukoizteak energia-kontsumoa % 66 murriztea ekarriko luke).

4. Herritarren kontzientziazioa eta hezkuntza bizimodu berriak sustatzeko.

5. Azpiegitura berriak eraikitzea azken aukera izatea, errentagarritasun sozial eta ekonomikoaren aldeko analisiak egin ondoren (kostu eta onuren analisia, soziala eta ingurumenaren araberakoa).

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

NATURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia ekologikoa

Klima aldaketa

KOKAPEN OROKORRA

Klima-aldaketa hemen eta orain gertatzen ari da. Berotegi-efektuko gasen (BEG)[1] inpaktua murrizteko politika transbertsal eta ausartak martxan jartzen ez baditugu, EHko pertsonen, ekosistemen eta ekonomiaren gainean duen eraginak handitzen jarraituko du. BEG murrizteko esfortzuak edozein izanik ere, aurre egin beharreko inpaktuak aurreikusten dira. Horretarako, Euskal Herrian behar-beharrezkoa da klima-aldaketaren inpaktuei egokitzeko estrategia integral bat izatea, sektore eta alor estrategiko guztien erresilientzia indartzeko, bai eta lurraldearen beraren erresilientzia indartzeko ere, hala hirietan nola landa-eremuan, horretarako baliabide ekonomikoak, sozialak eta naturalak era adimentsuan erabiliz.

Euskal Herriak Iparralde Globaleko batez bestekoarekin parekatu daitekeen ekonomia du, eta erantzukizun erantsia du Hegoalde Globalean gertatzen ari den larrialdi-egoerarekin. Bertan, arrisku handiagoa eragin dezakete klima-aldaketaren ondoriozko inpaktuek, pobreziarengatik, aukera-berdintasun faltagatik eta aberats eta behartsuen arteko baliabideen banaketa gero eta desberdinagoarengatik (adibidez, elikagaien eskasiaren ondoriozko gatazka armatuek eragindako errefuxiatu klimatikoak). Horiek faktore global konplexuen ondorio dira, tartean klima-aldaketaren ondorio. Gizarte justu eta solidario batek klima-aldaketaren aurkako borrokako lider izan behar du, dituen erantzukizunak bere gain hartuta. Jakina, ezin dugu ahaztu EHko gizartearen berdintasun falta dela-eta baliabide gutxien dituztenak direla klima-aldaketaren inpaktua gehien pairatzen dutenak, egokitzeko aukera gutxiago dituzte-eta. Ondorioz, gizarte justuago batek berarekin dakar klima-aldaketaren kontra zalantzarik gabe borroka egiteko beharra, sektorerik ahulenek ondorioak bi aldiz sufri ez ditzaten (desberdintasun sozio-ekonomikoengatik eta klimatikoengatik).

Euskal Herrian asko dugu egiteko klima-aldaketari buruzko 2015eko Pariseko hitzarmen globalaren (COP21) esparruan, eta lidergoa hartzeko gaitasuna dugu. Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren babesean antolatu zen bilera hura (UNFCCC da bere ingelesezko laburdura), mende amaieran planetaren batez besteko tenperatura globala industria iraultza aurrekoa baino 1,5 gradu altuagoa ez izatea lortzeko. Asmo handiko helburua da eta ondorioz asmo handiko politika eta erabakiak hartu beharko dira hori lortzeko. Klima-aldaketa arazo konplexua denez, ez da konponbide magikorik

1.- BEGen artean daude karbono-dioxidoa, metanoa, oxido nitrosoak eta gas fluordunak.

egongo eta soluzioak ez dira alor bakar batetik iritsiko (adibidez, teknologiatik). Konponbidea norabide berean hartutako erabaki ugariren interakzioak ekarriko du. Horiek ondo egituratutako bide-orri zehatz baten inguruan antolatuko dira, eta ezinbestekoak izango dira esfortzu kolektiboa eta administrazio publikoarena, prozesuaren sustatzaile den heinean. Klima-aldaketaren aurkako borrokan, gainera, beharrezkoa izango da egungo ekoizpen-ereduaren mugen inguruan herritarrak kontzientziatzea; ekoizpen-, garraio- eta kontsumo-ohiturak aldatzea; erakundeak egokitzea, paradigma berrien zerbitzura egon daitezen (gobernamendua); eta gizartearen mobilizazioa saretzea, bai tokiko mailan bai mundu mailan politika eraldatzaileak sustatzeko (adibidez, lurraldearen plangintza), industrian, energian, mugikortasunean eta lurraren erabileran karbonoa gutxitzeko.

HERRIAREN EGOERA

Egungo klima-aldaketak eta hari atxikitako efektuek mendeetan zehar jarraituko dute, baita orain BEGen emisioak asko mugatzea lortuko balitz ere. BEGen emisioek orain arte bezala jarraitzen badute mundu mailan, klima-sisteman aldaketa handiagoak sortuko dira, eta eragin gogorrak, orokortuak eta itzulezinak gertatzeko probabilitatea areagotuko da planetaren sistema sozialetan, ekonomikoetan eta naturaletan.

EAEko batez besteko tenperatura 0,8ºC altuagoa izan zen 2000-2014 aldian 1971-2000 aldiarekin alderatua. EAEko klima-aldaketaren proiekzioek, zalantza guztiekin ere, inpaktu hauek aurreikusten dituzte mende honen amaierarako[2]:

· Prezipitazioak % 15 eta % 20 artean murriztea mende amaierarako. Murrizte hori ez da homogeneoa izango. Izan ere, aurreikusten da neguan prezipitazioak zertxobait ohikoagoak izango direla eta udan beherakada nabarmena izango dutela (% 30 eta % 50 artean).

· Itsasoaren maila 29-49 cm artean igotzea mende amaierarako. Horren ondorioz, hondartzak txikiagoak izango dira eta uholde-arriskua handitu egingo da estuarioetan.

· Urteko batez besteko tenperatura igotzea neguan nahiz udan, eta gehiago igoko da isurialde mediterraneoan. Mende amaieran, muturreko tenperatura baxuenak 1-3 ºC artean igo litezke neguko hilabeteetan. Aurreikusten da hotz-boladak guztiz desagertuko direla mendearen erdialderako. Udan batez besteko tenperaturak 3ºC igoko dira. Aldaketa horien ondorioz, bero-bolada luzeagoak izatea eta horien maiztasuna areagotzea espero da. Aurreikusten denez, mende-amaierarako bero-boladaren bat izango da udako egunen % 50ean, gaur egungo % 10en aldean.

EUSTATek eman dituen azken datuen arabera, 2014ra arte EAEko BEGen murrizketa 1990ko mailaren % 7,5ekoa baino ez da izan (eta ez % 10 Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategian esaten den bezala). Kontuan izanda jarduera ekonomikoa

2.- Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategian (Eusko Jaurlaritza, 2015) jasotako informazioa, K-Egokitzenen txosteneko datuak biltzen dituena.

txikitu egin dela 2008tik aurrerako krisiaren ondorioz eta horrek BEGen emisioak gutxitzea ekarri dutela, ez dirudi klima-aldaketaren eraginak murrizteko EAEko politikek eragin esanguratsurik izan dutenik BEGen emisioak zalantzarik gabe murrizteko orduan. 2014ko datuen arabera, 1990tik «emisioen intentsitatea» (emisioen kantitatea zati BPGd) % 45 murriztu den arren, horrek ez du esan nahi bide onetik goazenik. Emisioen intentsitateaz baino ez hitz egitea ez da egokia: BEGen emisioak eta BPGd guztiz berezi behar dira; hots, BPGd igo ala jaitsi, BEGen emisioak nabarmen murriztu behar dira.

EAEn energiaren sektoreak (% 32), garraioak (% 28) eta industriak (% 22) emisioen % 80 baino gehiago isurtzen dute, atzetik hondakin-sektorea (% 5) eta nekazaritza, bizilekuak eta zerbitzuak daudelarik (% 4). Datu horiek argi eta garbi erakusten dute nora bideratu behar diren emisioak murrizteko ahaleginak. Kontuan izan behar da industria-sektorearen emisioak % 45 murriztu direla 1990tik hona, hein handi batean krisi ekonomikoaren ondorioz. Nolanahi ere, garraio-sektoreko emisioak bikoiztu egin dira ia aldi horretan bertan.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

EHk Europa mailako liderretako bat izan behar du klima-aldaketaren aurkako borrokan. Badaukagu horretarako gaitasuna, are gehiago beharrezko eskumenak baditugula kontuan hartuta. Kapital sozial handiko herria gara (kooperatibetako esperientziak) eta berrikuntza sozial eta teknologiko handia dugu, gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako gaietan kontzientzia handia duen gizarte bat izateaz gain. Ingurumenarekin kaltegarria izango ez den beste eredu sozioekonomiko jasangarri baterako trantsizioaren oinarriak ezartzeko nahikoa gaitasun dugu. Horretarako, baliabideak, zerbitzuak eta bizi-kalitatea ematen dizkigun beharrezko kapital natural bezala ikusi behar dugu ingurumena, eta ez garapena-hazkundea eta etengabeko aurrerapen materiala lotzen dituen okerreko kontzeptuaren alde sakrifikatu dezakegun luxuzko ondasun bat bezala. Klima-aldaketaren eta baliabide energetiko eta materialak amaitzearen erronkaren aurrean, Euskal Herriak ekonomia ekologiko bat eraiki behar du, eta horrek, bestalde, ekonomia zirkularrean izan behar du oinarria (ekonomia berdearen etiketatik haratago joanez). Aurrean dugun erronkak karbonorik gabeko ekoizpen-sare bat eskatzen digu mende erdialderako, jasangarritasunerako bidean egin beharreko trantsizio integratuan.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

1. Arintzea: EBk ezarritako helburuen antzerako asmoarekin, EHk deskarbonizazioaren bidean egon behar du, mende honetan erregai fosilak era mailakatuan erabiltzeari uzteko konpromisoa hartuz. Hori lortzeko, konpromisoak hartu beharko dira 2030erako BEGen emisioak gutxienez % 40 gutxitzeko (1990ko mailekiko), energia berriztagarrien erabilera gutxienez % 27koa izateko eta eraginkortasun energetikoa gutxienez % 27-30 igotzeko. (EBk ezarri bezala).

2. 2050erako BEGen emisioen gutxitzeak % 95ekoa izan beharko luke (EBk ezarritako gehieneko atalasea; gutxienekoa % 80 da, EHk, basoei esker, karbono-hustuleku bezala duen gaitasuna kontuan hartuta). Nabarmentzekoa da Klima Aldaketarako Euskal Estrategiak 2005eko mailarekiko aipatzen duela 2030erako lortu beharreko BEGen emisioen % 40ko murrizketa (eta ez 1990ekiko!). Hori tranpa bat da, 2005 izan baitzen EAEn BEGen emisio gehien egin ziren urtea. Datu hori, Europak dioen bezala, 1990eko erreferentzia -mailari estrapolatzen badiogu, ikusiko dugu Euskal Estrategiak 2030erako ezartzen duen helburua % 26koa dela bakarrik, EBk ezartzen duen % 40tik urrun, beraz.

3. Egokitzea: Klima-aldaketaren saihestu ezineko ondorioen aurrean gizarteak zein lurraldeak berak duten erresilientzia handitzeko hainbat neurri hartu behar dira, besteak beste: uraren erabileraren eta kostaldeko inguruen efizientzia eta arrazionaltasuna handitzea (egokitzeko neurrien artean uraren esparrukoak lehenetsi behar dira, arintzeko estrategiak karbonoaren esparrura zuzentzen diren bezalaxe); hiri-plangintza ekologiko batean oinarritutako estrategiak garatzea, uholdeen kontrako babes-neurriei atentzio berezia emanez; ezagutza eta baliabideak mobilizatzea lehorte eta suteen aurrean laboreak moldatzeko eta basoak kudeatzeko; ekosistemen arteko konektibitatea handitzea espezieen migrazioak errazteko.

4. Alderdi horietako asko lurzoruarekin lotuta daude, eta ondorioz ezinbestekoa da Lurzoruaren /Lurraldearen Euskal Lege bat onartzea. Bertan, lurralde-antolamendurako baliabide estrategikotzat hartuko da lurzorua, klima-aldaketaren testuinguruan (Etxebizitza Legearen bestelakoa, bertan lurzorua etxebizitza-politikarekin lotzen baita).

5. Klima Aldaketari buruzko Euskal Legea onartzea[3]. EAEk badu, 2015etik, 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia bat, Eusko Jaurlaritzak sustatutakoa, baina estrategia hori

3.- Europan klima-aldaketari buruzko lege nazionalak daude, adibidez, Eskozian, Katalunian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Suedian; Europatik kanpo lege nazionala duten herrialdeak dira, besteak beste: Quebec, Australia, Costa Rica, Guatemala, Honduras edo Mexiko.

asko hobetu daiteke. Klima Aldaketari buruzko Lege batekin, posible izango litzateke Esko Jaurlaritzak BEG murrizteko duen konpromisoa legez loteslea den konpromiso bilakatzea. Gainera, karbonorik gabeko ekonomia bateranzko trantsizioa egiteko konpromisoa ere izango litzateke, ezarritako helburuak lortzeko beharrezko baliabideak mobilizatuz. Legeak inplikazio transbertsalak izango ditu sail guztietan: urteroko txostenak egin beharko dituzte BEGen emisioen inguruan. Horietan jasoko dira urteko horretako zuzeneko emisioak, hau da, EAEk sortzen dituenak, eta zeharkakoak, hau da, EAEko ondasun eta zerbitzuen kontsumoaren ondorio direnak. Gainera, Klima Aldaketari buruzko Legeak giltzarri diren sektoreetarako egokitze-helburuak landuko ditu, EAE, arintzeari dagokionean urratsak egiteaz gain, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko prest egon dadin.

Eskozia aitzindari izan zen klima-aldaketaren kontrako lege nazional bat onartzen (Scottish Climate Change Bill). 2008ko abenduan aurkeztu zuten parlamentuan eta aho batez onartu zuten talde politiko guztiek 2009ko ekainean (lege-maila lortu zuen 2009ko abuztuaren 4an). Legeak urteroko helburu lotesle batzuk xedatzen ditu 2010-2050 aldirako, Eskoziako gobernuak ezarritako BEGen emisioak murriztearen inguruan. Beste helburu batzuk ere ezartzen ditu egokitzeari, eraginkortasun energetikoari eta hondakinak murrizteari dagokionez. Parte-hartze publikoa da legearen oinarrietako bat. Legeak emisioen % 42ko murrizketa ezarri zuen 2020rako, eta Eskoziako Alderdi Nazionalaren (SNP) manifestu berrian 2020rako murrizketa hori % 50eraino igo da. Katalunian, Generalitateak Kataluniako klima-aldaketaren lege-proiektua onartu du, Lurralde eta Jasangarritasun Sailak idatzitakoa. Lege horretan Europako legeriak ezarritako betebeharrentzako oinarriak finkatzen dira. Zerga berri bat ezartzen du, CO_2 emisioen gaineko zerga, hain zuzen, ibilgailu kutsagarrienentzat (turismo eta furgonetentzat), ingurumenarekin lotutako jokabideak aldatzen saiatzeko. Legearen helburuak betetzeko, Funts Klimatiko bat sortu da, aipatutako zergaren bidez bildutako diruarekin finantzatuko dena, besteak beste.

6. Klima-aldaketaren sail arteko batzorde bat ere sortuko da. Kide anitzeko organo horrek sailen arteko ekintza transbertsalak sustatuko ditu. Klima Aldaketari buruzko Euskal Legea fiskalitate berdearen ereduan oinarritu beharko litzateke. Horrela, BEGen emisioekin gehien kutsatzen dutenek gehiago ordaindu beharko liokete zergetan karbonoaren funts bati. Hori Klima Aldaketari buruzko Legean jasotako jarduerak finantzatzeko erabiliko litzateke.

7. Informazioa, ikerketa eta gardentasuna: Arintzeari buruzko helburuak 5 urtean behin berrikustea, gero eta anbizio handiagoarekin eta IPCCren gomendio zientifikoei men eginez; eta parte-hartze soziala sustatzea, arintzeari eta moldatzeari buruzko esfortzuak eta neurriak koordinatzeko. Horrek esan nahi du indar handiagoz sustatu behar dela klima-al-

daketari buruzko ikerketa, bai mundu mailan bai Euskal Herrian dauden ondorio eta aukeren arabera.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

NATURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Ekonomia ekologikoa

Bioaniztasuna

BIOANIZTASUNA: GURE ONDARE NAGUSIA

KOKAPEN OROKORRA

Bizitza da handiena: galtzea litzake galtzea dena. Bioaniztasuna –inguratzen gaituzten ekosistemak, espezieak eta geneak– gure bizitza-asegurua da: janaria, ur edangarria eta aire garbia, babesa eta sendagaiak ematen dizkigu, hondamendi naturalak, izurriteak eta gaixotasunak arintzen ditu eta klima erregulatzen lagundu. Bioaniztasuna gure natur kapitala da eta ekonomiaren oinarri diren zerbitzu ekosistemikoak ematen dizkigu. Bioaniztasunaren galera, klima aldaketarekin batera, mundu-mailako ingurumen-mehatxu nagusiena da eta gizakiaren etorkizuna kolokan jartzen du. Gizakiaren eragin kaltegarriak, naturalki ematen den espezieen desagerketa 1000 aldiz areagotu du; galera erritmo honek ez du parekorik bizitzaren historian. FAOk dionez, munduko ekosistemen %60 andeatuta daude edo iraunkorra ez den moduan erabiltzen dira; arrain populazioen %75 gehiegi ustiatuta edo agortze bidean dago eta 1990tik hona munduko laboreen aniztasun genetikoaren %75 galdu da.

1992ko Rioko Gailurrean onartu zen Nazioarteko Biologia Aniztasunaren Hitzarmenak (CBD) bioaniztasunaren galera ekiditeko lan prozesuari hasiera eman zion. Hala, 2010. urtea Bioaniztasunaren Nazioarteko Urtea izendatu zen, ordurako bioaniztasunaren galera eteteko asmoz. Helburu hori ez zela beteko jakinen gainean, urte berean Nagoyan egindako Kideen Bilkuran, 2011-2020rako Egitasmoa onartu zen, Aichi-ko 20 Jomuga izenarekin ezagutzen dena.

Europar Batasuna prozesu honen aitzindarietako bat izan da eta urte beretan (1992 eta 2011) Habitaten Arteztaraua argitaratu zuen batetik eta Bioaniztasunerako Europar Estrategia 2020 berriki.

Hala ere, 24 urte igaro direnean, Estrategiaren erdibideko berrazterketak (2015) adierazi duen moduan, babestutako habitat eta espezieen %17 eta oinarrizko ekosistemen %11 bakarrik daude egoera egokian Europan. EAEn kontuak antzekoak dira, babestutako habitaten %13 bakarrik dago egoera egokian. Eta presioak etengabe jarraitzen dute eta handituz doaz, batez ere: lurzoruen erabilera aldaketak; bioaniztasunaren eta bere osagaien gehiegizko ustiaketa; espezie exotiko inbaditzaileen hedatzea; gutxitzen ez diren kutsadura eta klima aldaketa.

Populazioaren hazkuntza, jendartearen sentiberatze falta eta, erabakiak hartzeko prozesuetan, bioaniztasunaren balio ekonomikoa kontutan ez hartzea ere bioaniztasunari eutsi ahal izateko zama izugarriak dira. Errealitatea hori bada ere, jendartearen hautematea eta sentiberatasuna oso txikiak dira. Alderantziz, natur ondarea zuzenean kudeatzen dutenen artean (nekazariak, abeltzainak, arrantzaleak) jarrera negatiboak eta mesfidantza dira nagusi, batez ere bilakaera ekonomikorako oztopo bezala bakarrik ikusten delako.

HERRIAREN EGOERA

EAEn Naturaren zaintzarako ardurak eta eskumen nagusienak Eusko Jaurlaritza eta Aldundien artean zatituta daude, era traketsean gainera. Hori gutxi balitz, Eusko Jaurlaritzan (eta Aldundietan) landalurra (lurraldearen % 90) kudeatzen duen saila (nekazaritza) eta natura zaindu behar duena banatuta daude eta jokamolde kontrajarri ugari dituzte.

Ideia bat egiteko: Europar Batzordearentzat "Natura 2000 Sarea" finantzatzeko diru iturri nagusienetakoak diren Nekazaritzarako Politika Bateratuko (CAP) bigarren zutabeko funtsak, EAEn apenas duten helburu hori. CAPeko funtsak kudeatzeko Eusko Jaurlaritzak onartu berria duen Euskadi 2015-2020 Landa Garapenerako Programak 407 milioitik gorako aurrekontua banatzea aurreikusten du. Hauetatik ingurumen neurriak sustatzeko 23,7 milioi (% 5,8) bakarrik izendatzen dira, eta hauetako neurri batzuk bioaniztasun aldekoak diren oso dudakoa da. Garbi da, bestalde, bestelako neurri batzuk bioaniztasunarentzat kaltegarriak direla.

Bestalde, EAEko Natura 2000 Sareak lehorrean 51 Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) ditu eta 4 Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE); denera lurzoruaren %20,5 hartzen du. Itsasoan HBBE bakarra dago, Mundaka-Ogoño arteko 30 km kosta hartzen duena. Gainera, Gaztelugatxeko eta Deba-Zumaiako Biotopo babestuak itsaso zati bana babesten dute.

Kontutan hartu behar da lehenengo KBEak 2012an izendatu zirela eta bakoitzak duen kudeaketa planean urtez-urte egin beharreko ekintza programa bat daukatela. Zoritxarrez, oraindik asko ez dira martxan jartzen hasi ere.

Deituriko azpiegitura berdea, bioaniztasuna eta ekosistemak erabili aktibo bezala (adib. Klima aldaketari egokitzeko): korridore ekologikoei buruz eginiko lana da orain arte oinarri bezala hartu dena, baina ez da haratago joan eta ez da inola eta inon ere izapidetu.

EAEn 66 dira interes europarreko habitatak (padurak, larreak, zohikaztegiak, basoak...); hauetatik %77 kontserbazio egoera txarrean daude. Kostaldeko habitatak eta basoak dira egoera txarrena dutenak; azken hauen kasuan 16 habitat dira (pagadiak, haltzadiak...) eta denak (% 100) egoera txarrean daude.

Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan 383 espezie daude, hauetako 87 galtzeko arriskuan eta 115 galtze horretarako bidean. Guzti hautetatik 19k soilik (% 5) daukate kudeaketa-plana eta lurralde batzuetan bakarrik, ez guztietan. Animali ornogabeetan eta landare

ez-baskularretan ezjakintasuna da nagusi. Garrantzitsua da jakitea espezie exotiko inbaditzaileen inguruan, handienak bakarrik zenbatu direla (ehunka) eta ez dago aurre egiteko inongo plangintza zehatzik

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Azken 50 urtetan EAEko natura abiadura handiko aldatze prozesuan doa. Onerako eta kalterako aldaketak Europan, orokorrean, ematen direnen antzekoak dira eta mundu mailan ere arazoak kutsu berdinekoak dira.

Bioaniztasunaren galera 2020rako eteteko, Europar Batasunak 2011n onartu zuen Biodibertsitateari Buruzko Estrategian, asmo hauek zituen:

A) Europar Batasunaren ikuspegia 2050rako: 2050ean, Europar Batasunaren biodibertsitatea eta eskaintzen dituen zerbitzu ekosistemikoak behar bezala babestuta, balioetsita eta berreskuratuta egongo dira

B) Bitartean, Europar Batasunaren 2020rako helburu nagusia: biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioa gelditzea, eta horiek ahal den heinean leheneratzea.

Eta helburu horiek gauzatzeko, hainbat ekintza zehaztu zituen, Euskal herrirako ere bete -betean balio dutenak. Ikuspegi hau gauzatzeko, 6 helburu ezartzen dira Europan:

1) Habitaten eta Hegaztien arteztarauak osorik aplikatzea.

2) Ekosistemak eta bere zerbitzuak mantentzea eta lehengoratzea.

3) Nekazaritzak eta basogintzak bioaniztasuna mantentzeko eta hobetzeko egiten dituzten ekarpenak handitzea.

4) Arrantza baliabideen erabilera jasangarria bihurtu.

5) Espezie exotiko inbaditzaileen aurka borrokatu.

6) Munduko bioaniztasunaren galeraren aurkako borrokan lagundu.

Dena den, Europar Batzordeak 2015ean Estrategia honi eginiko erdibideko azterketa negatiboa izan da: orokorrean, 2010eko oinarrizko erreferentzia hartu ezkero, Europar Batasunean biodibertsitatearen galerak eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioak bere horretan jarraitu dute. Honek mundu mailan ematen den joerarekin bat dator eta biodibertsitateak gizakien beharrak asetzeko duen ahalmena larritzen du. Urgentziakoa da, beraz, helburu guztietarako neurrien aplikazioa areagotu eta era zabal eta bizkorrean praktikan jartzea.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

1. Natura zaintzeko politika koordinatuko duen egitura berri bat sortu eta antolatu behar da: biodibertsitatearen aldeko politika eraginkor bat nahi badugu, ezinbestekoa da eskumenak dituzten administrazio desberdinak zuzendu eta koordinatuko dituen erakundea sortu eta hornitzea. Beste hainbat gaietan bezala, Lurralde Historikoen Legea eguneratzea eta egokitzea komenigarria litzake.

2. Lurzoruen Euskal Estrategia (edo Lurzoru Legea), Natur Ondarea eta Biodibertsitatea kontserbatzeko, lege berria egin behar dugu, Natura 2000 Sarea eta Europar Arteztarauak edo Azpiegitura Berde/Urdina bezalako kontzeptuak eta dinamikak integratuko dituena. Lege hau funtsezkoa litzateke ere Lurralde Antolamenduan eta Klima Aldaketaren aurreko estrategian. (Egun bada Zoru Kutsatuen Legea, horretara mugatua, eta balio agrologikoa duten zoruek ere badute babes-araudia, baina ez dago Lurzorua, berez, errekurtso moduan hartzen duen Lege osorik).

3. Arloz arloko politika guztiak, bereziki garraioa, energia, nekazaritza, arrantza eta turismoa, bioaniztasunaren galera ekiditeko helburu nagusiaren baldintzapean jarri, bioaniztasunaren kontserbazioa ziklo ekonomikoen azpian ez jarriz.

4. 2020rako bioaniztasunaren galera gerarazteko larrialdi plangintza bat onartu, Bioaniztasunerako Europar Estrategia eta Aniztasun Biologikoaren Hitzarmenaren Aichi-ko jomugak betetzeko behar diren neurri konkretuak zehaztuko dituena.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

NATURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Elikadura burujabetza

EGOERA OROKORRA

Lehen sektorea askotarikoa eta konplexua da oso; beraz, ez ditugu sektoreak dituen arlo guztiak banan-banan aztertuko, elkarren artean partekatzen dituzten ezaugarriak baizik. Dena den, jakin badakigu nekazaritza eta arrantzaren sektoreak okerrera egin duela azken hamarkadetan.

Ezarri diren nekazaritza-politikak direla eta, lehen sektoreko ekoizpena areagotu eta kontzentratu egin da, eta, ondorioz, Euskal Herriko eta, oro har, Europako hainbat eta hainbat baserritarrek eta arrantzalek jarduera bertan behera utzi behar izan dute.

Horri beste zenbait faktore ere gehitu behar zaizkio: industrializazioa, belaunaldi-txandarik ez egotea, lan- eta ekonomia-baldintza kaskarrak, landa inguruneetan zerbitzurik eta azpiegiturarik ez egotea, etab. Egoera horretan, lehen sektoreak biztanleria aktiboaren % 2-3 besterik ez du hartzen, baina, hori bai, Euskal Herriko lurraldearen erdia baino gehiago kudeatzen du.

Horrenbestez, Euskal Herria beste batzuen menpe dago elikadurari dagokionez; izan ere, kontsumitzen ditugun produktu gehienak beste herrialde edo kontinente batzuetatik inportatutakoak dira. Beraz, adierazi nahi dugu, gaur egun elikadura ez dela eskubide bat; merkantzia edo negozio bilakatu da.

Multinazional eta banatzaile handiek erabakitzen dute zein produktu, nola, noiz eta zer preziotan saldu. Ondorioz, nekazaritza-, abeltzaintza- edo arrantza-eredu horretan lan egiten duten ekoizleek erabat galdu dute euren autonomia, multinazionalen peoi bihurtuz.

Prozesua antzekoa izan da nekazaritzan eta arrantzan; hain zuzen ere, artisau-arrantza iraunkorra egitetik itsasoa gehiegi ustiatzera igaro gara, arrantza industriala sustatzen duten Erkidegoko politikek bultzatuta.

Proposamenaren atal guztiak lau ardatzetan banatu ditugu. Horietan, laburbilduz, egoeraren diagnostikoa egingo dugu, sektorearen erronkak aipatuko ditugu eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzak har ditzakeen zenbait neurri (batzuk zehatzagoak, besteak estrategikoagoak) aipatuko ditugu. Epe ertain-luze batean Euskal Herriak ELIKADURA BURUJABETZAREN eta AGROEKOLOGIAREN bidean aurrera egin dezan beharrezkoak diren neurriak hain zuzen ere.

1. Elikagai osasungarriak, eta ez lehengaiak, ekoizten dituen eredua.

2. Ekoizpen-eredu iraunkorra, ingurumena errespetatuko duena.

3. Etikaren eta gardentasunaren bitartez konfiantza sorrarazten duten banaketa eta merkaturatze ereduak.

4. Jende berria barne hartzea sustatuko duen nekazaritza eta arrantza eredua.

Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu zeharkako beste ardatz batzuk ere lantzea; esaterako: prestakuntza, sentsibilizazioa eta generoa.

HERRIAREN EGOERA

Elikagai osasungarriak ekoizten dituen eredua

Euskal Herrian nagusi den nekazaritza industrialaren ereduak menpekotasun handiak ditu, eta bultzatzen duen ekoizpen- eta kontsumo-eredua intentsiboa, produktu bakarrekoa, kimikoa, eta zentralizatua da, eta kultura homogeneizatzea dakar, besteak beste. Alegia, eredu hori ekoizleen nahiz kontsumitzaileen kontrolean oinarritzen da eta lehengaien ekoizpena sustatzen du, elikagaiena sustatu beharrean.

Arrantzarekin gertatzen den moduan, menpekotasun handia du Estatuko eta Europako politikekiko, kudeaketa intentsiboak dakartza eta gehiegi ustiatzeko arriskuan dago uneoro. Ez dago hitzarmenik, lan-baldintzak oso gogorrak dira eta errentagarritasuna txikia.

- Eskualde-mailako egiturak ixten eta zentralizatzen ari dira (hiltegiak, etab.).

- Elaborazio- eta transformazio-zentroetako garbitasun eta osasunarauen interpretazio industriala egiten da.

- I+Ga produktibitatera bideratuta dago: nola ekoitzi esne gehiago behi edo m2 bakoitzeko; nola lortu produktiboagoak diren arrazak eta barietateak, baina aldi berean menpekotasun handiagoa izango dutenak elikadurari (soja) eta energia-gastuari dagokionez. Gainera, gaixotasunekiko erresistentzia askoz ere baxuagoa dute. Baserritarra eragile pasiboa da I+G prozesuetan.

- Erkidegoko nekazaritza-politiken laguntzen menpe dauden ekoizpen-eredu intentsiboen aldeko apustua egiten da.

- Irizpideak falta dira (ekoizpena, transformazioa, gizarte-irizpideak…) eta ez dago kalitatezko marka desberdinei buruzko ezagutzarik.

- EAEn ez daukagu eskumenik arrantzari dagokionez; Madrilen menpe gaude erabat, eta Madril, aldi berean, Bruselaren menpe dago bitartekoak kudeatzeko.

- Ipar Atlantikoan, aztertutako espezieen % 48 gehiegi ustiatzen dira, eta desagertzen ari dira.

- Kofradiak, hainbat mendez sektoreko erreferentziazko erakunde izan badira ere, beren autonomia eta erreferentzialtasuna galtzen ari dira.

- Flota desagertzen ari da, bai alturan eta bai baxuran (% 75 baino gehiago azken 30 urteetan, Europako Ekonomia Erkidegoan sartu ginenetik).

- Azken urteotan, 52 ontzi eta 540 arrantzale gutxiago daude gure portuetan.

Ekoizpen-eredu iraunkorra, ingurumena errespetatuko duena

Uste dugu natura ondasun bat dela, eta ez baliabide bat (lurra, basoak, ura, haziak…). Egun baliabide horiekin egiten den pribatizazioaren eta espekulazioaren aurrean, elikadura burujabetza defendatzen du baliabideok aniztasun- eta iraunkortasun-iturri direla, eta, beraz, zaindu eta babestu egin behar ditugula.

Ondasun horiek eskuratzea behar-beharrezkoa da elikagaiak egiteko, baina lurrarengatiko presioa gero eta handiagoa da Euskal Herrian. Azken urteotan, hirigintzako espekulazioak lurraren prezioak izugarri igotzea ekarri du; bereziki hiri-inguruetan. Hala, 120.000 € baino gehiago ere eska daitezke hektarea batengatik.

Gainera, ez daukagu nekazaritzako lurra espekulazio horretatik edo “interes orokorraren” izenean ezartzen dizkiguten azpiegituretatik (abiadura handiko trenak, autobiak, autobideak, frackinga, etab.) babesteko lege eraginkor edo tresnarik. Ondorioz, urtero milaka hektarea asfaltatzen dira.

- Lurra eskuratzeko zailtasunak daude (espekulazio eta presio handia).

- Ureztatzeko urtegien eraikuntza-proiektu handiak egiten dira, benetako ureztatze beharrekin bat ez datozenak.

- Irizpide desarrollista eta neoliberalak erabiltzen dira lurraldearen antolamendurako planetan.

- Hainbat hamarkadetan errenta osagarriak lortzea ekarri badute ere, labore bakarreko baso jardunbideek Europako lurzoru eta biodibertsitate galera handienetakoa sorrarazi dute eta ibaiak tratamendu kimikoen bitartez kutsatzea ekarri dute. Hala ere, gaur egun halako jardunbideak gauzatzen dira oraindik.

- Euskal Herriaren elikadura-menpekotasun handiak kezkatzen gaitu.

- Euskal Herriko nekazaritza- eta abeltzaintza-finka intentsifikatuek menpekotasun energetiko handia dute

Etikaren eta gardentasunaren bitartez konfiantza sorrarazten duten banaketa- eta merkaturatze-ereduak

Hainbat hamarkadatan, merkatua ekoizleen eta kontsumitzaileen artean eraikitako ondasun amankomun bat ere izan da; topagune bat eta tokiko ekonomiak garatzeko motorretako bat. Gaur egun, merkatu liberalizatua eta globalizatua da nagusi eta berak jartzen ditu baldintzak: zer eta nola ekoitzi, produktuek zer balio duten, etab. Gainera, merkataritza askeko itun berriak inposatu direnetik, ateak ireki nahi zaizkie berriro ere transgenikoei, hormonei, antibiotikoei eta halakoei.

- Asteroko azokak desagertzen ari dira eta turismora bideratutako eremu bilakatzen; azokak folklorearen zati dira eta ez baserritarrek beren produktuak saltzeko tokiak.

- Banatzaile handiak merkatua bereganatzen ari dira, egitura txikien kalterako.

- Merkataritza-gune handiak direla eta saltoki txikiek asko murriztu behar izan dituzte produktuen prezioak, iraun ahal izateko.

- Plastiko gehiegi erabiltzen da banaketa- eta merkaturatze-sistemetan.

- Jantoki publiko gehienak 5 catering-enpresak hornitzen dituzte; horiek kalitate txarreko produktuak eskaintzen dituzte, baina Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzen dute.

- Biztanleriak gero eta obesitate-arazo gehiago ditu.

- Merkataritza askeko itunen bidez nazioarteko merkatuetara sartzeko aukera egongo dela saltzen digute, baina Euskal Herriko ekoizleek ez dute tresnarik tokiko merkatuetara sartzeko ere.

- Kasu askotan, produktuak ekoizpen-kostutik beherako prezioan saltzen dira.

- Gure arrantza eremuetan erabiltzen diren tresnekin arrantzatutako espezieen % 50 baztertu egiten dira, ez direlako merkaturatzen. Gaur egun Euskal Herrian gabeziak daude arrain-proteinei dagokienez. Gaur egun arrantzatutako arrainek errentagarritasun txikia dute eta esportatzaileek eta kontserbagileek kontrolatzen dituzte. Jantoki publikoetan beste latitude batzuetako arrainak kontsumitzen dira (panga, tilapia…)

Nekazaritza- eta arrantza-jarduerak jende berria barne hartzea sustatuko duen eredua

EAEn, ustiapenen titularren % 10 baino ez dira 40 urtetik beherakoak. Gainera, sektoreko langileen batez besteko adina 58 urtekoa da. Nekazaritza eta arrantzako jarduera uzten dutenean, ez da berehala txanda hartuko duen inor egongo; esaterako, 2009tik, euskal portuetan 500 arrantzale gutxiago daude eta ontzien flotak % 20 egin du behera.

Lehen sektorea etengabeko krisian dago eta gainera, sektorearen intentsifikazioak haztegiak besterenezin bihurtzea ekarri du. Horrenbestez, oso zaila da belaunaldi-txanda bermatzea. Landa ingurunean kokatzeko prozesuari ekin nahi diotenen arazo nagusia, lurra eskuratzeko zailtasuna da. Baita Erkidegoko nekazaritza-politiken laguntzak ere; izan ere, azken horiek azalerari lotuta daude hein handi batean (zenbat eta gehiago izan, orduan eta diru gehiago jasotzen duzu) eta ondorioz, lurrak hipotekatzen eta nekazari berriei zailtasunak jartzen ari dira.

Dena den, gero eta pertsona gehiago gerturatzen dira sektorearen errealitatea ezagutzera. Gutxi batzuk baserritarren seme-alabak dira, gurasoen jarduerarekin jarraitzeko asmoa dutenak; gainerakoak hiri-inguruneetatik etortzen diren gazte eta ez hain gazteak izaten dira. Argi izaten dute beren jarduera eredu agroekologiko bati jarraituz gauzatu nahi dutela, baina ez dute inguruneari eta ekoizpen-sistemei buruzko ezagutza nahikorik. Kasu askotan, gainera, landa-lanaren ikuspegi nahiko utopikoa izaten dute.

- Nekazari eta abeltzain berrien beharra dela eta, administrazioak errealitate iraunkorragoetara egokitu beste aukerarik ez du izan; alabaina, gaur egun martxan dauden aholkularitza-zerbitzuek, eredu intentsiboen alde egiten jarraitzen dute (eredu horiek inbertsio handiak egitea eskatzen dute).

- Nekazari berrien arazo nagusia, lurrik eza izaten da. Baita lurraren prezioa eta espekulazioa ere.

- Hasierako urteak oso larriak izan ohi dira nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorean instalatzen ari diren pertsonentzat.

- Eredu intentsiboak eta granja batzuen gehiegizko tamainak zaildu egiten dute belaunaldi txanda.

- Gure baserritar eta arrantzaleek baldintza eskasetan lan egiten dute; ordu asko lanean, soldata baxuak, atsedenerako egunak hartzeko zailtasunak…

- Zaila da Nekazaritzako Lan Unitate batean sartzea, nekazaritzatzat hartua izateko; ondorioz, gazte askok ezin izaten dute laguntzarik jaso.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

DDiagnostiko honen ondoren, aipatu behar dugu eraikitzen ari garen alternatibaren protagonista bakarra ez dela sektorea, baizik eta gizarte osoa; izan ere, gero eta kontsumitzaile gehiago dago kontzientziatuta eta gero eta gehiagok ezagutu nahi dute erosten dituzten elikagaien jatorria Era berean gero eta baserritar eta arrantzale gehiagok ekoitzi nahi dituzte elikagai osasungarriak eta kalitatezkoak, seme-alabei eskolako jantokietan edo ospitaleratuta daudenei osasun-zentroetan jaten emateko.

Logikara bueltatuz, elikadura-sistema berriak eraikitzen ari gara, baina horretarako, prozesu horrekin batera joango diren politika publiko eta sentsibilizazio gehiago sortu behar dugu; politika horiek lurra eskuratzeko dagoen arazoari egin behar diote aurre, eskualdeetan desagertu diren azpiegiturak martxan jarri behar dituzte edo merkatura jotzeko tresnak ahalbidetu behar dituzte.

Halaber, aliantzak sortu behar dira gizarteko beste eragile eta sektore batzuekin, halanola, sindikatuekin, unibertsitateekin eta gazteekin, proposamen hori espazio eta estrategia berrietara zabaltzeko. Aliantza horietan ez da sektorea bera ahaztu behar, azpisektore, herrialde eta erakundeetan banatuta dagoena; izan ere, sektorea, nahiz eta antzeko errealitateak bizi, ez da gai, eredu agroekologikoaren alde egiten duten estrategia kolektiboak adosteko.

Gero eta kontzientzia gehiago dago bertako elikagaiak kontsumitzeko garrantziaren gainean. Gero eta ugariagoa da eskari hori eta egoera hori aprobetxatu behar dugu gure sektorea berreskuratuz enplegua sortzeko; bestela, banatzaile handi horiek “sasoiko” produktuak, “berdeak” edo bestelako produktuak ekarriko dizkigute, munduaren beste muturretik.

Proposamen eraldatzailea bultzatzen ari gara, aldi berean milaka baserriko erakunde, sozial eta ezkerreko eraikitzen ari direnak beren eskualde eta lurraldeetan.

Proposamen horrek, lurraz, merkatuez, politika publikoez eta aliantzez hitz egiten du eta Elikadura Burujabetza du izena. Herri bakoitzak herritarrei elikagai osasungarriak eta kalitatezkoak jaten emateko nekazaritza-politikak zehazteko duen eskubidea da.

Gure proposamenak, aurretik esan dugun bezala, lau ardatz nagusi ditu eta horiek, epe ertain-luzera, Euskal Herriak ELIKADURA BURUJABETZARAKO eta AGROEKOLOGIARAKO bidean aurkituko dituen erronkak definitzen dituzte:

- Elikagai osasungarriak, eta ez lehengaiak, ekoizten dituen ekoizpen-eredua defendatu behar dugu.

- Ekoizpen-eremu iraunkor bat, ingurumena errespetatzen duena. Horretarako, gure lurraldeen ikuspegia sustatu behar dugu, ez bakarrik ekoizpen- edo ekonomia-ikuspegitik, baita ekologikotik, kulturaletik eta politikotik ere. Ikuspegi horretatik egindako antolamendua defendatuko dugu.

- Gardentasunaren bidez konfiantza sorrarazten duten banaketa- eta merkaturatze ereduak. Merkatuetara jotzeko eta banatzeko tresna berriak eraiki eta garatu behar ditugu, etikan eta gardentasunean oinarritzen direnak, kontsumitzaileak jakiteko elikagai bakoitzaren atzean zer dagoen eta kontsumoa tresna eraldatzaile gisa birdefinitu ahal izateko.

- Nekazaritza- eta arrantza-jarduerak jende berria barne hartzea sustatuko duen eredua. Horretarako, neurri estrategikoak eta integralak hartu behar dira, lehen sektorean enplegua sortzeko prozesu etengabeari eta kolektiboari erantzun ahal izateko ditugun beharrak kontuan hartzen dituztenak; besteak beste, prestakuntza-prozesu berriak garatuz, instalazio progresiboaren alde apustu eginez eta lurrak eskuratzeko aukerak, eskualdeko azpiegiturak edo merkataritzara jotzea sustatzen dituzten politika publikoak bultzatuz. Horrela, proiektu horiek behar bezala garatu ahalko dira eta etorkizuneko belaunaldiek lan-aukerak izan ditzakete lehen sektorean.

Lau ardatz horiez gain, zeharkako erronka nagusi gisa, beste sektore eta gizarte-eragile batzuekin batera garatu beharko liratekeen honako bi hauek kontutan hartzea proposatzen dugu:

Sentsibilizazioa, prestakuntza eta hezkuntza

Ba al dakigu zer jaten dugun? Nola eta non ekoitzi den? Gizarte honek elikaduraren gaineko kontrola galdu du eta ondorioz, elikagaiak ekoizteko moduaren gaineko informazioa ere bai. Gainera, publizitate-kanpainetarako eredu jasangarrien kontzeptuak lapurtzen dira, besteak beste, “etxekoa”, “baserrikoa” eta abar, eta irizpide komertzialetan oinarritzen dira batez ere, ez ekoizpen irizpideetan. Beraz, gertatzen dena da kontsumitzaileek ez dutela ezagutzen elikagai bakoitzaren atzean zer dagoen.

Ekoizpen agroekologikoa eta familiarra normalizatu behar dugu (bai nekazaritza-abeltzaintzan, bai arrantzan), azoketan egiten dugun erosketa puntuala izan beharrean, gure bizitzetan ohikoa izateko.

Oso garrantzitsua da sentsibilizazio- eta prestakuntza-prozesuak martxan jartzea, sasoi bakoitzari zer elikagai dagokion eta nola ekoitzi den jakiteko.

Gizarte-eraldaketako prozesu guztiek behar dute aldaketaren bat hezkuntza- eta prestakuntza ereduan. Eredu berri bat eraiki behar dugu, eskola, institutu eta unibertsitateetan berriz ere landa eta itsas ingurunea kultura, natura, ekoizpen eta gizarte ondasun gisa ikusteko.

Halaber, lehen sektorerako prestakuntza-prozesuak jarri behar ditugu martxan; batetik, eredu iraunkorrago eta jasangarriagoak izateko birmoldaketa prozesua martxan jarri nahi dutenentzat eta bereziki, landa edo itsas ingurunean jarduera batekin hasi nahi dutenentzat.

Generoa: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Balio berriak eraikitzea funtsezko kontua da, elikadura-burujabetza garatzeko eta gaur egungo gizarte, ekonomia eta politika-proposamenak baino zuzenagoak eta bidezkoagoa eraikitzeko; izan ere, emakumeen desberdintasun-egoera, batzuetan ikusezinagoa landa-ingurunean, gaur egun oraindik aitortu, salatu eta aurre egin beharreko gia da.

Garrantzitsua da emakumeek, lurrari lotutako nekazaritza defendatzeko, zirkuitu laburrak defendatzeko eta tokiko ekonomien alde aurrera eramaten duten lan eskerga aitortzea eta normalizatzea.

Eta, halaber, tresnak ezarri behar dira legeen garapen integralerako eta praktikorako, besteak beste, “emakume nekazariaren estatutua”; izan ere, lege-egokitzapenak, araudi-garapenak eta sailen arteko koordinazioa behar dira, egunerokotasunean lehen sektorean sortzen diren desberdintasun egoerak amaitzeko.

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Elikagai osasungarriak ekoizten dituen eredua

- Eskualdeko azpiegiturak sortzea eta daudenak hobetzea (besteak beste, eraldaketa-salak, hiltegiak eta abar).

- Garbitasun eta osasun-arauak ekoizpen txikietara edo artisau ekoizpenetara egokitzea.

- I+G, honako hauetarako:

    - Sistema agroekologikoak hobetzeko:

        - Bertoko barietateak eta arrazak berreskuratzea, kontserbatzea eta garatzea.

        - Animalia-elikadura, sojaren alternatibak bilatzeko.

        - Etxaldeen autonomia.

        - Laborantzen alternatibak garatzea, besteak beste, laborantza bakarrak eteteko.

    - Zerbitzua, aholkularitza, babesa eta laguntzak eredu industrial eta intentsibo batean egonik eredu iraunkorragoak lortu nahi dituzten ekoizleentzat.

    - Kalitatezko markek eta jatorri-izendapenek ekoizpen-irizpideei erantzun behar diete batez ere eta ez irizpide komertzialei.

    - Euskal Herria transgenikorik gabe.

Ekoizpen eredu iraunkorra, ingurumena errespetatuko duena

- Lurraren behatoki publikoa Euskal Herrian, lurra babesteko eta salerosketaren prezioak arautzeko.

- Uraren kontsumoa murrizteko neurriak martxan jartzea ureztatze-sistemetan eta abeltzaintzako ustiategietan.

- Paisaia, biodibertsitatea eta lurrari lotutako kultura defendatzeko irizpideak ezartzen dituzten Lurralde Antolamenduko Planak.

- Pinuaren eta eukaliptoaren baso-ekoizpen alternatiboak sustatzea eta horiek egiteko eta eraldatzeko beharrezko azpiegiturak sortzea.

- Tokiko biztanleak elikatzeko lurraren beharrizanei buruzko azterlana sustatzea.

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako finken trantsizio energetikoko planak egitea, iraunkortasunerako, dibertsifikaziorako eta deszentralizaziorako; plan horiek hainbat neurri uztartu behar dituzte: kontsumoaren murrizketa, energia berriztagarriak, autonomia energetikoa…

- Hondakinak kudeatzeko eta konposta sortzeko eta erabiltzeko proiektuetan aurrera egitea, zikloak itxi daitezen sustatzeko.

- Tasa, zerga eta beste neurri batzuen bidez, kontsumo energetikorako beste eredu batzuk bultzatzea.

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako makinen murrizketan, eraginkortasunean eta erabilera partekatuan eta kolektiboan aurrera egiteko neurriak ezartzea.

- Euskal Herria *Fracking*ik gabeko gune aitortzea

Gardentasunaren bidez konfiantza sorrarazten duten banaketa eta merkaturatze ereduak

- Zuzeneko salmentako merkatu berriak sortzeko eta irekitzeko laguntzak ematea eta berrikustea, eta, hala badagokio, bertako merkatuak arautzen dituzten araudiak egokitzea, zirkuitu laburrak sustatzeko lehentasunezko espazio gisa.

- Banaketa txiki eta ertainerako egiturak ahalbidetzea eta babestea. Eta horiek parte-hartzaileagoak izan daitezen sustatzea.

- Bertako produktuekin eta marjina etiko eta gardenekin lan egiten duten saltokiak laguntzea. Supermerkatuetan, bertako produktuen salmenta sustatzea, marjina etikoekin.

- Bilgarri plastikoen eta erretiluen erabilera mugatzea elikagaiak merkaturatzean.

- Neurri kuantifikagarrien bidez, administrazio publikoak zirkuitu laburretan elikagai agroekologikoak erosteko konpromisoa ezartzea (esaterako, administrazio publikoak 5 urteko epean erosten dituen elikagaien % 30).

- Ikastetxe eta abarretako menuetan, azukre eta koipeen erabilera mugatzea eta, horretarako, ahal denean, bertako eta sasoiko elikagaiei egokitutako dieta osasungarriak ezartzea.

- Merkataritza askeko itunik ez egitea (TTIP, CETA...).

- Prezioaren behatokia martxan jartzea, banaketan eta merkaturatzean neurrigabeko marjinarik egon ez dadin

Nekazaritza eta arrantza jarduerak jende berria barne hartzea sustatuko duen eredua

- Aholkularitza-zerbitzua sartzen diren berrientzat, eredu agroekologikora egokitzen dena.

- Lur publikoen funtsa sortzen laguntzea eta sartu diren berriei horien banaketan lehentasuna ematea.

- Zerga-sisteman eta tasetan salbuespenak edo murrizketak eginez eta lizentziak, baimenak eta bestelakoak erraztuz, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera sustatzea.

- Belaunaldi-txanda sustatzen duten programei bide ematea, eta horretarako, erretiratzeko adina duten ekoizleak eta nekazaritza-jardueran hasi nahi duten gazteak harremanetan jartzea.

- Ekoizle eta arrantzaleen lana duin bihurtzea eta arautzea (lanaldiak, oporrak, bajak, soldatak, segurtasuna…).

- Ekoizpen-eskakizunak ezabatzea, nekazari gisa alta eman edo laguntzak kobratu ahal izateko.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Hezkuntza

IKT

Kultura

Euskara

Hedabideak

Kirola

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Hezkuntza

KOKAPEN OROKORRA

Hezkuntza fenomeno sozial eta politiko bat baino gehiago da. Herriaren garapena eta bere hizkuntza eta kulturaren etorkizuna bermatuko dituena. Hezkuntzak, eta bereziki, derrigorrezko eskolaldiak, herritarren arteko aukera-berdintasuna ahalbidetzen du. Transformazio sozialerako tresna da. Nelson Mandelak esan zuen, beste batzuen artean: 'hezkuntza da eraldaketa sozialerako tresnarik ahaltsuena'.

HERRIAREN EGOERA

Gako horietan uler daiteke, besteak beste, EAEn eta Nafarroan, 1970ean Francoren Erregimenak 'Ley General de Educación' inposatu eta gero, Espainiar Estatuan beste 7 hezkuntza lege sortu izana, guztiak EAEn aplikatu direlarik (UCDren aldetik 2, PSOEren aldetik 4 eta azkena PPrena): LOECE, LODE, LOGSE, LOPEG, LOCE, LOE eta LOMCE. Estatu Espainiarrak ere badaki hezkuntza herri eta jendarte baten eraikuntzaren zutabe nagusia dela. Eta gure herriari dagokionean, horren araberakoa da hezkuntza sistemaren euren erabilera.

Horregatik, hezkuntza ez da hezitzaile, ikasle eta etxekoei soilik dagokien gaia. Hezkuntzak jendarte osoaren inplikazioa behar du, berebiziko garrantzia baitu norbanakoen eta herri baten garapenean, bere pluraltasunean, jendartea kohesionatzeko, tolerantziatik, doktrinamendurik gabe, eta bestearekiko errespetu osoarekin. Hezkuntzak lehentasun soziala izan behar du, nolako herritarrak izango ditugun mugatzen baitu.

Hori horrela, LOMCE da Espainiar Estatutik etorri zaigun azken legea. Kasu honetan ere, euskal hezkuntza komunitatea LOMCEren aurka agertu da. LOMCE eredu zentralista da, eta zentralismoan sakontzeko sortu dute. Horretara bideratua dago bere ebaluazio-sistema: Estatu Espainiarreko haur guztiek eduki berberak izango dituztela bermatzera. Ez du Europatik datozen gaitasunetan oinarritutako ildoetan eta eredu pedagogikoetan sakontzeko biderik ematen. Pedagogiaren ikuspuntutik ebaluazio-sistema erabat atzerakoia da, ikaslea ikaskuntza prozesuaren zentrotik mugitzen baitu: ebaluazioa bera, ikaste-irakaste

prozesua hobetzeko tresna izan beharrean, helburu gisa ezartzen delako. Eta hezkuntza komunitatearen eta jendartearen inplikazioaren eta parte-hartze aukeren aldetik, bertikala da erabat, erabakitzeko ahalmen oro ikastetxeko zuzendaritzaren esku utziz.

Zentzu horretan, Heziberri 2020, hein handi batean, LOMCEren aplikazioa ahalbidetzen duen plan bat da, euskal hezkuntza komunitatearen nahien aurka. LOMCEren ebaluazio-sistema bere egiten du eta Jaurlaritzak 2016ko maiatzean LOMCEren ebaluazio-sistemako Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketa egiteko agindua eman zuen (hurrengo ikasturteetan sartuko dira LHko 6. mailako azterketa eta martxan jarriko dira ere DBH eta Batxilergokoak). Baina 175 ikastetxek planto egin zioten, Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari (Espainiar Estatuko beste erkidego batzuetako gobernuak ausartagoak, aktiboagoak eta eraikitzaileagoak izan dira LOMCEren ebaluazioaren aurka). Sindikatuen %100 ere aurka agertu da. Ebaluazioaz harago, beste arlo batzuetan, Jaurlaritza Espainiako Gobernuarekin negoziaketetan ibili da:

· Euskara. Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin akordioa sinatu zuen, egungo hizkuntza-ereduak mantentzeko, jakin arren, ikerketek eta azterketek erakutsi dutela, D ereduak berak ere ez duela ikasleen euskalduntzea bermatzen. Uriartek, Hezkuntza sailburuak, hasieratik, Euskararen Kontseiluak osatutako 'Ikasle euskaldun eleaniztunak' sortzeko proposamena izan du mahai gainean. Euskara ez dutenentzat murgiltze eredua eta euskara dutenentzat mantentze ereduaren aldeko proposamena da eta hezkuntzako eragile nagusienek hartu zuten parte bere lanketan eta hezkuntza arloko gehiengoak babestu zuen: Ikastolak, EHIGE, Kristau Eskolak, Sortzen elkartea eta Hik Hasi-k. Bestetik, Heziberri 2020k euskarari LOMCEk baino garrantzia gehiago ematen dion arren, ez du finkatzen derrigorrezko oinarrizko hezkuntza amaitzean, ikasleek zein euskara maila izan beharko luketen. Eskola bakoitzak bere Hizkuntza Proiektuan zehaztuko du. Honek 'zonifikazio' bat ekar dezake, hau da, zona bakoitzean hizkuntza gaitasun ezberdina finkatzea, zona bakoitzari beharrezkoak diren aparteko baliabideak eskaini ordez (etorkin gehiago dituzten ikastetxeetan edota etxean euskalduntzeko aukerarik ez duten ikasle gehiago dituzten ikastetxeetan, esaterako). Berriro ere, ikasleak derrigorrezko hezkuntza amaitzerako euskaldunduko direla bermatu gabe, alegia.

· Eskola Kontseiluaren eskumenak. Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin egindako hitzarmenari esker, Eskola Kontseiluak gaur egun dituen eskumenak mantenduko ditu EAEn.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei dagokionean, IKTen integrazio pedagogikoa da beste erronka handietako bat. LOMCEk IKTen erabilera intentsuagoa bultzatu

nahi duela dio. Baina ez dio integrazio pedagogikoari inongo erreferentziarik egiten. Eskola 2.0 jarri zuen martxan PSE-EEren Jaurlaritzak, ikastetxeak ordenagailuz hornituz. Baina integrazio pedagogikorako gidalerrorik ez zen eskaini. Berdina gertatzen da Sare Hezkuntza Gelan programarekin. Oro har, esan daiteke, ekipamendu informatikoak zaharkituak geratu direla (ikastetxe batzuetan berritu dira, besteetan ez, batzuetan gela batzuetan bakarrik); software jabedunen lizentziek proiektuen garestitzea dakartela; oro har, ez dela integrazio pedagogikorako laguntzarik eskaintzen (ezta Berritzeguneetatik ere); ez dagoela inolako koordinaziorik (ikastetxe bakoitzaren egoera ezberdina da); eta euskarazko kalitatezko eduki digitalen eskasia ematen dela.

Heziberri 2020ren lehen bi urratsekin, batetik, LOMCEren ebaluazio-proba zentralizatuak eta ez hezitzailek aplikatuko dira eta, bestetik, derrigorrezko oinarrizko hezkuntzan ez da ikasleen euskalduntzea bermatuko.

Hortaz, Heziberri 2020ren lehen bi urratsak LOMCEren aplikazioaren eskutik etorri dira. Hirugarren urratsa, eta Heziberri 2020ren azkena, 'Euskal Hezkuntza Legea' litzateke. Jaurlaritzak Hezkuntza komunitatearen iritziak jaso ditu azken hilabeteetan, eta oro har, eragileek argi dituzte legeak jaso beharko lituzkeen erronka nagusiak, besteak beste: ikastetxeen autonomia arautzea, irakasleen egonkortasuna ahalbidetzea, euskararen murgiltze eta mantentze eredua, konpetentzietan oinarritutako curriculuma, izaera inklusiboa eta ikasleen aukera berdintasuna. Halere, desadostasunak nabariak dira, finantzazioari dagozkionak, batez ere. Egun, EAEko hezkuntza sistemaren zerbitzu publikoaren erdia itunpekoa da. Bistan da, planteamenduetan ezberdintasun nabariak daudela. Datorren legegintzaldirako geratu da Euskal Hezkuntza Legearen definizioa.

EAEn, Euskal Hezkuntza Legeari bide emango dion hezkuntza eragileen arteko adostasun zabala falta da

Unibertsitate mailara jauzi eginez, eta euskal hezkuntza legeen hariari tiraka, EAEn, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea 2004an onartu zen, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea barne hartzen dituena. Lege hau Europara begira dago, baina Espainiar Estatutik datorren unean uneko unibertsitateen araudiari erantzun behar dio. Honakoak daude indarrean, besteak beste: unibertsitate ikasketei dagokien 6/2001 Lege Organikoa eta 4/2007 Lege Organikoa (aurrekoa aldatzen duena); eta ikasketen antolaketari dagokionean, 1393/2007 Errege Dekretua, 861/2010 Errege dekretua (aurrekoa aldatzen duena) eta 43/2015 Errege Dekretua (1393/2007 Errege Dekretua berriz aldatzen duena).

Azken hori, 43/2015 Errege Dekretua, 'Estrategia Universidad 2015' (EU15) deiturikoa da eta bere baitan biltzen du '3+2 erreforma', hau da, gradu mailako tituluak 3 urtetara murriztu eta masterrak 2 urtetara luzatzea. Honek, besteak beste, unibertsitateko ikasketen aurrean aukera ezberdintasuna areagotuko du (masterrak askoz garestiagoak baitira). EU15k, oro har, unibertsitateen funtzionamendu guztiari erantzuten dio, kudeaketa eta antolaketatik hasi eta eskumenetaraino. Baina funtsean, hezkuntzaren merkantilizazioari begira dago. Hori guztia EAEko unibertsitateetan ere aplikatuko da, euskal unibertsitate sistema propio bat eraikitzeko eskumenak falta baitzaizkigu, ez daudelako transferituak.

EAEn, unibertsitateen gaineko eskumen guztiak ez daude transferituak, ezta hezkuntza ez-unibertsitarioan ere

Unibertsitate mailan jarraituz, EAEn titulu ofizialak emateko eskumenak dituen unibertsitate publiko bat eta bi pribatu ditugu: publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); eta pribatuak, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Horiez gain, UNEDek ere, ikastetxe elkartuen bidez (Bergara, Portugalete, Gasteiz), tituluak kudeatzen ditu. Lehenengo hiruak, aurrez aurreko unibertsitateak izateko jaio ziren eta UNED urruneko unibertsitatea da. Horiekin batera, aipagarria da unibertsitate mailan Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) egiten duen ekarpena, euskara eta unibertsitatearen arteko zubiak eraikiz, euskal komunitate zientifikoa bilduz eta unibertsitate-gaiak ekoitzi eta jendartearen esku jarriz.

Horiek guztiak daude, maila batean edo bestean, 'bizi osoan zeharreko ikaskuntza' -ri begira, hau da, 23 urtetik gorako ikasleei begira, Jakintzaren Jendartean, gero eta ohikoagoa eta arruntagoa baita 23 urtetik gorako pertsonak unibertsitateko ikaske-

tekin hastea. Baina hezkuntza behar berriak eta ezaugarri bereziak dituzten ikasleak dira. Malgutasuna eskatzen dute, erritmoetan eta ikasteko ibilbideetan, eta denbora eta espazioaren mugak gainditzea behar dute.

Horregatik, unibertsitateko tituluak emateko eskumenak dituzten unibertsitateen artean, UNED da, berez, ikasle hauei gehien begiratu ahal diena. Gradu mailako ikasketak ezaugarri horiekin eskaintzen dituen bakarra da (aurrezko aurreko unibertsitateak ezin direlako horretan sartu). Baina UNEDek euskaraz deus ez du eskaintzen. Eta Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa jasotzen du urtero. Hortaz, UNED transferitu gabe dago eta 'bizi osoan zeharreko ikaskuntzari' begira, ikasketak euskaraz eskainiko dituen (eta titulu ofizialak eman ahalko dituen) unibertsitate baten hutsunea dugu (edo eskaintza oparoena euskaraz izango duena). Eta horri lotuta, eta unibertsitate beraren baitan, baita teknologiari eta Interneti lotutako diziplina anitzeko ikerketa institutu baten hutsunea ere. Jakintzaren Jendartea sustatzeko proiektu eraginkorrak izan daitezke.

Egun, ez dago euskarazko unibertsitate mailako ikasketak on-line eskainiko dituen eta eskaintza etengabe garatuko duen unibertsitaterik. Ezta nagusiki euskaraz arituko den teknologiari eta Interneti lotutako diziplina anitzeko ikerketa instituturik ere.

Euskal Herrian hezkuntzaren inguruan egindako hausnarketak, gehien bat, beti izan ditu hiru arlo nagusi: Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkunta eta Unibertsitatea. Lanbide Heziketa modu baten edo bestean, nahi gabe bada ere, alboratuz, nahiz eta lanpostuen perfiletan %70 baino gehiago suposatu, Euskal Herriko jendartean.

Lanbide Heziketa, ez da hain ezaguna Euskal Herrian, are gehiago, bigarren kategoriako hezkuntza moduan tratatzen da, ez da arlo produktibora bakarrik begira dagoen sektore bat, pertsonak jendartean txertatzen, kritikoa izaten eta laneratzen asko lagundu du. Egun Gizartearekin eta Lan munduarekin harreman zuzena duen sektorea da. Baita ere, sistemak "frakasora" bideratzen dituen pertsonak Lanbide Heziketarekin ikasketa duin eta jendartean mugitzeko edo lanpostu bat lortzeko aukerak ematen dio.

Europar Batasunak eta OCDEk argitaratuta ditu, publikoak dira eta txostenetan egertzen da Euskal Lanbide Heziketak duen kalitatea edozein herrialdera, Europa barne, transferitzeko eredua dela, adibidez.

Benetan konplexuak kentzeko ordua da, eta Euskal Herria izateko bereizten duen arloa goraipatzeko eta Lanbide Heziketak dituen balio aktiboak bultzatzeko zein Euskal Herriari honen gaineko politika propioa diseinatzeko ordua iritsi zaio.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Euskal Hezkuntza Europa zein mundu mailan erreferente izatea lortu behar dugu

Euskal Hezkuntza Europa zein mundu mailan erreferente izatea lortu behar dugu. Zentzu honetan, hezkuntzak, lehentasun soziala izan behar du, nolako herritarrak izango ditugun zehazten baitu. Eta LOMCEk eta, maila batean Heziberri 2020k, definitzen duten eskola eredua ez den beste bat behar du euskal jendarteak: ikasleen beharrak aintzat hartuko dituena, ikasteko eta garatzeko erritmo ezberdinei lekua emango diena, ikasle euskaldun eleaniztunak dituena, hezkuntza komunitatearen parte-hartzea bermatuko duena, gure herriaren beharrei erantzuten dien curriculuma oinarri izango duena, ingurugiroarekiko arduratsua izango dena, kirolari behar duen lekua eta futnzioa emango diona, funtsean, pertsona kritiko, autonomo, arduratsu, iniziatibadunak eta anitzak sortuko dituena. Hori litzateke 'kalitatezko hezkuntza'.

Hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko ebaluazio-sistema propioa, integrala eta hezitzailea behar dugu

Europa zein mundu mailan erreferente bilakatzeko, besteak beste, ebaluazio-sistema propio bat behar dugu, hezitzailea eta integrala, LOMCEk eta Heziberri 2020k ezartzen dituzten ebaluazioak barnebiltzen ez dituena. Ebaluazio-sistemak tresna hezitzailea izan behar du, ez helburua. Ez du soilik ikaslea ebaluatu behar, baita irakaste-ikaste prozesua, metodologia, hezitzaileen jarduna (ez irakasleak soilik, heziguneko kide guztiak), hezigunearen eta familien arteko harremana, hezigunearen antolaketa eta abar. Integrala izan behar du, prozesuaren egokitasunak eta zuzentzeko beharrak hauteman eta behar diren zuzentze-edota indartze-neurriak finkatuko dituena.

EAEn, Euskal Hezkuntza Legeari bide emango dion hezkuntza eragileen arteko adostasun zabala lortu behar da: Hezkuntza Akordioa

Euskal Hezkuntza Legeak adostasuna eskatzen du. Adostasun ahalik eta zabalena. Orain arteko ibilbideak eta bakoitzaren bizipenak kontutan hartuko dituena, hezkuntza komunitatearen kide bakoitzak bere bizipen propioak baititu. Eta adostasunaren bidean jarri behar dira indar guztiak. Horretarako, prozesu osoan zehar hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea bermatu beharko da, elkarlanerako giroa sortuz eta mantenduz eta gardentasunez jokatuz.

Ezberdintasunak ezberdintasun, eztabaida eraikitzailea bermatu eta ondo gidatu beharko da. Euskal hezkuntza komunitate osoak desio du Euskal Hezkuntza Legea, eta horri arduratik eta arduraz erantzun behar zaio. Euskal Hezkuntza, berez eta izatez, proiektu plurala da, ereduetan ere askotarikoa. Eta aniztasun horiek guztiak ahalik eta modu inklusiboenean barneratzeko adostasuna bilatu behar da.

EAEn, Euskal Unibertsitate Sistemaren Lege berria behar da, aurrez unibertsitate mailako eskumen guztiak transferituta

Unibertsitate mailako eskumen guztiak transferituak ez daudelako, Espainiar Estatuko 43/2015 Errege Dekretuarekin 3 urteko graduko ikasketak eta 2 urteko masterrak ezarriko dira, Europako beste herrialdeetara berdintzeko aitzakian. Besteak beste, ikasketen antolaketari dagozkion eskumenak transferitu gabe daude eta, hortaz, Espainiar Estatutik ezarriko dira antolaketa horri dagozkion erabaki guztiak.

Herri ikuspegitik, ezinbestekoa da eskumen horiek transferitzea, euskal jendartearen unibertsitate mailako hezkuntza beharrak eta nahiak asetu ahal izateko. Eskumenak transferituta, Euskal Unibertsitate Sistemaren Lege berria sortzeko prozesua abiatu beharko litzateke.

Euskarazko unibertsitate mailako ikasketak on-line eskainiko dituen eta eskaintza etengabe garatuko duen unibertsitate berri bat behar dugu. Eta nagusiki euskaraz arituko den teknologiari eta Interneti lotutako diziplina anitzeko ikerketa institutu bat barnebildu behar du.

UNEDen transferentziaz hitz egin daiteke, baina ikuspegi eraikitzaileago batetik, euskarazko unibertsitate mailako ikasketak on-line eskainiko dituen eta eskaintza etengabe garatuko duen unibertsitate berri bat sortzea egokiagoa da (UNEDen eredu pedagogikoa ere aldatu egin beharko litzateke). Baina elkarlanetik soilik sor daitekeen proiektua da. Eta, Universitat Oberta de Catalunya-ren (UOC) ibilbidea eredutzat hartuta, proiektuaren arrakastaren giltzak honakoak izan daitezke:

1. Jaurlaritzaren apustua behar du. Apustu iraunkorra, koiuntura politikotik harago doana (denboran iraunkorra, UNEDen kasuan bezala).

2. Aurrez aurreko unibertsitateek kolaboratu egin behar dute. Unibertsitate berria gainontzekoekiko osagarria dela ulertuz.

3. Aurrez aurreko unibertsitate batek ezin du unibertsitate berriaren eragile edo motor izan. Kanpokoa izan behar du, egitura eta funtzionamendu malguagoa duena.

Hortaz, elkarlanean aritu behar duten agenteak honakoak dira: 1) Jaurlaritza; 2) egun martxan ditugun unibertsitateak; eta 3) on-line unibertsitate berria kudeatuko duen eragilea, 'eragile-gidaria'. Eta noski, bultzatzaile guztien arteko elkarlana ezinbestekoa da: elkarlana egun martxan dauden unibertsitateen artean; elkarlana Jaurlaritza eta eragile-gidariaren artean; elkarlana egun martxan dauden unibertsitateen eta eragile-gidariaren artean artean; eta, azkenik, agente horien guztien artean.

Era berean, ikerketaren arloa ere landuko luke, Interneti eta teknologiari lotutako diziplina anitzeko institutu bat barnebilduz. Halere, institutu honen sorrera modu independentean ere plantea daiteke, hau da, institutu hau sortzeko prozesua has daiteke, unibertsitate berria sortzekoi zain egon gabe. Eraikuntza prozesu paraleloak izan daitezke, etorkizunean elkar daitezkeenak.

Lanbide Heziketari dagokionean, hezkuntza sistemaren erdigunean kokatzeko unea heldu da. Horrela, gure Herriak behar duen heziketak eta prestakuntzak, tokiko garapenaren norabidean, behar duen tokia izan ahalko du.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko ebaluazio-sistema propioa, integrala eta hezitzailea behar dugu

Euskal hezkuntzak ebaluazio-sistema propio bat behar du, hezitzailea eta integrala. Eta, oro har, ebaluazio-sistema horren ezaugarri orokorrak honakoak izan daitezke:

· Ikastetxeen hezkuntza komunitatea izango da ebaluazio-agentea, eta kanpoko-agenteek aholkularitza rola izango dute .

· Gela barruan eta kanpoan gertatzen diren prozesuetan oinarrituko da.

· Hezkuntzaren kalitatean eragiten duten alderdi guztiak hartuko dira kontutan

Zentzu horretan, hezkuntzaren kalitatean eragiten duten arlo guztiak kontutan hartzeko helburuarekin, dimentsio ezberdinak plantea daitezke:

1. Kudeaketa eta antolamendu dimentsioa. Zuzendaritzaren eta erabakitzeko ahalmena duten organoekin du lotura, ikasleei, hezitzaileei, etxekoei eta hezkuntza komunitateari zuzendutako jardueren gainean, hezigunearen hezkuntza proiektuaren arabera.

2. Dimentsio kurrikularra eta akademikoa. Hezitzaileen jarduna, irakaste-ikaste prozesuak, metodologiak, proiektuak eta materialak didaktikoak.

3. Hezigunearen dimentsio sozio-afektiboa. Aurreko bi dimentsioek eragingo dute. Emozioei eta afektuari lotutako dimentsioa. Hezitzaileen arteko harremana eta hezigunearen eta familien arteko harremana.

Heziberri 2020k LOMCEren ebaluazio-sistema aplikatzen badu ere, begirada eraikitzailearekin, ebaluazio-sistema propioa, integrala eta hezitzailea Euskal Hezkuntza Legearen baitan definitu daiteke (eta ISEI-IVEI Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen egitekoak eta ildoak berraztertu beharko lirateke). Baina Euskal Hezkuntza Legea iritsi bitartean, Heziberri 2020k ezarritako ebaluazio-probak bertan behera gelditzeko edo baldintzatzeko urratsak eman beharko dira (orain arteko plantoak bezala), dekretuak atzera botatzea baztertu gabe.

EAEn, Euskal Hezkuntza Legeari bide emango dion hezkuntza eragileen arteko adostasun zabala lortu behar da: Hezkuntza Akordioa

Euskal Hezkuntza Legeak adostasuna eskatzen du. Aurrez aipatu bezala, Euskal Hezkuntza, berez eta izatez, proiektu plurala da, ereduetan ere askotarikoa dena. Baina Euskal Hezkuntza Legea ezinbestekoa da eta ahalik eta adostasunik zabalena lortzeko bideak ireki behar dira, aniztasun horiek guztiak ahalik eta era inklusiboenean barnera daitezen. Hori guztia hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea bermatuz, elkarlanean arituz eta gardentasun osoz.

Adostasun horri begira, ez gara hutsetik hasten. Badira eztabaida gidatu eta erraztu dezaketen aurretiko lanak. Hezkuntza eremuan babes zabala izan zuen Oinarrizko Hezkuntza Akordioa (OHA) dugu horren adibide. Bertan 10 eskubide definitzen dira, non herritar orok duen: 1) ikasteko eskubidea; 2) eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea; 3) Euskal Herriko curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea; 4) hezkidetzan oinarritutako hezkuntza jasotzeko eskubidea; 5) hezkuntza oinarri demokratikoen arabera antolatzeko eta kudeatzeko eskubidea; 5) eskola komunitatea osatzen duten pertsonen eta herritarren hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea; 6) Euskal Unibertsitate Sistema, Euskal Herriaren beharrak aseko eta bideratuko dituena izateko eskubidea; 7) hezkuntzaren bidez bere ahalmen guztiak garatzeko eskubidea, pertsona kritiko eta askeak izateko bidean; 8) etorkinei eskubide osoz euren ama hizkuntza eta kultura errespetatuko zaizkie; 9) Hezigune bakoitzeko hezkuntza komunitateak bere Hezkuntza Proiektua izateko eta kalitatez garatzeko eskubidea du; eta 10) hau guztia posible izan dadin, euskal herritarrek hezkuntzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea dute.

OHAk, era berean, hezkuntza 'publikoa'-ren kontzeptua ere definitzen du. OHAn adierazten denari jarraiki, Hezkuntza Publikoa herrien eta herritar guztien garapenerako beharrak asetzen dituen hezkuntza izango da, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua. Publikoa, 'publiko herritar' ikuspegian kokatzen du, hau da, komunitateari lotua, hezkuntzan ere demokrazia parte-hartzailea gauzatu ahal izateko. Eta hezkuntza publikoaren gestioak eraginkorra, gardena eta jarraipen soziala duena izan beharko luke.

Bukatzeko, OHAn Hezkuntza Publikoaren Elkargunea definitzen da, 10 eskubideak aintzat hartzen dituzten heziguneen artean osatuko dena (hezigune bakoitzak bere berezitasunak izango ditu). Elkargunearen egitekoa kalitatezko hezkuntza zerbitzu publikoa indartzea eta

biztanleen herri identitatea eta kohesioa lortzea izango da.

OHAz gain, aitzat hartzekoa da 2014ko urrian sinatu zen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren baitan (EHESK), hezkuntzari dagokion atala. Bertan, besteak beste, ondorengoak zehazten dira: hezkuntza sistema publikoa lehenestea eta hezkuntzaren finantziazioa blindatzea (egoera ekonomiko zailetan ere murrizketak ez onartuz). Hortaz, Euskal Eskola Publiko berri baten alde egiten du.

OHA eta EHESKz gain, badira aurretik landutako proposamen gehiago. Adostasunaren bidean, eztabaidarako abiapuntu ere izan daitezke, batetik, Euskal Herriko Ikastolak, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuazek landutako 'Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma', Sarean-ek, EHIGEk eta BIHEk landutako 'Euskal Herrirako Curriculuma' eta baita Euskararen Kontseiluak osatutako 'Ikasle euskaldun eleaniztunak' sortzeko proposamena ere, euskara ez dutenentzat murgiltze eredua eta euskara dutenentzat mantentze eredua proposatzen duena (Euskal Herriko Ikastolak, EHIGE, Kristau Eskolak, Sortzen elkartea eta Hik Hasi-k bat egin zuten).

Hori guztia horrela izanik, eta Euskal Hezkuntza, berez, proiektu plurala dela abiapuntu hartuta, Euskal Hezkuntza Legeak honako ezaugarriak biltzea litzateke desiragarriena:

· OHAko 10 eskubideen eta EHESKren ildotik doazen ezaugarriak: euskalduna, inklusiboa, hezkidetzan oinarritua, demokratikoa eta parte-hartzailea.

· Hezkuntza komunitatearekin landu eta hezkuntza eragileen babes zabala jaso duen Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma oinarri hartu eta curriculum propioei ateak irekiko dizkiena.

· Ikasle euskaldun eleaniztunak heziko dituen murgiltze eta mantentze eredua barnebilduko dituena.

· Ebaluazio-sistema propioa, integrala eta hezitzailea bilduko duena.

· Publikotasun eredu berri baterako urratsak bilduko dituena, publiko herritarra, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua definituko duena.

EAEn, Euskal Unibertsitate Sistemaren Lege berria behar da, aurrez unibertsitate mailako eskumen guztiak transferituta

Arnaldo Otegirekin talde-lanean
Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Euskal Unibertsitate Sistemaren Lege berri bat sortzera bidean, unibertsitate mailako hezkuntza-eskumen guztiak transferituak izateko prozesua abiatzea litzateke lehen urratsa. Une berean, EAEko unibertsitateak eta Jaurlaritzaren arteko harremana estutu eta euren kezka eta asmoak partekatzeko gune bat sortu daiteke. 'Euskal Herriko Unibertsitate Barrutia' berreskuratzea eta birdefinitzea ere egokia litzateke. Horren baitan, EU15aren aurrean nola kokatzen diren eta etorkizunera begira elkarlanean zein urrats eman daitezkeen hausnartu beharko litzateke. Era berean, Euskal Unibertsitate Sistemaren Lege berria sortzeko lehen urratsak ere hor eman daitezke (eta horren baitan, titulazio mapa eraiki).

Euskarazko unibertsitate mailako ikasketak on-line eskainiko dituen eta eskaintza etengabe garatuko duen unibertsitate berri bat behar dugu. Eta nagusiki euskaraz arituko den teknologiari eta Interneti lotutako diziplina anitzeko ikerketa institutu bat barnebildu behar du: Jakintzaren Jendartearen Euskal Institutua.

Aurrez aipatu bezala, UNEDen transferentziaz hitz egin daiteke, baina ikuspegi eraikitzaileago batetik, euskarazko unibertsitate mailako ikasketak on-line eskainiko dituen eta eskaintza etengabe garatuko duen unibertsitate berri bat sortzea egokiagoa da. Eraikitzaileagoa. Unibertsitate berria litzateke, on-line irakasten duena, hau da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoa on-line emango duena (ez urrunekoa), ikaslean zentratutako eredu pedagogikoa aplikatuko duena (irakasleak eta tutoreak egongo dira, azken hauek ikasleen jarraipena egin eta euren motibazioa bermatzeko). Unibertsitate honen garapen prozesua, txikitik handirakoa izango litzateke.

Ikerketaren arloa, Interneti eta teknologiari lotutako diziplina anitzeko institutu bat sortuz osatuko litzateke. Internetek eta teknologiek pertsonen bizitzetan eta gure bizitzarekin lotuta dauden aktibitate guztietan duten eragina aztertuko luke. Institutuak, bere baitan, ikerketa zentro ezberdinak izan ditzake, arloka antolatuta: on-line irakaskuntza (unibertsitatea bera hobetzeko), hezkuntza eta IKT, generoa eta IKT, zuzenbidea eta IKT, eta gisa horretan. Institutu hau sortzeko prozesua ere, txikitik handirakoa izango litzateke.

Hori guztia bideratzeko, hasierako urratsak honakoak izan daitezke:

1. On-line unibertsitate berria gidatuko duen eragilea identifikatu, 'eragile-gidaria'. (UEU aukera oso egokia litzateke, duen jakintza-sareagatik, unibertsitate ezberdinen eta profesionalen elkarlana sustatzen duen esperientziagatik eta abar)

2. Jaurlaritzan eta legebiltzarrean, babes iraunkorra lortu (edota UNEDena bideratu), bai unibertsitate berria sortzeko bai ikerketa institutua sortzeko. Behin apustu politikoa egikarituta, unibertsitatea eta ikerketa institutua paraleloan landu daitezke.

3. On-line unibertsitatea sortzea.

3.1. Jaurlaritzaren, eragile-gidariaren eta egun martxan dauden unibertsitateen elkarlanerako gunea sortu.

3.2. Unibertsitate berriaren eredua adostu (egun martxan dauden unibertsitateen elkarlan-eredua, kudeaketa eta antolaketa, tituluak, garapen egutegia eta abar).

3.3. Tituluak eskaintzen hasi. Eta pixkanaka hazi.

4. Jakintzaren Jendartearen Euskal Institutua sortzea (Internet eta Teknologiaren Ikerketa Institutua ere dei daiteke).

4.1. Eragile-gidariak (bere jakintza-sarearen laguntzarekin) epe labur, ertain eta luzean martxan jar daitezkeen ikerketa lerroak identifikatu.

4.2. Epe laburrekoekin: ikerlariak bildu, antolamendu-eredu malgu bat arautu eta elkarlana eta ikerketa garatzen hasi. Eta pixkanaka hazi.

• Lanbide Heziketako Lege Berria behar dugu, sektorearekin akordio zabal baten ondorio izango dena.

• Euskararen trataera. Benetako iruzurra egon da Lanbide Heziketako ikastetxeetan honen inguruan. Proposamena honetan oinarritu daiteke: Lanbide Heziketan matrikulatzen den ikasleak bermatu behar zaio, bigarren hezkuntza izan duen eredua (ezin da Dereduan ikasi duen pertsona bat A ereduan matrikulatu) Horrek esan nahi du, %35ak eredua aldatu egiten duela DBH edo Batxilergotik Lanbide Heziketara pasatzean. Hau ezin da posible izan. Ikasleak aurreko ikasketetan ikasi duen ereduan jarraitu behar du, hala nahi izanez gero. Ikusi 1. Eranskina Lanbide heziketa euskaratzeko estrategia. Lanbide Heziketarako osorako euskarazko materialak sortu beharko dira.

• Lanbide Heziketa. Hezkuntza barnean izanik, arrazoi askogatik, Lanbide Heziketak sindikatuekin negoziatzeko mahai berria zabaltzeko beharra du eta estereotipoetan oinarritutako diskurtsoak alde batera utzi, ezagutza zehatza eta partaidetza zuzena izatea Lanbide Heziketan.

• Lantokiko praktikak eta sistema dualean aurrera jarraitzeko, eta ezker independentistak bultzatzen duen eredua izan behar da, Euskal Herri berrirako, kontratuen baldintzak eta baita ere jarri beharreko kontrol sistemak gure programan ezarri behar dira.

• Lanbide Heziketa, Industriari behar duen garrantzia kendu gabe, gizartearen kohesioa eta gizartearen beharrei lotuta egon behar da. Gizartearen beharrei erantzunez. Osasuna, Teknologia berriak, garapena, Zahartze prozesuetan eta abar.

• Arlo industrialean ere, Lanbide Heziketaren oinarria iraunkortasunean, gizarteari mesede egingo dion zerbitzuan oinarrituta egon beharko da eta irizpideak jarri nondik nora joan behar diren produkzio kateak.

• Lanbide Heziketa, ikasketa prozesu arrunta baino gehiagoa da. Etengabeko hezkuntza eta hezkuntza okupazionala bertan sartuta daude. HOBETUZ erakundearen inguruan egin den erabilera maltzurra izan da eta CCOO eta UGT eta patronala finatziatzeko balio izan du, dirutza izugarria jaso dute. Euskal Herri Libre batean, LANBIDE eta HOBETUZ programen ardura Lanbide Heziketako ikastetxeek izan beharko dute. Eta bertara dedikatutako dirua ekipamenduan, ikerkuntzan, garapenean eta erronka berriei aurre egiteko balioko du. Horretarako ere ikastetxeetako egitura eta funtzionamendua berrasmatu egin behar da. Badaude honen inguruan lanak eginda eta kontutan izan beharko dira.

• Nazioarte maila. Euskal Herria eta Lanbide Heziketa mundu mailan erreferentea izaten jarraitu behar du, kontaktuak mantenduz, gure herri izaera propioa eta identitatearen agertuz goazen lekura goazela, Euskal Herriko Lanbide Heziketako marka atera eta lan talde egonkor sortu, helburu hori lortzeko. Urtero Euskal Herritik 1000 ikasle inguru irteten dira Europa eta Mundura enpresa egonaldiak egitera, eta 3 hilabete pasatzen dute kanpoan hauek, nolabait, Euskal Herriko enbaxadore izango dira.

1. ERANSKINA

Lanbide Heziketan euskara uztartzeko jorratu beharrekoak

1.- ESKAINTZA – EREDUAK

D eredua beste ikasmailetako kopuruetara heltzeko dauden oztopoak aztertu eta gainditzeko neurriak hartu eta baloreak parekatzea A eredutik, B eredura pasatu eta D ereduan bukatu. Horretarako heziketa ziklo guztiak D ereduaan ere jarri.

2.- MATRIKULA

Kanpaina erraldoiak eta bateratuak euskarazko matrikula handitzeko.

3.- GIZA BALIABIDEAK

Irakasle, administrari eta atezaintzarako Lan-postu guztietarako PL1 eta PL2 izatea. PLrik ez duten irakasleak gutxika-gutxika jubilatzen joan eta lanpostu berriak PL2koak ateratzeko irizpideak eta legeak jarriz.

4.- ERAKUNDEAK

Pertsonal aldetik arauak eta legeak aldatzea, kontratazio eta OPEberriak PL2ko plazak izan daitezen bideak jarriz.

5.- IKASTETXEAK

Ikastetxeak euskarako planetan sartzea, bai ziurtagiaria atera eta dokumentazioa eta prozesuak gutxienez euskaraz izatea. Barruko eta kanpoko harremanak euskaraz izateko bideak jarriz.

6.- LANTOKIKO PRAKTIKAK

Enpresetan Lantokiko Prestakuntza eta DUAL-a euskaraz egiteko ikastetxeko prozedurak eta enpresaren arteko harremanak euskaraz izan daitezen bideak jarriz, bide batez ikasleak praktikak euskaraz egiteko prozeduraren sistematizazioa abian jarriz.

7.- MATERIALAK

Moduluak euskaraz emateko falta diren materialen azterketa egin lehentasunak markatu eta baliabide egokiak jarriz. BOEn markatuta datozen Kode teknikoak eta titulazioak euskaratu.

8.- TEKNOLOGIA BERRITZAILEAK

Sortzen diren arlo profesional berriak, proiektu berriak eta material berriak gutxienez euskaraz izateko bideak jarriz eta irakasleen formakuntzaqk euskaraz ezin direnean eman beste hizkuntza batean emanda ere arlo horretarako euskal hiztunak formatzeko bideak jarri.



DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**



IKT

KOKAPEN OROKORRA

Mende laurden baino gehiago igaro da Internet sortu zenetik. Eta gutxi beranduago, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT, hemendik aurrera) jendartean duten eraginaz irakurtzen/entzuten/hitz egiten hasi ginen. EAEn, XXI mende hasieratik, gutxi gorabehera.

Egun, inork ez du zalantzan jartzen, IKTek arlo guztiak ukitzen dituztela: ekonomia (ekonomia globalaz hitz egiten dugu, ekimen enpresarial asko eta asko teknologiari lotutakoak dira, enpresa digitalak eta enpresen digitalizazio prozesuak ditugu mintzagai); hezkuntza (IKTek hezkuntza irauli dute eta erronka teknologikoari aurre egin zaion arren, erronka pedagogikoari ez zaio behar bezala heltzen, hau da, IKTen integrazio pedagogikoari); kultura (Internet jakintza-iturri nagusietakoa bilakatu da, eduki kulturalen zabalkundea astindu du, sortzailea eta kontsumitzailearen arteko distantziak murriztu ditu, eta egile eskubideen eta lizentzien eztabaida mahai gainean jarri du); eta, oro har, jendartea (komunikaziorako kanalak gehitu dira, pertsonen arteko harremanak sortu eta zaintzeko moduak aldatu dira, informazioa jaso eta sortzeko bideak areagotu dira). Eta abar luze bat.

HERRIAREN EGOERA

Horretxegatik, hain zuzen, eraldaketa horrek Jaurlaritzako organoetan bere isla izan beharko luke. Baina ez da hala. Azken legegintzaldian, ez da lege bat bera ere landu, IKT politiken gainean. Organigramari dagokionean, Ogasun eta Finantzen sailean, 'Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza' dago, Administrazio eta Zerbitzu Orokorretarako Sailburuordetzaren baitan. Baina bere egitekoa informazio- eta telekomunikazio-sistema korporatiboen mantenu teknikora eta informazioaren jendartearen ustezko sustapenera mugatzen dela esan daiteke. Jaurlaritzan ez dago IKT politiken definizioaz eta koordinazioaz arduratzen den sailik. Ezta Jakintzaren Jendarteaz arduratzen denik ere. Egiten den gutxia, atomizatua dago. Hezkuntzan IKTen gaia lantzen da, nolabait, baina ez dago IKTen integrazio pedagogikoan zentratzen den organorik. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan, Euskararen Aholku Batzordearen baitan, azken legegintzaldian, IKT arloa kentzeko ahalegina egin da, Batzordearen kideen eskariz mantendu delarik. Baina ez dago koordinaziorako organorik.

> EAEn, Jaurlaritzan, ez da IKT eta Jakintzaren Jendartearen politikak definitu eta koordinatuko dituen sailik existitzen.

Politika horien baitan, Jaurlaritzak, administrazio publikoa izaki, software librearen aldeko apustua egiteko berezko ardura du. Admnistrazio publikoak, publikoa delako, ez luke menpekotasun teknologikorik izan beharko. Alderantziz: teknologikoki independentea izan behar luke. Eta burujabetza teknologikoa lortzeko, ezinbestekoa da software librea erabiltzea. Arrazoiak asko izan daitezke:

· Administrazioak zabaltzen duen informazioak formatu estandarretan egon beharko luke.

· Erabiltzen dituen programen iturburu-kodea ikusi, aztertu eta aldatzeko aukera behar luke (administrazioak eta herritarrek), bai segurtasunagatik, kontrolagatik eta baita informazioaren iraunkortasunari dagokionean ere). Informazioaren prozesamendurako informazio-sistemak enpresa pribatuen esku egotea izaera publikoarekiko eta gardentasunarekiko antagonikoa da.

· Arrazoi ekonomikoak: hardware inbertsioak murriztu (gehiago irauten du), software lizentzien kostua aurreztu (erabilpen lizentzia doakoa da, negozio-eredua beste bat delako), eta enpresa lokalen sustapenean laguntzen du.

Funtsean, software librearen aldeko apustu batek, administrazioak erabiltzen dituen sistemen ezagutza sakona ahalbidetzen du, sistema horiek hobetu, berrerabili, eta mugarik gabe zabaltzeko aukera irekitzen du, horrek herri baten garapenean duen eraginarekin. Hau da, burujabetza teknologikoaren bidea irekitzen du, arlo honetan egun ematen diren menpekotasunak gainditu eta independentziaz aritzeko.

Zentzu horretan, Jaurlaritzak ez du sekula software librearen aldeko apustu garbirik egin. Patxi López lehendakari zela, 2010ean, Informatika eta Telekomunikazio zuzendaritzak, SALE bulego teknikoa sortu zuen (Software Askea/Libre Euskadin), baina oso baliabide gutxi eskaini zaizkio (hasieran ez hain gutxi, 600.000€ inguru, baina ez dago argi zertan xahutu ziren; 2016ko aurrekontuetan 22.000€). Twitter eta Facebook kontuen kudeaketaz aparte, zoritxarrez, ez ditu bere egitekoak bete (22.000€-rekin ezer gutxi egin daiteke). Hortaz, Jaurlaritzak, orain arte, ez du burujabetza teknologikoaren gaineko bere ardura bete.

Ildo horretan, esan daiteke, software librearen aldeko apusturik ez egiteaz gainera, Jaurlaritzan software librearen aldeko urratsak oztopatu egin direla, azterketa batzuen emaitzak ezkutatzeraino. 2006rako azterketa bat agindu zen, eta legebiltzarretik eskaria egin zelako eman ziren azalpenak. Antza, azterketa haren arabera, administrazio publikoan software librea erabiltzea software jabeduna erabiltzea baino garestiagoa da eta gaitasun teknikoen aldetik ere ez omen ditu administrazio publikoaren beharrak asetzen. Emaitza horiek sinesgaitzak dira:

· Ezin da garestiagoa izan: Software librea erabiltzen hastearekin, erabilpen lizentzien kostua desagertzen da. Egun lizentzietan joaten den diru kopurua, aurrekontuak begiratuta eta sektore publiko guztia kontutan hartuta, neurgaitza da. Gutxienez 1.000.000€ izan daiteke, baina izan daiteke bikoitza edo laukoitza (mantenu-kontratuak eta bestelakoak sartuta). Baina edozein kasutan, ezinezkoa da garestiagoa izatea. Eta hor aurrezten denarekin, erraz gauza daiteke Jaurlaritza software librera migratzeak suposatzen duen inbertsioa. Are, lizentzien kostuak gora egiten du urtero: 2008an 500.000€ pasatxo ziren, 2013an ia 700.000€ (eta, esan bezala, lizentzien partidez harago, mantenu-kontratuetan eta beste hainbat kontzeptuetan, kantitate handiak aurrezteko edo beste era batetara bideratzeko aukera asko daude).

· Teknikoki ez omen ditu administrazioaren beharrak asetzen: kasu puntual gutxi batzuetan, agian, gerta daiteke, baina oro har, administrazioko betebeharrak asetzeko gaitasuna duela ezin da zalantzan jarri. Asko eta asko dira mundu mailan, adminis-

trazio publikoan software librea erabiltzen duten erakundeak (estatu espainiarrean, esaterako: Extremadura, Andaluzia, Castilla-La Mancha eta abar). Eta edozein kasutan, puntualki beste sistema bat beharko balitz ere, ahal den kasu guztietan software librea lehenetsi beharko luke administrazio publikoak (baita lehiaketa publiko eta diru-laguntzetan ere).

EAEn, ez da software librearen aldeko apusturik egin eta urtean diru publikoz lizentziatan eta mantenu-kontratuetan ordaintzen den diru kantitatea neurgaitza da (1.000.000€ inguru ordaintzen dira software lizentzietan eta gainontzeko 'ezkutuko' partidak gehitu behar zaizkio)

Administrazio publikoaz harago, herritarren egunerokotasunean ere IKT oso presente daude. EUSTATeko datuen arabera, 2015ean, etxeen %70,2 kasuetan, Interneterako sarbidea edo konexioa zegoela baieztatzen da, hiru lurraldeen artean ezberdintasun handirik gabe. Etxean haurrak bizi diren kasuetan, ehunekoa %92,7ra igotzen da. Gaindegiak ere (2014) gisako datuak eskaintzen ditu: EAEn, %73; Nafarroan %71; Ipar Euskal Herrian %82; eta Euskal Herri mailan %73,5. Interesgarria litzateke Interneterako sarbideak etxeko diru-sarrerekin, bertan bizi direnen formazioarekin eta lanarekin eta eremu geografikoarekin duen lotura aztertu ahal izatea.

Edozein kasutan, EAEn, gaur gaurkoz Internet guztion eskura ez dagoen zerbitzu bat da: landa-eremu batzuetara ez da iristen, herritar guztiek ez dute Internet erabiltzeko trebakuntza nahikorik, baina batez ere, zerbitzu gisa oso garestia eta elitista delako. Honek, Interneterako sarbidea oinarrizkoa eskubide gisa definitzeko beharrera garamatza eta, hori bermatze aldera, sarbide unibertsala definitu, sareen arteko konexioa eta azpiegitura komunen erabilera sustatuko duten legediak martxan jarri eta sare azpiegiturak garatzen laguntzen duten ekimen horizontalen sustapena landu daitezke. Herrialde Katalanetan, esaterako, Guifi.net sortu zen 2004an. Europatik txalotu egin den ekimena izan da eta Euskal Herrian ere hedapena izaten ari da.

EAEn, gaur gaurkoz, Interneterako sarbidea ez dago herritar ororen esku

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

EAEn, Jaurlaritzan, IKT eta Jakintzaren Jendartearen politikak definitu eta koordinatuko dituen sail bat sortzea: Informatika, Telekomunikazio eta Jakintzaren Jendartearen Politiken Saila

IKTek mundua eraldatu dute, aldaketa ekonomiko, sozial eta kultural handiak eta sakonak ekarriz. Zentzu horretan, aldaketa horiek guztiak aztertu, horien gaineko politikak definitu, informazio- eta telekomunikazio-sistemen kudeaketaz arduratu, burujabetza teknologikoarekin lotutako politika sozialak definitu eta bultzatu, jakintza irekiari eta hauen erabilerari lotutako politikak definitu, 'bizi osoan zeharreko ikaskuntza' garatzeko politikak definitu, parte-hartze elektronikoa landu eta zehar-lerro gisa gainontzeko sailekin koordinatzeko funtzioa izango duen sail bat ezinbestekoa da: Informatika, Telekomunikazio eta Jakintzaren Jendartearen Politiken Saila. Honek hau guztia ahalbidetuko luke:

4. IKT eta Jakintzaren Jendartearen politikak lehen mailan kokatzea.

5. IKT eta Jakintzaren Jendartearen politikak, zehar-lerroak direnez, arlo edota sail ezberdinen arteko koordinazioa bermatzea.

6. Zaintza teknologikoaren bidez, sailaren beraren eta administrazio publikoaren prozesuak etengabe berritzeko eta hobetzeko aukera izatea.

EAEn, Jaurlaritzak, administrazio publikoaren burujabetza teknologikoa eta herritarren aukera-askatasuna bermatu behar ditu.

Software librea da burujabetza teknologikoa eta herritarren aukera-askatasuna berma dezakeen eredu bakarra. Software librearen mugimenduak, auzi teknikoetatik harago, marko politiko eta moral oso bat definitzen du, zeina software librearen oinarrizko 4 askatasu-

nen bitartez egikaritzen den:

· Programa bat exekutatzeko askatasuna, helburua edozein dela ere.

· Programaren iturburu-kodea aztertu eta norberaren beharretara egokitzeko askatasuna.

· Programa kopiatu eta kopiak banatzeko askatasuna.

· Programa hobetzeko eta hobetutako bertsioa zabaltzeko askatasuna (4 askatasunak bermatuz).

Askatasun horietatik abiatuta, administrazio publikoaren burujabetza teknologikoa bermatzeko, Jaurlaritzak, software librearen aldeko apustua egin beharko luke. Zerbitzari gehienetan ez du software jabeduna erabiliko, baina langileen ekipoetan software jabeduna erabiltzen da (MS Windows) eta hor dago benetako apustua eta erabaki politikoa. Honek hau guztia ahalbidetuko luke:

4. Finantzak. Software erabilpen lizentziatan, urtean, 1.000.000€ aurreztea (gehiago izan daiteke).

5. Segurtasuna, egonkortasuna eta kontrola. Administrazio publikoan erabiltzen den softwarearen iturburu-kodea ikusi eta aztertu ahal izatea. Exekutatzen den guztia kontrolatzea. Softwarea bera hobetzea. Formatu estandarrak erabiltzearen ondorioz, informazioaren iraunkortasuna bermatzea.

6. Ekonomia lokala. Administrazio publikoak menpekotasun teknologikorik izango ez lukeenez, software librearekin lan egiten duten enpresa lokalak sustatuko lirateke (lehiaketa publikoetan, diru-laguntzetan eta abar).

7. Euskara. Administrazio publikoan erabiltzen den softwarea euskaraz egongo dela bermatzea, enpresa pribatu bati horretarako espresuki ordaindu gabe.

8. Herritarren aukera-askatasuna. Formatu eta protokolo estandarrak erabiltzen dituzten programak erabiltzean, sistemen arteko bateragarritasuna lagundu eta herritarren aukera-askatasuna bermatuko da. Hau da, herritar batek, administrazio publikoaren aldetik, ez luke formatu itxi eta jabedunetan ezer jaso beharko. Herritar orori libreak edota doakoak diren programak erabiltzeko aukera bermatu behar zaio.

9. Alfabetizazioa eta trebakuntza teknologikoa. Administrazio publikoko langileak eta sistemen arduradunak software librea erabili eta garatzeko trebatuko dira, euren alfabetizazio teknologikoan sakonduz. Jendartean ere software librearen erabilera sustatuko eta trebakuntza eskaini beharko litzateke.

EAEn, Jaurlaritzak, Interneterako sarbidea oinarrizko eskubide gisa aitortu eta sarbide hori bermatzeko bideak sortu behar ditu.

Lehen urrats gisa, Interneterako sarbidea eta sarearen neutraltasuna oinarrizko eskubide gisa aitortzea litzateke, Interneterako sarbidea herritar orori bermatzera bidean. Horretarako, sarbide unibertsala definitu, sareen arteko konexioa eta azpiegitura komunen erabilera sustatuko duten legediak martxan jarri eta sare azpiegiturak garatzen laguntzen duten ekimen horizontalen sustapena landu daitezke.

Ekimen horizontalen arloan, eredugarria da Herrialde Katalanetako Guifi.net ekimena. Euskal Herrian (EAEtik hasita) Guifi.net-en gisako sare ireki eta libre bat sor daiteke. Zertan datza, ordea? Telekomunikazio sare bat litzateke, non herritarrek, elkarteek, enpresek eta erakunde publikoek parte hartzen duten. Euren helburua, azpiegitura partekatu bat sortu eta sustatzea da, honen bitartez Interneterako kalitatezko eta doako (edo kostu baxuko) sarbidea bermatuz. Guifi.net-ek auzo-sare (edo komunen sare) ireki, libre eta neutral gisa definitzen du bere burua: irekia, denek sarea nolakoa den jakin eta konektatzeko aukera dutelako; librea, nahi duen orok parte har dezakeelako, bazterketarik gabe; eta neutrala, edukiei eta teknologiari dagokionean. Horiek behar lukete gure telekomunikazio sare propioaren ezaugarriak.

Funtzionamenduari dagokionean, Guifi.net baliabideen partekatzera begira dagoen sare bat da. 'Proxy' batekin (Interneterako ate bat), eta Guifi.net-en bitartez, Interneterako sarbidea eskuratzen da. Horretarako, hainbat pertsona/erakunde ados jartzea nahikoa da, eta Interneterako ate bat partekatzen dute. Ate horretatik Internetera sartzea doakoa den edo ez, kostua partekatuko den, erabilera-baldintzak zein izango diren edota profesionalen zerbitzua kontratatuko duten, konexioa partekatzeko ados jarri direnen artean erabakitzen dute, Guifi.net-ek parte hartu gabe. Guifi.net-ek, hortaz, sareak partekatzeko azpiegitura eskaintzen du. Hau da, Guifi.net ez da Internet hornitzaile bat, sarean parte hartzen dutenen arteko sare ireki eta libre bat baizik. Sare horren gainean zerbitzuak daude martxan eta hauek norbanakoak, erakundeak eta enpresak ere izan daitezke.

Guifi.net-ek fundazio bat du atzean, telekomunikazio operadore gisa Estatu espainiarreko erregistroan inskribatua dagoena. Ondasun komunen kudeaketa eta ekonomia kolabora-

tzailean oinarritutako eredu ekonomiko bat aplikatu eta garatzen du. Europa mailan ere hainbat sari jaso ditu, azkena 'European Broadband Award" banda zabalerako ekimen onenari dagokionetako bat.

Aipatutako neurrien inplantazioak eta era honetako ekimenek, hau guztia ahalbidetuko lukete:

· Herritar orok prezio baxuan edo doan, Interneterako sarbidea izatea.

· Abiadura eta kalitate altuko azpiegiturak herritarren esku jartzeko aukera.

· Konexioa partekatzea erabakitzen duten herritarrek, bizilagunek, familiek, enpresek, erakundeek edota edonork, konexioa partekatu ahal izatea (kostua ere bai, hala erabakiko balute).

· Landa-eremuetan Interneterako sarbidea bermatzeko erraztasunak izatea (landa eremuko agenteek horrela nahiko balute).

· Udalek herritarren Interneterako sarbidea bermatzeko erraztasunak (udalen artean ere parteka dezakete).

· Funtsean, telekomunikazioen sektorea irauliko luke.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

EAEn, Jaurlaritzan, IKT eta Jakintzaren Jendartearen politikak definitu eta koordinatuko dituen sail bat sortzea: Informatika, Telekomunikazio eta Jakintzaren Jendartearen Politiken Saila

Informatika, Telekomunikazio eta Jakintzaren Jendartearen Politiken Sailaren egitekoa EAEko garapen ekonomiko, sozial, kultural eta politikoan lagunduko duten politikak diseinatu eta garatzea litzateke. Egungo Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak dituen funtzioez gain, honakoak lirateke sail honek beteko lituzkeen beste funtzio batzuk:

5. Jaurlaritzaren burujabetza teknologikoa etengabe garatzea.

6. Jaurlaritzaren gardentasun teknologikoa bermatzea.

7. Jaurlaritzan formatu estandar eta protokolo irekien politika etengabe garatzea.

8. Arlo ezberdinetako IKT politikak koordinatzea (hezkuntza, enplegua eta ekonomia, euskara, kultura, Internet eta abar)

9. Herritar, enpresa eta erakundeetan IKTen erabilera arduratsu eta eraginkorra sustatzea.

10. EAEn IKTen sektorearen sustapenean eta garapenean iharduten duten norbanako, elkarte eta enpresak sustatu eta indartzea eta elkarlanerako bideak eskaintzea.

11. IKT alorreko ikerkuntza, berrikuntza sustatzea (hezkuntza arloan aipatzen den diziplina anitzeko ikerketa institutua kasu).

12. Jakintzaren Jendartea sustatzea (hezkuntza: Online unibertsitate berria sortzea; ekonomia: Industria 4.0; IKT: Interneterako sarbidea herritar ororentzat; eta abar)

13. EAEko herritarrei Interneterako sarbidea oinarrizko eskubide unibertsal gisa bermatzea eta horretarako bideak sortzea

EAEn, Jaurlaritzak, administrazio publikoaren burujabetza teknologikoa eta herritarren aukera-askatasuna bermatu behar ditu.

Jaurlaritzaren burujabetza teknologikoaren bidean, software librearen aldeko apustua egin eta migrazioa gauzatu behar da. Migrazioaren helburua, administrazio publikoaren ekipo guztietan, zerbitzari eta bezeroetan, software librea exekutatzea da, GNU/Linux sistema eragilean oinarrituta. Horrek, barnebiltzen ditu: zerbitzariak, programak edo aplikazioak, datu baseak, ordenagailuen arteko sareak, eta lanpostuetako ekipoak. Aurretiko azterketak eta migrazioak, guztira, 2 urte iraun ditzake (edo gutxiago), eta arrakastarako gakoak, gutxienez, bi dira: arduradun politikoek honetan sinistea eta azken erabiltzaileak zaintzea, prozesu guztian inplikatuz.

Migrazioa gauzatzeko, honako urratsak jarraitzea gomendatzen da:

Egungo egoeraren azterketa:

1. Pertsonak. Teknikoen eta azken erabiltzaileen gaineko informazioa (gaitasun edo konpetentzia maila), eskaini beharko zaien trebakuntza diseinatzeko.

2. Hardware inbentarioa: erabiltzen den hardware guztiaren gaineko informazioa, bateragarritasunak aztertu ahal izateko.

3. Software inbentarioa: administrazioko ordenagailu eta zerbitzari bakoitzean instalatua dagoen softwarearen gaineko informazioa, administrazioaren funtzionamendurako ezinbestekoak direnak identifikatuz.

4. Laguntza teknikoaren gaineko inbentarioa: laguntza teknikoak eskaintzen dituen zerbitzu guztien gaineko informazioa, kritikoenak identifikatuz.

Pertsonen trebakuntza:

1. Teknikoak: migrazioaren aurretik, bitartean eta ondoren euren lana garatu ahal izateko beharrezkoa duten trebakuntza.

2. Azken erabiltzaileak: sistema eragile berria eta aplikazioak erabiltzeko beharrezkoa duten trebakuntza

Migrazio graduala:

1. Egungo sistema eragilearen gainean, software libreko aplikazioak ezartzea

2. 'ProbaGunea' sortzea: migrazio osoari begira egin behar diren azterketa guztiak egiteko

Migrazio osoa:

1. Azken erabiltzaileen lan ekipoetan, migrazio osoa burutzea.

2. Neurrira eginda dauden edo egokitu behar diren sistemak software librera migratzea (webguneak, esaterako).

Migrazioa bukatuta, garrantzitsua da hasierako epe batean azken erabiltzaileek laguntza teknikoa eskura izatea. Azken erabiltzaileak zaindu egin behar dira, prozesu guztian zehar.

Era berean, Informazio, Telekomunikazio eta Jakintzaren Jendartearen Politiken Sailaren baitan, Teknologia eta Jakintza Librearen Behatokia sortzea proposatzen da (ProbaGunea honen baitan legoke). Bere egitekoen artean, besteak beste, honakoak leudeke: zaintza teknologikoa, jendartean software librearen sustapena eta komunitatearen elkarlanerako guneak sortzea, hori guztia software librearen gainean lan egiten duten norbanako, elkarte eta enpresen parte-hartzea bermatuz eta elkarguneak sortuz.

Ildo beretik, Jaurlaritzarenak diren eraikin eta zerbitzuetan martxan dauden komunikazio eta kontrol sistema anitzek teknologia libreak erabili beharko lituzkete. Sistema hauen gaineko kontrola eta segurtasuna bermatzeko hainbat ezaugarri aztertu beharko lirateke:

· Komunikazio protokolo estandar eta libreen erabilera.

· Sistema libreak erabili eta garatzea.

· Software librea erabili eta sortzea.

· Datu publikoen atzipena modu ireki eta erabilgarrian eskaintzea.

Era berean, etorriko diren beharrei aurre egiteko, oraingo azpiegituretarako aipatutako ezaugarriez gain, azpiegitura propioak moldatu edota garatzeko aukerak aztertu beharko lirateke. Internet of things deitutakoak eta Industria 4.0 proposamenaren gainean eraiki-

tako azpiegiturek, Big Data bezala ezagutzen den datu emariarentzako prestatuta egon beharko lukete. Zentzu horretan, burujabetza teknologikoaren irizpideei jarraiki, eta denon pribatutasun eskubideak bermatuta, datuak jaso, aztertu eta baliatzeko aukera izango genuke.

> EAEn, Jaurlaritzak, Interneterako sarbidea oinarrizko eskubide gisa aitortu eta sarbide hori bermatzeko bideak sortu behar ditu.

Interneterako sarbidea eta sarearen neutraltasuna oinarrizko eskubide gisa aitortzeko, eskubide subjektibo bat sortu beharko da, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboarekin egin den gisan. Horretarako, sarbide unibertsala definitu, sareen arteko konexioa eta azpiegitura komunen erabilera sustatuko duten legediak martxan jarri eta sare azpiegiturak garatzen laguntzen duten ekimen horizontalen sustapena landu daitezke:

· Sarbide unibertsala definitu: Jaurlaritzak Interneterako sarbidea eskubide subjektibo bezala izendatuz, telekomunikazio agenteak sarbide unibertsala bermatzera bultzatuko lituzkeen legediak ere martxan jarriko lituzke. Sarbide unibertsal horretarako azpiegituraren ezaugarriak, legediak eta prezioak finkatu beharko lituzke, besteak beste.

· Sareen arteko konexioa eta azpiegitura komunen sustapenerako legediak: Lege berrien bidez, orain arteko telekomunikazioaren ekosisteman eragingo luketen legediak jarriko lirateke martxan. Adibide gisa, interesgarria da Bartzelonako udaletxean aztertzen ari diren telekomunikazio azpiegiturentzako ordenantza, non azpiegitura publikoen erabilera pribatiboez gain, auto-kontsumoa (erakundeak berak egindakoa) eta komuna (azpiegituraren erabilera komuna errespetatzen duten enpresa, eragile, erakunde, eta herritarrek egindakoa) arautzen den.

· Sare azpiegiturak garatzen laguntzen duten ekimen horizontalen sustapena: Sare herritar eta komunitarioak, behar bereziei erantzuten dioten sareak, emergentzia eta koordinazio sareak kasu, baina bereziki azpiegitura komunak sortzen dituzten ekimen horizontalen hedapena sustatuko duten neurriak, baliabideak eta ekimen zehatzak.

Arnaldo Otegirekin talde-lanean
Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Era berean, paraleloan, telekomunikazio sektorearen iraultzeko, uifi.eus proiektua martxan jarri daiteke, sare ireki eta libre bat sortzera bidean. Eman daitezkeen urratsak:

· Guifi.net-ekoekin harremana sortu eta garatu.

· Aurretiko azterketa bat egin, proiektua martxan jartzeko beharko liratekeen bitarteko minimoak zehazteko.

· Bilkura ireki bat antolatu, interesa duen orok proiektuan parte hartu ahal izan dezan.

· Proiektuaren garapenerako egitura malgua sortu.

· Egutegia zehaztu.

· Proiektuaren zabalpena bermatu.

· Uifi.eus Fundazioa sortu, elkarte, enpresa eta erakundeen arteko lankidetza errazteko.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Kultura

KOKAPEN OROKORRA

Kultura lehen lerrora ekarri behar da. Zergatik?

Ezagutzaren aroan kultura arlo estrategikoa da edozein herrialdetan, edo behintzat, teknologia eta berrikuntza mailan kokatzen den arloa izan ohi da. Hamaika menpekotasunen baitan bizi den Euskal Herria bezalako estaturik gabeko herri batean, kultura funtsezko ez ezik hil ala bizikoa da, identitate kolektibo zein indibidualari loturik, baina baita aro digitalean behar bezala txertatzeko edota historikoki euskara sarraskitzen ahalegindu den Estatu-nazioaren kultura hegemonikoak irents ez dezan ere.

Arlo honen garrantzia funtsezkoa da herri burujabeago eta ondorioz justuago, duinago eta askeago baten eraikuntzan. Aldiz, politikagintzak erabat bazter utzi du kultura, apaindura soil gisa erabiliz. Proiektu politiko baten baitan, ordea, guztiz estrategikoa izan daiteke eta beharko luke izan.

-Identitate kolektiboa: Kulturarik ez balego, herri guztiak bat eta bakarra ginateke. Toki ezberdinetan biziko ginateke, baina ez ginateke geure artean ezberdin izango. Kapitalismoaren zuztarrean dagoen homogeneizatze nahiak kultur aniztasunaren desagerpena dakar. Eta printzipio hau indartzen dugu geure kultura bazterrean uzten dugun bakoitzean, kulturari behar duen babesa ukatzen diogun bakoitzean eta sortzaileak axolagabeki tratatzen ditugun aldiro. Gaur egun euskara bizirik egotea eta geroz eta apalagoa izanagatik herri nortasuna mantentzea (baita nortasun horretan ardazturiko egitura politiko bat ere, Eusko Jaurlaritza eta sail guztiak hortik eratortzen dira eta) pertsona askoren ekarpenari zor diogu. Milaka izan dira kulturaren lehen lerroan ikastolak harriz-harri eraiki dituzten boluntarioak, euskara plazara eraman dutenak, euskarazko komunikazio baten alde egin dutenak... Joko-zelai horretan, orain arteko Jaurlaritza guztiak, harrigarriki aparte ibili dira, batzuetan ekimenak ozta lagunduz eta beste batzuetan trabatuz, beti errezeloz, beti berandu eta ia beti eskas.

Kultura ondasun bat da, baina ez zaio tratu hori eskaintzen. Kultura eskubide bat da, baina kapritxo bat dirudi. Ez dago kulturarik gabeko herririk. Kulturarik gabe ez dago herririk.

Kulturak hizkuntz normalizazioan izan lezakeen eragina handia da eta ez da behar beste baliatzen. Kulturak herri baten kohesioan eta autoestimuan izan dezakeen eragina, gehienetan, oharkabean pasatzen zaigu.

Mundu mailako esperientzia askok adierazten digute kulturari merezi duen balioa estrategikoa aitortzean, herri baten askotariko baldintzak hobetu litezkeela:

Adibideak:

-Quebeceko Iraultza lasaia: Ingelesen hegemoniaren eta elizaren boterearen kontrako borroka izan zen, eta Quebeci modu nabarmenean eragin zion, hura kulturaren aldera lerrokatu zuelako, eta bere nortasuna sendotu zuelako. Izan ere, lasaia izan zen, baina ez isila, besteak beste musikak gidatutako hegal kulturalak herriaren bozgorailu lanak egin baitzituen, inolako lotsarik gabe.

1992ko Quebeceko kultur politikatik hartua:

“Kultura oinarrizko ondasun bat da eta jendartean bizitzeko giza dimentsioa eta dimentsio ekonomikoa ezinbestekoak diren heinean dimentsio kulturala ere ezinbestekoa da:

Sorkuntza burujabea eta askea adierazpen askatasunaren funtsezko balore dira gizarte demokratiko batean.

Estatuak ahalik eta biztanle kopuru handienari erraztu behar dio kulturara sarbidea.

Estatuak, bere bazkideekin elkarlanean, jendarteko dimentsio kulturala babestu eta garatu behar du.

Hiru ardatz:

-Herri nortasunaren baieztapena.

-Sortzaileei eta arteei babesa.

-Herritarren parte-hartzea eta sarbidea erraztu bizitza kulturalean”.

-Handik hiru urtera, 1995ean, Braveheart filma ekoiztu zuten. Holliwoodeko estandarretan egin zen, baina abertzaletasun berri bat sortzen lagundu zuen, herriari herriak berak ikustea lortzen ez zuen estimulu bat eman ziolako. Handik etorri da, neurri batean behintzat, gerora burutu den erreferendumen arrakasta. Kultura izan zen, zinemaren bidez, itzali gabeko su txikia hauspotu zuena.

-Medellingo (Kolonbia) Liburutegi-parkeak: auzo bazterrekoenetan eraiki diren Kultur Etxe gisako hauek jendarteko geruza txiro eta zaurgarrienak babestea dute xede, hezkuntzaren, kulturaren, parekidetasunaren eta inklusioaren bidetik. Era berean, goi mailako teknologiaz hornituta dauden eta itxura estetikoa izugarri zaindua duten eraikinok, klase sozial zigortuenen ingurune fisiko eta kulturala hobetu eta nonbaiteko izatearen ideia indartzen dute.

-Identitate indibiduala: Izaki kolektiboak gara, eta kulturak ezartzen ditu elkarrenganako loturak. Kultura sendo baten sehaskan gaudenean, elkarrenganako elkartasuna, enpatia eta begirunea handitzen dira. Lehen ere aipatu dugun hitz bat ekarri behar dugu hona, autoestimuarena, pertsona ororen osasunarentzat eta ongizatearentzat ezinbestekoa dena, nahiz oso gutxi zaintzen eta elikatzen den. Horren ifrentzuan, norberaren nortasuna (kultur adierazpena, hizkuntza...) zaintzen ez duten herriak leudeke, azpiratuak daudenenak, eta, nahi gabe, autogorroto eta autolotsa mekanismoak martxan jartzen dituztenak. Bai kolonietan, eta bai Frankismo garaian ere hala izan zen: elkarren arteko ezinikusiak ikaragarriak ziren, eta, kasu batzuetan, belaunaldiz-belaunaldi igaro dira. Orain eta hemen, ostera, geroz eta gehiago, autogorroto 2.0 garaian gaudela esan genezake: kulturalki azpiraturik, nortasun sendorik gabe, iparrik gabe eta zeri eutsi jakin gabe. Honek, halaber, zerikusi handia dauka etorkinak geurean integratzeko izan dezakegun ahalmenarekin, integrazioa gerta dadin ezinbestekoa, are, hil ala bizikoa baita bertakoen kultur nortasun sendoa. Horregatik baita ere, eta norabide bikoitzean, immigranteen kulturarekiko begirunea eta adierazpen artistiko eta kulturalei bide ematea elkarbizitzarako eta inklusiorako gako izan daitezke, hala nola, immigranteei euskal kulturaren eta hizkuntzaren ateak zabaltzea ere. Kulturara sarbidea izatea herritar ororen eskubide da eta hala bermatu beharko litzateke.

-Alienazioaren (krisi sistemikoaren, globalizazioaren, diskurtso hegemonikoaren, kapitalismoaren...) kontrako txerto gisa: Kulturaren sustapenak hein handi batean jendarte kritikoagoa eta burujabeagoa ekarriko luke, burujabea bizitzaren arlo guztietan (elikadura ohituretatik hasi, softwarearen aukeraketatik pasa eta boto ematean buka). Kulturak demokratizatu egiten baitu. Kultura maite, ezagutu eta bizi duen herria justuagoa, borrokalariagoa, anitzagoa, arduratsuagoa, irudimentsuagoa, zorrotzagoa, inklusiboagoa, ameslariagoa, feministagoa, justuagoa, internazionalistagoa, irekiagoa, abegitsuagoa, duinagoa... izango da, beraz kultura aldaketa sozialerako giltzetariko bat da.

-Gatazka/Elkarbizitza: Kohesiorako, dialogorako edo elkarbizitzarako tresna izan daiteke kultura, eta hala enfokatu beharko litzateke, ez bakarrik, baina bai parte batean. Erabiliaren erabiliz hitzak higatu egiten dira. Hitzarekin lan egiten duen sortzaileak distira berria ekar diezaieke hitzei, mundua errelatatzeko eta mundua sortzeko, kulturak indar performatiboa baitauka. Hitzak eta mintzairak behar duten zabaldura ekar dezake kulturak. Kulturak balio beharko luke baita ere politikariek, kazetariek edo bestelako herritarrek esan ezin dezaketen hori esateko. Baina baliabideak behar dira horretarako, eta ez daude. Hitzak askatzeko garaia da.

Adibideak:

-Venezuelan “El sistema” sortu zuen ekonomilaria eta musikaria den Antonio Abreuk. 11 gazterekin hasi zen eta egun 200 orkestratik eta 330000 interpretetik gora eman ditu. Mundu osora zabaldu den sistema da. Venezuelan, parte hartzen duten haur eta gazteen %90 pobreak dira (onak suertatuz gero, diru-laguntza bat jasotzen dute lan egin behar izanagatik klaserik ez galtzeko). Bertan aldaketa sozialerako estrategia gisa aurkezten da: “haur batek pobre izateari uzten dio musika-tresna bat jotzen ikasten duen momentuan. Aurrera egiten ari den pertsona izaten hasten da, eta gerora hiritar izatera pasako da”.

-Ixcan: Guatemalan, Mexikora alde egin behar izan zuen jende askok, batez ere emakumeek, barne gatazka armatuaren ondorioz. Han, ikasteko aukera izan zuten. Haien herrialdera itzuli zirenean, askok ikasten jarraitzeko gogoa agertu zuten, baina Ixcanetik irten gabe. Handik tarte batera, azpiegiturak hobetzeko laguntza moduko bat heldu zen herrira. Agintariek pentsatu zuten emakumeek harraska bat, bide bat edo putzu bat eskatuko zutela, baina ez, liburutegi bat eskatu zuten. Oihan-oihanean inauguratu zuten 2012an, “udalerriaren garapen sozial, akademiko eta zientifikoaren alde” lan egiteko helburuarekin. Ongizaterako tresna bat da kultura.

Adibidea:

Ipar Irlandan, gatazka ostean garrantzia handia eman zaio Youth Music programari, elkarbizitza bide onetik aurrera eramaten lagundu duela diote.

HERRIAREN EGOERA

Alderdi baikorren artean aipatu beharrekoak dira:

-Sinergiarako eta elkarlanerako gogo eta ohitura

-Kultura propio eta bereizgarria

-Kultur eskaintza esanguratsua

-Ondare singularra

-Heziketa maila altuko jendartea

-Kultura kontsumo koxkor bat biztanleko

-Jendarte ohitura indartsuak

-Amateurtasun bizia

Adibidea:

Kultur politika sendorik ezean, hamaika dira Euskal Herrian, kultura normalizatzen ez ezik egurasten lagundu duten eredu askotariko herri ekimen kultural eta espazio eragileak. Kohesioa, identitatea, eztabaida, transmisioa, elikadura, komunitatea, kritikotasuna, sormena, ekoizpena... akuilu, gisa batera edo bestera, kultura bizirik mantentzen eta partekatzen laguntzen dute, tokian-tokiko ikuspegiarekin zein ikuspegi nazionalarekin.

Alderdi ezkorren artean:

-Heziketa-eskaintza kultural eta artistiko baxua

-Sormen eta ekoizpenerako pizgarri gutxi

-Euskarari dagokionez, ezagutza eta erabileraren arteko alde handia dago (horrek dakarren guztiarekin euskarazko kultur ekoizpenaren kontsumoari dagokionez, besteak beste)

-Kultura hegemonikoek irentsita dago

-Administrazioak ez du kulturaren aldeko apusturik egiten (horren adierazle ikusgarriena aurrekontu orokorretik Kulturara bideratzen diren papurrak)

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Gaur egungo kultur politikaren protagonista jendarte anitz eta orotariko agentez osaturikoak (kultur kolektiboaren subjektu) behar du izan. Kultura partekatu bat behar dugu, sorkuntza prestigiatuko duen politika bat, lanpostuak sortuko dituena eta daudenak mantentzen lagunduko duena, ekoizpen kultur propioaren bitartez sortze eta ekoizpen prozesuetan bizitasuna txertatuko duena. Komunitatearen eraikuntzaren prozesu gisa ulertua, barne aniztasuna errespetatuko duen kultura, euskal kultura eta euskara indartzeko eta biziberritzeko giltza izango dena, elkartrukera zabalik egongo dena, geruza, adin, genero... guztiek sarbidea izango dutena.

Kultur kudeaketaren gobernantza demokratikoa eta ekimen autogestionatuen garapena bateragarri izango dituen kultur politika bat, finean.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Jarraian, literatura, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, bertsolaritza, dantza, musika, antzerkia eta bestelako kultur adierazpideak babestu eta sendotzeko proposatzen diren neurriak:

a. Kultura ez da fenomeno isolatu bat, arlo eta azpi-arlo ugarik zeharkatzen eta gurutzatzen dituen eta transbertsalki landu beharreko (hizkuntza, hezkuntza, memoria, ekonomia, fiskalitatea, parte-hartzea, komunikazioa, harremanak, lurraldetasuna, enplegua, feminismoa, hirigintza...) arloa baizik. Eusko Jaurlaritzaren organigramak ordea ez du horrelakorik jasotzen, ezta orain arteko jarduera politikoak ere: Kultura saila sistematikoki izan da baztertua. Hau saihesteko, batetik, Hezkuntzatik aparteko Kultur saila ezartzeko aukera aztertu beharko litzateke atzera; bestetik, sail guztiak ez bada gehienak zeharkatuko lituzkeen organoaren sorrera proposatzen da, sailean saileko jakintza, aurrekontua eta bestelako eskuduntzak erabakigarriak lirateke-eta kultura biziberritzeko apustuan. Sailen arteko organo hau (X biztanletik gorako) udal eta aldundietan ere ezarri beharko litzateke. Zeharkakotasun honek, halaber, kultura interes partikularretatik aparte eta gobernu aldaketek ekar dezaketen erabilera politikotik babestuta manten lezake hein handi batean. Honetaz gain, Kultura eta Ondare digitalerako azpi-sailaren sorrera beharrezkoa litzateke.

b. Hezkuntza:

-Haur hezkuntzatik Batxilergora bitarte euskal kulturaren irakaspen curriculurra. Hezkuntzan euskal munduko erreferenteak sustatu behar dira, curriculum propioarekin eta zirrikitu oro baliatuz (Euskal Herriaren txikitasunak artista ugarirekin bertatik bertarako saioak egitea ahalbidetzen du, adb.). Hartara, belaunaldien arteko trans-

misioaz gain, kulturaren kontsumoan trebatutako jendartea bultzatuko litzateke. Zertarako?

-Herritarren eta sortzaileen arteko sinergiak baliatu, hezkuntza integralago bat eta enpleguaren sustapena helburu

-Kohesio soziala eta identitatea indartu

-Industria sendotu

-Etorkizuneko kultur erabiltzaileak trebatu

-Kulturak hizkuntz normalizazioan izan lezakeen eragina handia da eta ez da behar beste baliatzen. (Adb.: egungo batez besteko gazte zein adin-ertaineko euskalduna ez da euskarazko nobela irakurterraz bat dezifratzeko gai, zer esanik euskarara itzulitako lan bat; esan gabe doa, arazo hau ez dagokiola literaturari soilik)

-Orotariko kultur eta adierazpen artistikoen sorkuntza sustatu hezkuntzako zehar-lerro gisa

-Eleaniztasunaren eta kulturaniztasunaren bidetik, kultura sustatu eskolako gainontzeko bi hizkuntza curricularretan gutxienez

-Eskola-kirola sustatzen den bezala, eskola-kultura sustatu, sinergiak bilatuz tokian -tokiko ikastetxe eta ezein kultur adierazpen lantzen duen talde, elkarte zein eskolekin (izan bertso-eskola, txaranga, musika-tailer, irakurle klub, rock talde edo esku -lan tailer).

c. Enplegua: Sortzaileen bizi baldintza prekarioek zuzenean eragiten diote kultur sorkuntzari eta honen kalitateari eta artistaren bizimodua duintzeko bidean hainbat neurri proposatzen dira:

-Euskal sortzaileen egoera aztertzeko mahai bat osatzea sektoreko eragile guztiekin, artisten egoera sakon aztertu eta ekimenak adosteko. Euskal sorkuntzak duen berezitasuna kontuan hartuz Artistaren Estatutua sortu, prestazio bereziak aurreikusiz alor honek maiz berezkoak dituen aldizkakotasun egoerei aurre egiteko, besteak beste.

-Proiektu artistiko batek eskatzen duen lana enplegu ikerketa berritzailea kontsideratzea eta diruz laguntzea.

-Gazteen enplegua sustatzea kultur arloan.

-Ekimen artistikoari dagokionez:

-Kultur enpresa txikien marko juridikoa ad hoc lantzea.

-Ekimen artistiko berriak bultzatzea, mikrokredituen bitartez eta materiala eta ekipamendurako laguntzak emanez.

-Artisten laguntzarako zerbitzuak sustatzea.

d. Aurrekontua eta fiskalitatea: 2014ko EAEko Eusko Jaurlaritzako aurrekontu orokor osotik %0,5 bideratu zen kulturara; 2015eko aurrekontuaren %0,52; 2016ko aurrekontuaren %0,49. Zenbaki hauek ez dute malabarismotarako tarterik uzten eta beraz, handitu egin behar da bai ala bai aurrekontu orokorretik kulturara bideratzen den partida. Lehen neurri gisa proposaturiko zeharkako kultur organoarekin batera (zeinari esker sail ezberdinetako aurrekontuetan kulturara bideraturiko partida gordeko litzatekeen), komunikazio elektronikoa zerbitzatzen duten operatzaileei zerga bat ezartzea proposatzen da, Katalunian aurrera eraman den lege proposamenaren uberan. Kontratu bakoitzetik 0,30 zentimo kultur industriara bideratuko lirateke, ikus-entzunezko sektorera, musika sektorera eta literatur eta testu ekoizpenaren sektorera, hurrenez hurren eta beheranzko proportzioan. Hartara, aurrekontu orokorraren ezegonkortasun eta eskasiatik babestuko litzateke kultur arloaren alor handi bat.

-BEZ kulturala %4koa izan dadila eskatu.

e. Gizarte politika: Kultura ez arautua eta amateurtasuna (maitasuna) sustatu. Musika, dantza eta antzerki antieskolak eta sormen laborategiak bultzatu eskualde orotan haur, gazte zein helduentzat. Horretarako bidea eman (hutsik dauden etxebizitza eta lokalak horretarako baliatu, irakasleak bermatu...).

f. Hirigintza-plangintza arloan kultur behar/baliabideak aintzat hartu, beti ere, gentrifikazio arriskua begien bistatik galdu gabe. Kulturaren Euskal Behatokiak, autogestionaturiko esperientziak behatzea eta aztertzea interesgarria litzateke, berregokitutako fabrikak, gaztetxeak... etb. Euskal Herrian funtzio sozial, kultural eta politiko handia betetzen dute, eta haien funtzionamendua aztertzeaz gain, egin dituzten eta egiten dituzten ekarpenak aintzat hartu beharko lirateke, munduan zeharreko ereduekin erkatuz, adibidez, eta haiek laguntzeko politikak sustatuz, beti ere trukean berezi eta aberats egiten dituen autonomian murrizketarik ezarri gabe.

g. Berrikuntza eta I+G+B: Onartezina da aro posfordistan txertatu asmoz teknologia, industria eta berrikuntzari begira I+G+Bren alde egin den apustu historikoaren beste garroa, kualitatiboa, ez izatea kulturari loturikoa (kultur transmisioari begirakoa, baina baita kultur berrikuntza eta partekatzeari begirakoa ere).

h. Ondarea, liburutegiak, artxibategiak eta museoak:

-Ondare kulturalaren legea eguneratu eta ondare kultural immaterial biziaren zein kultura herrikoiaren inbentarioa osatu. Honi lotuta, lehenik frankismoak (1936tik aurrera) eta ostean Alderdi Popularraren gobernuak (1998-2015 artean) emandako baliabideei esker Eliza katolikoak immatrikulatu eta bereganatu duen herri ondarea (elizak, baselizak, hilerriak, apezetxeak, lurrak...eta abar) herriari itzuli, mende luzeetan ondare publiko izan baitira.

-Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin elkarlanean, argitalpen bibliografiko, musikal eta audiobisualen bibliografia sortu, hala nola, euskal nolakotasun kulturalari aipamen egiten dieten baliabide digitalena.

-eLiburutegia garatzen jarraitu.

-Artxibategiak euskal ondare dokumentaltzat hartu eta Dokumentu Publiko eta Artxibategiaren Legearen arabera arautu (digitalak barne).

i. Banaketa/zabalkundea/ ikusgarritasunari begirako bide berriak aztertu: Euskal sorkuntzak duen arazoetako bat Euskal Herrian ezezaguna izatea da. Hori konponbidean jartzeko sorkuntza lanen promozioa eta zabalkundea indartu beharra dago, adibidez komunikabide publikoei kuotak ezarriz bertako kultur adierazpideei eskainitako denbora gehitu dezaten.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Euskara

KOKAPEN OROKORRA

Herri guztiek, gutasun guztiek, badute kolektibitate jakin hori zedarritzen duten argamasa bat, oinarrizko ehundura bat; gu-a indartzeko, eta, finean, besteetatik bereizteko funtsezko elementu edo elementu multzo bat . Kosmopolitismoaren diskurtso iruzurtia hain txertatuta dugun honetan nekeza egiten zaigu sarri gu eta besteak bereizketa hori geure egitea, uniformitate hegemonikotik aldentzen den edozeri segituan esango baitzaio itxi, baztertzaile edo xenofobo, baina kosmopolitismo nagusi horren harri fundazionala gu eta besteak banaketan dago; are, azken garaiok erakusten ari zaizkigunez, hortxe inon baino indartsuago . Kontua, beraz, ez da gutasunaren eraikuntzari –eta, ondorioz, besteetatik bereizteari ihes egitea-, baizik eta hori ahalik eta modu ireki, inklusibo eta porotsuenean egitea, gu beste ere bagarela sentituz eta besteak gu.

Joseba Sarrionandiak gutasunak eraikitzen dituen argamasa hori esplikatu nahian ari delarik, Abderraman Ibn Khaldun XIV. mendeko pentsalari islamiarra dakar Moroak gara beheraino artean? saiakerara. Zehatzago, Ibn Khaldunek Magrebeko tribu autarkikoak erakundetze trinkoagoetara, estatalizatzera, bultzatu zituen prozesua azaltzeko baliatutako asabiya kontzeptua, zeina denboran zehar itzulia izan den borroka gogo, ahaidego, nazio kontzientzia, edo “organismo politiko eta sozialen protoplasma psikiko” gisa. Alegia, herri guztie k, gutasun guztiek, badute beren asabiya, eta Ibn Khaldunen iduriko, erlijioa izan zen Magrebeko tribuen abiaburuko argamasa, herri izate eta estatalizatze prozesuen protoplasma.

Guk, XXI. mende honetara euskal herritar izateko gurari eta borondatez iritsi garen jendeok, badugu honaino sen horrekin iritsarazi gaituen asabiya-ren arrastoaa: euskara da, eta euskararen izate eta bilakatzearen inguruan txirikordatu dugun bizi eta kultur ondare askotariko eta kontraesankor guztia.

Bersortzeko garaiak dira. Berritu dezagun asabiya, baina ez dezagun uka. Ken diezaiogun euskarari esentziaren lasta, eta uler dezagun euskarak ematen digula txiki, bestelako eta askotarikoaren ikuspegia, geure bagara ez ezik mundua dibertsoago, justuago eta demokratikoago egiteko begirada. Gutasun ireki, inklusibo eta porotsurako bidea, gu beste eta besteak gu garela ahalbidetzekoa.

HERRIAREN EGOERA

Alde batetik, ukatu ezinezkoa da euskararen jendarteko zabalkunde eta txertatzeak aurrera egin duela Euskal Herriaren zati batean azken mende erdian, eta, horrenbestez, euskal hiztunen herritar eskubideetan ere hobera egin dela. Herri ekimena izan da hobetze horren kimu eta akuilu, eta hazi hori administrazioak bere egin duen eremuetan lortu dira, zalantzarik gabe, emaitzarik onenak; Eusko Jaurlaritzaren inkesta soziolinguistikoei erreparatzea besterik ez dago ikusteko euskararen errekonozimendu juridikoa eta sustapen politikak aplikatu diren eremuetan lortu direla alde handiz emaitza onenak, batez ere, ezagutzan, baina baita ere erabileran zein jarreretan. Beraz, argi dago euskararen ofizialtasuna eta haren aldeko neurri politikoak ezinbesteko direla etorkizuna bermatuko bada.

Baina, era berean, administrazioa engaiatu eta eraginkorren izen den Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eremuan ere argi ikusi da euskararena bezalako egoeran den hizkuntza batek aurreikusitakoak baino traba gehiago dituela ezagutzatik erabilerara –edo beste era batera formulatuta, egiazko gorpuzte sozialera- iristeko. Are eta zailagoak, edozein arlotan gorpuzte sozial horren zumitz diren estatu egiturarik gabe –horrek esan nahi duen tresneria politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalik gabe, hain zuzen-. Gainera, egoera zaildu egin da azken urteetan globalizazio prozesuen ondorioz: batetik, euskal herritarrok gero eta harreman gehiago eta jarraikorragoa dugulako kanpo geografia zein demografa fisiko zein birtualekin –teknologia berriek harremanetara, bizipenetara eta, beraz, komunikazio eta hizkuntza esperientzietara ekarritako aldaketak ezin ahaztu-. Porositate horrek, aniztasuna baino diglosi bikoiztea ekarri ote digun: gaztelera eta frantsesarenari ingelesarena erantsi, hain justu. Bestetik, gero eta gehiago dira euskal herritar berriak, esku hutsik bizimoduaren bila datozenez bestelako pizgarririk ezean hizkuntza hegemonikoa hartzeko joera izango dutenak.

Ezagutzatik erabilerarako galga hori ulertzeko, ezagutzaren nolakotasuna da kontuan izan beharreko beste puntu bat. Hau da, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza sistemaren bidez ezagutza asko zabaldu dela uka ezina bada ere, herritar askok iristen duten ezagutza maila erabilera integralera aurrera eramateko edo gorpuzte soziala gauzatzeko adinakoa den zalantzagarri da; hau da, bizimoduko arlo guztiak –xumeenetatik jasoenetara, euskaraz eroso gauzatzeko adinakoa-. Horri, jakina, bizimoduko arlo guztietan –xumeenetatik jasoenetara- herritarrei beren burua euskaraz mamitzeko eskaintzen zaien tresneriaren murritza erantsi behar zaio –kultur/hedabide/entretenimendu/astialdi eskaintza zein erreferentzialitateetan, zerbitzuetan, lan arlokoetan…-.

Azken batean, bi estatu handien hegemonia linguistikoen mendean bizi da Euskal Herria. Frantsesez edota gaztelaniaz derrigorrez hitz egin behar dugu bizi ahal izateko, gainerako hizkuntza-komunitateek ezin dute hori bera egin. Ondorioz, euskarak menpeko estatus juridikoa du. Euskara ez da hizkuntza normalizatua izango bere lurralde guztietan hizkuntza ofiziala ez bada. Hori, bistan da, asimetria nabarmena da. Toleratu egiten da erdaldunen elebakartasuna eta galarazi euskaraz bizi ahal izatea. Natural hartzen da erdaldunak erdara hutsean bizitzea eta, berriz, euskaldunak euskara hutsean bizitzea galarazi egiten da.

Eta horrek guztiak aterki ideologiko bat du, herritarren gorputzetan zehar hamaika mezuren bidez ibilarazi eta txertatzen dena, ardatz nagusi baten gainean: euskararen sustapena, ahularen aldeko neurria, inposatzailea dela. Ideia hori indar berriz pizten ikusi dugu azken garaiotan eskuin espainiar zalearen zelai ohikoetan ez ezik, baita ustez euskaltzale den zentro eta ezker espainiar zalean ere. Diskurtsiboki aldrebesko mundua egin zaigu nagusi: azpiratua inposatzaile; edo, zehatzago, inposatzaile izatearen akusazioa azpiratzeko tresna. Eta, txarrena, amua jan, eta horrek berak galarazten digula gezurra agerian uzteko diskurtso bateratu eta indartsuak eratzea. Halaber, zailtasunak ditugu euskararen gorpuzte sozialerako eta euskal hiztunen eskubideak bermatzeko beharrezkoa den aterki ideologia gaur egungo mundura egokitzeko, berritutako eta egokitutako diskurtsoen bidez.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Euskal Herriak euskara eta hartan txirikordatutako bizi eta kultur ondarea du du herri irauteko argamasa edo asabiya-ren parte funtsezkoa. Eta gure egungo mundu honetan euskarak iraungo badu egiazko gorpuzte soziala iritsi behar du, eta hartarako estatu egiturak behar ditu. Estatalizazioa prozesu bat dela aintzat harturik, egungo erronka da egiazko estatu burujabea iritsi bitartean gaurko instituzioetatik estatu ikuspegiko hizkuntza politika eramatea aurrera; hau da, horrek bere baitan biltzen duen tresneria eta ikuspegi holistikoarekin -politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalarekin- eta hartarako baliabideekin. Jakina, Funtsean, euskaraz oso-osoen bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortu behar ditugu: euskararen erabilera handitzeko, euskara beharrezko bihurtzeko eta euskararen normalizazioa bideratzeko, euskara jakitea unibertsalizatzeko eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko.

Eragingarritasuna lortzearren, herritarren artean euskararen erabilera integrala erdiesteko adinako ezagutza maila bermatzea izango da hizkuntza politika horren erronketako bat: hezkuntza sistemak bizimoduko arlo guztietan euskaraz eroso aritu ez ezik sentitzeko ezagutza bermatzea, eta hezkuntza sistematik kanpo diren elebakarrei helduen euskalduntze eta alfabetatze eskaintza sare on eta edonorentzat eskuragarria ematea. Jakina, horren osagarri ezinbestekoa da bizimoduko arlo guztiak euskaraz eroso aurrera eramateko tresnak eskaintzeko egitura eraikitzea, estatuek egiten duten moduan - kultur/hedabide/entretenimendu/astialdi eskaintza zein erreferentzialitateetan, zerbitzuetan, lan arloan…-. Hori dena lantzen ez bada, nekez egokituko da gure hizkuntz panorama arestian aipaturiko testuinguru gero eta konplexuagora, zeinetan porositate geografiko eta demografikoa, fisikoki zein birtualki, gero eta handiagoa den.

Baina, ziurrenera, euskararen egiazko gorpuzte sozialera iristeko aterki ideologikoaren lanketa da erronka handienetako bat. Batetik, lehen aipaturiko inposizioaren diskurtso hegemoniko inposatzaile eta gezurtia desmuntatzeko. Bestetik, egungo sakoneko ideologietara egokitzen diren euskararen gaineko diskurtso berritzaile eta pizgarriak erdiesteko. Ildo horretan, diskurtsoa berritzeko, bi ildo dira bereziki interesgarriak, itxura batean kontraesankorrak eman dezaketenak, baina, sakonean osagaarri direnak: batetik, hizkuntza gatazka identitate auzi hutsetik ateratzen duen diskurtso eta praktika lerroa landu beharko litzateke. Hau da, euskaldun/ez-euskaldun parametroetatik jauzi egin, eta herritar/hiztun eskubideetara eraman; hots, demokrazia eta justizia sozialaren terminoetara. Feminismoak edota erabakitze eskubidearen gaineko diskurtsoak egin duen bezala, aldez aurre-

tik identitarioak liratekeen auziak herritar/ez-herritar, eskubide osoko/eskubiderik gabeko, demokrata/ez-demokrata parametro unibertsalizatuetara eramatea. Horren osagarri litzatekeen ildo diskurtsiboak, berriz, herri/kultur identitatearen aldarrikapenari –zeinari azken boladan eskuinekoa eta esentzialista izatearen lasta erantsi zaion- ezkerreko irakurketa positiboa berreskuratu beharko luke: pertsonen eta koletktiboen nor izatearen, burujabetzaren eta erabakimenaren esparruan kokatu, besteak beste, sexu/genero sistemako identitate auziekin egin den bezala. Ulertu beharko litzateke egungo kontsumo kapitalismo basatiaren lanabes eragingarrienetako bat dela askotariko salgaien itxurapean mundo-ikuskera eta kultura homogeneizazio handi bat bideratzea, finean, desira eta espektatiba berak ditugun pertsonak izan gaitezen Bergaran, Medina del Campon, Pauen, Manhattanen edo Singapuren.

Horrenbestez, Hizkuntza politikaren oinarriak Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak proposatutako gutxienekoak izango dira:

· Burujabea, kanpoko esku-hartzerik gabekoa.

· Euskarari estatus juridiko egokia eskaintzen diona.

· Euskara erdigunera eraman eta baliabide nahikoak dituena: euskararen normalizazioaren zentralitatea aldarrikatu eta praktikara eramango duena.

· Elkarlana, lidergo partekatua eta zeharkakoa: euskararen normalizazioa norbanako eta eragile guztien bultzadatik, auzolan estutik, eta erakunde zein administrazio ezberdinen koordinaziotik etorriko da.

· Hizkuntza politikaren xedeak EUSKARAREN HIZTUN ELKARTEA izan behar du, berau burutzerakoan udalerri euskaldunak, hiriburuak eta eskualde buruak hizkuntza politika gauzatzeko garrantzia berezia izango dute.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

1. Hizkuntza politika burujabea, estatu ikuspegikoa, kanpoko esku-hartzerik gabekoa; euskaraz bizitzea ahalbidetuko dituzten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak jorratu, lau ardatz hauen arabera:

a. Euskararen hiztun-komunitatea normalizatzeko adostasun soziala eta politikoa lortzea.

b. Euskara Normalizaziorako Plan Estrategikoa diseinatzea eta abian jartzea gainerako eragile politiko eta sozialekin elkarlanean

c. Euskararen normalizazioa azkartzeko beharreko legedi eta arkitektura juridikoa garatzea.

d. Hizkuntza politikari esleitutako aurrekontua, aurrekontu osoaren %2 ingurukoa izatea.

e. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko arduradun politiko eta eragile sozialekin elkarlana bultzatzea.

2. Euskarari estatus juridiko egokia eskaintzen diona; lan mundua, merkataritza eta berrikuntza-sistema euskalduntzea sustatuko dugu. Jarduera arautzailea garatuko dugu, enpresetan euskararen erabilera planak indarrean jartzeko

a. Administrazio publikoko kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztu eta aplikatu.

b. Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza bihur dadin.

c. Bikain ziurtagiria eta Bai Euskarari ziurtagiriak bateratu eta indartuko ditugu, besteak beste, administrazio publikoetako kontratazioetan.

d. Kontsumitzailearen eta Erabiltzailearen Estatutu eta hari lotutako dekretua berraztertuko ditugu, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

e. Alorrez alorreko agenteekin, hots, enpresa-elkarteekin, sindikatuekin, gremio-elkarteekin, merkataritza ganberekin eta bestelakoekin adostasunak bilatzea euskararen normalizazioaren bultzatzaile moduan joka dezaten

3. Euskararen normalizazioaren zentralitatea aldarrikatu ez eze praktikara eramaten duen politika. Herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza bihur dadin aurrera pausuak egitea administrazio osoan

a. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko administrazio publikoetako langileek euskaraz aritzeko gaitasuna eskatzea.

b. Administrazioak 16 urtetik beherakoentzako jardueretan eta harremanetan euskarazko erabilera lehenestea.

c. Estatuko administrazioak euskaldunon eskubideak errespeta ditzan ekimenak bideratzea.

d. Administrazioak masa-hedabideetan herritarrak informatzeko egiten dituen iragarki eta antzekoetan euskarazko komunikabideak lehenetsiko dira eta elebidunen artean % 30a baino gehiago euskaraz publikatzea.

4. Elkarlana, auzolana, lidergo partekatua eta zehar-lerrotasuna. Hizkuntza politikaren lehentasuna. Euskararen hiztun elkartea. Udalerri euskaldunak, hiriburuak eta eskualde buruak. Udalerri eta espazio sozial euskaldunak bultzatzea eta indartzea.

a. Euskararen arnasguneak (euskaldunen dentsitate indizea %70 edo handiago duten herriak) babestea, indartzea eta bideragarriak egitea.

b. Arnasguneak babesteko legeak eta araudiak.

c. UEMA babestu, indartu eta zabaldu.

d. Gune erdaldunetan euskaldunen ikusgarritasuna eta saretzea ahalbidetzen duten ekimen eta esperientziak sustatzea.

5. Hezkuntza-sistemak bermatu behar du derrigorrezko irakaskuntza amaitzean euskal herritarrek bi hizkuntza ofizialak nahikotasunez menderatzea. Hizkuntza murgiltze-eredu bakarra.

a. Lehen Hezkuntzan murgiltze-eredua ikastetxe guztietan.

b. Lanbide Heziketan, etengabeko eta enplegurako trebakuntzaren alorrean, urratsak euskarazko eskaintza bermatzea.

c. DBHn eta Batxilergoan euskarazko eskaintza nahikoa lortzea

d. Unibertsitate mailako titulazio-mapa, euskaraz ikas daitezkeenak.

e. Egun erdiesten den ezagutza mailaren gaineko gogoeta abian jartzea hezkuntza sistemako egitura eta atal diferenteetako eragileekin, egiazko argazki batetik abiatuta, zuzentzeko neurriak eta erabilera integrala erdiesteko adinako ezagutza bermatzeko bideak jartze aldera.

6. Euskal herritar berriak euskarara ekartzeko helduen euskalduntze-alfabetatze egitura sendoa

a. Eskaintza eskuragarria, bai hurbiltasun geografikoz, bai ordutegiz, bai ekonomikoki.

b. Pizgarria politika abian jarri.

7. Euskararen hiztun elkartearen hedabide zein kultur, entretenimendu, astialdi eskaintza, zedarritu, zabaldu eta sendotu.

a. Euskarazko komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko urte anitzeko hitzarmenak bultzatzea. Dirulaguntza politiketan haien ardatzezko funtzioa aintzat hartzea eta irismen kontzeptuaren irakurketa bidezko bat –alegia, irismenaren barruan kontenplatzen duena zein informazio mota nora iristen den-. Kontua izatea, baita ere, industria direla.

b. Euskal hedabideen behatokia sortzea. Herri-administrazioen eta sektorearen arteko lankidetza egonkorra sustatzea.

c. Jaurlaritzaren eskumeneko hedabide publikoak euskaren sustapen motor izatea, eta hatarako behar diren neurriak aztertu eta hartzea.

d. Kultur politiken erdigunean egotea euskararen sustapena, bereziki, egungo jendarte egitura eta ohituretan –batik bat, gazteei begira- hain garrantzitsuak diren ikus-entzunezkoena bezalako arloetan.

8. Arlo diferenteetako eragileekin euskararen gaineko kontsentsu, diskurtso eta praktika zabal, berri eta gaurkotuak lantzea

a. Euskararen sustapenean ardaztutako hizkuntza politika baterako oinarrizko hitzarmena egitea ahalik eta eragile politiko eta sozial sorta zabalenarekin: demokrazia eta justizia sozialaren parametroetara ekarrita eta gero eta piztuago dabilen inposizioaren diskurtsoaren gezurra agerian jartzea xede.

b. Soziolinguistikaz gogoeta egiteko eta proposamen berriak lantzeko eremuak sortu eta daudenak laguntzea, bai arlo akademikoan, bai enpresazkoan, bai herri ekimeneko euskalgintzan. Finean, hizkuntza sustapenaren arloko ezagutza bultzatu.

c. Jendarte eraldaketan engaiatutako beste sektore batzuetatik jaso daitezkeen ekarpenetara zabalik egon eta etengabeko elkarrizketan aritu: feminismoarekin, ekologismoarekin, eredu ekonomikoen proposamen berriekin… Asko dago ikasteko, asko dago trukean emateko.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Hedabideak

KOKAPEN OROKORRA

Euskal jendarte garaikidea asko, azkar eta sakon aldatzen ari da, baita Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak ere.

Atal honek komunikabideen ardatza abiapuntu harturik gertatzen ari diren aldaketoi erreparatuko die, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien garapen eta hedapen, komunikabideen bateratze digital eta kontsumo eta praktika kulturalen eraldaketen aurrean besteen parametroetan jokatzen dugu sarriegi, gureak ez diren eskemak errep(l)ikatuz.

Egungo eszenatoki aldakorrean euskal singularitatea aukera bat da, planteamendu, garaikide, eraikitzaile, gureago, bidezkoago eta baikorragoetatik izan gaitezkeen herria eraikitzeko. Helburua Hizkuntza, Kultura eta Gizarte mailan Euskal Herri garaikidearen aukerak identifikatu eta etorkizunari begira gure parametroetan jarriko dituen herri proiektua zirriborratzen hastea da.

Estatu egiturak eta komunikabideak

Euskal komunikazio eremuaren aukerak asko dira jendarte berdinzaleago, herri kultuago eta mundu bidezkoago baten alde egiteko. Areago, argudiatu daiteke ez dagoela Euskal Herria eraikitzerik euskal komunikazio eremua integralki eta bere osotasunean birpentsatu, landu eta garatu gabe. Euskal estatu egiturek hein horretan bermea baino aukera eskainiko digute mundializazio prozesuen korronte konplexu eta kontraesankorretan murgilduta ikusiko dugun XXI. mendean. Premiazkoa zaigu euskal estatuaren posibilitatea(k) Euskal Komunikazio Eremu propio baten klabean pentsatzea, eta alderantziz: Euskal Komunikazio Eremua euskal estatuaren eraikuntza prozesuan kokatzea.

Xede horri begira doaz ondoko lerrootako biderako oharrak.

HERRIAREN EGOERA

Komunikazioarena auzi zentrala da Euskal Herriarentzat. Ramon Zallori irakurri bezala, ez dago kulturarik gabeko komunikaziorik, ez eta komunikatua ez den artean bizi daitekeen kulturarik. Are gehiago, gehitu genezake, mediatikoki saturatutako jendarte garaikideetan. Bestela esanda, Euskal Herria Komunikazioa da, edo ez da, jendartea, kultura eta hizkuntzari dagokionez:

A) Euskal jendartea eta Komunikabideak

Gure praktika eta instituzio guztiak eraldatu dira komunikazioaren jendarte teknologiekin batera, ispilu joko batean bezala. Determinismo teknologikoari muzin egitea bezain garrantzitsua da komunikazio tresna berri eta ez hain berrien garapen, hedapen eta erabilerak euskal herritarren bizi munduan eta eguneroko praktiketan izan dituen eraginak (eta alderantziz) kontuan hartzea.

Ekitaldi politiko edo akademikoetatik (zeinak geroz eta gehiago komunikabideei begira antolatzen eta gorpuzten diren) familia edo koadrilako planetara (zeinak geroz eta mediatuago, malguago eta likidoago bihurtu diren) gure jendarte teknologiak (izateko moduak) zeharo aldatu dira Informazio eta Komunikazioaren Teknologia digitalen garapenarekin batera. Baina aldaketak, nolabait esatearren, aldi berean goitik beherakoak eta behetik gorakoak izaten ari dira . Ezin dugu esan lineako sare sozialen popularizazioak eragin zuzen eta zehatz bat izan duenik euskal jendartean, euskal jendarteak lineako sare sozialetan eragina izan duela kontuan hartu gabe, Euskal Telebista eta euskal jendartearen arteko harremanak ez dira soilik bateratze multimedia, digitalizazio eta fragmentazio prozesuak direla eta eraldatu, baina prozesu horiek ezinbestekoak dira eman diren eraldaketak ulertu ahal izateko.

John Culkinek esana da gure tresnak moldatzen ditugun heinean gure tresnek gu moldatzen gaituztela. ikuspegitik beraz, ezinbestekoa da gure komunikaziorako tresnekiko, gure komunikabideekiko ardura.

B) Euskal Kultura eta Komunikabideak

Sarri gure artean egin ohi dugun galderari buelta emanda, zera galdetuko nuke gaur: Zer ez da euskal kultura! Euskal hiztunok irakurtzen duguna ez al dugu euskal kulturara ekartzen? Bada inoiz baino euskaldun gehiago inoiz baino gaude planetan, inoiz baino hizkuntza gehiagotan ikus-entzun-irakurtzen. Euskal Herrian inoiz baino bektore kultural gehiago eta anitzagoak ditugu. Esan genezake beraz, inoiz baino potentzialtasun handiagoa duela euskal kulturak.

Honekin noski ez da esan nahi euskal kultura egoera eroso edo bidezkoan aurkitzen denik edo garaiaren irakurketa desproblematizaturik proposatu nahi. Kultura edozein herrirentzat eremu estrategikoa bada (gehiagotan entzutera ohitu garen Teknologia eta Berrikuntzaren parekoa gutxienez) are behar estrategiko larriagoa du estaturik gabeko nazio batek nortasun, kolektibotasun eta herritartasuna eraiki ahal izateko. Honekin zuzenean lotuta ageri zaizkigu sarbiderako eskubidea eta arretarekiko ardura.

Sarbiderako eskubidea kulturaren birbanaketaren ideiarekin lotuta dago. Kultura aberastasuna baita, jendarte batek metatua duen kapital artistiko, intelektual, linguistiko, zientifikoa. Zentzu horretan kultura propioaren sormen eta transmisioaren auzia zentrala eta ekidinezina da XXI. mendeko ezagutzaren gizarteetan. Ikerketa eta Garapen politika industrialak bezain garrantzitsua da euskal kulturaren adar ezberdinetarako sarbide esanguratsu, erabilgarri, eguneratu eta kalitatezkoak irekitzea herritar guztiei. Horretarako IKTetarako sarbide eskubidea landu eta zabaldu beharko ditugu komunikazio eta informaziorako sare ireki, aske, irisgarri eta merkeak eskaintzeko. Sarbide eskubideak gainera zerbitzuen merketzea eta unibertsalizazioaz gain datubase pertsonalen kontrol publikoa, ahanzturarako eskubidea eta sarearen neutraltasuna bezalako kontzeptuak berrikustera behartuko gaitu.

Kultura, baina, ez da ondarea soilik. Herri kulturak berau biziko duena behar du, kultura izango bada, eta horrekin lotuta arretarekiko ardura politikak garatu beharko ditugu. Kultur ekitaldien publikoen sorrera, saioen audientzien lanketa eta herri-ondarearen bisitarien lanketak ez dira lan-lerro bereiziak bateratzearen garaiotan. Publiko bezala lineako sare sozialetan parte hartzen dugun bezala argazki bat edo mezu bat bidaliz gurekin fisikoki ez daudenei egungo telebista eta zinema-narratibek gure gune fisikoen irakurketak eurek baldintzatzen dituzte (ikus bestela Game Of Thrones-en eragina Zumaian eta Bermeon edo Pokemon Go ehiztariak gure herri eta hirietako txokoetan). Arretaren politikek euskarazko eta tokiko sorkuntzarekiko ardura berezia izan beharko lukete Komunikabideek eta IKTek orohar jendartearen eremu guztietan duten eragin sarkorra kontuan izanda. Izan ere gure arreta, egun, mediatua da.

D) Euskara eta Komunikabideak

András Kornai ikerlariarena da Hizkuntzen Heriotza Digitala hipotesia. Haren arabera XX. mendean ikusi dugun munduko hizkuntzen desagertze erritmoa geldotu beharrean azeleratu egingo da interneten aroan, ekosistema digitalak eskaintzen dituen esparru eta aukera guztiak baliatzeko masa kritiko eta kapitala hizkuntza gutxi batzuek (%5ak, Kornairen arabera) soilik erdietsiko dutelako (orain arte ikusi gabeko potentzia bat eskuratuz), eta beste hizkuntza guztiak (maila ezberdinetan) diglosia egoera digitalera kondenatuak izango dira lehenengo, eta desagerpenera gero. Hau horrela izan nahiz ez, XXI. mendea euskararentzat mende interesgarria izango da, hortaz ez dago zalantzarik. Eta ziurrenez mende berrirako ez zaizkigu baliagarri izango aurrekorako izan zaizkigun gako batzuk.

Adibidez, arnasgune fisikoaren kontzeptua erabilgarria izan zaigu euskararen biziberritzea pentsatu eta indartzeko. Izan ere, ez da gauza bera hirigune erdaldun ean edo herri euskaldun ean bizitzea, kale erabilerari dagokionez: ez da gauza bera Otxarkoagan edo Lekeition haztea. Baina Gorka Salces ikerlariak arrazoia duela iruditzen zait arnasguneen kontzeptua problematizatzen duenean. Egun, zer esan nahi du hizkuntza erabiltzeak? Komunikabideen kontsumoari eskaintzen dizkiogun denbora aurrekontuak ikusita, ez al genioke garrantzia handiagoa eman behar hiztunei (eta hartzaileei) erabilera esparruak eskaintzen dizkieten espazio mediatikoei? Zentzu horretan, agian arnasguneetatik arnasuneetara igaro gara, eta gure espazio linguistikoak porotsuagoak, sarkorragoak eta zeharkatuagoak bihurtu dira: ingelesak, gaztelaniak, frantsesak eta beste erdarek zeharkatuak, bai; baina baita euskarak ere. Jokalekua ez dugu guk bakarrik eraiki, baina jokaleku hori berrasmatzeko aukera badugu, hizkuntzaren biziberritzerako aukera, denbora eta espazioak birrasmatzetik hasita.

Amaitzeko, plano sinboliko eta politiko batean agian bada garaia euskaldunok eleaniztasunaren bandera altxa dezagun, gurea baita. Euskal Herria eleanitza da, eta euskal herriko biztanlerik eleanitzenak euskal hiztunak dira, maila guztietan: etxeko eta eskoletako hizkuntzetatik hasi eta lan munduraino, ez dago erdara bat behintzat ez dakien euskaldunik egun. XX. mendean euskararen osasunaren historian badakigu horren arrazoiak eta eraginak zeinek izan diren, baina XXI. mendeko Euskal Herrian eta euskal komunikazioaren eremu garaikideari begira horrek oso errealak diren arrisku eta zailtasunez gainera abantaila objektibo eta subjektiboak ere eskaintzen dizkio hizkuntzari eta hiztunei. Egun euskal hiztun guztiak eleanitzak dira, eta euskal herritarren gehiengoak (geroz eta gehiago) badu euskararekiko gaitasuna (hartzaile mailan soilik bada ere). Eleaniztasunaren bandera hori gurea da, beraz, altxatzeko eta astintzeko eta komunikabideei dagozkien hizkuntza politika berriak saiatzeko (euskarazko edukiei erdaretara sarbidea ematea, erdaretako edukiei

euskarazko azpidatziak gehitzea...). Egun,gainera, hizkuntza gauza asko dira, modu askotara moldatzen eta eraldatzen doazenak. Sarean hizkera eta idazkera berriak, gramatika berriak sortzen eta ikasten ari gara: memegintza, stickerrak, “trinkotzaindia”-ren aditz trinkoak... Euskal hiztunen interlinguismo edo hizkuntzartekotasuna berezkoa da: existitzen zen eta gaur egun ere indar handiarekin bizirik dirau. Hori dela eta, agian, bada garaia masa komunikabideen aroa den honetan erabiltzen hasi gaitezen.

ETORKIZUNERAKO ERRONKA ETA NEURRIAK

Euskal irakur-ikus-entzulerien ezagutza eta neurketa propioak garatu.

Neurri eta neurketa propioak behar ditugu. Gure ezagutza eta gure ezagutza moduak, ez besteenak. Euskal komunikabideen epistemologia propio bat eraikitzeko, aurkitzeko, adosteko daukagu oraindik. Ez zaigu ez nahikoa ez eta egokia ere Espainia edo Frantziaren tamaina eta merkatu logiketarako pentsatutako audimetria tradizionalekin jokatzen jarraitzea. Hizkuntzaren aldetik ere honek badu bere irakurketa: neurketok herri perspektiba batetik autozentratuak izan daitezen interpretazio-irizpide soziolinguistikoak izan beharko lituzkete noski. Irakur-ikus-entzule eta irakur-ikus-entzuletza garaikideak zeharo aldatu dira arreta komunikabide urrietara bideratzen zeneko esposizioaren metrikaren garaietatik. Bateratzeak lurrikarak ekarri ditu ekosistema mediatiko guztientzat, eta ezinbestekoa zaigu gurearen ezagutza orainaldiko eta etorkizunerako parametroetan garatzea.

Euskal Hedabideen Behategia osatu berri da Hekimen Euskal Hedabideen Elkartea, EHU/UPV, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta UEUren partaidetzarekin, eta EiTBren eta EAE, Nafarroa eta Iparraldeko Administrazioen partaidetzara irekita. Gune estrategikoa izan daiteke Kulturaren Euskal Behatokiarekin batera Euskal Komunikazio Eremuaren azterketa eguneratu, garaikide eta esanguratsua burutzeko, hausnarketa lerro propioak indartzeko eta hain beharrezkoak zaizkigun adostasunetara iristeko.

Une honetan, dena dago dantzan: eguneroko informazioa ematen duten hedabideak zein gai hautatuak egunerokotasunetik haragoko sakontasunez lantzen dituztenak, uhin bidezko irratiak naiz telebistak, eta nola ez, internet bidezko hedabideak. Panorama baterakor baina aldakor, zatikatu baina elkarreragile, krisian murgildutako baina dinamiko horretan ikus-entzuleriaren neurketa sistema tradizionalek ikus-entzuleen esposizio hutsaz harago joan beharra behar dute. Komunikabideen bateratzeak, ikus-entzunezko kanal, formatu eta formen arteko mugak lausotzeaz gain, zalantzan jartzen ditu komunikabideek ekoizpen eta kontsumoaren arteko, egitearen eta hartzearen arteko eta ikus-entzuleriaren

aktibotasun eta pasibotasunaren arteko bereizpenak, baita prentsa idatziaren irakurleriari dagokionean ere. Euskarazko eta erdarazko komunikabideei eskaintzen zaizkien diru laguntza sistemak ezezik gure ekosistema osoaren ezagutzaren egituratzea jarri behar dugu martxan.

Euskal Komunikabideen Ekosistema baten alde egin

Jada ez zaigu nahikoa Euskal Komunikazioaren Eremuan parte hartzen duten eragile, sektore, kanal, igorle eta hartzaileak modu isolatuan aztertu eta ulertzearekin. XXI mendeko Euskal Herriaren komunikazioaren ikuspegi sistemiko eta are, ekosistemiko bat garatu behar dugu eta konkretuki hiru gako birpentsatu behar ditugu: Jabegoa, ekoizpena eta banaketa eta harrera.

· Jabego intelektualaren egungo araudiak ustiapen eskubidedunen alde eta egile gutxi batzuen alde egiten du, sortzaile gehienentzat ezinezkoa delarik haien lanetik bizitzea. Aro digitalean egoera hau leundu edo hobetu ordez lazten ari da, araudiaren ezegokitasun eta bidegabetasunaren adierazgarri. Euskal herriak sormen lanen jabego-erregimen berri bat behar du.

· Honekin lotuta noski ekoizpen eta banaketa ereduak daude, zeinak aro digitalak ekarri dituen aldaketen aurrean eskas eta desegoki gelditu zaizkigun komunikazio forma zahar eta berrien aldetik. Euskal Herriko etxeetatik komunikazio sistemara dagoen sarbide ohikoenak ez dio erantzuten kulturalki, sozialki eta ekonomikoki eraikitzen ari den herrialde baten beharrizanei. Euskal Herrirako Ikus-entzunezkoen eta Komunikazioaren Aholkularitza eta Komunikazioaren Lege baten beharra daukagu, bai, baina baita software eta kultura librearen sustapen eta garapenerako esparruen beharra ere. Bestela esanda: Euskal Herriak ezagutzaren jendartearen klabeetara egokituko den sarbidea, informazioa, pribatutasuna, segurtasuna, kultura, komunikazioa, aniztasuna, pluraltasuna eta garapenari dagozkion gaietan erabiltzaile eta sortzaile, profesional eta herritarren arteko adostasun marko bat behar du.

· Harreraren izaera ere aldatu egin da. Jada ez da norantza bakarreko ikus-entzunezko kontsumoa, norantza, norabide, intentsitate eta konpromiso maila anitzeko parte-hartze eta atxikimendu/arreta eremua baizik. Gobernu bezala nola entzun euskal jendarteari? Nola ezagutu administrazio publikoetatik egiten diren proposamenen harrera “erreala”? Nola bideratu komunikazioa euskal jendartearekin 1.0

planteamendu lineal klasikoetatik eta azken urteetako planteamendu ustez demokratiko baina estetiko hutsez haratago? Berriro ere, birplanteamendu erradikal eta eztabaida prozesu bat behar dugu.

Elementu hauek hemen eta orain birpentsatu behar ditugu, baina ez arnasestuka eta azken unean, luzerako begiradarekin eta arnas luzeko jarduerari begira baino.

· EiTBk jada ez ditu soilik inertzia eta estankamendu zeinuak agertzen, geroz eta argiagoak dira euskal jendartearen aldetik agertzen zaizkion desatxikimendua, desilusioa eta desenkantua. Horren aurrean Euskal Irrati Telebista Publikoaren proiektua bera birfundatzeko aukera eta erantzukizuna daukagu. Aukera guztiak daude komunikazio talde integral bezala eszenatoki digitalaren posibilitateak erabili eta Euskal Komunikazio Eremuaren erreferentziazko polo bihurtzeko edukien sortzaile eta banatzaile bezala. 1000 langile inguru biltzen dituen Irrati-Telebista publiko bat lorpen handia da, eta ezin ulertuzkoa litzateke lortutakoa malda-behera zoro honetan erortzen jarraitzen uztea. Bi proposamen zehatzek lagunduko lukete hori ekiditen.

- Ikus-entzuleriaren EiTB laborategia sortzea (ikus aurretik ezan ditugunak ezagutza eta neurketa propioen eta orain arteko metrika tradizionalak gainditzearen beharraren inguruan) eta Behategiarekin (Euskal Hedabideen Behatokia) elkarlana bultzatzea.

- Euskal Irrati Telebista Publikoaren Proiektuaren inguruko herri eztabaida ahalik eta kualitatiboki ireki eta kuantitatiboki zabalena bultzatzea ez soilik EAE baizik eta Euskal Herri osoko herritarren (eta munduko beste Euskal herritarren) artean.

· Tokiko eta herri ekimeneko idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabideek azken urteetan sortu duten ehundura komunikatiboa oso garrantzitsua da, eta puntu askotan sektore publikoak bere kabuz lortu duena baino interesgarriagoa eszenatokiaren aldaketen aurrean. Tokikom, Hekimen edo Arrosa irrati sarearena kasuek lezio garrantzitsuak gordetzen dituzte XXI. mendeko Euskal Komunikazio Eremua irudikatzerako orduan, eta oso garrantzitsua izango da etorkizunean elkarlan eta elkar-ezagutzarako mekanismoak asmatu eta saiatzea, behar ditugun logika berri asko jada martxan jarrita daudelako sarri (eta egungo marko autonomikoaren baitan aitortu gabe ezezik sarri txarto tratatuta).

· Catalunyako Internet Interdisciplinary Institute (IN3) edo Oxford Internet Institute-en antzerako Euskal Informazio eta Komunikazio Teknologien Institutua sortzea (Hezkuntza arloan aipatu da).

Estatu egitura eta mekanismoak ez dute behar bezala neurria ematen plano digitalak eskatzen dituen mundu mailako erregulazio eta arautze eskarien aurrean. Baina ezinbestekoa izango da, Koldo Diazi irakurri bezala, diru publikoz lagundutako eta euskal jendartearen sektore ezberdinekin (komunikabideak, unibertsitateak, jendarte zibila...) lankidetzan jardungo duen pentsamendu, ikerketa eta hausnarketarako diziplinarteko zentro baten sorrera. Aditu zein aritu talde egonkortu batek IKT-ek euskal jendartean sortutako erronkak identifikatu, aztertu eta irtenbidea emango liokeen proiektua litzateke: IKT-ek euskal jendartean ukitzen dituzten dimentsio ezberdinak ezagutzeko espazioa.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

KULTURA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Kirola

KOKAPEN OROKORRA

Kirol kontzeptu mugatu batetik bizitza fisikoki aktiboa duen jendarte bat sustatzera pasatzea dugu xede. Pertsonaren baitan dago mugitzea eta gure asmoa herritar aktibo, eraldatzaile, emantzipatzaile eta kritikoak sustatzea bada, gure kirol-politika bide horretatik joatea baino ez du. Kirola jendarte eraldaketarako oso aintzat hartu behar dugun tresna da, herritarrak atxikitzeko, hunkitzeko, erakartzeko, inplikatzeko eta eraldatzeko duen gaitasun eta zabalkundeagatik; hots, Euskal Herriko izaeran eta kulturan duen tokiagatik.

Eraldaketa piztu, puztu eta poztu behar dugu hainbat balioren berreskuraketarekin. Balio horien lehen lerroan HERRITAR AKTIBOA izatea ipiniko dugu. Pertsona aktiboa, ekimena duena, aldarte bizikoa eta bere jardutean bizipozez diharduena. Horretarako, ezinbesteko lehen urratsa da, fisikoki aktiboa izatea.

Gure marko politiko-ideologiko berrian pertsonak, herritarrak, denak bere berariazko ezaugarri eta desberdintasun guztiekin, bere indibidualtasunaren osotasunean hartu behar ditugu. Horretarako, bide bakarra da gure ohiko bizitza ohituretan jarduera-fisikoa txertatzea.

Kirola, jarduera-fisikoa, bizitza aktiboa, eta abarrek zehaztapen kontzeptuala behar dute. Guk kirolaren ikuspegi zabala proposatzen dugu. Jarduera-fisikoa gure bizitzetan txertatzea proposatzen dugunean giza-mugimenduaren adierazpen guztiak hartzen ditugu aintzakotzat: Arraunean entrenatzen den kirolaria, kiroldegira igeri egiten doan herritarra, bizikletaz lanera doan langilea, egunero paseatzera irteten dena edota aisialdirako baratza duena. Guretzat, denak izango dira helburu, denak izango dira baleko.

Nazio eraikuntzan eta estatu berri baten urratsetan, nabarmen, une batetan, erabaki beharko dugu, zintzo eta leial, eguneroko tristurak eta gabeziak, gure selekzioaren arrakastekin mozkortuta ase nahi ditugun, ala; herritar aktibo izanda dakarkigun bizipoz mugagabetik joan nahiko dugun. Kirola, soilik, modu esklusibo eta mugatuan politizatuko dugun; ala, pertsonak ardatza hartuta, gure buruak aktibatuko ditugun. Aukera gure esku dago.

Garaia da, pertsonak kudeaketaren ardatz eta kudeatzaile bilakatzeko. Pertsona denak, beren berariazko premia eta potentzial osoarekin. Biztanleriaren ezaugarri motore, sentsorial, sozio-ekonomiko zein kulturalak anitzak dira. Kirol-politika berriak aniztasunaren tratamendu berezi eta berezitua behar du txertatu.

Horretarako, gure lan filosofia eta moldea aldatu behar dugu. Administrazioko maila guztietan, eta tokian tokiko dagoen kirol organo kudeatzaileaz haratago, sail guztien jardunean txertatu behar da mugimenduaren aldeko kultura bateratu eta integrala. Bizitzaren alor guztietan aktibatu behar dira estrategiak herritarrek bizitza aktibo batean murgiltzeko topatzen dituzten oztopoak identifikatu eta haiek gainditzeko baliabideak emateko. Azken finean, kirola eskubide bilakatu nahi dugu.

Horrek guztiak, metodologia berri bat dakar, zeinetan sektore arteko mahaiak eta departamentu artekoak ezinbesteko bihurtzen diren. Erakundeen kudeaketa ereduen aldaketa dakargu. Administrazioaren kudeaketa ekonomikoa birmoldatu beharko da. Hainbat egitasmoarako partida intersektorialak sortuko ditugu. Bestetan, dispertsatuak eta eraginkorrak ez diren baliabideak optimizatu eta helburuetan zentratu eta indikatzailez osatutako kudeaketak ezarriko ditugu.

HERRIAREN EGOERA

Euskal Erkidegoko 10 herritarretik 7 sedentario dira eta ez dute Munduko Osasun Erakundeak gomendatzen duen gutxieneko ariketa fisikoa egiten.

Kirola eta bere aldarrikapen denak matxistak dira. Emakumeek gizonezkoek baino kirol gutxiago egiten dute. Kirola egiten duten emakumeek saio gutxiago eta motzagoak egiten dituzte gizonezkoek baino. Kirol erakundeen kudeaketetan, nagusi, gizonezkoak dira. Eta baliabideen banaketan, gizonak, jaun eta jabe. Eta oraindik orain, administrazio egituretan ez da baliabideen bidezko banaketa bat egiten ez eta exijitzen ere.

jendartearen %40aren mugikortasun premiak ez dira oso aintzakotzat hartuak izaten kirol-politiken garapenean. Ehuneko horren barruan gaude: 65 urtetik gorako herritarrak (%20). Nolabaiteko premia fisiko, psikiko edo sentsoriala dutenak (%10) edota behin-behineko mugikortasun murriztua paraitzen dutenak (%10).

Kirola ez dago krisi sistemikotik salbu; bere garapena kirol-egitura eta jardueretan zentratuta egiten du; eta, ez kirolari eta pertsonak ardatz hartuta. Gernikako Autonomia Estatutuan adibidez, eskumen esklusibo bezala jasota dago. 98an kirolaren euskal legea egin zen. Ordutik gaurdaino, ez da etengabeko aldaketa jasan duen kultur aldarrikapen zabalenaren eta emozionalenaren lege-garapen edota eguneraketarik egin; atzeraturik gabiltza.

Eskuduntza esklusibo horiek garatzeko urrats totel eta motel batzuk eman ditugun arren; ez ditugu bere potentzialitate osoan baliatu. Horiek dira, bereziki, beste sailekin batera garatu ahal genituzkeenak eta benetako nazio-balio erantsia emango liguketenak.

Legean ezarritako eskumen, eskubide eta betebeharrak luzeagoak izan arren; funtsean eta muinean, Euskadin, kirolaren garapena honela gauzatu da: Eusko Jaurlaritza, lege garapen batzuetaz, erregulazioaz eta errendimendu gorenaz arduratu da. Eskola-kirola, foru-organoen esku geratu da eta Guztiontzako-Kirola eta azpi-egituren eraketa eta kudeaketa, udalerrien esku eta diruen menpe. Kirol fenomenoaren zabalkundearen egile eta eragile nagusiak, udalerriak eta herritarren berariazko ekimenak berak izan dira.

Horri guztiari, gainera, Lurralde Historikoen Legea gehitzen badiogu, azkenean, euskal erkidegoan hiru kirol eredu desberdinekin egiten dugu topo. Hainbatean, elkarri bizkar emanda, elkarlanerako zailtasunekin eta erakunde komunetako irizpideak bateratzeko ezintasunean murgilduta. Horren erakusgarri, adibide bi: Ez dago herritarren premiei egokitzen den euskal kirol azpiegituretarako egitasmorik; ez eta, euskal eskola-kirol eredu komunik.

Kirolaren gobernantzaren txanponaren beste aldean kirol-herrigintza dago: herrietako, klubetako eta federazioetako kirolari, entrenatzaile, epaile eta bolondresak. Euskal Herriko kirolaren indar-gune nagusi izanik partida ekonomiko txikiekin sostengatzen dena.

Tokiko udal gobernantzatik autonomikoraino, kirolaren administrazioa, zerbitzuak eskainiz garatu da. Alegia, herritarrentzat herritarrekin gabe garatu da kirol-politika. Kirolaren kontzepzio motza du administrazioak, eta ondorioz, ez dago herritar aktiboen ikuspegiak ekar eta erakar dezakeen kudeaketa mota berri eta berritzailearen zantzurik ikusten.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Kirolak Euskal Herri honi egiten dio ekarpena da herritar aktibo eta pertsona integralak. Herriarentzako ona izango da osasunaren kosteetan aurreztuko dugulako. Oinez, bizikletaz eta, orohar, desplazamendu ez-motorizatutan jarduteak ingurumenaren babeserako lagunduko digu. Eta noski, kirolak ere, paregabeko balio-eskola eskainiko digu gure etorkizuneko estatu duineko biztaleei. Baina kirolak eta bizitza aktiboan murgildutako jendarte baten ekarpena da sistemak lozorroan murgilduta dituen pertsonak esnatu eta aktibatuko ditugula. Pertsonen bihotz, buru eta gorputza osotasunean hartzen dugu eta emozio, hunkipen eta eraldaketa zirrararen auspoa izango gara. Bizitza-bidea borroka bada, aurre egiteko aldarte hoberena aktibo izatearena izango da.

Helburua mugimenduaren kultura sustatzea eta sedentarismoaren aurkako borroka izango da. Aginte-poterearekin egiten garenean eta herritarrek bizitzako aukeren atakan aurkitzen direnean, aktiboa izatearena aukera errazena izatea baliatu behar dugu.

Ohiko kirolaren sustaketa isolatuan jardun baino, aliantza estrategikoak egingo ditugu; bai kirol erakunde eta baita, kirola lehenbiziko batean helburu ez duten, erakundeekin ere. Gure kirol-politika guztiek, inplizitoki txertatu izango dituzte parekidetasunaren benetako eraldaketa, euskararen sustapena, aniztasun funtzionalaren aberastasuna, osasunaren ikuspegi integrala, ingurumenaren zaintzaren sena eta txirotutako kolektiboenganako begirunea.

Kudeaketa berriarekin, herritarrak protagonista izango dira. Benetako partaidetza-prozesuen bidez, herritarrak izango dira euren bizitza aktiboaren jabe, eurak izango dira beren jarduera-fisikoaren sustatzaile eta kudeatzaile; administraziotik, soilik, premiak entzun eta baliabideekin erantzungo dugu.

Kirolaren eta bizitza aktiboaren berezko euskal-eredu bat garatuko dugu. Nazioarterako marka berezi bat, egiteko modu desberdin bat gainontzekoengatik bereiziko gaituena.

Horretarako, urrats nagusiak bi izango dira:

Gobernantzako estamentu guztietan kirola eta bizitza aktiboa sustatzeko “birusa” eta kezka administrazio eta sail guztietan, zeharlerroan, kokatu eta finkatuko dugu. Dela hezkuntzatik hasi, osasun-sailetik pasa eta lurralde antolaketako irizpideetan amaitu. Estrategi berri honek, ezinbestean, administrazioen arteko eta erakunde bereko sailen arteko lankidetza eta estrategi bateratuak ekarri eta erakarriko ditu.

Lidergo instituzional horrekin batera, berariazko partaidetza prozesu erreal eta irekiekin, herritarrak beren bizitza aktiboko arduradun nagusi bilakatuko ditugu; guk, administraziotik beharrezkoak diren baliabideak gauzatuz eta luzatuz.

Asmo eta gogo horiek denak bidaiaren amaiera dira. Hemen jarraian bidai horren lehen urratsak:

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

BILAKATU LEHENDAKARITZA HERRI ETA HERRITAR AKTIBOAREN ERREFERENTE. Kirola, lehendakaritzapean zuzenean ezarriko dugu, gobernua eta bere kideak bizitza aktiboaren erreferente bilakatzeko. Batetik, ardura maximoko ordezkari politikoak kirolaren buru leudekelako eta bestetik, beren jarduna bera sedentarismoaren aurkako adibide izango liratekeelako: bileretara oinez edo bizikletaz joango lirateke, bilerak zutik edo paseatzen egingo lituzkete, balio erantsi berezia luketen kirol-gertakarietan parte hartu edota ordezkari goren gisa joango liratekeelako,... zarenarekin hezten duzu, eta ez diozunarekin. Horrekin guztiarekin, berariazko komunikazio kanpaina berezi eta berezitua egingo genuke jendartea aktibatzeko; zeina ezinbestean, lotutako joango litzatekeen sailen arteko gure berrantolaketa berriarekin.

BEREHALA EXIJITZEA GENERO BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA EREDUAK, EUSKO JAURLARITZAKO ESKUMEN ZUZENEKO KIROL ERAKUNDEEI ETA BESTELAKO LANKIDETZA HITZARMENAK DITUZTEN ERAKUNDEEI. Ezinbesteko betebehar horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dauden kirol erakundeak egoki eta eraginkor bilakatuko ditugu. Horretarako, pertsonak oinarri dituzten, helburuen lorpenean zedarritzen eta adierazleekin diharduten kudeaketa planifikatuak garatuko ditugu: Erakunde horien dira Kirolaren Euskal Eskola, Euskal Kirol Federazioen Batasuna, Fadurako Perfekzionamendu Teknifizio Zentroa, Kirolene eta orohar, euskal federazioak.

BIZITZA AKTIBOA SUSTATZEKO EUSKAL PLANA. Behin eta berriro azpimarratzen ari garen departamendu arteko eta instituzioen arteko lankidetza estrategikoetan oinarritutako esku-hartze anitzeko plan ahaleginak egin dira aurreko legegintzalditan: Lehena “Aktibili” zen, orain “Mugiment” da. Zuzen egindakotik abiatuko gara eta behin betiko bultzada emango diogu plan mota horie. Horretarako, nahitaez, BIZITZA AKTIBORAKO SAILEN ARTEKO MAHAIA osatuko dugu. Mahai honetatik, eta partida interdepartamentalez bidez ondorengo azpi-planak garatuko ditugu.

· Lurralde Antolaketa eta mugikortasuneko sailarekin.

- “Urbanismo aktiboaz” ezagutzen diren ekarpen zehatzak eta mugikortasun ez motorizaturako neurriak garatzen ari diren Lurralde Antolaketa Planetan txertatzea bermatuko dugu.

- Euskadiko bide ez motorizatuen Plan sektoriala definitu eta garatuko; hots, Euskal Herriko bide gorri sarearen definituko dugu.

- Ziklisten Euskal Plana. Gobernuko sail desberdinekin batera, beste instituzio eta bizikletaren herrigintzan diharduten kirol eta zuzenean kirol ikuspegia ez duten kolektiboekin batera jarduteko mahai bat antolatuko genuke. Mahai horretatik aterako lirateke:

· Ziklisten euskal behatokia.

· Komunikazio kanpaina garrantzitsu bat errepideetako ziklista erahilketa sistematikoarekin amaitzeko.

· Errepideko ziklismoko mapa garatu; zeinetan, puntu beltzak identifikatuko liratekeen. Identifikatu eta lehenetsiko lirateke zeintzuk errepideetan bide bazterrak bizikleta-errai bihurtu ahalko liratekeen eta ezin direnetan zeintzuk bazter-bidek garbiketa eta mantenimendua beharko luketen.

· Garraio-bide publikoetan, desplazamendu ez motorizatuetarako araudiak garatu eta baliabideak ipini. Bizikleta eta irristaketa modalidadeak garraio publikoarekin elkartuta lortzen dira desplazamendu azkar, merke, jasangarri eta osasuntsuenak.

· Modu ez motorizatuko politika zehatzak garatu:

· Enpresekin langileak saritu (diruz, opor-egunetan,...) lanera modu ez motorizatu edo kolektiboan doazelako.

· Eskolekin “eskola-bideak” egitasmoak abian ipini, zeinetan, esku-hartze integralen bidez, haurrak modu autonomoan eskolara joango diren.

· Udaltzain, ertzain eta bestelako agenteen esku bizikletak ipini.

· Ingurumen sailarekin.

- Natur Espazioetan kirol jardueren erregulazioa debekuaren aurrean.

- Kirol Instalazioen auditoria energetikoa.

· Hezkuntza sailarekin.

- Eskola-Kirola Hezkuntza sailean txertatzea. Zentro bakoitzeko Heziketa Fisikoko saila izango da eskola-kiroleko kudeatzaile eta arduradun. Eskola publikoan, sail bakoitzari esklusiba orduak emango dizkio heziketa-fisikoko sailari

eta kontzertatuetan, bestelako formulak aztertu eta garatu beharko dira.

- Psikomotrizitatea Haur hezkuntzan eta Haurreskolak Partzuergoan txertatzeko ekimena hartuko dugu. Salto-salto gelatik haratago doan eskaintza da psikomotrizitatea. Irakasleen formakuntzatik hasiko ginateke.

- Heziketa Fisikorako ordu bat gehiago ezarriko dugu L.H. eta D.B.H. Europako gainerako Herrialdeen parean jartzeko. Batxilergoan berriro nahitaezko ikasgai bilakatu behar da (iraganean izan zen bezala). Soin Hezkuntzaren Aldeko Iritzi Taldeak egindako egitasmoa hartuko dugu aintzat bideari ekiteko.

- Heziketa Fisikoa emateko espazioen azterketa. Eskolek dituzten kirol baliabide espazialen azterketa egin behar da. Zentro askotan ez dago HF curriculuma garatzeko gutxieneko espaziorik. Estalperik ote dagoen, udal instalazio edota beste zentroetako baliabideekin koordinatzeko azterketa bat egitea ezinbestekoa da.

- Euskal Etnomotrizitatea deituriko korronte pedagogikoa heziketa fisikoan garatzea. Etnomotrizitatea da gure herri izaeran txertatzen diren herri-kirol, joko -jolas eta dantzak adierazpenak.

- Lehen Sorospena: desfibriladore semi-automatikoa erabiltzen eta oinarrizko bihotz birika berpizte ezagutzak nahitaezko eduki gisa txertatu behar dira curriculumean.

· Osasuna eta Ongizate Saila. Patologia merkeena existitzen ez dena da; eta, beraz, aurrezaintzarako botikarik eraginkor eta merkeena bizitza aktibo bat izatea da. Alor soziosanitarioan, kronikoen estrategian, ikuspegi komunitariotik jarduera desberdinak txertatuko ditugu: osasun sustapen, prebentzio eta pluripatologien artapenean.

- Familia-sendagileak “kirol-errezeta” prest edukitzeko, udalerriko kirol baliabideen gida batekin norberaren premietara egokituko liratekeen “kirol-dosiak” administratzeko bideak irekiko ditugu.

- Tokiko fisioterapia zentroek udalerrietako kirol-zerbitzuekin elkarlanean aritzeko neurriak hartuko ditugu, beren baliabideak herritarrei eskaini eta patologia osteko bizitza kiroldegian edota kirol- jardueran jarraitzeko.

- Kirol federatuaren aseguru-etxeen baitan, eta osasun-publikoari paralelo, kirol-medikuntza dago. Azken finean, egitura bikoitz bat antolatu (eta ordaindu) egiten dute herritarrek. Egun bi kirol-osasun sistema hauek kontrajarrita bizi dira, gure proposamena: kirolarien osasuna (hein handienean) osasun-publi-

koaren baitan ipintzea eta sektore pribatuarekin adostea osasunetik interes pertsonaletara doazen zerbitzuak antolatzea (dietetika, tratamendu pertsonalak, errendimendu goreneko entrenamenduak,...).

· Industria sailarekin.

- Lan munduaren ergonomia aztertu eta hobetuko luketen teknikarien sarea osatu.

- Lan orduetako gorputz jarrerak eta dinamikak hobetu eta lan horiek konpentsatzeko jarduera fisikoa preskribituko lukete.

ESKOLA ADINEKO KIROLA. Euskal eskola-kirol eredu bat bilatuko dugu. Berton, ezinbestean, hezkuntza saila inplikatuko dugu. Eredua, tokian tokiko baliabideen bidez garatuko da. Ereduak komunean eta ezinbestean izango duena da eskoletako heziketa-fisikoko sailek koordinatuko dituztela Euskadiko ikasleen lehen kirol hastapen esperientziak. Horretarako, ezinbestean, 25/1998 Eskola Kirolaren dekretua eguneratuko dugu, hiru Aldundi eta Hezkuntza sailarekin elkarlanean.

GARATU EUSKADIKO KIROL-INSTALAZIOEN SAREA PLANIFIKATZEKO IRIZPIDEAK. 98ko Euskadiko kirol legea aipamen berezi bat egiten zuen euskadiko kirol-instalazioen eraikuntza irizpideak ezarri eta garatzeko. Lanabes hori ez da gauzatu. Garaia da kirol-instalazioen planifikaziorako irizpideak ezarriko dituen plana egiten hasteko. Plan honetan besteak beste ondorengo alorrak jasoko dira: esparru motak zehaztu, biztanleriaren araberako ratioak mugatu, eta ingurumen inpaktuen balorazio irizpideak txertatu.

LEGE GARAPENAK. Ondorengo Legeen eguneratze eta araudien egokitzapena lehenetsi eta burutu behar dira:

· Kirol Lanbideetan aritzeko legea errealitate bilakatu.

· Kiroleko Dopinaren aurkako 12/2012 legea aldatu.

· Euskadiko Kirolaren 14/1998 legea kirolaren errealitate berrietara ekarri.

· Igerileku kolektiboetako osasun araudia eguneratu.

· Federazioen hauteskundeetarako araudia eguneratu eta demokratizatu.

Arnaldo Otegirekin talde-lanean
Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

GARATU KIROL LEHIAKETAREN EUSKAL ESPARRUA. Egungo jaurlaritzak bere 2014 ekintza-planean kirol modalidade bakoitzerako lehiaketa esparru birmoldaketa baten azterketa gauzatu zuen. Azterketa horretan ondorioztatu zen kirol-modalidade gehienak Españako txapelketari begira antolatzen direla; eta maiz, irizpide hori onena ez dela. Ez soilik nazio ikuspegitik; baita, eta bereziki, baliabideen optimizazio eta lehiaketaren kalitatearen ikuspegitik. Kirolez kiroleko lehiaketa marko berriak garatzea sustatuko dugu bai kirol-federazio eta baita bestelako erakundeekin sinatutako akordioen bidez.

BIRMOLDATU UNIBERTSITATE-KIROLA, ETA, KIROL ETA BULTZATU JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROL ZEINTZIEN IKERKETA. Unibertsitateekin elkar-lanean, unibertsitate-kirol eredu berri bat garatuko dugu, zeinetan unibertsitate garaiko ikasleen bizitza aktiboak indarra hartuko duen kirol-lehiaketaren aurrean. Horrekin batera, sustatuko dugu Jarduera fisikoen eta kirol zientzien garapen eta ikerketa.

EUSKAL KIROLAREN NAZIOARTERA JAUZIA. Kirol federatua entitate pribatuen arteko harremanetan oinarrituz euskal federazioek EAEtik zuzenean Nafarroarekin eta Ipar Euskal Herriko eragileekin harremanak izatea sustatuko dugu. Horrekin batera, euskal-federazioen asanbladei eskatuko diegu beren kiroleko europako eta nazioarteko federazio batasunetan parte-hartze zuzena izateko eskaera egitea.

EZINBESTEAN BEREHALAKO ESKU-HARTZEA BEHAR DUTEN KIROLAK. Legegintzaldi honetarako ezinbestean, zenbait kirol-modalidadek berehalako eta premiazko esku-hartze bat beharko dute. Batetik “gu garena egiten laguntzen” digutelako eta bestetik, premiazko hil ala biziko egoeretan aurkitzen direlako. Denek behar dute hastapen mailaetik profesionaletarainoko berrantolaketa, instituzio publikoen laguntza eta genero ikuspegiaren txertaketa: Euskal-pilota (modalidade guztien garapena, nazioarteko proiekzio handiagoa, hastapen egituren indarketa profesionalismoaren laguntzatik) arrauna, herri-kirolak (aurreko plan estrategikoen hurrengoak, mendia (30.000 lizentziarekin eta 4 kirol-modalidaderekin egin-eragin ahalmen handia du) eta ziklismoa (modalidade denak eta bereziki aisia- eta hiri-ziklismoaren garapenarekin aurreko atal batean adierazi dudan bezala). Hauekin guztiekin, ezinbestean, zokoratuta aurkitzen diren kirol-egokituko federazioen garapena eta beronen kirol-modalidadeen garapena kudeatzeko baliabideak ezarriko ditugu.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

ASKATASUNA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Bakea eta justizia

Partehartzea eta gardentasuna

Feminismoa

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

ASKATASUNA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Bakea eta justizia

Eskubideak eta askatasunak babesten dituen esparru berri bat

KOKAPEN OROKORRA

Euskal Herrian eskubide eta askatasunei hitz egiteak bi bektoretara garamatza: batetik, denborazkoa (iragana, oraina eta etorkizuna) eta, bestetik, gaitasunezkoa (eskubideak eta askatasunak bermatzen dituen esparru politiko-juridiko batez hornitzeko ditugun gaitasunak). Hausnarketa eta proposamen hau irizpide horiek zehazten dute.

Munduan eskubideek eta askatasunak duten esanahiaren digresiorik egin gabe, beren garrantzia eta iraunaldia, guztiok jakitun gara herrialde honetan oinarrizko balioak askotan eta larriki urratu direla, arrazoi politikoak direla medio. Oinarrian, zalantzarik gabe, beste eskubide horien urraketa dago, orain garatzen ari diren eskubide horiena, hirugarren belaunaldikoak edo Herrien Eskubideak deiturikoak: askatasun ekonomikoa eta politikoa izateko eskubidea, bizimodu duina izateko eskubidea, nortasun nazionala eta kulturala izateko eskubidea, justizia, elkartasun eta nazioarteko lankidetza eskubidea, eta, azkenik, aurreko guztien arragoa, autodeterminaziorako eta bakerako eskubidea.

Aipatutako eskubide horietan ezin sakondu izanak, jatorri politikoa duen ukapen horrek, eskubide zibil eta politikoak modu orokorrean, biziki eta sakonki urratzea ekarri dute herrialde honen historiako azken hamarkadetan. Exekuzio laburrak edo arbitrarioak, desagerpenak, atxiloketa arbitrarioak, tortura eta tratu txarrak, justizia independente eta inpartziala edukitzeko eskubidearen urraketa, eskubide politikoen urraketa (hala nola adierazpen-askatasuna, elkartzeko askatasuna, antolatzekoa, ekintza politikorakoa...). Horiek guztiak antolamendu politiko-juridiko baten adierazle izugarriak dira, interes politikoak oinarrizko printzipio demokratikoen aurretik jarri dituen antolamendu batenak.

Hau guztia egiaztatu ondoren, beste gauza bat egin behar dugu: iraganean urraketak jasan ditugunez, gaur egun oinarrizko eskubide zibilak eta politikoak babesten dituen esparru bat garatu eta sakontzeko baldintza objektiko eta subjektibo nahikoa ditugun egoera batean bizi gara. Testuinguru horretan, hemen eta orain, eskubide eta askatasunaz goza-

tzeko erantzuna ematen dion proposamen hau idazten ari garenean, oinarritzat hartuta herritar askok partekatzen dugun itxaropena. Nahi horretan iraganetik ikasi behar da, memoriarekin eta egia ezagutu ondoren iraganeko urraketa guztiak konpondu ahal izateko. Erreklamazio kolektibo horren jakitun gara, eta horretarako hiru erronka ditugu: oinarrizko eskubideak urratzen zituzten erakunde, arau eta neurri horiek kentzea, urraketan lagundu zuten horiek aldatzea, eta, azkenik, politika berriak sustatzea edo erakunde berriak sortzea, beharrezkoak direnak erabilera publikoagatik eta eskubide horietaz gozatzeko; baina hori guztia zehatz-mehatz kontrolatuta.

Hain zuzen, herritarren itxaropen hori errealitate batekin topatzen da. Nabarmena da herritarren eskaera, oinarrizko printzipio demokratikoak bermatzeari buruzkoa, baina gure eskumenak gaur egun oso mugatuak dira. Kasu batzuetan hainbat neurri hartzea ez dago gure esku. Eta beste kasu batzuetan zati batean edo nahikoa ez den modu batean dugu boterea. Azken bi kasuetan, eta horretarako neurriak eduki arren ere, politikak eta interes alderdikoiek jarduteko gaitasun horien kudeaketan erabaki okerrak hartu dira. Saiatuko gara banan banan sakontzen, gure ustez jardun beharreko esparruetan, eta nola jardun beharko genukeen ere.

Hausnarketa horrekin jarraituz, gatazka politikoaren ondorioz ezagutu ditugun berariazkotasunez gain, gure inguruko beste jendarte batzuekin partekatutako erronketatik sortutakoak ere badaude. Beste jendarte batzuetan bezala, egungo arazoei aurre egin behar diegu segurtasunaren, justiziaren, eta espetxeetako ereduaren arloetan. Beste jendarte batzuetan bezala, euskal herritarrek euren eskubide sozial, ekonomiko eta kulturaletan murrizketak jasan dituzte. Hala, beste jendarte batzuk bezala, euskal jendarteak hainbat erronkei aurre egin behar die sistema-krisi honen egoerak eragindako zerbitzuak jasotzeko. Gure inguruko jendarteekin partekatzen dugun arazo bat da, baina gureak, zehazki parametro progresisten bitartez aurre egin nahi die erronka horiei, eskubide eta askatasun demokratikoen jardunean sakonduz, eta herritar guztiengana zabalduz. Agian iraganeko esperientzia traumatikoaren erruz, zerbitzu publikoez eta esparru publikoez gozatzeko itxaropen handia dugu, eskubide guztiekin.

Hala, eskubideak eta askatasunak babesten dituen esparru berriaz hausnartuko dugu bi atal desberdinduz: batetik, gatazka politikoari aurre egiteko, eta bakea eta normalizazio politikoa sendotzeko proposamenari eta diagnostikoari buruzkoa. Eta, bestetik, erradiografia bati aurre eginez iraganeko, oraingo eta etorkizuneko eskubide eta askatasunez gozatzeko esparru demokratiko baterako.

HERRIAREN EGOERA

Gatazka politikoari aurre egiteko, eta bakea eta normalizazio politikoa sendotzeko proposamenak

Badakigu pertsona guztientzat eskubide guztiez gozatzea lortu gabeko helburu bat dela oraindik. Eta ulertzen dugu gure eskaerak merezi duela zentzu horretan pauso indartsuak eta atzeraezinak ematea. Saiatuko gara pauso horiek ematean sortzen diren zailtasunei buruzko diagnostiko bat egiten.

Aintzat hartu behar dugu gaur egun bizi dugun egoera. Aieteko Nazioarteko Bake Konferentziaren ondoren, eta ETAk 2011ko urrian emandako erantzunaren ondoren (jarduera armatua uzteari buruzkoa), jatorri politikoa duen gatazka eta ondorio latzak izan zituena konpontzeko aukera horiek oraindik hor daude. Herrialde honek hamarkadetan jasan duen indarkeriaren ondorioak oraindik ez dira konpondu. Dena den, ez gaude 2011 urtearen aurretik geunden egoera berean. ETAren erantzuna oraindik indarrean egoteaz gainera, bere konpromisoa baieztatu egin liteke eszenatoki berri batekin; baita bake eta normalizazio egoera iraunkor bat finkatzeko pausoak emateko nahia ere.

Baina zoritxarrez egiaztatu behar dugu faktore garrantzitsuei ez zaiela erantzunik eman, gatazkaren efektua eta ondorioa. Une hartako ilusioen aurrean ez dira bete; nagusiki, Madril eta Parisko gobernuek egoera berriaren aurrean jarri zuten blokeo eta itxikeriagatik. Blokeo horrek oraindik eskubide eta askatasunak urratzen ditu, salbuespenezko espetxe -politika mantendu du, gizaldeko printzipioen aurkakoa da, neurri judizial edo administratibo antidemokratikoetan sakontzekoa, jarduera politiko edo sozial garden eta normalizatuaren aurka dago, euskal lurraldean militarrak eta armak daude oraindik... Blokeo horrek beste alderdi bat dauka, gobernuen itxikeria prozesu antolatu baten aurrean, egiazta daitekeena, segurua, ETAren armak uzteari buruzko, bere militanteek armak suntsituz, ETAk agerian utzitako asmoa, eta nazioarteko adituek egiaztatutakoa.

Are gehiago. Eztabaida politikoa erabat geldirik dago erakunde publiko eta eragile politiko, sindikal eta sozialen artean, bakea eta normalizazioa lortzeko zailak diren baldintzetan. Eztabaida konstruktibo bati aurre egiteko zailtasuna, euskal jendartearen nahiaren bestelakoa dena, eta, zalantzarik gabe, badakiena aurre egin beharreko lehentasunak zeintzuk diren.

Hala, lehenengo premia izango da egiazko eztabaida zabalaren baldintzak zehaztea. Edonoren parte hartzea zaildu edo galarazi dezakeen eztabaida bat. Bakea eta normalizazio

publikoa nahi duen herri baten helburuak zein diren zehazten duen eztabaida, baita helburu horiek lortzeko neurriak zein diren ere: non, nola eta noiz, eta agian garrantzitsuena, norberak zer egin lezakeen helburu horiek lortzeko, alderdikeriarik gabe, epe motzerako interesik gabe, aurrera begira. Eztabaida horrek, zalantzarik gabe, gatazkaren ondorioak jasan dituzten edo jasaten ari diren pertsonekiko enpatia eskatzen du. Eztabaida horretan erabakiak eta konpromiso desberdinak hartzeko nahia egiaztatu beharko da. Hasiera partekatua duen eztabaida, baina sintesi berri batera iristeko nahia islatzen duena.

Eztabaida honek lau atal nabarmendu beharko ditu, lortzeko politika publiko zehatzak dituztenak: biktimak aitortzea eta kaltea konpontzea; presoak eta erbesteratuak berriz gizarteratzea; ETAk jarduera armatua uztea eta militanteak itzultzea; eta euskal lurraldea desmilitarizatzea. Lau atal hauek ez daude bata bestearekin baldintzatuta. Bakoitzak independenteki eman beharko ditu pausoak; jakina, biderik hoberena lau bektore horiek modu orekatuan jardutea da, gainontzekoen garapena sustatuz, jakitun gara. Hain zuzen, orain arteko joera izan da aurrera egitea jendartearen eta euskal erakundeen artean, nagusiki memoriaren esparruan eta biktimen eskubideetan sakonduta. Maila horretan, iritzi desberdinak dauden arren, erabaki eta aurrerapauso garrantzitsuak eman dira. Arlo honetan eta beste batzuetan sakontzea baliagarria izan liteke gainontzekoetan aurrera egiteko.

Ebaluatu ditzagun azaletik atal bakoitzaren ahultasunak eta indarguneak:

1.1.- Giza eskubideen urraketaren biktimak

Biktimen arloan bilgune politiko eta sozial garrantzitsu bat ezarri da egiaren, justiziaren eta memoriaren printzipioen baitan. Edo bestela esanda, erakunde- eta gizarte- politikak sustatzeko beharra, oinarrizko eskubideen urraketaren ondorioak jasan dituztenak aitortzeko, kaltea aitortzeko eta gogora ekartzeko. Gehiengoak jada onartu duen puntu bat da (arlo politikoan zein sozialean) urraketa egoeran dauden biktimak modu berean tratatu behar direla, testuingurua, unea edo eragilea dena dela ere. Biktimak ez bereiztea eta ez kategorizatzea jada herritarrek barneratu duten argumentua da.

Zoritxarrez, berdintasun printzipio hori praktikan kualifikatu eta baldintzatu egiten da, aitorpena eta konponketa diskriminaziorik gabe egitea zailtzen duten baldintzen arabera. Urraketen kronologia erregimen eta testuinguru politikoen arabera sailkatzen da: dikatura, trantsizioa edo demokrazioa. Aitorpena eta konponketa arbitrarioki lotzen dira eragilearekin, eta biktimei eskubide gehiago edo gutxiago ematen zaizkie. Biktima batzuek era-

kundeen babesa dute bide horretan, baina beste batzuk borrokatu egin behar izaten dute ezagutarazteko, eta, ondoren, aitortuak izateko. Biktima batzuk interes politikorako erabiltzen diren bitartean, beste batzuei ez zaie onarpena eta duintasuna aitortzen. Gure ustez eskubideen urraketa jasaten duen edonork eduki beharko luke erakundeetara jotzeko eskubidea, egia eta justizia diskriminaziorik gabe lortzeko. Horiei laguntzeko determinazioak, bazterketarik gabe, euren eskubideak erabiltzeko, gobernuaren edozein jarduerak zehaztuko du.

Egiaren prozesua partzialidadeen gain diseinatzen ari da, bata bestearen gain jarritako neurriekin, askotan bata besterakin kontraesanean daudenak. Memoria politikak edo erakundeen erabakiak esparru horretan ez diote erantzuna ematen plan bateratu bati, ikuspegi orokor eta oso bati. Eraikin hau teilatutik eraikitzen hasi da. Eta horren adibidea da gertatzen ari dena. Gaur egun ez daukagu memoria historikoaren euskal lege bat. Ezin dugu Espainiako Memoriaren Legearen menpe egon. Egia da hainbat ekimen egon direla alor horren baitan edo hainbat arau ditugula bide horretan laguntzen dutenak, gertatutakoa ezagutzera ematen laguntzen dutenak, hain zuzen. Ekimen horien akats edo hutsuneetan berriz ez erortzeko, memoria-eragileekin eta indar politikoekin Euskal Memoria Historikoaren Lege orokor bat idatzi beharko litzateke.

Egiaren Batzorde bat sortu beharko litzateke, urraketa jasan duten pertsonen errealitateari aurre egiteko. 1937tik 2017ra arte, eskubideen urraketa behin betiko mozten ez badugu. Gizarte- eta erakunde-ekimenak zentralizatu eta koherentzia ematen dien batzorde bat, maila ezberdinetan. Bizi-eskubidearen urraketarri (exekuzio labur edo arbitrarioak, desagerpenak), segurtasun fisikoari (lesioak, tortuta, tratu txarrak, eta bereziki sexu-izaera dutenak), edo segurtasun psikikoari, moralari edo ohoreari argia eman dion batzordea. Baita identitatea eskuratzeko eskubideari ere (haurren lapurreten kasua). Egia guztia zehaztuko duen Batzorde bat, giza eskubideen urraketen biktimak ezagutuz eta aitortuz. Batzorde horren eginkizuna izango da urraketa horiek konpontzeko beharrezko neurriak hartzea. Batzorde horrek, aldi berean, erakundeei gomendioak igorriko dizkie gertakari horiek berriz ez gertatzeko bermatzen duten neurriak hartze aldera.

Memoriaren neurriek, iraganari buruzko kontakizun edo irakurketa bat inposatzeaz gain, iraganaren kritikaren ikuspuntutik, jendartearen ikuspuntu desberdinekiko errespetua sustatzen dute. Halaber, biktimekiko elkartasuna ulertarazi beharko dute, eta sinergiak sortu beharko dira orain arte bizitakoa berriz errepikatuko ez dela bermatzeko. Memoria hori berriz gertatuko ez denaren mezu batekin batera joango da.

1. 2.- Errepresaliatutak: presoak eta erbesteratuak

Atxilotuak eta erbesteratuak hona ekartzea ez dago zuzenean euskal jendartearen eta bere erakundeen esku. Hala ere, horrek ez du esan nahi ezer egin ez daitekeenik gobernuetatik. Hain zuzen, gaur egun presoak eta erbesteratuak biltzeko, antolatzeko, hausnarketak partekatzeko eskubidea ukatzen da. Elkartzeko eskubidea, beste arlo eta sektoretan sustatzen dena, ez litzateke zigortua izan beharko. Jarrera horren ondorio zuzena da presoak eta erbesteratuak objektu gisa hartzea. Ezohiko legegintzaldien objektu, kontrolatzeko neurrien objektu, interesen objektu, biktima batzuen nahiak asetzeko objektu, beste erakunde batzuek erabakiak hartzeko presioa egiteko objektu, posizio politikoak eusteko objektu (garaile eta garaitu) edo alderdikeria interesen objektu. Alabaina, presoak eta erbesteratuak subjektuak dira, eta errespetatu egin behar ditugu. Eskubideen subjektu, bizimodu duinen subjektu, etorkizunari buruzko erabakiak hartzek subjektu eta praktikan jartzeko. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gobernuek egin beharreko interpretazioa da, eta neurri zehatzekin babestu beharrekoa.

Hala, egungo ezohiko legezkotasunetik legezkotasun arruntera egin beharreko trantsizioa lortzeko esparru bat sustatu behar da. Eskubideak ez dituen etsai batek sustatutako eskubide batetik itzultzea, eta pertsona gisa bere gaitasunak maite dituen herritar batera. Zigor neurrien larriagotzearen bidean atzera egin behar da, aldarrikatutako antiterrorismoa, populismoz betetakoa. Goraka doan zigor-malda bat zeinak, paradoxikoki, presoen aldekoena den zigor-kodera, berme gehien ematen dituenera eramaten gaitu, 1973koa, hain zuzen, Zigor Kode Frankistara. Azken bost urteotako eboluzio politikoak adierazten du zigor esparru hori kentzeari lehentasuna eman behar zaiola. Ezin dugu utzi herrialde honetan izaera politiko edo sozialeko prozedura judizialak manten daitezen, “Dena ETA da” teoria zaharrean oinarrituta, eta bere ondorioak, noski: espetxea, eskubiderik gabe uztea, aulki zigorrak... Gobernuak konpromisoa hartu behar du gaur egun jarduera gardena eta publikoa egiten dutenen atzetik ez joateko, eta atxiloketa horietatik ateratzen diren prozedura politikoak errealitatearekin, eta segurtasun juridiko eta legezkotasun printzipioan oinarritzen den eskubide sistemarekin bat ez datozela. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gobernuak indarkeria eta giza eskubideen urraketaren aurka gogor egin behar du, bakea eta normalizazio politikoa behin betiko jartzea oztopatzen duen sistemaren aurka.

Atxilotuei dagokienez beharrezkoa da nabarmentzea indarrean dagoen zigor-kodeari jarraikiz, presoak askatasuna lortze gakoa da “gizarteratzeko aldeko iragarpena”. Hau da, atxilotuak etorkizunean delitu berriak egingo ez dituela iragarri behar da. Egungo egoera hori jakinarazi behar da: ETAren eta zigorra bete duten atxilotuen eboluzioak berriz indarkeriazko ekintzak egitea oztopatzen du. Gertakari horrek, egiazko elementu horrek,

eragin juridikoa edukitzen hasi behar du. Eta orain. Euskal Preso Politikoen Elkartearen adierazpenak, bere konpromisoa adierazten duenak eszenatoki berri honetan, indarkeriaren aurka daudela esanez eta egindako kaltea aitortuz, ideia hori indartzen du. Hori dela eta, legearen ohiko aplikazioa sustatzen duen politika bat babestu behar da, edo, bestela, Espainiako legea salatu behar da, bera baita presoen egoerari konponbidea aurkitzea oztopatzen duena.

Konpondu beharreko beste arlo bat da gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoen inguruko krisi humanitarioa. Parlamentua pertsona horien eskubideen alde jarri da. Halabaina, ez dugu indar bera ikusi Gasteizeko Gobernuan. Preso hauek arreta espetxean jaso ezin dutela ezin da eztabaidatu, eta erregimen itxian egotea ez da bateragarria euren osasun eskubidearekin. Giza eskubideen zuzendaritzak bide bat ireki beharko luke preso horiek osasun zentroetara bidaltzeko, eta baldintzapeko askatasuna azkartzeko, horretarako dauden legezko bideak erabiliz.

Halaber, gobernuak aktiboago jardun behar du presoen oinarrizko eskubideak aintzat hartzeko. Arrazoirik gabeko isolamendu erregimena salatzeko profila zehaztu behar da, oraindik euskal presoak arbitrarioki jasaten dutena. Argi eta garbi egin behar da horrelako zigor ekintzen aurka, lehengo Parot Doktrina moduan, edo Frantziako zigorrak zenbatzearen moduan. Halaber, esparru betearazletik gehiengo sozialeko, politiko eta erakundeko eskaera bat planteatu behar da. Izan ere, gero eta indar gehiagorekin egiten du dispertsio -politikaren aurka. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia loteslea da, eta ezin da apelatu egoera bideratzeko. Baina, gainera, beharrezkoa da ikustaraztea egungo espetxeetako politikaren atzean dagoen drama, baldintza humanitarioei dagokienez, dela presoentzat dela euren familientzat, zeinak aberriratzeko palanka gisa egiten duen.

Euskal presoen egonaldiak euskal espetxeetan espetxeetako politika alternatibo berri bat ekarri beharko luke, Gernikako Estatutuak zehaztutako eskumenak exekutatzeko aldera, oraindik transferitu gabe daudenak. Erregimen itxia oinarritzat duen politikak diseinatzeko aukera; osasun-, hezkuntza-, gizarte-, lan- eta okupazio-arreta eskaintzea presoari, euskal zerbitzu publiko bateratuen arabera; zigorra exekutatzeko aukera epai naturalei ematea, espetxea zaintzen dutenei. Horiek guztiak neurri garrantzitsuak dira presoa gizarteratzera zuzendutako espetxe-politika berri bat aplikatzeko. Horretarako, erabakiak hartuko dira indar politikoekin, erakundeekin eta kaltetuekin programa hau sustatzeko, presoak gizarteratzeko helburuarekin, espetxeetako eskumena aplikatuta. Espetxeak iragazkorra izan behar du, presoak komunitatearekin harremana izan dezan, eta alderantziz. Komunikazio hori erraztuta esparru honetan egin beharreko aldaketak etorriko dira.

1.3.- ETAren armagabetzea

ETAren armagabetzea errazteko eta azkartzeko programa bat zehaztu behar da, armak suntsitzeko eta militanteak itzultzeko. Kolonbian gertatzen ari den bezala. Hala ere, pauso horiek eman beharreko eragileen nahaia egiaztatuta, beste parametro batzuk inposatu dira. Hain zuzen, nazioarteko adituek ETAren asmo positiboa egiaztatu zuten, baina Espainiako eta Frantziako Gobernuak horren aurka daude. Are gehiago, funtzio horietan jardun dutenak atxilotu dituzte. Horretarako, inplikatutako eragileetan oinarritutako programa bat sustatu behar da "egin eta utzi egiten" lemarekin, dagokiona, eta dagokionari. Beharrezkoa da programa honek nazioarteko erakundeen ziurtagiria edukitzea, eta egiazta dezaten desarmatze eta armak suntsitzeko prozesu egoki hori; eta aldi berean ziurtatuko dute epeak, baldintzak eta helburuak betetzen direla. Horretarako, gobernuak prozesu honi legezkotasun politiko eta instituzional gehiago eman behar dio.

1.4.- Desmilitarizazioa

Parlamentuko gehiengoak babestutako erabakia erreklamatu dute Araban, Bizkaian eta Gizpukoan ekintza zehatzik egin ez dezaketen indarrak eta segurtasun taldeak kentzeko. Ezta herritarrengan eragiten duten funtzioak, gastua, tentsioa eta bidegabekeria. Gainera helburua da euskal politikaren ekuazioaren indarkeriazko jarduera ateratzea, eta helburua da bermatzea giza eskubide horien urraketarik berriz ez gertatzea. Hortaz, beharrezkoa da euskal lurraldetik ateratzea. Gaur egun Europa mendebaldeko herrialderik militarizatuena da (7,6 agente 1.000 biztanleko, gutxi gorabehera), eta euskal lurraldetik atera beharko lukete modu antolatuan, Europak gomendatutako estandareetara egokitze aldera (2 polizia 500 biztanleko). Ezin da eskatu herritarren segurtasunaren zerbitzua murriztea; izan ere, ez dituzte funtzio horiek betetzen, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak euren gain hartutakoak.

Hortaz, beharrezkoa izango da helburu honi aurre egiteko proposamen bateratu bat aurkeztea, parlamentuko gehiengo handiarekin, eta Espainiako Gobernuaren aurrean gogor defendatuko dutenaren ziurtasunarekin.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK ETA ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

2.- Eskubide eta askatasunen egungo eta etorkizuneko jardunaren demokrazia-esparruaren erradiografia

Arestian esan bezala, gure iragana ahaztu gabe, beharrezkoa da orainari aurrea egitea politika global batetik, kudeaketa normalizatu bat lortze aldera, giza eskubideen eta herritarren askatasunen jarduera esparruaren baitan, etorkizunari begira. Hau da unea esparru demokratiko hori diseinatzeko, iraganeko inertziak, praktikak, neurriak eta jarrerak alde batera utzita. Lehenik eta behin, herritarren nahi gisa ulertu behar dugu, segurtasun eskubideak babesteko eta eskumen sozial eta politikoei laguntzeko. Baina beste ikuspuntu batetik, eskubideak eta askatasunak babesteko jarduera Estatuaren oinarrizko zutabeak eta egiturak dira, gaurtik hasita eraiki beharrekoak. Segurtasuna, justizia, presondegikoa bezalakoak berriz definitu behar ditugu, gizarte eta herri gisa zer nahi dugunaren arabera, eta gure buruari galdetuta nola nahi dugun funtzio horiek ezartzea. Esparru publiko horiek nolakoak izatea nahi dugun erabakitzeko bide berri bat hasi behar dugu, kudeaketa burujabe bateruntz. Ezin dugu soilik zerbitzu horien kritika egin, gaur egun eskaintzen diren bezala. Beharrezkoa da berriz antolatzea, garbitzea, eraikitzea eta kudeaketa programak diseinatzea, erabakitzeko dugun eskubidearen baitan barneratuz.

Gure ustez giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko esparru orokor bat sendotzeko baldintza objektiboak dira; baita Justizia, Espetxeetako Sistema edo Segurtasun Zerbitzua bezalako erakunde publikoak gizarteak espero duenera egokitzeko ere. Datozen lerroetan ardatz horien inguruko hausnarketa egingo dugu.

2. 1.- Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko esparrua

Helburua:

Herrialde honek askatasun guztiak babesteko esparru bat eraiki nahi du, herritare guztiek berdintasun osoz goza dezaten giza eskubideez. Politika publiko guztiak giza eskubideen baitan joan behar lukete. Hala ere, adierazpena egitetik, praktikan jartzeko pausuak eman behar ditugu, eraginkorra izan dadin. Askatasun politikoak, oinarrizko eskubide zibilak, gizarte eskubideak, ekonomikoak, kulturalak, eta hirugarren belaunaldikoak deiturikoak ere beharrezkoak izan beharko dira. Eta aintzat hartu beharko dira zeharka politika publiko guztietan, eta babestu egin behar dira. Baina, batez ere, sustatu egin behar dira, poliki -poliki esparruak berreskuratuz, gozatu ahal izateko.

Oztopoak:

Espainiako legeek eskubideez gozatzeko esparruak murriztu dituzte. Martxan jartzen ari dira errepresiozko sistema bat, hain nabarmena ez dena, eta itxuran hain zorrotza ez dena, baina eragin larria duena, batez ere, eskubide politikoetan eta herritarren protestan. Herritarren Segurtasunaren Legeak, Mozal Legea izenarekin ezagunagoa, zuzenean eragiten du eskubide demokratikoen jardueran. Antolamendu publikoarekin zerikusia duten neurrien artean ezkutatuta, eta esparru publikoa modu egokian arautzeko beharrezkotzat direla hartuta, arau-hausteen katalogo bat agertzen da, baina eskubide politikoen legezko jarduera besterik ez dira, gizartean normalizatutako ekintzak. Lege horrekin sistema penalaren bermeak alde batera uzten dira, eta betearazleak jartzen ditu zigorrak. Beharrezkoa da gobernuak jardutea lege hori ez aplikatzeko. Ez dezagun ahaztu aplikatzaileari eskumeneko boterea ematen diola, baina ez aginduzko aplikazioa.

Mozal Lege honi gehitu behar zaizkio beste lege batzuk, hala nola segurtasun pribatuaren legea, edo azkenaldian kode penalean egindako erreformak.

Ezin dugu ahaztu esparru publikoa erabiltzean lege murriztaile bat dagoela, kasu askotan, poliziaren jarduerakin batera. Zentzu horretan, aipagarria da gutxieneko demokratiko horien fiskalizazioaren eta mugen bandera-ontzia, zein den Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoa gobernuaren delegazioaren jarduera; askatasunezko esparruak murriztea besterik nahi ez duena, jarrera guztiz totalitario batekin. Jarrera horri aurre egin behar zaio, eskubideez gozatzeko esparruak irekita.

Neurriak:

- Erronka berriei aurre egitea esparru publiko osoa kudeatzeko; esparru hori eskubide zibil eta politikoak, gizarte-eskubideak, ekonomikoak eta kulturak gozatzeko erabiliko da. Horretarako, beharrezkoa da ekintza exekutiboa poliziaren jardueren baita, baina baita legezkoa ere. Ikuskizun publiko eta aisialdirako ekintzen lege berriak zehaztu du ekimen horiek zein baldintzetan antolatuko diren. Beharrezkoa da ebaluatzea lege horrek nola jarduten duen praktikan, baita hautematea espazioa publikoaz gozatzeari buruz daun hutsuneak ere. Halaber, Erakunde Publikoen mailan, esku-hartzeko proposamen bat diagnostikatu eta zehaztu behar da, erabilera publikoko esparruak erabiltzeko udal ordenantza horiei buruz.

- Mozal lege honi dagokionez, beharrezkoa da bere aplikaziotik eratorritako eragina barneratzea, lege hori eragin gabe uzten duten ekimenak hasiz. Lege hau ez da aginduzkoa, ahalmenekoa baizik. Arabako, Bizkaiko eta Gizpukoak adierazpen eraginkorra ezarri behar da, Mozal Legerik gabeko lurralde gisa. Eta ekintza honekin batera Segurtasun Pribatuaren Legearen giza eskubideen eragina ebaluatu behar da, eta horren aurka legezko neurriak hartzeko aukera baloratu ere. Programa batek ebaluatu behar ditu kode-penalaren azken erreforman sartutako oinarrizko askatasunen murrizketak, eta gure lurraldean duen eragina.

- Esparru publikoa indartu behar da elkarbizitzarako esparru gisa, protesta barne. Esparru hori indarkeria gabeko gizarte desobedientzian bihurtzen denean ere. Halaber, gutxietsitako egoeran, gizarte-bazterkeria egoeran dauden sektoreen aldeko neurriak sustatu behar dira, esparru publikoez inongo oztoporik gabe gozatu dezaten.

- Gobernuak erakunde- eta politika-bideak bilatu behar ditu gobenuaren delegatuaren ekintzen aurkako salaketen berri emateko, eskubideen urraketa behin eta berriz gertatzen den toki bat. Halaber, delegatu hori desagertzeko aldarrikapena kudeatzea.

2.2- Justizia

Helburua:

Justizia izateko eskubidea, zalantzarik gabe, nazioko edo nazioarteko edozein antolamendutan sakonki sartuta dagoen eskubidea da. Gure herrialdean eskubide hau epai naturalaren jarraipenaren printzipioarekin kualifikatzen da, komunitatearen erauzketarekin eta bere botere jurisdikzionala aplikatzen duen tokiarekin. Horrenbestez, euskal administrazio

baten eraketa sustatu behar da, politizatu gabeko justiziarekin, modernoa, eraginkorra, euskalduna, eta epaitutakoa exekutatuko duena Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako instalazio zehatzeko epaitegi eta auzitegietan. Hain zuzen, arlo honetan asmorik nagusiena eskumen jurisdikzional hori exekutatzea izango litzateke, antolamendu desberdinetako (zibila, administratiboa, penala eta soziala) euskal legeak betez eta betearaziz. Alor batzuean boterea daukagu eskura. Baina beste batzuetan mekanismoak gaitzea beharrezkoa da, poliki-poliki eskumen horiek geure gain hartzeko.

Oztopoak:

- Justiziaren arloan ditugun eskumenak oso mugatuta daude. Soilik "justizia administrazioaren administrazioa"; hau da, oinarrizko kudeaketa zerbitzuak. Ardura jurisdikzionaletan jarduten dutenak "gorputz nazionalak" dira, gaikuntze eta estatuko obedientziazkoak. Beste oztopo bat da euskal gobernuek barneratu egin dutela euskal administraziotik at duten kontsiderazio hori. Eta automugaketa horrek kudaketa, laguntza eta izapidetze taldee

- Legebiltzarreren egungo legezko jarduera hondakinezkoa da, eta antolamendu zibil edo administratibora mugatzen da, horietan baitugu eskumena. Baina ez ditugu guztiz zabaltzen eskumen horiek.

- Justiziaren administrazioaren mehatxu zentralizatzaile edo despublifikatzaileak (tasa judizialak, doako justiziaren murrizketa, edo erregistro zibilen pribatizazioa) arestian aipatutako nahiaren kontrako noranzkoan doaz.

Neurriak:

- Aurre egin beharreko lehen erronka izango da legezko euskal aldamioak eraikitzea. Horretarako, antolamendu zibil eta administratiboko eskumenetan sakondu behar da, eta antolamendu penal eta sozialera nola zabaldu eztabaidatu behar da. Gernikako Estatutuaren 14.1 artikuluaren interpretazio zabalak legezko eskumenak zabaltzera eraman beharko gintuen, Euskal Herriko erakunde jurisdikzionalen ekintzaren oinarri gisa.

- Halaber, beharrezkoa da euskal indar politikoekin itun bat sinatzea, sektoreko profesionalen aldeko iritzia jasota, bide judiziala agortzen duen oinarri judizial bat ezartzeko aukerari eta bideragarritasunari buruzkoa; euskal epai eta magistratuen barne antolamenduari aurka egingo diona, funtzio jurisdikzionalaren errektore-egitura gisa, eta bere kideen alde egingo duena; Euskal Ministerio fiskal baten boterea baloratzea, independentzia, legezkotasuna eta objektibitatearen interes orokorren alde egingo duena.

- Kudeaketa, izapidetze eta laguntza eta defentsa judizialaren tresnak defendatzeari buruz sakondu behar da, eta zerbitzu horiek eskaintzeari buruz ere, ez parekatze erregimenean, berdintasun erregimenean baizik, euskal administrazio orokorreko langileei dagokienez.

- Ahal den guztia egin behar da erregistro zibiletako zerbitzuak pribatizatzeko asmoen aurka, eta euskal zerbitzu publikotzat hartzeko aukeraz baliatu behar gara, nazionalitate, auzotasun, nortasun, egoera zibil eta pertsonaren gainontzeko egoera guztiei dagokien izen-emate eta publizitate funtziotzat.

- Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Institutua sustatzen duen gobernu jarduera bat, zerbitzu publiko, moderno, eta eraginkor gisa, bikaintasunean oinarrituta eta langileen lan baldintzak bermatuz.

2.3.- Segurtasun publikoaren Euskal eredu berria

Helburua:

Polizioaren funtzioen parametro klasikoak aldatzea gizartearen itxaropena da. Nahi duguna da segurtasuna bermatuko duen zerbitzu batekin ordeztea, ez soilik errepresio eta erreakzio funtzioa duen zerbitzu bat edukitzea; aldiz, eskubide eta askatasunen jardueran prebentzio eraginkorra bermatuko duena.

Oztopoak

- Lehen oztopoa da segurtasunaren mapa kaotikoa. Lehenik eta behin, polizia gorputz desberdinen sedimentazio historikotik eratorritakoa, interes alderdikoietatik eratorritakoa, zerbitzun eraginkor logiko batetik baino. Bestetik, segurtasunaren pentsamendua generalizatzeagatik. Pentsamolde horrek, gainera, poliziak segurtasun gaitasun guztiak bere gain hartzea garama, prebentziozko gaitasunetatik eta larrialdi egoerei aurre egitekoetatik, errepresiboetara.

- Gurutzatutako funtzioak, eta beste gorputzen gain nagusitasuna duten gorputz desberdinen ikusmolde hori bata bestearen gain dauden eskumenen antolatu gabeko abanikoa izan da, arautu gabeko eskumenak, inertzia bide zehaztutako haitasunak, gertakarien indarra, inposaketarena ez denean.

- Zuritu gabeko inflazioak bere alderdi kuantitatiboan (Europako gomendioak hirukoizten dituzten ratioak) erreforma bat egiteko barne erresistentziara garamatza, gaur egun

lan egiten duen langileen kopuruaren eta zerbitzuaren arteko koherentziara. Ratio horiek mantentzeko segurtasun gabeko hitzaldiak sustatzen dira “pertzepzio subjektiboak” edo “herritarren eskaerak” larriagotzen dituztenak.

- Menpekotasun eta hierakia jarrera bat dago segurtasun zerbitzu desberdinak eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, euren artean banaketa funtzional koherente eta eraginkor bat eduki arren. Gainera, gertakari horrek estatus hoberena duen agentzia (Ertzaintza kasu honetan) beste funtzio edo eginkizun batzuk fagozitatzera eramaten du, orokorrean, segurtasun sistemari eraginkortasuna ematen dioten funtzioak. Bide horrek prebentzio eta larrialdi zerbitzuen, eta polizia gorputzen (Ertzaintza, Udaltzaingoa) arteko deskoordinaziora eramaten gaitu, bere jatorria eta eragina ikuspegi orokor estrategikorik gabe.

Neurriak:

- Beharrezkoa da hausnarketa prozesu bati aurre egitea, egungo kontzeptziotik, segurtasuna helburu gisa duten herritarrak segurtasun zerbitzua eskatzen duen subjektu aktiboa izan ordez, segurtasunean parte hartzen du ikuspuntu komunitario eta aktibo batetik. Segurtasuna herritarrentzat, eta beraien interes eta lehentasunek ezarriko dute polizia-ekintza.

- Prebentzio funtzioak berriz interpretatzea herritarren beste arreta eta zerbitzu batzuetatik, honako arlo hauetan: baztertze egoerak saihestea, laguntza soziala, emakumeen aurkako indarkeria, delitu ekonomikoen jarraipena, iruzur fiskalak hautematea, ustelkeriaren aurkako borroka, ingurumena mantentzea, hezkuntza, bizikidetza sustatzea, ardura komunitarioa, gobernantza parte-hartzailearen irizpideak...

- Gobernuak estrategia plan bat eratu behar du, garrantzia handiko legegintza-erreformak erantsiz, segurtasun publikoaren eredua argitzeko, kriminalitate tasetara, larrialdi-beharretara, gure lehentasasun. eta baliabide tekniko eta ekonomikoetara egokitutako eskema bati jarraikiz. Beharrezkoa da funtzioak eta eskumenak berrezartzea modu arrazionalean. Horrela segurtasun zerbitzua polemika iturri izan ordez, gizarte-egiturako elementua izango da.

- Estatu Indar eta Gorputzak arian-arian ateratzea sustatu behar da. Segurtasun Batzarraren elkarrizketa bat lehentasunezkoa da errepideetako kontrolak, eraikin publikoetako zaintza funtzioak edi Estatu Segurtasun Gorputzen presentzia soila murrizteko, ez baitute inongo eginkizunak herritarrei segurtasun eraginkorra eskaintzerakoan.

- Egungo polizia agenteen ratioa murrizteko plan bat diseinatu behar da (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) segurtasun behar eta aurrekontu-egoera errealen arabera. Halaber, gober-

nuak proposamen bat egin behar du egungo ratioak aldatzeko (gaur egungo bi ertzainako udaltzaingo bat dago). Planteamendua gertuko polizia bada, hori udaltzaingoz osatuta egongo da, polizia komunitarioaren basea eta guztiz hornitutako gertukotasunarekin. Ertzaintzak eskema honetan esku-hartze osoaren papera hartuko du, mugatuagoa, baina, aldi berean, zehatzagoa eta eraginkorragoa.

- Babes zibileko, larrialdietarako, suteak saihesteko eta salbamendurako zerbitzuei koherentzia emateko eta horiek egoki hornitzeko programa bat zehaztu behar da, gaur egun koordinaziorik ez dutelako eta ikuspunturik gabe. Beharrezkoa da egungo piramideari buelta ematea, oinarrian erreakziozko poliziarekin, eta prebentzio-zerbitzuak oso urriak direnak.

- Segurtasun ereduaren alda honek ere poliziaren funtzioetan balioak aldatzen ditu: praktika militarizatu eta autoritarioak aldatzen ditu ardurak partekatzeko eta zerbitzu eta gizarte konpromisoak hartzeko zerbitzu batengatik. Halaber, polizia profesionaltasun printzipioen bidez kudeatu behar da, oinarr gisa ibilbide profesionala hartuz eta ez ideologia edo babes irizpideak. Plantilaren mugikortasun altua eta langileen okupazioa zerbitzuen batzordeetan, lan egiteko modu horren adierazleak dira.

- Azkenik, eta garrantzi berarekin, beharrezkoa da polizia-abusuen aurkako mekanismo zorrotzetan sakontzea. Horretarako, kontrolatzeko kanpoko batzordeak sortu behar dira, herritarren parte-hartzearekin eta gardentasun eta berri emateko irizpide argiekin. Polizia gorputzen gardentasun mekanismoetan sakontzea, ekintza polizialen ardurak modu egokian hartuta eta praktikan egiaztatu eta frogatu daitezkeen irizpideak azalduta. Halaber, bide judizialetik eta disziplinaletik behar diren neurriak hartu behar dira langile publikoek giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak urratzen dituztenean. Agintean duen edonor, gizarte baten ordezkari gisa, gizartearen aurrean arduraduna da, aginte hori erabiltzeagatik.

2.4.- Espetxeetako euskal sistema

Helburua: Euskal gizartea heldua da zigorrak ezartzeko beste sistema bat jartzeari aurre egiteko, atxilotuen eta gizartearen arteko iragazkortasuna sustatze aldera. Horretarako, erregimen itxia murriztuko da eta gizarteratze bide berriak erraztuko dira, Europako kartzela-aldi tasetara gerturatuz.

Oztopoak:

- Zalantzarik gabe, Espainiako agintariek Gernikako Estatutuan jasotako espetxeetako eskumena ez betetzea da oztoporik nagusiena. Ukapen horrek bi alde aurkezten ditu: agintari nagusien jarrera, aukera politikoak legez beharrezkoa den transferentzia baten aurretik jartzen dutenak. Baina nabarmendu egin behar da aurreko bi euskal betearazleeen jarrera, eskumen honi dagokionez. Erakargarria ez zela esan zuten edo ez zuten bere garrantzia politiko eta soziala aintzat hartu; ez zuten egiazko konpromisorik hartu, ez zuten erreklamaziorik jarri edo gogo askorik gabe egin zuten, eta gogoz eskatzen dutenen aurrean espedientea betetzeko.

- Halaber, ez herritarren arteko eztabaidarik sustatu espetxeen baitan: zer izan behar du espetxeak, helburuak, egungo espetxeetako sistemak beste aukerarik ote duen, aukera horiek euskal erakundeek martxan jarri ahal dituzten eta nola. Arlo horretan lan egiten duten elkarteak askotariko murrizketa eta onarpen ezarekin topatu dira.

Neurriak:

- Ez da atzeratu behar eztabaida publikoa, erakundeek sustatutakoa. Halaber, parlamentuko hizlariek hitz egin lezakete, beste esperientzia batzuk aztertzeko, eta egungo espetxeetako ereduaren beste aukera bat ezartzeko aukera ikertzeko. Eztabaida horretatik atera beharko litzateke espetxeetako euskal politika bat.

- Pauso tangentzialak eman dira, non euskal administrazioa espetxean sartu den: espetxeetako osasun- eta hezkuntza-eskumenari buruz ari gara. Beharrezkoa da galdera hauek egitea: egokia al da kudeaketa? Gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten presoen laguntzan, tratamenduan eta kartzelatik ateratzean nola sakondu behar dugu? Nola hobetu dezakegu hezkuntza, lanbide heziketa, heziketa okupazioanala espetxearen barruan? Palanka egiterik al dago eskumen horietatik presoen eskubideak eta interesak babesteko, osasuna eta hezkuntza eskubidea izatetik haratago?

- Beharrezkoa da kontrolatzeko eta monitorizatzeko mekanismoak jartzea, espetxeetako langileek presoak nola tratatzen dituzten ikusteko, Nazio Batuen Erakundeko eskumeneko protokoloak garatze aldera, Basauriko, Martuteneko eta Zaballa-Langraitzeko espetxeetan giza eskubideen urraketa edo torturak saihesteko. Halaber, beharrezkoa da langile horien kontrola edukitzea; bereziki, giza eskubide eta laguntza programen arloan euren formazioan eta gaitasunan esku-hartzeko.

- Erregimen irekiko pertsonekin lan egiten duten erakunde sozialekin sinergiak bilatu behar dira, txertatze laborala, soziala eta laborala babesten dutenekin, eta presoen bizi duinerako baldintzak sustatzen dituztenekin.

- Azkenik, beharrezkoa da hausnarketa hauek jendartearekin partekatzea, atxiloketak, zigorrak eta espetxeen funtzioa, mekanismo berezia dela barnera dezan. Espetxeetako sistema espetxearen iragazkortasunean oinarritu behar da, presoak eta jendartea harremanetan jartzen ahalik eta lasterren eta modurik eraginkorrenean.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

ASKATASUNA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**



Partehartzea eta gardentasuna

KOKAPEN OROKORRA

Herritar askeak, herri aske batean...

Euskal Herriarentzat herri proiektu bat berreraikitzean ezin ditugu honakoak alboratu: mundu zabalean sustraitua den kapitalismo basatia -tentsio geopolitikoak, berdintasun ezaren areagotzea, eta ekologiaren kolapsoa-, gainbehera egin duen EB eta frankismoaren inpunitatean, ukapen nazional, sozial zein demokratikoan eta eliteen arteko itunetan oinarritutako Espainia bakarraren eredua, izan zen trantsizio modeloa. Egun bizi dugun "zibilizazio krisi orokorra" ondorio duten nazioarte, Europa eta estatu mailako faktoreak direlarik. Guregan eragin zuzena duelarik esparru politiko, soziala ekonomiko eta kulturalean.

Egungo sistema politikoa, erabat kuestionatua eta deslegitimatua da. Demokrazia ordezkatzaile formala, botere elite batzuen onuretara bideratua da eta euren interesak dira nagusi erabaki guztien emaitza; bahiketa, burujabetza nazionalaren eta metaketa gehiengo sozialen desjabetzearen bizkar gauzatuz. Herritarron beharretatik gero eta aldenduagoa den eredu elitista, autoritario eta teknokratak nagusitu dira.

Beraz, herri proiektu partekatu baten osaketan, herri baten ahotsak, herri baten beharrek, herri baten nahiek, ... dute protagonismo OSOA. Herri proiektua osatzean herritarrak protagonista dituen PROIEKTUA NAHITAEZKOA DA. Alegia, herritarrek erabaki egin behar dute, beren buruaren jabe izateko tresnak behar dituzte eta erabakien subjektu izan behar dute. Horretarako, parte hartzea eta gardentasuna ezinbesteko printzipioa, filosofia eta lanabesa dira. Euskal Herriaren etorkizuna zein den erabakitzeaz ari gara, eta horrek bere baitan dakar, bereziki eguneroko bizitzarekin zerikusia duten arazo eta aspektuak, guztien ona eta ondare publikoaren kudeaketa kontuan hartzea.

Parte hartzea eta gardentasuna ez dira soilik administrazioari edo botere publikoei dagozkien eskakizunak. Indar politikoek, eragile sozialek, herri edo gizarte mugimenduek ere erronka handi bat daukagu horretan, ez soilik aldarrikapen gisa, baita praktika gisa ere: demokrazia zuzenerako guneak, lankidetza sozialerako sareak eta demokrazian sakontzeko esperientziak ahalbideratuz..

HERRIAREN EGOERA

Egungo sistema, esparru guztiak eragiten dituen etengabeko krisian bizi da. Kudeaketa neoliberaletik abiatutako kudeaketa eredu elitistek Euskal Herrian eta mundu osoan sortutako krisiak – pribatizazioak, ate birakariak, publiko-pribatu kontzertazioa-, herritarrak kaltetzen ditu, boterea eta aberastasuna gutxi batzuek esku egoten jarraituko duela segurtatzeko, gehiengoaren ongizatea xahutuz, etorkizuna hipotekatuz eta bizitza zein lan baldintzak kaskartuz. Eredu plutokratiko hauek jendarte apal, otzan eta menderatua eragin nahi dute; kontrolik eta gardentasunik gabeko inposaketa ekonomiko eta politikoan oinarritutako eredu ilunak ahalbideratzeko. Honi guztiari, noski, zera erantsi behar zaio: nazio gisa dagokigun subjektu politikoaren ukapena. Beste batzuk erabakitzen dute gure izenean.

Boterearen egitura politikoak, dinamika instituzionala eta kudeaketa burokratikoa, dagoeneko erabat irmoak dira, eta herritarrei arrotzak zaizkie. Erabakiguneak herritarren eguneroko espasrruetatik kanpo geratzen dira, eta gauzak herritarrak kontuan hartu gabe, jendarteari bizkar emanez egiten direla, hedatutako sentsazioa da. Gardentasunaren izenean ekimenak ugaritu diren arren, benetako neurri eta aldaketarik ez da eman trantsiziotik jaso dugun egituraketa administratibo tradizionala bezain zaharkituetan. Gardentasun ezaren egituraketa administratiboak ditugu eta euren kudeaketak herritarren esku-hartze aukerarik ez dute ematen. Hautesle formal, ikusle pasibo eta kontsumitzaile zintzo gisa besterik ez gaituzte nahi.

Hala ere Euskal Herrian, sozialki historia eta tradizio handia duen “auzolana” eta “komunitateak” ditugu. Sozialki oso barneratua dugu autoeraketa, ekimen soziala eta elkarrekin egindako lanaren bidez herrigintza egitea. Mugimendu eta elkarte sare handi, errotu eta biziak ditugu. Gure benetako indarra, lanerako balore eta praktika hauen baitan kokatzen da, herri proiektu batek jaso zein sakondu beharreko eguneroko demokrazia sare horietan.

Diagnostikoan aintzat hartu beharreko bestelako hainbat ideia aipatuko ditugu ondoren:

Herri proiektua osatzen, subjektu diren herrialdeak.

Kontuan hartzen badugu lurralde bakoitzaren askotariko eta bestelako ezaugarriak desberdinak direla, lurralde bakoitzaren diagnostiko berezko, autozentratu eta zehatza egin beharko litzateke oinarrizko demokraziari, parte-hartzeari eta gardentasunari dagokionez.

Lurraldeak elkarrekin lotzen dituzten zubiak eta loturak eta herrialdeen elkarrekiko ezagutza ahultzen ari dira. Herrialde gisa, hainbat proiektu estrategikok, kultura-ekimenek, herri -sarek eta lankidetza-dinamikak herritar guztiak biltzeko eta behetik hasita berreraikitzeko aukera ematen digute, baina aukera horiek guztiak indartu egin behar dira eta beste berri batzuk sortu behar dira.

Herri proiektua osatzen, burujabetza OSOA.

Errezentralizatzearen estrategia espainolistak eragiten du gero eta eraso handiagoak pairatzea guri dagozkigun eskumen-esparruetan, eta hemen onartutako edozein legeri errekurtsoak jarriz erantzuten dute. Daukagun horri eusteko ere guk uste dugu jarraitu behar dugun bidea urratsak egitea dela subiranotasunari dagokionez. Subiranotasuna herrialde gisa eta subiranotasuna gure bizitzekin, gure ongizatearekin eta gure eguneroko bizitzarekin lotutako gaiei buruz erabakitzeko eskubidea izateko herritar gisa, eskubide horretan protagonista izateko dugun eskubidea inork ukatu eta kendu gabe.

Herri proiektua osatzen, gardentasuna/ informazioa eta Gobernu Duina.

Ustelkeria erakunde-arloko tolerantziazko giro batean gertatu da, behin eta berriz zigorrik jasotzen ez den eta isiltasunaren lege hitzartuaren testuinguruan, non interes ekonomikoek eragiten duten eta kontrol publikoa eta monitorizazio soziala lortzeko mekanismoek huts egiten duten. Gure herrialdean Espainiako ustelkeriaren tsunamitik urrundu ez garen arren, ustelkeria demokratikoa –lege itxurakoa– dagoela aipatu behar dugu, austeritatearen doktrinapean gizarte-zerbitzuak degradatzen dituen, publikoa dena pribatu bihurtzen duen, bizitzaren kostua garestitzen duen eta hainbat eta hainbat urtetan borroka eginez lortutako gizarte-eskubideak merkaturatzen dituen ustelkeria, hain zuzen ere. Eraso neoliberal horrek erregimeneko alderdien legez kanpoko finantzaketak zerga-iruzurraren industriak, higiezinen inguruko espekulazioak, burbuila finantzarioek edo elite globalen diruzalekeriaren kulturak bezainbeste usteltzen du demokrazia. Ez bada aldaketa sakona eta inertzia inbertitzea lortzen, errealitate hori orokortu egingo da. Izan ere, parte-hartzerik, gardentasunik, argirik eta takigraforik gabe ustelkeriaren egiturazko tentaldiaren lurra ongarritzen da. Eta gehiengoaren ongizatea kaltetzen jarraituko da, baita gizarte-eskubideak murrizten eta gehiengoaren ongizatea degradatzen ere.

Administrazioan parte hartzeko prozesuak eta dinamikak ohikoagoak dira, baina ez dira nahikoa, jakina; izan ere, batzuetan itxura hutsa, prozedurazko betetzeak edo marketin hutsa izaten dira. Oraindik ere asko dugu aurrera egiteko. Egia da urrats praktiko eta zuzenak ere egin direla, baina, oro har, Euskal Herriko egoera oso pobrea da gaur egun. Higiezinen burbuilak herritarrek baino erabakitze-ahalmen handiagoa du, eta demokrazia bi eremu pribatu horietara deslokalizatzen da, eremu horiek modulatu, definitu, aldatu eta erabakitzen baitute benetan gizartearen etorkizuna.

Herri proiektua osatzen, parte hartze kultura.

Zaila da gardentasuna eta kultura partizipatiboa indartzen duten prozedurak ondo ezagutzea. Zaila da, era berean, Euskal Herrian gauzatzen diren prozesuen arteko trukea gauzatzea. Ez dago jardunbide guztien sistematizaziorik zentzu horretan. Horregatik, gizarte-autonomian, herri-autokudeaketan eta erradikaltasun demokratikoan oinarritutako jardunbide guztiak bildu, partekatu eta indartzen lagunduko diguten esparruak eta tresnak behar ditugu. Adibidez: Alternatiben Herria, Errigora, Korrika, herriz herri egiten diren kontsultak, auzoetan eta herrietan parte hartzeko antolatzen diren jaiak…

Eratutako edozein botereri beldurra ematen dion kultura partizipatiboan dago aukera demokratikoa. Zorionez, paradigma aldatzen ari da, guk ezagutu ditugun elkarteetan eta boluntario talde askotan eta gizarte-ekimen asko definitzen dituen sareko lanean ikusi ahal izan dugun bezala. Esperientzia horiek ez dute beste norbaiten esku uzten, parte hartzen dute, ez dute itxaroten, jardun egiten dute; eta gizarte-harremanak aldatzen dituzte, gizarteak harremanak izateko, parte hartzeko eta herritarrak sustatzeko modu berriak sortzen dira, eta modu berri horiek, ireki egiten dute, behetik, erregimenak goitik itxi nahi duen hori.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Iritsi da erabaki handi eta txikiei dagokienez herritarrak kalean nahiz erakundeetan ahalduntzeko garaia. Aliantzen politikak egiteko garaia da, baita agente eta gizarte-mugimendu guztiekin koordinatuta lan egiteko eta kultura demokratikoa hedatzeko garaia ere; urte asko igaro baitira demokrazia mugatua, pasibotasun planifikatua eta herritar klasearekiuko politika-bazterkeria nagusi zirela.

Bestalde, parte-hartze demokratikoa balio feministetatik abiatuta eta berdintasun-baldintzetan oinarrituta hedatu behar da: horizontaltasuna bertikaltasunaren aurka, elkarrizketa ezarpenaren aurka, lankidetza lehiakortasunaren aurka, neurona testosteronaren aurretik, boterearen harreman desberdinak zalantzan jartzea eta lankidetza indartuko duten protagonismo kolektibo berriak.

Herri proiektua, herritarren proiektua.

Parte hartzea eraldaketa lortzeko tresna gisa, herritarrak ahalduntzeko prozesu gisa. Herritarren partaidetzak aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria, benetakoa, eraikitzailea eta eraldatzailea izan behar du. Berdintasunaren ikuspegitik, egiturari dagokionez diskriminazio-egoeran dauden sektoreen hitzari lehentasuna emanez.

Parte hartzeko kultura gure egunerokotasunean sartzea lortu behar dugu. Gure herrialde-proiektuaren indarra proiektu hori bilatzeko bidean lortzen ditugun laguntzak adinakoa izango da. Gure erronka honako hau da: eskubide osoko subjektuak izatea eguneroko gaietan nahiz gai estrategikoetan erabakiak hartzeko. Erantzunkidetasunean eta herritarren partaidetzan oinarritutako kultura lortzeko bidea egiten jarraituko dugu, ordezkatze-kulturatik urrun.

Autokudeaketak herritartasun aktiboaren sarea bermatzen du. Horregatik, onartzen dugu asko zor diegula herri-mugimenduei. Urte askotan erakutsi baitigute autokudeaketa oso aberatsa dela kolektibo batean lan egiteko garaian. Horregatik, orain herri-mugimenduetako agenteekin egindako talde-lana sustatu behar dugu eta elkarrizketarako dinamikak eta dinamika horien arteko antolaketa indartzen lagundu behar dugu.

Herri proiektua, gardentasuna.

Erakundeak demokratizatzeko eta desburokratizatzeko, dagoen erronkarik handiena egungo egitura aldatzea da. Erakundeen ateak eta leihoak ireki behar ditugu; horretarako, jarrerak eta kultura dirigista aldatu behar dira, araudiak sakon egokitu behar dira eta zintzotasunaren etika partekatua lortzeko aurrera egin behar da. Egiturazko aldaketa da, zalantzarik gabe. Erakunde-lanak gardentasuna izan behar du jardunbide eta bandera gisa, eta erakunde publikoetan lan egiten duten pertsona guztiek nahitaez bete beharreko jokabide etikoko kodeei eta gardentasun-eskakizunari lotuta egon behar dute.

Politika ezin da aberasteko modu bat izan, eta, hori saihesteko, prebentzio-neurriak, kontrol-neurriak eta errebokatze-neurriak sortu behar dira, ordezkari politikoak herriarentzako benetako langileak izan daitezen.

Pertsonek erabakitzeko duten gaitasuna berreskuratzeko, informazioak egokia, osoa eta gardena izan behar du beti. Ezinbestekoa da, alde batetik, kolektiboek gogoeta egiteko, eztabaidatzeko, eta erabakiak hartzeko baliabideak antolatzea eta ematea, eta, bestetik, erabakiak hartzeko prozesuak eraberritzea, dagoeneko aukera sorta zabala –kontsulta, topaketa, inkesta, erreferenduma– duten eta demokrazia digitalean euste-puntu gehigarri bat aurki dezaketen prozesuak, alegia.

Politika publikoak diseinatzeko garaian, ezinbestekoa da herri-ekimenetik sortutako gune autonomo kolektiboak eta gizarte-prozesuak errespetatzea, aliantza zabalak antolatzeko, herritarren parte-hartzea hedatzeko eta erakunde publikoek gobernatzeko erabiliko dituzten modu elitista eta burokratizatuak gainditzeko, gutxi batzuek –kudeaketaren eta efizientziaren diskurtsoaren iruzurrean babestuta– erabakiak ez hartzeko guztien ordez.

- Horrenbestez,

Ezinbestekoa da aro politiko berri bat irekitzea, garai bat non aldaketa politiko eta sozialari dagokionez, erronka nagusiaren ardatza gehiengo sozialek erabakitzeko duten gaitasuna izango den. Lehendik egindako bidea berriz egin behar dugu eta berriz ikasi behar dugu gure ezagutza ez ezik, berrikuntzari, sakontasunari eta erradikalizazio demokratikoari buruzko nazioarteko esperientziak ere oinarritzat hartuta. Herritarrei hitza eta erabakiak hartzeko aukera itzuliko dizkieten prozesu erabakitzaileak irekitzeari buruzko eztabaida da gakoa, inboluzio demokratikoaren aurkako testuinguruan, non egiten dena –hartutako erabakia– egiten den modua –prozesua– bezain garrantzitsua den. Euskal Herrian politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko demokrazia osoa behetik gora eraikitzeko, ahalik eta kapilaritate handiena –hau da, eztabaida azken txokoraino iristea– proposatzen

dugu, eta testuinguru politiko eta sozioekonomikoaren premiak kontuan hartuta, uste dugu demokrazia oso horrek gutxienez honako lan-ildo hauek hartu beharko lituzkeela kontuan:

- Lan-arloko politika eta eredu sozioekonomikoa, gizarte-eskubideak babesteko.

- Zerga-arloko politika, aberastasuna birbanatzeko eta iruzurrari aurre egiteko.

- Eredu publiko, demokratiko eta partaidetua erakundeen eta administrazioaren alorrerako.

- Hezkuntza, hizkuntza eta kultura, komunitatearen egitura gisa.

- Parekidetasun eta zainketen ekonomiari buruzko politikak.

- Makroproiektuak, azpiegituren eredua, eta energia-subirautza.

- Espainiako eta Frantziako estatuekiko harreman-esparruak eta Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanak.

- Herrialde gisa ditugun eskubideak berreskuratzea.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

PARTE HARTZEA ERALDAKETA SOZIALAREN MOTORRA.

- Parte-hartzean oinarritutako jardunbide eta prozesuak sistematizatu, gizarteratu eta indartzeko bulego bat sortzea. Euskal Herrian zein nazioartean ematen diren parte-hartze prozesu guztiak biltzea, artxibatzea eta aholkularitza eta kudeaketarako bulego/elkarte/mankomunitate bat sortzea. Nazioarteko esperientzia interesgarriak biltzeko aukerarekin.

- Zuzeneko demokraziarantz.

Egungo egitura eta oztopoen gainetik, herritarren eta mugimenduen zuzeneko parte-hartzea ziurtatzea, autodefentsa demokratiko kolektiboan eta eliteen aurreko kontraboterean oinarritutako logikari jarraikiz.

Sare sozialaren eta asoziatiboaren arteko harremanak sendotzea, eta gizartea eraldatzeko eragile gisa duten zeregina edo autonomia onartzea. Gizarte-mugimenduen –eskarien antolatzaile kolektiboak diren heinean— eta herritarren benetako parte-hartzea bermatzeko politika, kanal eta bitartekoak eskaini eta erraztea.

Herritarrak parte-hartze prozesu guztien erdigunean jartzea: jendeak erabakitzen du.

Herritarrei hitza ematea, kolektibo kaltetuenei eta egiturazko diskriminazioaren arriskuan eta desberdintasun kronifikatuaren egoeran dauden sektoreei lehentasuna emanez. Inoiz ez gehiago jenderik gabe.

Herriz herri, herritarrak parte hartzeko esparru berri bat garatzea, herritarren protagonismo zibila eta soziala bermatuz. Esparru horren barruan hainbat aukera metodologiko bildu beharko lirateke, eta eztabaidatzeko, kontsulta egiteko, erabakitzeko eta antolatzeko mekanismoak bideratu.

- Parte-hartze prozesuak irekitzea zor publikoari, ingurune ekologikoari eta interes kolektiboei eragiten dieten azpiegitura eta inbertsio ekonomiko handien kasu guztietan. Parte-hartze prozesu bakoitza garatzeko aldez aurreko fasean, jarraitu beharreko metodologia zehatzak adostu beharko dira, goian dauden gutxi batzuei parte-hartzearen mugak zehazteko eskumena kentzeko, eta herritarrek, eraginpeko sektoreek eta inplikatutako mugimenduek parte-hartzearen diseinuan parte hartzen dutela bermatzeko.

– Orain arte gizartearen parte-hartzerik gabe egin diren proiektuak berraztertzeko bidea ematea. Berraztertzeko diseinua adostea.

- Parte-hartzean oinarritutako hezkuntza bultzatzea, demokrazia etxean, eskolan eta kalean ikasten delako.

Parte-hartzean eta ondare publikoaren eta guztion ondarearen defentsan oinarritutako unitate didaktikoen erabilera bultzatzea.

Parte-hartze prozesuetarako behar diren tresnak ematea.

Parte-hartze prozesuen bulegoaren/elkartearen/mankomunitatearen eta hezkuntza-eragileen arteko akordioak egitea, irakaskuntza-zentroetan parte-hartzean oinarritutako kultura sustatzeko.

Ikasleen artean parte-hartzea bultzatzea, baita, aldi berean, ikasteko, irakasteko eta elkarlanean aritzeko modu berriak bultzatu ere.

Ikasleek prozesu kolektibo gisa parte hartzen dutela onestea, eta, horretarako, irakaskuntza-zentroen eskura bitartekoak jartzea.

Hezkuntza herri osoaren erantzukizuna izanik, eskolaren eta herriaren arteko harremanean sakontzea, etika humanistan, gure historiaren ezagutzan, analisi kritikoan eta eztabaida kolektiboan oinarritutako hezkuntza-filosofia batetik abiatuta.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN BERREGITURAKETA

- Administrazio publikoen demokratizazioa, nepotismoaren eta desparekotasunean oinarritutako botere-harremanak, sektore boteretsuen nagusitasuna eta logika klientelarra, burokratikoa eta partitokratikoa gainditzuz. Euskal Herriko XXI. mendeko administrazio publikoari buruzko eztabaidak prozesu ireki, garden eta partekatua behar du, eredu publiko, sendo eta ireki batean amaituko dena, herritarren zerbitzuan eta gizartearen parte-hartzean oinarritua.

Administrazioen funtzionamendua eta antolamendua gardenak izan daitezen, kontrol efektibo, publiko eta sozialaren esparruak hobetu eta optimizatu behar dira, une oro informazioari buruzko publizitatea emanez, eta publizitate hori jendearengana hurbilduz erraz ulertzeko moduko hizkuntza erabiliz. Hobetzeko eta optimizatzeko ahalegin horrek fiskalizazio- eta ikerketa-organoetan ere eragin behar du, herritarren eta komunitatearen parte-hartzera irekitzeko bidean.

- Lurraldeko toki-erakundeetako sail guzti-guztiek herritarrek parte hartzeko planak zehaztu, landu, hobetu eta abian jarri beharko dituzte, pixkana-pixkana, herritarrengana irekitzearekin eta kudeaketan inplikatutako sektoreetara irekitzearekin batera.

- Aurrekontuei dagokienez, guztion baliabideek guztion parte-hartzea eta erabakia behar dute. Lehenik eta behin, herritarrei aurrekontuei buruzko informazioa eta prestakuntza eskaini behar zaie, ezinbestean, eta, hori ez ezik, premiak ere zehaztu behar dira eta guztion artean lehentasunak ezarri; orobat, gastua ikuskatu behar da, kontua emateko formula gisa. Horrek kultura politikoa aldatzea dakarrenez, parte-hartzean eta eztabaidan oinarritutako prozesuen bitartez egingo dira aurrekontuak.

- Administrazio publikoen webguneek gardentasunaren eta informazioa eskuratzearen alorreko indarreko legeria guztia betetzen dutela ziurtatzea, open datako inguruneetan oinarrituta –artxibo ireki eta elkarreragingarriak, software librean– eta gobernu irekietarantz aurrera eginez, non parte-hartzea, gardentasuna eta lankidetza berrelikatzen diren. Informazioaren bilaketa, administrazioarekiko harremana eta lankidetzazko gunean errazten dituzten tresnak indartuko dira webguneetan. Agenda publikoak, ondasunen eta interesen aitorpenak (erantzukizun publikoak hartu aurrekoak

eta ondokoak) kultura politiko demokratiko berri horren parte ere badira.

- Kargu publikoen aforamendua funtsezko askatasun politikoak baliatzeko babesera murriztea, ustelkeriazko eta bidegabeko eralgitzeko delituengatiko egozpena estaltzeko aukerarik eman gabe.

- Jokabide Kode Etikoak ezartzea, bakoitza bere araubide zigortzailearekin.

Ate birakariak saihesteko bete beharrekoak eta zigor, muga eta bateraezintasunak bilduko dira kode horretan. Berdintasunaren, inpartzialtasunaren, legezkotasunaren, errespetuaren, osotasunaren, kontu-ematearen, gardentasunaren eta modernizazioaren printzipioetan oinarritutako kode etikoa izango da.

- Kontratazio publikoak.

Klausula sozialak kooperazio publiko-soziala bultzatzeko adostasun publiko-pribatuaren aldean, eta legeria espezifiko bat ondorengo gainkostuak saihesteko.

- Ustelkeriaren aurkako bulegoa.

Osotasun-sistema bateranzko erakunde-arkitekturan bulego independente bat garatu behar da ustelkeria-jardunbide eta -arriskuak prebenitzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko eta faktore horiei buruzko prestakuntza eskaintzeko.

- Zorrari buruzko auditoriak.

Herritarren ikuskapen soziala tresna demokratiko berri bat bihurtu da, herritarren zerbitzuan, finantza publikoak monitorizatzeko eta xahubidea saihesteko, gastu publikoa kontrolatzeko eta irabazia saihesteko.

- HEL / ILP

Izapidetzea erraztuz, araudi erregulatzailea eguneratzea eta haren legebiltzar-eztabaida bermatzea.

- Administrazio publikoen organoak.

Agente sozial eta sindikalek eta mugimenduetako ordezkarien parte-hartzea bultzatzea, lan-batzordeetan bereziki.

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

ASKATASUNA

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Feminismoa

KOKAPEN OROKORRA

Patriarkatua egiturazkoa izanik, proposatuko dugun alternatiba feministak egiturazkoa izan behar duela sinistuta gaude. Horregatik, jarraian dagoen irakurketan gaien zatikatze bat egin badugu ere, etengabean proposamenen osotasuna, gaien arteko elkarreragingarritasuna eta zeharkakotasuna azpimarratu nahi ditugu.

Argi dugu emakumeok ez dugula kolektibo homogeneo bat osatzen eta, sustatu nahi dugun estrategia feminista eraginkorra izateko, aniztasun hori kontuan izan behar dugula uste dugu.

Azken urte hauetan krisiaz hitz egiten ari bagara ere, egiazko krisia sistemikoa eta alderdi anitzekoa da. Ezin dugu krisia amaituko dela esaten jarraitu, arazoa sistemaren oinarrian bertan dagoelako. Merkatuak eta irabazi ekonomikoa erdigunean kokatu dituen jendarte-egitura da gurea eta zainketen beharra daukan jendartea garela ezkutatzen du. Metaketaren logikari lehentasuna emateak bizitzaren iraunkortasunean jendarte-erantzukizuna egotea galarazten du. Honela, erantzukizun hori pribatizaturik (etxera mugatua), ikusezin bihurturik eta feminizaturik jarraitzea lortzen du.

HERRIAREN EGOERA

Eremu sozio-ekonomikoa:
Krisia, bizi baldintzen kaskartzea eta ditugun aukerak

Oro har emakumeak subjektu autonomo gisa aitortuak izan gara (maila ekonomiko, juridiko eta politikoan) eta eskubideen parekidetasunean aurrerapena eman da. Hala ere, azken urte hauetan, eskubideetan izandako lorpen horietako dezente kolokan daude, krisi ekonomikoaren aitzakia baliatuz hainbat neurri murriztaile ezarri direlako.

Hauek, genero rolak indartzeko eta gizon eta emakumeen arteko dominazio zein zapalkuntza ereduan sakontzeko helburua dute. Besteak beste, bizimodu guztiz prekarizatu eta zaurgarriak bultzatzen dituzte. Egoerarik larrienean gaur arte zaurgarrienak izan diren kolektiboak gaude: emakume etorkinak, etxeko langileak, baserritarrak, sexu langileak, lesbianak, presoak, transak, pentsionistak, aniztasun funtzionala dutenak, alargunak eta abar.

Lana soberan, enplegu duina faltan. Emakumeok, enplegurako sarbidea izan dugu eskubide horren alde eginiko borroka luzeari esker. Sarbide honek ordea ez du eragin etxe barruko lanen banaketan eta aitorpenean.

Egia da emakumeok ordaindu gabeko lan erreproduktiboei eskaintzen diogun denbora murriztu egin dela. Honek, lan horiek zerbitzuen sektoreak bereganatzea ekarri du. Merkaturatze honek ordea ez du eragin lan hauen aitortzan. Adibide nagusia, sektore honetako langileek dituzten lan baldintzak prekarioak lirateke.

Lan hauek gainera, emakume etorkinen eskuetan erori dira askotan eta zaintzen kate transnazionalak eratu dira honela. Zaintzen krisiaz hitz egin genezake beraz, egungo zainketak ez baitira gogobetegarriak, ez dira nahikoak, ez dira askatasunez aukeratuak izan bere egiten dituztenengatik (emakumeak batik bat) eta enplegu bezala dutenek ere egoera erabat prekario eta semi-esklabutza egoeretan topatu ahal ditugulako.

Emakumeak lan merkatuan sartu bagara ere eta akademikoki geroz eta prestatuagoak dauden arren, langabezian kualifikazio gehien duen kolektiboan gehiengoa izan dira. Honek erakusten du kapitalak ez duela emakumeen prestakuntza baliatzeko inolako borondaterik..

2011tik aurrera emakumeen jarduera eta enplegu adierazleek bilakaera negatiboa izan dute Euskal Herrian. Emakumeen jarduera tasa %68,4koa da gurean; Europar Batasuneko batez bestekoa gainditzen duen arren, erreferente diren herrialdeengandik urrun gaude -herrialde horietan, besteak beste kontziliaziorako sistema integralak jarri dituzte martxan. Bide batez, hemen ditugun kontziliazio neurrien hobekuntzan egitekoa dugula agerian uzten dute-. Aipagarria da, bestalde, lanaldi murritzeko kontratuen %80,9a emakumeei egiten zaizkiela.. Gure lan merkatuak, emakumea merkaturatzeko eta bere autonomia ekonomikoa bermatzeko eskaintzen dituen aukerak ez dira eraginkorrak (Gaindegia, 2014 uztaila).

Gakoa ordea, ez da zenbat emakumek lan egiten duten aztertzea; non eta nola egiten duten baizik. Emakumeok %25 (30 ere iritsi liteke) gutxiago kobratzen dugu gizonek baino, kontratu eskasagoen jabe dira eta goi karguetan ardura duten emakumeak oso urriak gara.

Gazteei dagokienean, aldiz, enplegurako sarbidea geroz zailagoa da. Gainerako adin tarteekin alderatuta gazteen langabezia tasa bikoitza da, %40 ingurukoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), etxeko enpleguaren sektoreko langileen gehiengo handi bat emakumeok osatzen dugu, haien bosgarren okupazioa delarik (merkataritza, ostalaritza, hezkuntza eta osasungintzaren ondoren). Emakume migratzaileentzat lan merkatura sartzeko bide nagusia da eta sektore horretako zaintzaileen %40 izatera iritsiz. Soldata-baldintzak oso prekarioak dira, bataz beste hilabeteko 570 €-ko soldata izanik. Langileen %82k irabazten duena ez da lanbide arteko gutxienezko soldatara iristen. Azpimarragarria da zainketarako zerbitzu publiko gehienak titularitate publikokoak baina kudeaketa pribatukoak direla.

Zainketa duinak guztiontzat. Zainketak ikuspegi zabal batetik ulertu behar dira, eta ez dira mendekotasunera mugatu behar. Pertsona guztiek bizitzaren momentu guztietan behar dituzte zainketak. Zainketa hauek duinak izan daitezen (eta ez beste batzuen zaintza eskasen kontura egindakoak); eskainitako eta jasotako zainketak dauden beharrei erantzun behar diete, kalitatezkoak (askatasunez aukeratuak) eta betegarriak izan behar dute. Zainketa duinak edo eskasak eskuratzea jendarte-bereizketarako funtsezko elementu bat da.

Jendarte patriarkalak, maitasun sentimenduak tarteko egiten diren zainketak lehenesten ditu, hau da, familiaren barruan eta emakumeok egiten duguna. Zainketek, ustez, emakumeok betetzen ditugu, haien izaeraren oinarria izango balitz bezala. Hala ere, emakumeen arteko mailaketa bat egiteko erabiltzen dira; emakume batzuk bidezko zaintzaile bezala onartzen dira, eta beste batzuei zaintzeko eskubidea ukatzen zaie: Sexu-langileei, lesbianei, transexualei, transgeneroei, eta dibertsitate funtzionala dutenei, besteak beste. Esate baterako, laguntza bidezko ugalketa-teknika jasotzeko edo adoptatzeko lesbianek egiten

dituzten aldarrikapenek aditzera ematen digute ez zaiela onartzen ama edo zaintzaile izateko zilegitasunik.

Feminismotik zaintza lanak birbaloratzeko lan egiten ari da azken urteetan. Zaintza lanak, jendartearen sostengu oinarrizkoak diren heinean, jendarte-antolaketa ororen erdigunean kokatzeko apustua egin da. Maila teoriko, ideologiko eta pixkanaka praktikoan ere neurri errealak exijitzen hasi dira.

Denbora afera politikoa da. Bakoitzaren denbora nola antolatzen den begiratuz gero, ezberdintasun nabariak aurkituko ditugu oraindik ere. Emakumeei dagokienez, enpleguan emandako denbora gehitu egin da, eta hein berean gutxitu da ordaindu gabeko lanean emandako denbora. Gizonek kontrako prozesua egin dute.

Lan karga orokorrari dagokionez, desberdintasuna pixka bat txikitu da. Hala ere, karga horrek handiagoa izaten jarraitzen du emakumeen kasuan.

Gizonek enpleguan ematen dituzte haien lan orduetako gehienak. Gizon askorentzako eginkizun bakarra ere bada oraindik ere. Merkatu-lanik egiten ez dutenean (langabezian edo erretiratuta daudelako), gizonetako askok ordaindu gabeko lanik ere ez dute egiten.

Hau oso ezohikoa da emakumeen artean. Emakumeak familiaren ongizatearen arduradunak gara. Merkatuko emakumeen presentzia bizi-zikloan zehar dituzten zainketa ardurengatik baldintzatuta mantentzen da. Hau ez da gertatzen gizonen artean.

Indarkeria matxista. Indarkeria matxistaren estadio desberdinak aztertuz gero, zuzeneko indarkeria (agerikoa dena) eta, egiturazkoa eta indarkeria soziokultural/sinbolikoa daudela (ezkutukoak direnak) jakin behar dugu. Aipatutako estadio desberdin horietan, goiko erpinean indarkeria zuzena dugu, errazen antzematen den indarkeria mota. Nahita egindako ekintza da, pertsona batek beste bati egindakoa. Indarkeria mota hau fisikoa, sexuala, psikologikoa edo/eta ekonomikoa izan daiteke.

Muturreko egoeretan, biktimaren heriotza ekar dezake. Estatistikei dagokienean, bikotekideek edo bikotekide ohiek eraildako emakumeen datuak baditugu ere, indarkeria zuzenaren beste forma batzuei buruzko datu gutxiago daude (indarkeria matxista pairatzen ari diren eta bere buruaz beste egitea erabakitzen duten emakumeak, edo sexu- erasoak jasan dituztenak...). Indarkeriaren formarik agerikoena izan arren, oso zaila da oraindik ere dituen eraginen zabaltasuna baloratzea.

Hautematen errazena den indarkeria mota izanik, gaitzespen publikoa lortu duen indarkeria mota da (ez bere adierazpen guztietan). Icebergaren teoriak azaltzen duen moduan, puntan dagoen indarkeria mota hau ikusgarria da, baina oinarri sendo (eta ikusezin) baten beharra dauka mantendu ahal izateko.

Arnaldo Otegirekin talde-lanean
Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Oinarrian dauden bi zeharkako indarkeria mota horiek sustengatzen dute beraz indarkeria zuzena. Hauetan, ez dago banakako egile edo jasotzailerik. Egiturazko indarkeria, desberdintasunetan islatuta ikusten dugu eta jendarte-egituraren beraren ondorioa da. Indarkeria kulturala edo indarkeria sinbolikoa beste indarkeria motak egotea justifikatu, zilegitu eta ahalbidetzen duena da. Hau da, indarkeriak funtzionatzeko, beharrezkoa da indarkeria hori zuritzen duen jendarte bat. Sektore desberdinen bidez bultzatuko da ikuspegi hau; erlijioa, hizkuntza, komunikabideak, familia, hezkuntza, eta abar.

Indarkeria pairatu duten emakumeei laguntza eskaintzen dioten zerbitzuetan, hauen biktima-izaera gehiegi nabarmentzen dela azpimarratu nahiko genuke. Arreta ingurune hori asistentzia-izaerakoa da eta beraz, ez du emakumeen jabekuntza apenas bultzatzen. Gainera, lehentasuna eman zaio salaketak jartzeari, eta ezinbestekoak izan daitezkeen arren, askotan emakume salatzaileentzat desjabekuntza bultzatzen dute.

Ingurune bizigarriak. Ingurunea bizitza garatzen den espazioa da. Naturaz gain, ingurunearen barruan herriak eta bertan dagoen guztia sartzen da; azpiegiturak, eraikinak, mugikortasun-bideak, jendarte-giroa, bizi-estiloa... Ingurunearekiko daukagun harremana ustiapenekoa da, ez elkar harremanekoa. Hiri eta herri askotan, azken esparru horri ematen zaio lehentasuna: lan egiteko diseinatuta daude eta ez bizitzeko.

Hiri eta herrien antolaketak eredu dikotomikoari erantzuten dio, espazio publiko VS. pribatuk, maskulino VS. femeninori erantzuten dio. Espazio pribatuari, orain arte aipatutako zaintzaren eta erreprodukzioaren esparru izateko mugapena eman zaio eta espazio publikoari aldiz, produkzioaren eta kontsumoaren espazio izatekoa.

Naturak eskaintzen dituen baliabideak eta nekazarien eskubideak ustiatzen ari gara. Nekazarien beraien egoera aztertzeko modukoa den bezala, emakume nekazarien problematika konkretuak kontuan hartu behar ditugu. Orain arteko analisietan, produkzioa erdigunean kokatu izan da, zaintzen esparruari garrantziari eman gabe. Honela, emakume baserritarren lanaren zati handi bat ezkutatua izan da. Ikuspegi merkantilista alde batera utzi eta orokortasunean begiratuz gero, orain arte atzeman gabeko errealitateekin egingo dugu topo.

Sistemak, etekinak lortzeko helburuarekin, herritarron bizilekua, jatekoa eta ogibidea mugatzen ari da eta herritarren beharrei muzin egiten die. Honek, gure gorputza eta elikadura zaintzeko eta beraz, bizi osasuntsua izateko aukera murrizten digu. Osasunaren krisiaz hitz egin genezake ere kasu honetan. Gorputzak gaixotu, kutsatu eta agortzen dituen ereduan sakontzen ari gara. Aldi berean, gorputz eta gaitz batzuk medikalizatzeko joera etengabeak aztertu behar ditugu. Medikuntza klasiko androzentrikoak emakumezkoak dituzten eraginak baztertu izan ditu orain arte eta horretan sakontzea ezinbestekoa da.

Eremu politiko-instituzionala: Berdintasun formala ezbaian

Gai publikoak, eta beraz guztion interesekoak, gizon eredu konkretu bati (zuria, heterosexuala, klase erdi-altukoa, heldua) begira egin dira, bera baitzen politika publikoen erdigunean zegoen figura. Emakumeak herritartzat hartzea feminismoari zor diogun lorpena da.

Instituzio publiko politikoetatik berdintasuna lortzeko hainbat estrategia garatu dira: hala nola, ekintza positiboa, mainstreaming-a, jabekuntza estrategiak, gobernantza eta politika feministak. Horrek guztiak aukera berriak ireki ditu emakumeak subjektu gisa aitortuak izan gaitezen eta aurrera begira, aldaketan parte aktibo izan gaitezen. Hala ere, mugak antzeman dizkiegu proposamen eta ekintza hauei, batez ere erabakietan eragiteko orduan, ahalmen gutxiko markoak baitira asko eta asko.

Landutako estrategiei dagokienez, esan genezake emakumeon ahalduntzea izan dela politika horien helburu nagusietako bat. Hutsune bat badago batzuetan; hain zuzen ere, ez dela inongo harreman zubirik eraikitzen jabekuntza politika batzuen eta mugimendu feministaren artean.

Ikuspegi intersekzionala. Erronketako bat praktika, diskurtso eta gorputz ezberdinak ikusgarri egitea eta indartzea da. Gorputzen arteko harremanak ulertzeko, sexua, generoa eta desioa beste modu batez ulertzeko aukera guztiak eskaintzeak errealitatean du eragina. Ikusgarri egiteak begirada zabaldu ez ezik, indarkeria handia jasaten duten gorputzei bizitza bizigarriagoak bizitzeko aukera ere eskaintzen die.

Herriak erabaki. Erabakitzeko eskubidea eta autodeterminazio eskubidea ukatua dugu eta honen alde lan mordoa egiten ari bagara ere, oraindik behintzat ikuspegi feminista ez da txertatu ziklo politiko berrian. Prozesu demokratikoak herritar guztien eskubide guztiak bermatu eta sentsibilitate guztiak konponbidearen partaide egin behar ditu. Bide horretan emakumeon eskubideak kontutan hartu, aitortu eta bermatzeko neurriak hartzea ezinbestekoa izango da.

Eremu ideologiko-kulturala: Ideologia patriarkalaz eta erresistentziaz

Burujabetza feministak izan behar du gure helburua, baina hau ez dugu egoera ideal, estatiko eta mugiezin baten gisara irudikatzen, prozesu dinamiko eta momenturo aldakorra izango den ipar moduan baizik. Demokratizazio prozesu bat izan behar du, demokrazia muturreraino eramanez, justizia soziala eta parekidetasuna helburu izango dituena.

Rol sozialak modu ezberdinean egozten zaizkie gizonei eta emakumeei. Irudikapen horiek, egungo egitura sozial patriarkalean, emakumeen menpekotasun historikoa mantentzeko helburua dute.

Komunikabideak, publizitatea... emakumeak objektu bezala irudikatuak. Komunikabideek errealitatea ulertzeko eta ehuntzeko boterea daukate. Boterea bortxazko formekin lotzen badugu ere askotan praktika askoz zoliagoa izaten da. Izendatzea, definitzea eta kategorizatzea da komunikazio talde handiek duten botere ariketarik indartsuenetako bat. Horren azken hartzaileak pertsonak dira. Alabaina, guztiok ez gara ekoizle neurri berean. Botere harremanek zeharkatzen dituzte harreman sozial, kultural eta politikoak, eta pribilejio egoeran daudenak dira eragin ahalmen handiena dutenak. Bizi gaituen sistema patriarkalean, dominazio harremanek markatzen dute araua, hegemonikoak ez diren identitateen bazterketan oinarrituz. Emakumeak, identitate sexual ez normatibokoak, ekoizpen bideen jabe ez direnak, hegemonikoak ez diren kulturak, hizkuntzak, herriak… erabaki organo nagusietatik kanpo geratzen dira.

Bestalde, emakumeen identitateari dagokionez, besteekiko duten harremanaren baitan eraikitzen da gehienetan, bereziki familiari eta amatasunari lotuta agertuz eta gutxitan modu autonomo eta agentziadun batean. Emakumeak irudikatzeko modu honek, erreal edo egiazko bihurtzen du emakume eredu jakin bat, amarena, betiereko zaintzailearena, espazio pribatura dedikatzen denarena. Beste hainbeste kasutan, emakumea ez irudikatzea izan ohi da menpekotasun hau irudikatzeko modua, ikusezintasunaren logika aplikatuz.

Funtsean, bada, informazioa ekoiztu eta zabaltzeko egitura eta prozesuetan ematen diren dimentsio guztietan sexismoaren eraginak ikus daitezke: medioen jabego eta kontrolean, testuinguru soziokulturalean, ekintza supranazional zein lokalean, publizitatearen presioan, erredakzioaren antolaketa hierarkikoan, identitate profesionalaren eraikuntzan, diskurtsoaren sorreran, errealitatearen tematizazioan, iturri informatiboen sinesgarritasunean eta publikoaren eraikuntzan. Den denak daude genero-harremanekin lotuak.

Kultur adierazpenak. Kulturak jendarte-kohesioa lortzeko eta, horrenbestez, identitate kolektibo partekatua osatzeko baliabideak eskaintzen dituela esan daiteke. Azken finean, kulturak birsortzeko eta bizirauteko bideak ematen dizkio bere burua halakotzat duen edozein jendarte-talderi. Ideia horretatik abiatuz gero, kulturari buruzko azterketa orok uzten dizkigu agerian kulturak boterearekin dituen loturak.

Gaur egun jaiek eta erritoek, jendarte ordena erreproduzitzen dute, egungo hierarkiak, botere harremanak, diskriminazioak, rol banaketa eta emakume eta gizonen irudi idealizatuekin batera. Tradizioa ez da ezer hertsia, monolitikoa eta esentzian oinarrituta; bizirik dagoen zerbait da.

Horretaz gain, euskal izendegiaren gaiari heldu nahiko genioke ere. Euskal Herrian, askotarikoak izan dira pertsonen izenak bildu dituzten zerrendak. Izendegi ezberdinak egon dira, eta garai eta ideologia desberdinen arabera aldatuz eta tokian tokiko errealitatera egokituz joan dira. Izenak sexuen arabera bereiztean jendarteko genero-sistema binarioa erreproduzitzen dugu eta bereizketak norbanakoaren eraikuntzan eragin zuzena du. Horregatik, erregistroetan haurrei euskal izenak jartzeko dauden mugak deuseztatzea behar -beharrezkoa da, aurrera baino, kasu honetan atzera goazelako.

Hala ere, azken urte hauetan aurrerapauso handiak eman ditugula deritzogu; bai kultur eremu ezberdinetan emakumeen parte hartzeari dagokionean (bertsolaritzan, musika taldeetan, literaturan, arte adierazpen desberdinetan, argazkilaritzan e.a.) baina baita ikuspegi feminista txertatzeari begira ere, gero eta ekimen gehiago baitaude.

Hezkuntza. Eskola parekidera bidean, hezkidetzaren aldeko apustu irmoagoa behar dugu. Hezkidetza plana aurkeztu zuen Hezkuntza Sailak baina martxan diren hezkidetza programa gehienak ikastetxearen borondatearen eta duten aurrekontuaren araberakoak izaten dira. Beraz, askotan borondatea bai, baina baliabideak eskasak izanik, ahal dutena egiten dute ikastetxeek. Egun, hezkuntzan dauden murrizketa ekonomiko eta pertsonalek are zailagoa egiten dute hezkidetzaren aldeko apustua aurrera atera ahal izatea. Apustu izatetik, sailaren erronka eta helburuetako bat izatera pasatu beharko luke, behar dituen baliabideekin ornitu dezan plana.

Arrakalak haitzean. Sexuen arteko harremanei dagokienez, eredu heterosexuala da araua. Pentsamendu heterosexuala, sistema patriarkalaren oinarrian dagoen ideologia eta praktika politikoa da. Dikotomia jakin horien bidez sortzen dira identitateak.

Heteroaraua, komunikabide eta iruditegi kolektiboan hain errotuta dagoen maitasun erromantikoaren ideologiak sostengatzen du. Honek, bikote heterosexuala bilatu, bizitzaren erdigunean jarri eta emakumeok zaintza lanak maitasunagatik egitera bideratuko gaitu, harremanetan kontrol eta sufrimendu logika ezarriaz.

EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK

Eremu sozio-ekonomikoa:
Krisia, bizi baldintzen kaskartzea eta ditugun aukerak

Bizitzaren iraunkortasuna politika publikoen erdigunean kokatuta dagoen (biziera ona) beste eredu batera igaro behar gara, unibertsaltasuna (pertsona guztiek baldintza duinetan bizi behar dute), eta singulartasuna (esperientzien eta bizi-baldintzen aniztasuna errespetatuz) kontuan hartuko dituena.

Emakumeak zaintzaile izateko jaio garenaren ideia apurtu nahi dugu, eta zaintzeko eta zaindua izateko asmoa duenari bere eskubideak bermatu behar dizkiogu.

Lana soberan, enplegu duina faltan. Ekonomiari dagokion premiazko politika publikoak behar dira, krisiaren aitzakiapean egindako murrizketak eta lanaren banaketa sexualak eragiten dituen ezberdintasunak handiak direlako oraindik ere. Hala ere, epe ertain luzera begira jarri behar gara ere eta zaintza erdigunean kokatuko duen jendarte sistema ekonomiko baterantz begira jarri behar gara.

Indarkeria matxista. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak dira helburu nagusienetako bat.

Esan bezala, indarkeria agerikoena da gaitzespen sozial handiena lortu duena, baina oraindik indarkeriaren oinarria bera eta hainbat indarkeria zuzen ikusgarri egiteko daude. Horretarako, behar beharrezkoa dugu indarkeria mota guztiez hitz egitea, baita jasaten duten gorputz guztiak erdigunera ekartzea, homofobia, lesbofobia, transfobia.. jendarte heterosexistaren ondorio diren heinean erdigunera ekarri behar ditugu.

Ingurune bizigarriak. Espazioen banaketa dikotomikoa gainditzeko, mugikortasuna behar -beharrezkoa izango da, ahalik eta irisgarrienak izan beharko lukete gure herri eta hiriak, baita seguruak ere. Orgatxoak, aulkiak, mugikortasun murriztua duten gaixo eta abarren irisgarritasuna funtsezkoa da talde-garraioaren erabilera sustatzeko eta ahalbidetzeko.

Gure denboraz, bizi uneez, produkzioaz, zaintzaz, gorputzez, lanaz, desioez... erabat jabetu nahi duen sistemaren aurrean gaude. Inposaketaren eta indarkeriaren bidez egoera hau sostengatzera behartzen bagaituzte ere, guk aldaketa gure mesedetan baliatzeko aukera badugula sinistu behar dugu.

Eremu politiko-instituzionala: Berdintasun formala ezbaian

Bizitzaren iraunkortasuna (hau da, pertsonen bizitzaren zainketa) politika publikoen erdigunean kokatu behar da. Argi dago honek politika publikoen edukietan eraldaketak ekarri behar dituela, baina horretaz gain erabakitzeko eta jarduteko modu demokratikoagoak diseinatzea eskatu behar digu.

Erakunde eta eragileen arteko koordinaziorako eta elkarrizketarako mekanismoak hobetu behar ditugu. Mugimendu feminista mintzakide politiko bezala ulertu behar dugu eta bai haiek zein parekidetasunaren alde lan egiten duten elkarteek parte hartzen duten espazioei erabakitzeko ahalmen handiagoa eman behar diegu.

Jabekuntzaz ari garela, jabetze pertsonal eta kolektiboa bultzatzea ezinbestekoa da. Indibidualismoak harrapatuta gaituen egunerokoan beste gako bat dela deritzogu: pertsonala politikoa delako ideiari heltzea.

Politika feministak ez direnez emakumeei begira burutzen diren politikak, jendarte osoaren mesederako eta parekidetasunerako bideratuak dauden heinean, konpartituak behar dute izan. Jomugan ez gaude jadanik emakumeak, emakumeen desabantaila eta desberdintasun egoera sortzen dituzten jendarte-dinamikak baizik.

Ikuspegi intersekzionala. Genero ezberdintasuna kontuan hartzeaz gain, gainerako zapalkuntza-faktoreak nola gurutzatzen diren identifikatu behar dugu. Honela parekidetasun handiagorantz eraman gaitzaketen aurrerapausoak lortuko ditugu.

Laburbilduta, periferietara eta bazterretara begiratu, eta subjektua emakume-zuri-heterosexual ardatz nagusietatik askatu behar dugu.

Eremu ideologiko-kulturala: Ideologia patriarkalaz eta erresistentziaz

Menpeko, objektu... nahi gaituen jendarte egitura patriarkal honetan, emakumeei gure gorputzengan erabakitzeko dugun eskubidea murrizten zaigu (abortuaren erreformak besteak beste, historikoki aldarrikatutako abortu libre eta doakoa ez du bermatzen). Besteen (senar, mediku, aita-estatuen) onespena eta baimena behar duten adin txikikotzat jotzen gaituzte oraindik ere hainbat esparrutan. Gure gorputzen gaineko erabakiak hartu

nahi ditugula diogunean, besteak beste, heriotza duina bezalako gaiak ateratzea ezinbestekoa ikusten dugu.

Pertsona burujabeez ari garenean, norbanakoen gaineko eskubideak bermatzeaz aritzen gara. Burujabetza feminista da lortu nahi duguna. Buru-k, prozesu indibidual eta kolektiboa dela irudikatu nahi du. Indibiduala, gure buruaren, gorputzaren jabe izatea adierazten duelarik. Osasuntsu egoteko bideak jorratzeko aukera izatea, elikadura burujabetza, ekonomikoki burujabeak izatea, ... Eta indibiduo ahaldunduek, komunitatearen eraikuntza eta babesari erantzungo diote. Horretarako, herritarron parte hartzeari, herri prozesuei, gatazken konponbideetan parte hartzeari bidea ireki beharko zaie. Jabe-k erabakitzeko eskubideari egiten dio erreferentzia. Ahalmen politikoa izateaz ari gara baina baita, ahalduntzeari (aldaketarako dugun gaitasunari) begiratu nahi diogu ere.

Eremu ideologiko-kulturaren arloan emakumeen presentzia sustatu beharko litzateke, indar berezia eginda emakumeen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualei laguntzak emateko erregimenetan. Hartara, arte eta kultura-organigramaren barruko balorazio-batzordeetan, kontsulta-organoetan eta erabakitzeko eta kudeatzeko egituretan presentzia nabarmena bermatu beharko litzateke.

Komunikabideak, publizitatea... emakumeok objektu bezala irudikatuak. Komunikabideek jendartearen iruditegia osatzeko eta birmoldatzeko duen ahalmenaz jakitun, Emakundetik sortutako Begira batzordea bezalako egitasmoen beharra handia da. Hala ere, Begirak duen balioa ez da erabaki eta neurri betearazleen emaitzetan ikusten. Guztiz sinbolikoa da bere figura eta noizean behinean egiten dituzten diagnostiko horiei buelta emateko neurriak martxan jarri beharko ziren.

Hezkidetzara bidean urratsak ematen. Hezkuntza sistemak, sozializaziorako oinarrizko bitartekoa dela jakinik, gaur egun dauden ereduak birsortzeko baino jendartean dauden arazoak gainditu eta jendartea bera eraldatzeko tresna izan beharko luke. Hau da, hezkuntzak pertsona aske eta integralak sortu behar ditu eta jendarte justuago bat lortzen lagundu behar du, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bultzatuz.

Eskolaren historian, neskak eta mutilak elkartzean eskola misto, eta ustez, parekidera heldu ginela uste izan zuten askok eta askok, baina ez zen inolako neurririk hartu jendartean bertan sexu batek bestearekiko jasaten zuen zapalkuntza ekiditeko, eta hala, ikastetxean ere jendartean nagusitzen diren ereduak, estereotipoak, balioak eta abar birproduzitu dira.

Kultur adierazpenak. Kultur adierazpenak gure egunerokotasunera ere heltzen dira, hala nola herri eta auzoetako jaietan. Mugimendu feministak dioen bezala “Garbigailuak eta lapikoak festetan ere ez dabiltza euren kabuz” eta zaintzak erdigunean kokatuko lituzkeen jendarte batean, festen birmoldaketa bat eskatuko luke ere. Honen inguruan hausnartzea

beharrezkoa dela deritzogu, gure herrian “tradizioaren” izenean emakumeon eskubideak sistematikoki urratu izan baitira, adibide batzuk aipatzearren, hortxe ditugu alardeak, Baztango mutil dantzak edo ezpata dantza bera.

Arrakalak haitzean. Gero eta gehiago dira, ama bakarrak, lesbianak, harreman monogamikoetan sinisten ez dutenak, amatasuna bizitzeko era berrietarako hautua egiten dutenak edo ama izan nahi ez duten emakumeak. Horrek orain arteko harreman sozialetan eragin du eta estrategia berriak azaleratu ditu. Eta bide honetatik sakontzen eta baliabideak eta tresnak sortzen jarraitu behar dugula ikusten dugu.

Mainstreaming. Politika feministek alderdi eta esparru guztiak zipriztindu behar dituzte eta hau bermatzeko neurriak eta baliabideak jarri behar dira. Hau guztia koordinatu, hauspotu eta babestuko duen Politika Feministako zuzendaritzak (eta honen behatoki lanak egingo dituen mugimendu feministaren mintzakidetza politikoarekin), arloz arlo hau aurrera atera dadin lagundu eta babestu beharko du.

Intersekzionalitatea. Proposamenak, gaur egun existitzen diren zapalkuntza anitzak gainditzeko bideratuta egon behar du. Zapalkuntzak hierarkizatu gabe eta hauen artikulazioak posizio sozial anitzak sortzen dituztela jakitun, egiturazko aldaketa bat bultzatuko duen proposamena izango da.

ETORKIZUNERAKO NEURRIAK

Eremu sozio-ekonomikoa:
Krisia, bizi baldintzen kaskartzea eta ditugun aukera

· Zaintza lanak, jendartearen sostengu oinarrizkoak diren heinean, jendarte antolaketa ororen erdigunean kokatzeko apustua eginez, Instituzioetatik eta jendarteko beste eragileetatik ere aldarrikapen horrekin bat egin.

· Bizitza sostengatzeko harreman komunitarioak berreraiki eta "komuna"ren espazioa eta logika egituratu.

· Emakume = Zaintzaile = Maitasunagatik ideiarekin apurtzeko beharrezkoak diren erabaki, mekanismo eta lanak burutu.

· Zaintzeko eta zaindua izateko eskubidea bermatu.

· Zainketarako eskubidea jendarte eta ekonomiaren egitura orientatzen duen printzipio bat bezala ikusi.

· Zainketa antolatuen eredua sustatu, bizitzaren iraunkortasunari egindako ekarpenean oinarrituta, biziaren zaurgarritasuna eta elkarren mendetasuna kontuan hartuta

· Ekonomiaren ikuspegi feminista sustatu.

· Ezegonkortasun eta bazterketako egoeran dauden pertsonen kopurua murriztu, genero-alderdiei arreta berezia emanda.

· Pentsamendu feministaren joera guztien ekarpenak gehitu indarkeria matxistaren kontrako politikak antolatzeko orduan, eta indarkeria horren oinarriei buruzko etengabeko hausnarketa garatu.

· Indarkeria matxistaren alorrean, osoko arreta ematen duten zerbitzu eta baliabideen eraginkortasuna bermatu, aurre egin behar dioten emakumeen banakako eta taldeko jabekuntzaren ikuspegitik.

· Elkarlana sustatu arreta ematen duten zerbitzu ezberdinen artean, baita erakunde ezberdinen artean ere.

· Aisialdi- eta ospakizun-eredu baztertzaileei erakundeen laguntzarik ez.

Eremu politiko-instituzionala: Berdintasun formala ezbaian

· Parte hartzea, gardentasuna, elkarlana... bezalako tresnak martxan.

· Emakumeok pertsonen bizitzan eragina duten erabakiak hartzeko espazio eta prozesuetan –erakundeetan edo komunitatean, oro har– parte hartzeko dugun eskubidea bermatu.

· Mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua nahiz burutzen dituzten ekintzak indartzeko baldintzak sortu.

· Genero-mainstreaminga (zeharlerrotasuna) ekintza, alor eta programa guztietan, eta emakumeentzat jabetze-prozesuak lehenetsi.

· Etengabeko formakuntza ezinbestekoa, bai politikarientzat zein langileentzat. Ardura kolektiboa izanik, formakuntzarako eta elkartrukerako espazioak zabaldu.

· Sexu-lanean ari diren pertsonen errealitatea ikusezin ez bihurtzeaz gain, arrazoitu eta subjektu aktibo bezala onartu.

· Gatazka politiko armatuaren konponbidean emakume aktiboak garen heinean, gure parte hartzea aukera berdintasunean eman dadin neurriak definitu eta konponbidean parte hartuko duten eragile politiko, sindikalak eta sozial guztiekin landu.

Eremu ideologiko-kulturala: Ideologia patriarkalaz eta erresistentziaz

· Ikuspegi intersekzionala garatu.

· Homofobia, lesbofobia, bifobia, transfobia eta transfobiaren kontrako lana egin.

· Hezkuntza integrala eta emozionalaren garrantziaz jabetuta Hezkidetzaren aldeko apustuan sakondu.

· Emakumeen presentzia eta begirada sustatu eremu ideologiko-kulturala bultzatzen duten espazio ezberdinetan: Komunikabideak, Kultura, Hezkuntza...

DENON HERRIA

UN PAÍS COMPARTIDO

CURRICULUMAK

Arnaldo Otegirekin talde-lanean

Trabajando en equipo con **Arnaldo Otegi**

Helena Franco Ibarzabal

Unai Pascual

Kepa Altube Eraña

Nerea Idigoras Lasaga

Unai Asurmendi Etxarte

Eider Rodriguez Martin

David Fernandez

Iratxe Esnaola Arribillaga

Oihana Etxebarrieta Legrand

Xabier Landabidea Urresti

Idurre Eskisabel

Jose Mari Usatorre

Iñigo Iruin

Esther Larrañaga Galdos

Helena Franco Ibarzabal

Getxo | 1967

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Baliabide material minimo batzuk funtsezkoak dira munduan lasai bizitzeko. Ez da, jakina, kalitatezko bizitzan eragiten duen faktore bakarra baina bai oinarrizkoa. Gaurko munduan asko daukagu, gainera gauza asko egiten ere badakigu, kontua da hori guztia nola banatzen, erabiltzen, kudeatzen den… Ikuspegi humano eta sozial aurreratu batean sinesten dugunok halabeharrez defenditu behar dugu munduan daukagun ondare eta baliabide guztien banaketa justua, pertsona oro aberastasun sortze kolektibo horretan bere ahalmenaren araberako ekarpenak egiteko prest egon behar den moduan, eta hori guztia, natuari zor diogun errespetua ahaztu gabe. Gure ekarpena, hortaz, ildo horretan doa: denon bizi-kalitaterako oinarri materiala ziurtatzeko proposamena, daukaguna banatuz, ahalik eta modu eraginkor eta justuenean.

HELBURUA

Pertsona guztientzat kalitatezko bizitza bermatuko duen Euskal Herri libre, solidario, jasangarria nahiko nuke, denon artean eraikia, ilusioz, elkar lanean…

ESPERIENTZIA

EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUA (1991AN) ETA EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAN DOKTOREA (2002AN), BIKAIN CUM LAUDE KALIFIKAZIOAREKIN.

EKONOMIA IRAKASLEA UPV/EHUN
1992tik (Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan). Ikerkuntza eta irakaskuntzarekin loturik, hainbat argitalpen, ikastaro, mintegi, burutu ditu, atzerriko egonaldiak barne (Gales, Finlandia, Eskozia).

OGASUN ETA FINANTZA DIPUTATUA, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2011-2015 legegintzaldian

HIZKUNTZAK:
Ingelesean goi mailako titulua, frantsesean erdi mailako titulua

UEUKO KIDE 1997AZ GEROZTIK
Gaindegia (Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garpenerako Behategia) erakundeko kide eta kolaboratzaile sorreratik, eta zuzendaritzako kide 2009-2011an.

EZKER ABERTZALEKO KIDEA GAZTE GARAITIK
(gazte mugimenduan, herri mugimenduan, herritar batasunean)

HIRU SEME-ALABAREN AMA

Unai Pascual

Gasteiz | 1973/04/02

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Herri arduratsu bat ingurumen justizia haintzat hartuko duena. Ardura pertsonekiko eta naturarekiko, eta baita pertsona eta naturaren arteko erlazioarekiko (identitate eta kultura aniztasuna). Ardura beraz (1) euskal herrian bizi den oraingo belaunaldiarekiko, (2) etorkizuneko belaunaldiekiko, eta (3) orain eta etorkizuneko, baina gure herritik urruti bizi(ko) diren edozein pertsonarekiko, batez ere sistema neoliberalak naturan eta ingurumenean kalte egiten duen einean, inpaktu ezkorrak jasotzen dituztenekiko.

HELBURUA

Justizia soziala eta ingurumen justizia ardatz dituen ekonomia ekologiko baten proiektuaren inguruan batzen den euskal gizarte arduratsu bat.

ESPERIENTZIA

INGURUMEN EKONOMILARIA
25 urteko esperientzia profesionala (horietatik 15 urte Erresuma Batuan).

INGURUMEN EKONOMIAN DOKOTOREA
York-eko Unibertsitatea, Erresuma batua. *2002*
Ingurumen Ekonomian masterra (1997); Nazioarteko eta Garapen ekonomian lizentziatua Sarrikon, EHUn (1996).

IKERBASQUE
Fundazioko Goi Ikerlaria ("Ikerbasque Research Professor"), Basque Centre for Climate Change (BC3) ikerketa zentroan ikerlari seniorra eta Cambridge Unibertsitateko irakasle gonbidatua.
2012 urtetik gaur egunera arte

CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA *2002-2012*
Manchester Unibertsitateko irakasle Seniorra (2000-2002), Deusto (2005-07). Beste unibertsitatetan irakasle gonbidatua (EHU, UEU, Wyoming, La Pampa, Bartzelona, Yucatan, Rep. Dominicana).

NAZIO BATUAK
Ingurumen ekonomiaren arloan aholkularia.

LAN UGARI ARGITARATU
6 liburu, 125 artikulu zientifiko baino gehiago, 50+ nazioarteko kongresuetan hitzaldiak.

MILITANTZIAZKOA

- Euskara: Gasteizko euskara mugimenduetan aritua eta Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea urte askotan.
- Internazionalismoa.
- Ekologismoa.

Kepa Altube Eraña

Gasteiz | 1973/04/02

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Herri dinamikoa eta adimentsua osatzeko bertan bizi diren pertsonentzat heziketa integrala eta anitza eskaini behar du, Euskal Herria eta euskara oinarri izanda pertsonak guztiak, formazio anitza eskaini eta izango du. Haurtzarotik hasi eta bizi osorako heziketa integrala. Herri bat pertsonaren garapenean lagunduko duena duintasuna eta elkartasuna indartuz. Lanbide Heziketa eta goi mailako ikasketen bidez, Euskal Herria eraikitzen lagunduko du irizmen internazionala izan eta erreferentea izango dena, metodologi, kurrikulumn, teknologia, proiektu eta baliabide berriak landuko dituena.

HELBURUA

Herri baten nortasunaren , garapenaren, sorkuntzaren eta osasunaren zutabe garrantzitsu bat hezkuntza eta Lanbide Heziketa delako, Herriaren eta pertsonaren duintasunerako oinarri izatea, egungo munduan, Euskal Herritar moduan, askatasunean bizitzeko

ESPERIENTZIA

ARTE EDERRETAN LIZEZTZIATUA 1989

IRAKASLEA LANBIDE HEZIKETAN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN 27 URTE

IKASTETXEKO ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA KARGUETAN 2O URTE

IKT ETA BERRIKUNTZA KUDEATZAILEA 7 URTE

EUSKARA, LANBIDE HEZIKETA ETA LAN MUNDUKO FOROETAN PARTAIDE

LANBIDE HEZIKETAN EUSKARA SUSTATZEKO EKIMENETAKO PARTAIDE

BESTE BATZUK:

- **HERRI ETA GAZTE MUGIMENDUETAN LAGUNTZAILE**
- **MURALISTA**
- **TXALAPARTARIA**

Nerea Idigoras Lasaga

Gasteiz / 1978-08-29

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Natura, ziklo naturalak, eta bioaniztasunarekiko harremana berreskuratu eta ondorengo belaunaldientzako lurraren emankortasuna eta baserriari loturiko kultura errespetatuko duen gizartea. Orain multinazionalen esku dagoen elikatzeko eskubidea berreskuratuko duen gizarte bat, sektore desberdinetan pertsona ugariek eraikitzen dabiltzan alternatibekin batera, elikadura burujabetzaren aldeko apustua egiten duen gizartea, neoliberalismoaren aurrean eredu alternatibo bat sortu ahal izateko.

HELBURUA

Gure herrian, eredu iraunkorrean, agroekologikoan landuak, kulturalki egokiak, multinazionalen eskakizunei muzin eginez ekoiztuak, banatuak eta kontsumituak diren elikagaiak ekoiztu ahal izatea. Tokiko ekonomia, eskubide sozialak eta ingurumena oinarrian jartzen dituen gizarte bat lortzea.

ESPERIENTZIA

INGURUGIRO KIMIKAN TEKNIKARIA

NEKAZARITZA MUNDUARI LOTUTA EGINDAKO LANAK:

- 2001 urtetik gaur arte Arabako nekazari eta abeltzain ekologikoen elkartean koordinatzaile lanetan nabil.
- Hiria eta nekazal munduaren arteko elkarguneak sortzen aritua.
- Gasteizko azoka ekologikoaren sorkunduaren koordinatzailea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzaren azpisektoreen arteko aliantzen bultzatzailea.
- Elikaduraren inguruko sentsibilizazio kanpaina desberdinen dinamizatzailea.
- EH-ko nekazal eragileekin hainbat proiektuetan parte hartua.
- Via Campesinaren bitartez munduko baserritarrekin hartueman ugari (Kuba, Brasil Indonesia...)
- Nekazal munduko aldizkari desberdinekin kolaborazioak.
- Fruta ekologikoa ekoizteko proiektu bat martxan daukagu herrian orain dela 3 urte

MILITANTZIAZKOA

Nire lanaren zati haundi bat militantziazkoa izan da betidanik.

Unai Asurmendi Etxarte

Intxaurrondo | 1976/11/25.

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Kirola, gure gizarteko kultura aldarrikapen nagusia da, pasio eta emozio bizien iturri. Bizitza era aktibo bat bereganatzen badugu izugarrizko iraultza gauzatuko dugu, gugan eta gure inguruan. Noski, tresna paregabea izango dela osasunerantzat, ingurumenarentzat, gizarte-berdintasunarentzat edota gizon-emakumezkoen parekidetasunerantz. Baina, sendentarismoaren aurkako olatuaren urrea gure gizaki senarekin bat egiten dugula da. Bere buru, bihotz eta gorputzarkin bat egin duen pertsonak aktiboak dira eta aktiboagoak dira gatazken konponbidearen aurrean.Norbanakakoren bizipozak eramango gaitu gizarte alai-eraldatzaile baterantz. Mugitzen den herria ez da sekula hilko!

HELBURUA

Jarduera fisikoa eta kirola bere bizi ohituretan integratuta izango duten herritar aktiboz osatutako gizarte eraldatzaile eta alaia.

ESPERIENTZIA

FORMAZIOA.

Lizentziatua, Jarduera fisiko eta kiroletako zientzietan. EHU.

Irakaslea, Heziketa fisikoko espezialitatean. EHU.

Trebatua, Hezkuntza psikomotorran. UNED Bergara.

JARDUNBIDE PROFESIONALA.

Tokiko kirol udal kudeatzaile, udalerri bateko zerbitzu-buru eta egun kiroldegiko gerentea.

Heziketa fisikoko irakasle, Euskal Herriko hainbat eskola publiko eta kontzertatutan.

Kudeatzaile eta begirale, eskola-kirola eta eskola aisiaren hezkuntza kudeaketan.

Entrenatzaile, igeriketa eta ziklismoan.

Beka zuzendari, euskarazko kirol fitxa didaktikoen sorkuntzan.

Hondartzako sorosle eta sorosle-buru izandakoa.

MILITANTZIA.

KAIT-Kirolaren euskal kudeatzaile taldeko kide.

Kirol elkartegintzako hainbat klubetan, entrenatzaile, kudeatzaile eta parte-hartzaileen irribarren sustatzaile.

Eider Rodriguez Martin

Errenteria-Orereta, 1977

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Kultura estrategikoa da hamaika menpekotasunen baitan bizi den Euskal Herria bezalako estaturik gabeko herri batean, identitate kolektibo zein indibidualari loturik, baina baita aro digitalean behar bezala txertatzeko edota historikoki euskara sarraskitzen ahalegindu den Estatu-nazioaren kultura hegemonikoak irents ez dezan ere.

Kultura gure bizitzen erdigunera ekartzeko garaia da, kultur politika ausart eta anbiziotsu baten aldeko apustua egiteko garaia.

HELBURUA

Kulturak bizi duen ostrazismotik ateratzeko eta lehen lerrora ekartzeko beharrezkoa den kultur politika eta kudeaketa sustatu.

ESPERIENTZIA

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA ETA LITERATURAN DOKTOREA.

TXALAPARTA ARGITALETXEKO EDITORE.

ETB1EKO “SAUTRELA” SAIOKO GIDOILARI.

2008TIK HONA IRAKASLE EHUKO HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEAN, DONOSTIAN.

HIRU IPUIN-LIBURU KALERATU DITU: Eta handik gutxira gaur (2004), Haragia (2007) eta Katu jendea (2010) eta Itsasoa da bide bakarra. Sarrionandia irakurriz saiakera liburua (2014).

David Fernàndez

Països Catalans | 1974

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Compartir un país es construirlo entre todas y todas y no permitir que los intereses de unos pocos decidan por la mayoría, convirtiéndonos en electores ocasionales, espectadores pasivos y consumidores fallidos. Frente al fraude neoliberal de las élites, la degradación democrática y el auge de las desigualdades, cabe la autodefensa democrática: retornar la palabra a la gente, recuperar la voz y hacer respetar la libre voluntad popular. La obertura de un proceso constituyente vasco es hoy, ahora y aquí –como en todo el sur de Europa y en tiempos de capitalismo senil–, la mejor garantía democrática para un futuro en libertad y tal vez la única alternativa para avanzar hacia la justicia social y ambiental desde la ética de la decencia. Construir en común un refugio social y democrático al servicio de las clases populares implica, pueblo a pueblo, ampliar y extender prácticas colectivas de radicalidad democrática y autogestión social; potenciar un tejido popular activo, dinámico y autónomo; multiplicar las lógicas comunitarias y fomentar la cooperación social. El Auzolan del XXI.

HELBURUA

Democratizar la democracia y retornar el país a sus legítimos propietarios: la gente. Y con luces y taquígrafos, construir un país libre de corrupciones, fraudes, e imposiciones.

ESPERIENTZIA

David Fernandez (Països Catalans, 1974) es periodista, cooperativista y militante en la izquierda independentista catalana. Ha sido diputado y portavoz de la CUP en el Parlament de Catalunya en la X Legislatura (2012-2015), donde fue ponente de la ley de Transparencia y presidió la Comisión de Investigación sobre Fraude Fiscal y Prácticas de Corrupción Política, surgida al albur del Caso Pujol. Actualmente, ha vuelto al semanario de los movimientos sociales ‘Directa’ y coordina el proyecto de la CUP ‘Luz y taquígrafos’ –observatorio de la corrupción– y es miembro del Grup de Treball Contra la Corrupció, una iniciativa social en red que aúna experiencias, conocimientos y prácticas en la lucha contra la corrupción y la defensa de los alertadores.

Iratxe Esnaola Arribillaga

Zarautz | 1981

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Elkarlana eta besteekiko enpatia/errespetua berezko ezaugarri izango duen herri bat. 'En un país compartido', beharrezkoa da gure herria plurala dela eta denentzat gobernatu behar dela barneratua duen kultura politiko bat (gobernuan edozein dela ere). Eta kultura politiko horren baitan, herriari eragiten dioten erabakietan, beste alderdi/koalizioekin elkarlana ezinbestekotzat jotzen duten arduradun politikoak behar dira. Hau da, batzen gaituzten auzietan zentratu, ezberdinen arteko elkarlana sustatu eta elkarlan hori etengabe garatzen duen herri bat.

HELBURUA

Euskal Herrian (EAEn) bizi garen pertsona guztiok eskubideak bermatuta eta oinarrizko beharrak asetuta izango ditugun jendarte plurala, inklusiboa, justua, jasoa (kultua), enpatikoa, solidarioa eta arduratsua.

ESPERIENTZIA

FORMAZIOA: INGENIARIA INFORMATIKAN (2004) ETA DOKTOREA HEZKUNTZAN (2015)

ESPERIENTZIA PROFESIONALA:

- 2004tik Deustuko Unibertsitatean, Deustu Business School-en baitan.
- 2006tik Gara-ko kolaboratzailea (eta beste zenbait hedabidetan, kolaborazio puntualak edo epe laburragokoak)
- 2007-2015 .EUS domeinuaren proiektuaren koordinatzailea eta komunikazio arduraduna. .EUS domeinua eskatu, lortu, abiatu eta publiko orokorrari eskaini arte. Egun, PuntuEus Fundazioaren patronatu-kide eta fundazioaren idazkaria naiz.
- 2008tik, sare sozialen lanketarako deitzen naute hezkuntza zentro publiko eta pribatuetatik, LH eta DBH mailetarako. Ikasleei edota guraso/hezitzaileei zuzenduta.

MILITANTZIA

- Herriko ezker abertzalean, urteetan zehar. 2007tik, batez ere, hauteskunde kanpainetan, komunikazio lantaldean.
- .EUSek militantzia zati handi bat du niretzat (diru-sarrera bat nuen arren).
- 2013tik, UEUko talde eragileko edo zuzendaritzako kide naiz. Hasi orduko, Euskal Unibertsitatearen lerroan kokatu nintzen eta hor inplikatu naiz.

Oihana Etxebarrieta Legrand

Hondarribia, 1987/06/10

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Pertsonak eta ongizatea erdigunean jarriko dituen politika feministak, bizitza duinak eta bizigarriak ekarriko ditu, eta horren bidean urratsak ematen hasi behar dugu. Pertsonaletik abiatuta, politikora so egingo dugu, eta politikotik jota pertsonalean eragingo dugu. Parekidetasuna jendarte demokratiko baten oinarrizko elementua da eta bide horretan urrats ausartak ematen hasi behar gara. Mugimendu feminista mintzakide politikoa izan behar duela sinetsita, bide horretan ekarpen txiki bat egingo dugu, eztabaida handiak eta erabaki konpartituak lortzen joateko.

HELBURUA

Politika feministak erdigunera ekartzea eta jendarte parekiderantz urrats konpartituak ematen jarraitzea.

ESPERIENTZIA

FORMAKUNTZA

- Kazetaritzan lizentziatua (EHU)
- Haur hezkuntzan diplomatua (EHU)
- Hezkidetzan aditua (Bizkaiko Urtxintxa Eskola)
- Ikasketa feministak eta generokoak masterra (EHU) Harreman afektibo sexualak espetxe garaian: Askatasun (g)une? master amaierako lana burutua

LAN ESPERIENTZIA

- Euskal Herriko Bilgune Feministako komunikazio arduraduna
- Hainbat komunikabideetan aritua artikulugintzan, kazetaritza lanetan, tertulietan... (Info7, Argia, Antxeta Irratia, Hala Bedi irratia, Hitza...)
- Hezkidetzaren inguruko saioak eman ditu urte luzez Bizkaiako Urtxintxa eskola eta Emagin zentroarekin. Komunikazio parekidean aritua (Gabiltza emakume adituen datu basea, tailerretako formazioa, SMART...) baita gatazkaren analisi feministan ere (UEUren baitan Euskal Herriko gatazkaren irakurketa etorkizuneko bake feministaren bidean ikastaroaren antolaketan ibili zen eta egun iruditegien inguruko analisia egiten dabil).

MILITANTZIA

- Herri ekimeneko komunikabideetan
- Euskal Herriko Bilgune Feministan (Irungo taldean, Komunikazio lan taldean, gatazkaren konponbiderako arloan...)
- Emakumeek euskal gatazkan eta espetxe politikan duten egoeraren inguruko espazioetan (Mintegiak antolatzen, hitzaldi eta mahainguruetan parte hartzen...)
- Ikasle Abertzaleak eta herri mugimenduko espazio ezberdinetan

Xabier Landabidea Urresti

Bilbo, 1981/08/05

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Gizarte garaikideak azkar eta sakon aldatzen ari dira, eta euskal gizartea(k) ez d(ir)a salbuespena. Hala ere Informazio eta Komunikazioaren Teknologien garapen eta hedapen, komunikabideen bateratze digital eta kontsumo eta praktika kulturalen eraldaketen aurrean besteen parametroetan jokatzen dugu sarriegi, gureak ez diren eskemak errep(l)ikatuz. Egungo eszenatoki aldakorrean euskal singularitatea aukera bat da, planteamendu, garaikide, eraikitzaile, gureago, bidezkoago eta baikorragoetatik izan gaitezkeen herria eraikitzeko.

HELBURUA

Hizkutza, kultura eta gizarte mailan Euskal Herri garaikidearen aukerak identifikatu eta etorkizunari begira gure parametroetan jarriko dituen herri proiektua.

ESPERIENTZIA

FORMAKUNTZA

- Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Administrazio eta Politika Zientzietan lizentziatua (EHU)
- Ikus-entzunezko, Enpresa eta Erakunde Komunikazioan EiTB-Deusto Masterra (DU)
- Euskal Pentsamendu Kritikoa XX-XXI mendeetan Unibertsitate espezialista (UEU-EHU)
- Euskal Kulturaren Transmisioa Graduondoa (MU)
- Aisia eta Giza Potentzialean Doktorea (DU)

LAN ESPERIENTZIA

- Ikerlari eta irakaslea
- Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko ikerlari elkartua
- Aisiazko Ikaskuntzen Institutuko ikerlaria (2007-2014)
- Westminsterreko Unibertsitatean ikerlari gonbidatua (2011)
- Euskal Gaien Institutuko ikerlaria (2014-tik gaur egunera)
- Herri kultura, arte adierazpide, aisia eta komunikazioarekin lotutako hogeita hamar ikerketa proiektu baino gehiagotan parte hartu du. Bi liburu eta hogeita hamar artikulu eta kapituluren egilea da eta nazioarteko hogei kongresu baino gehiagotan hartu du parte hizlari bezala. IKT eta herri kulturarekin lotutako hainbat irakasgairen arduraduna eta ikasleen lanen zuzendaria izan da graduko ikasketa, master eta doktorego mailan.
- 2014ko Euskal Gizartearen Egoera Sariaren irabazlea “Euskaldunok eta telebista XXI. Mende hasieran” saiakerarekin. 2015eko IkerGazte kongresuko Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea saria.

MILITANTZIA

- Herri ekimeneko komunikabideetan aritua: Ibaizabal telebista, Bilbo Hiria Irratia, Info7 irratia, 97 irratia...
- UEUko Komunikazio Sailburua.
- Errota Digitala elkarteko sortzaile eta kidea.
- Bilboko EH Bilduko kidea.

Idurre Eskisabel

Beasain / 1970

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Guk, XXI. mende honetara euskal herritar izateko gurari eta borondatez iritsi garen jendeok, badugu honaino sen horrekin iritsarazi gaituen asabiya-ren arrastoa: euskara da, eta euskararen izate eta bilakatzearen inguruan txirikordatu dugun bizi eta kultur ondare askotariko eta kontraesankor guztia.

Birsortzeko garaiak dira. Berritu dezagun asabiya, baina ez dezagun uka. Ken diezaiogun euskarari esentziaren lasta, eta uler dezagun euskarak ematen digula txiki, bestelako eta askotarikoaren ikuspegia, geure bagara ez ezik mundua dibertsoago, justuago eta demokratikoago egiteko begirada. Gutasun ireki, inklusibo eta porotsurako bidea, gu beste eta besteak gu garela ahalbidetzekoa.

HELBURUA

Euskal Herriak euskara eta hartan txirikordatutako bizi eta kultur ondarea du du herri irauteko argamasa edo asabiya-ren parte funtsezkoa. Eta gure egungo mundu honetan euskarak iraungo badu egiazko gorpuzte soziala iritsi behar du, eta hartarako estatu egiturak behar ditu.

ESPERIENTZIA

KAZETARITZAN LIZENTZIADUNA.
ANTROPOLOGIAN LIZENTZIADUNA.
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO KAZETARITZA SAILEKO IRAKASLEA.

EUSKAL IZENDEGITIK ABIATUTA GENERO ETA NAZIO IDENTITATEAK NOLA ERAIKITZEN DIREN ETA ELKARRI NOLA ERAGITEN DIOTEN AZTERTZEN ARI DA ANTROPOLOGIAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN IKUSPEGITIK.

KAZETARITZAN IBILBIDE LUZEA
EUSKALDUNON EGUNKARIA ETA BERRIA-N EGIN DU LAN, ETA HAINBAT HEDABIDEREKIN KOLABORATU DU: EUSKADI IRRATIA, EUSKALERRIA IRRATIA, INFO7 IRRATIA, GOIERRITARRA ALDIZKARIA, GOIERRI TB...
GAUR EGUN EGUNEROKO ZUTABEGILEA DA BERRIA-N.
JAKIN TALDEKO KIDEA DA.

ARTIKULU ETA KOLABORAZIO UGARIREN EGILEA. FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZAREN INGURUKO HAUSNARKETA GARATZEN IBILI DA AZKEN HILABETEOTAN.

JARDUNA
EUSKARA, FEMINISMOA, ANTZEKOTASUNA, DIFERENTZIA, JENDEA. ASMATZEN

Jose Mari Usatorre

1954

HERRI BAT OSATZEKO APORTAZIOA

Valorar el trabajo colectivo, inteligente y comprometido como base de la generación de riqueza de este pueblo. Realizarlo con un enorme respeto al hábitat que hemos recibido, y a las generaciones venideras.

HELBURUA

Una sociedad autoorganizada, solidaria, generando riqueza sostenible suficiente a partir de empresas en colaboración.

ESPERIENTZIA

FORMACIÓN.

- Bachiler y Preuniversitario: en colegio San Viator de Mondragon y Vitoria. 1968-1971
- Ingeniero Industrial especialidad Organización en la Escuela de Ingenieros de la Universidad de Navarra en su campus de San Sebastián. 1972-1977.
- Cursos especializados : Diferentes cursos de formación especializada en :
    - o Gestión Comercial.
    - o Gestión Financiera
    - o Fusiones y Adquisiciones
    - o Derecho mercantil
    - o Fiscalidad
    - o Derecho Cooperativo
    - o Idiomas
    - o Planificación Estratégica
    - o Modelos Organizativos
- Idiomas : Euskera, Castellano e Ingles hablado y escrito. Francés e Italiano hablado.
- Informática : Word, Excel, PWP, Project, Acces, MindManager, Cognos…

EXPERIENCIA LABORAL.

- Fagor Ederlan y Copreci: trabajos estacionales en línea de producción en los meses de Julio y Agosto. 1972-1973.

- Trabajos temporales: diversos trabajos en sector servicios en Reino Unido en 1977.

- Caja Laboral Popular, División Empresarial : Técnico de Producto 1978-1985. Estudio de oportunidades de negocio en nuevos productos.

- Caja Laboral, División Empresarial: Técnico de Promoción. Lanzamiento de nuevas actividades empresariales. 1986-1991

- Corporación Mondragon : Responsable de Promoción y de la Red Internacional en su Centro Corporativo 1992-1998. Promoción de nuevas actividades.

- Corporación Mondragon : Director de la Unidad de Promoción Empresarial 1999-2014. Promoción de nuevas actividades y adquisición de empresas.

Otras responsabilidades en el período 2000-2015:

• Presidente del Centro de Empresas e Innovación Saiolan.
• Presidente del Polo Científico Tecnológico Garaia
• Miembro del Consejo Rector de varias cooperativas: Loramendi, Sareteknika, Gestión de Servicios Residenciales (GSR), Ategi, Mondragon Utillaje y Sistemas...
• Miembro del Consejo de Administración de diversas sociedades promocionadas por Mondragon para el lanzamiento de nuevas actividades: Biobide, Efficient Home Energy, Ekisun, Solum, LKS Energy, Promoauto, …
• Patrono de: Fundación Gaztempresa y Fundación GSR.
• Coordinador corporativo de las relaciones de Mondragon con el Banco Europeo de Inversiones : 2013-2015.
• Coordinador de los Convenios de Colaboración de Mondragon con el Gobierno Vasco entre 1996 y 2012.
• Miembro de la Junta Directiva de Gipuzkoa Berritzen.

Iñigo Iruin Sanz

Donostia | 1953/06/26

ESPERIENTZIA

Enpresa-ikasketetan lizentziatua (Gipuzkoa, E.U.T.G.).

Zuzenbidean lizentziatua (Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU).

1980ko apiriletik abokatua (Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa).

Zuzenbide Penalean eta Konstituzionalean espezializatua, Entzutegi Nazionalean, Epaitegi Gorenean eta Konstituzionalean eta Estrasburgoko Epaitegian jardun duena.

Zeregin profesionalak tortura delituetako auzietan, Estatu terrorismokoetan, hedabideen itxieretakoetan, alderdi politikoen legalizazio/ilegalizazio eta hauteskunde zerrenden baliogabetze-auzietan, besteak beste.

Senataria (1989/1993) eta Eusko Legebiltzarreko parlamentaria (II, III, IV, V y VI Legealdietan).

Esther Larrañaga Galdos

Bergara | 1955/05/15

NAHIA BAT

Herri bat emakumeen eta gizonen artean eraikita, euskalduna, anitza, giza eskubideetan oinarrituta, desberdinkeriari aurre egingo diona, inork atzean utziko ez duena, atsegina, ekonomia eta erakundeak herritarren beharretara bideratuko dituen horietakoa ..Euskal estaturantz abiatuko den Euskal Herria.

ESPERIENTZIA

ESPERIENTZIA PROFESIONALA

Zuzenbidean Lizentziatua. EHU

Enpresen Kudeaketan Masterra. Deusto.

Gipuzkoako Foru Aldundian funtzionario sartu nintzen 1982. Kultura arloan hasi nintzen lanean eta zuzendaria izendatu ninduten Xabier Lete diputatua zelarik. Garai hartatik datorkit bereziki euskal kulturgintzarekiko grina.

Ondoren, ibilbide politiko luze bati ekin nion, bi urteko etenaldi batekin, Eusko Alkartasunaren izenean eta hainbat arloko ardura izan nuen: Madrilgo Kongresuan (1991-1993) eta Eusko Jaurlaritzan(1995-2009) —Ingurumen Sailburuordea, Justizia Sailburuordea, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburua (2005-2009)—.

Egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazio Zerbitzuko langilea naiz, gobernu irekien gaietan (gardentasuna, datu irekiak, kudeaketa aurreratua). Oro har, administrazio publikoen kudeaketan eta politika publikoen ebaluazioan eskarmentu handiko pertsona.

MILITANTZIA

Feminismoa

Zer nahiko lukeen pertsona horrek “un pais compartido” esaten duenean.

Demokrazia berritu batean eta justizia sozialean errotutako herri duina izatea, euskalduna, identitate anitzez osatuta, jendea ardatz izango duena